# BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ARAUA

## 12/1993 ZENBAKIKO ARAUGINTZAZKO FORU DEKRETUA, URTARRILAREN 19KOA

**(ALHAO, 11. zk., 93-1-29koa, gehigarria)**

(Arabako Biltzar Nagusiek baliozkotua 1993ko martxoaren 3an hartutako erabakiaren bidez)

Abenduaren 28ko 37/1992 Legeak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araupeketa berria egiten du. Araupeketa berri hori elkartearen eremuan barne-merkatua sortu izanetik dator, eta horrek muga fiskalak kentzea dakar eta elkarte barruko eragiketaren kontzeptuaren eta bere eraginen zehaztapena eskatzen du.

Abenduaren 22ko 1072/1992 Arauemate Foru Dekretuan xedatutakoa kontutan hartuta, beharrezko gertatzen da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko arautegia.

Aurrekoa dela bide, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Diputatu Titularrak proposaturik, Diputatu Kontseiluak gaur egindako Bilkuran aztertu ondoren, 1981eko maiatzaren 31ko Arabako Foru Tributu-Arau Orokorrak, 13. artikuluan, Foru Aldundiari, presatasuna dela eta, ematen dizkion ahalmenak erabiliz, honako hau

**XEDATU DUT:**

## ATARIKO TITULUA

## IZAERA ETA APLIKAZIO EREMUA

### 1. artikulua.- Zergaren izaera.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga zeharkako tributua da; tributu hau kontsumoaren gainekoa da eta, honako Arauematezko Foru Dekretu -aurrerantzean Arau- honetan aurrikusirik dauden eran eta baldintzapean, ondoko eragiketok kargatzen ditu:

a) Enpresari edo profesionariek burutzen dituzten ondasun-emateak eta zerbitzugintzak.

b) Elkarte barruko ondasun-eskuraketak.

c) Ondasun-inportazioak.

### 2. artikulua.- Arau aplikagarriak.

Zerga hau aplikatzean, kontutan edukiko da Espainiako barne ordenamenduan bildurik dauden nazioarteko itunben eta hitzarmenetan xedatutakoa.

**2 bis artikulua.- (37) (78) Zergaren ordainarazpena.**

**Bat.** (49) (78) Balio erantsiaren gaineko zerga Arabako Foru Aldundiak ordainaraziko du honako arau hauek aplikatuz:

1. Subjektu pasiboak aurreko urtean egindako eragiketen guztirako bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan ez bada eta beraren zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan badago, Arabako Foru Aldundiari ordaindu behar dio zerga, eragiketak non egin dituen kontuan eduki gabe.

2. Subjektu pasiboak aurreko urtean egindako eragiketen guztirako bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan bada eta eragiketa guztiak Arabako Lurralde Historikoan egin baditu, Arabako Foru Aldundiari soilik ordaindu behar dio zerga, zerga egoitza non daukan kontuan eduki gabe.

3. Subjektu pasiboak Arabako Lurralde Historikoan eta beste lurralde batzuetan jarduten badu eta aurreko urtean egin dituen eragiketen bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan bada, Arabako Foru Aldundiari Araban egindako eragiketen bolumenaren proportzioan ordaindu behar dio zerga, zerga egoitza non daukan kontuan eduki gabe (eragiketen bolumena artikulu honetan ezarritako lotura puntuen arabera zehaztu behar da).

**Bi.** (49) (78) Eragiketen guztirako bolumena hauxe da: subjektu pasiboak bere jardueran egindako ondasun emateak eta zerbitzuak direla eta jasotako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun errekargua (egonez gero) alde batera utzita.

Jardueran hasi berriak direnen kasuan, egutegiko lehenengo urtean egindako eragiketen bolumena hartuko da kontuan 10 milioi euroko kopurua zenbatzeko. Jardueran emandako lehenengo urtea ez bada egutegiko urtea, jardueraren hasieratik egindako eragiketen zenbatekoa hartuko da erreferentziatzat urte osokoa kalkulatzeko.

**Hiru.** Subjektu pasibo batek lurralde batean edo bestean diharduela kontuan hartuko da lurralde horietan ondasunak entregatu edo zerbitzuak ematen baditu, hurrengo Lau idatz zatian ezarritako lotura puntuekin bat.

**Lau.** Zerga honen ondorioetarako, zergari loturiko eragiketak Araban egin direla joko da, honako arauekin bat:

1. Ondasunak ematea.

A) Gorputz ondasun higigarriak ematea, eskuratzaileari Arabatik ematen zaizkionean.

Eskuratzaileari emateko, ondasunak garraiatu egin behar badira, garraioa hasten denean Araban daudenak. Arau honek salbuespenak dauzka:

a) Ondasunak ematen dituenak eraldatu dituen ondasunak badira, emandako ondasunen azken eraldatze prozesua Araban egin bada.

b) Arabatik kanpora industria elementuak instalatzea dakarten emateak badira, eta prestatze eta fabrikatze lanak Araban egin badira eta instalazio edo muntatze horren kostua kontraprestazioaren guztizkoaren % 15 baino gehiagokoa ez bada.

Korrelatiboki, ez dira Araban egindakotzat joko Araban instalatzen diren industria elementuen emateak, elementu horien prestatze eta fabrikatze lanak Arabatik kanpo egiten badira, eta instalazio edo muntatze horren kostua kontraprestazioaren guztizkoaren % 15 baino gehiagokoa ez bada.

c) Europar Batasuneko kide den beste Estaturen batetik hasita igorri edo garraiatu beharreko ondasunak badira, eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen araudian urrutiko salmenten erregimena aplikatzeko zehaztutako baldintzak betetzen badira.

B) Energia elektrikoaren ekoizleek egindako emateak, energia hori sortzen den zentroak Araban badaude.

C) Ondasun higiezinak ematea, ondasunak Araban daudenean.

2. Zerbitzuak egitea.

A) Zerbitzuak Arabatik egiten direnean.

B) Aurreko letran xedatutakoaz kanpo geratzen dira zuzenean ondasun higiezinei lotutako prestazioak; ondasun horiek Araban badaude, Araban egin direla joko da.

C) Era berean, aurreko letretan zehaztutakoetatik salbuesten dira aseguru eta kapitalizazio eragiketak. Horiek, irailaren 30eko 12/1997 Zerga Arloko Premiazko Araugintzako Dekretuko 4. artikuluan zehaztutako arauak bete beharko dituzte.

3. Aurreko 1. eta 2. arauetan zehaztutakoa gorabehera, Arabako Foru Aldundiak Zerga ordainarazteko eskumena izango du subjektu pasiboaren zerga egoitza Araban dagoenean, eta betiere, honako eragiketak egiten badira.

A) Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantza ustiategiek eta arrantza ontzien armadoreek euren soro, ustialeku edo arrantzuetako produktu naturalak, eraldatu ez direnak, ematea.

B) Garraio zerbitzuak, bai eta etxez aldatzeko zerbitzuak, atoi zerbitzuak eta garabi zerbitzuak ere.

C) Garraiogailuen errentamenduak.

**Bost.** Artikulu honetan zehazten diren eragiketak egiten ez dituzten erakundeek Arabako Foru Aldundiari ordaindu beharko dizkiete zergak, baldin zerga egoitza Araban badute.

**Sei.** Europar Erkidegoaren barruko trafikoari lotutako eragiketei dagokien zergaren ordainarazpena, aurreko Bat idatz zatian xedatutako moduan egingo da, hurrengo Zazpi eta Zortzi idatz zatietan zehazten diren kasuetan izan ezik.

**Zazpi.** Balio Erantsiaren gaineko Zergaz salbuetsita dauden edo hari lotzen ez zaizkien eragiketak egiten dituzten pertsona, partikular erakundeek Europar Erkidegoaren barruan garraiobide berriak erosteagatiko Zergaren ordainarazpena Arabako Foru Aldundiaren eskumenekoa izango da, garraiobide horiek behin betiko Araban matrikulatzen badira.

**Zortzi.** Arabako Foru Aldundiak Zerga ordainarazteko eskumena izango du subjektu pasiboaren zerga egoitza Araban dagoenean, eta betiere, honako kasuetan:

a) Hala aukeratu dutelako edo Zerga arautzen duen araudian ezarritako zenbatekoa gainditu dutelako Zergari lotutako Europar Erkidego barruko eskuratzeak, hura erabat edo hein batean kentzea ez dakarten eragiketak baino egiten ez dituzten subjektu pasiboek edota enpresaburu edo profesional gisa aritzen ez diren pertsona juridikoek eginak.

b) Europar Erkidego barruan Erregimen erraztuko, nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako erregimen bereziko eta baliokidetasun errekarguko ondasunak erostea.

**Bederatzi.** (78) Artikulu honetako aurreko idatz zatietan xedatzen dena gorabehera, jarraian azalduko diren kasuetan subjektu pasiboek ohiko ondasun emateak edo zerbitzugintzak hasi aurreko likidazio aldietan administrazioei aplikatutako zerga proportzioak erregularizatu beharko dituzte honako tributazio ehuneko hauek aplikatuz: ohiko ondasun emateak edo zerbitzugintzak hasi ondoko egutegiko lehen urte osoan administrazio horiei dagozkien tributazio ehunekoak. Hona kasuak:

a) Subjektu pasiboa beste zerga administrazio baten ordainarazpen eskumenaren menpean egon da jarduerako ohiko ondasun emateak edo zerbitzugintzak egiten hasi aurreko likidazio aldietan eta ondoko likidazio aldietan Arabako Foru Aldundiaren ordainarazpen eskumenera pasatu da.

b) Subjektu pasiboa Arabako Foru Aldundiaren ordainarazpen eskumenaren menpean egon da jarduerako ohiko ondasun emateak edo zerbitzugintzak egiten hasi aurreko likidazio aldietan eta ondoko likidazio aldietan beste zerga administrazio baten ordainarazpen eskumenera pasatu da.

c) Subjektu pasiboa Arabako Foru Aldundiaren ordainarazpen eskumenaren menpean egon da aurreko a) eta b) idatz zatietan aipatzen diren likidazio aldietako batean eta bere jarduerako ohiko ondasun emateak edo zerbitzugintzak egiten hasi direnean Arabako Foru Aldundiari dagokion tributazio ehunekoa aldatu da eta zerga administrazioetako bati dagokion tributazio ehunekoak berrogei puntutik gorako aldakuntza gertatu da aurreko likidazio aldietakoekin alderatuta.

Erregularizazio hori egiteko, subjektu pasiboek foru arau honetako 164. Bat.8 artikuluan aipatzen den aitorpena aurkeztu beharko diete ukitutako administrazio guztiei; aitorpenak ez du edukiko inolako ondorio ekonomikorik administrazio horien aurrean.

**Hamar.** (89) Honako hauei aplikatuko zaie araubide berezia: egoitza Batasunean (kontsumo estatua ez beste batean) duten enpresaburuek eta profesionalek ez enpresaburu ez profesional ez diren hartzaileei, hala dihardutenei, egiten dizkieten zerbitzuei; Batasunaren barruko ondasunen urrutiko salmentei eta interfaze digital baten bidez emandako ondasunen barne entrega jakin batzuei, eta hirugarren herrialde edo lurraldeetatik inportatutako ondasunen urrutiko salmentei. Horiek guztiak arau honen XI. kapituluko IX. tituluan daude jasota, eta araubide berezi horren zerga ordainaraztea Arabako Foru Aldundiari dagokio, baldin eta eskumena badu ikuskatzeko zerga aplikatzen den lurraldean kokatuta dauden, araubide horiek aplikatzea erabaki duten eta Espainia identifikazioko estatu kide izendatu duten enpresaburuak edo profesionalak, bat etorriz arau honen 167. artikuluaren Zazpi apartatuan ezarritako arauekin.

Hirugarren herrialde edo lurraldeetatik inportatutako ondasunen urrutiko salmentei aplikatu beharreko araubide berezian bitartekari bat izendatu bada ere, Arabako Foru Aldundiari dagokio zerga ordainaraztea, baldin eta izendatutako bitartekarien ikuskapena egiteko eskumena badu, arau honen 167. artikuluaren Zazpi apartatuan ezarritako arauen arabera.

**2 ter artikulua.- (78) Zerga egoitza.**

**1.** Pertsona fisiko batek ohiko bizitokia Araban duela jotzeko, ondoko arau hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren:

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaldiaren egun gehienetan Euskal Autonomia Erkidegoan egonez gero, eta Araban dagoen egun kopurua beste bi probintzietan dagoena baino handiagoa bada.

Denbora tarte hori zehazteko, aldi baterako absentziak zenbatuko dira.

Bestelakorik frogatzen ez bada, pertsona fisiko bat Araban bizi dela pentsatuko da beraren ohiko etxebizitza bertan badago.

2. Interesen gune nagusia Araban badauka. Hala gertatzen dela joko da, baldin pertsona fisiko batek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarriaren gehiena Euskal Autonomia Erkidegoan lortzen badu, eta beste bi probintzietan lortutakoa baino zerga oinarri gehiago lortzen badu Araban. Bi horietan ez dira kontuan hartuko kapital higigarritik eratorritako ondasun irabaziak eta errentak, ez eta gardentasun fiskaleko erregimenean egotzitako oinarriak (profesionala izan ezik) ere.

3. Araban egotea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako aitortutako azken egoitza.

Lehenengo erregela aplikatuta zergadunaren ohiko egoitza zein lurraldetan dagoen (erkidean edo foralean) zehaztea ezinezkoa gertatzen bada, bigarren erregela aplikatuko

da. Lehen eta bigarren erregeletan xedatutakoa aplikatuta ere gauza bera gertatzen bada, hirugarren erregela aplikatuko da.

**2.** Espainiako lurraldeko egoiliar diren pertsona fisikoek ez badituzte bertan ematen 183 egun baino gehiago urte naturalean, Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliartzat joko dira enpresa edo lanbide jardueren gune nagusia edo basea edo interes ekonomikoena lurralde horretan egonez gero.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera pertsona fisiko baten ohiko egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan egonez gero, Araban bizi dela pentsatuko da baldin eta beraren enpresa edo lanbide jardueren gune nagusia edo basea edo beraren interes ekonomikoen gune nagusia lurralde horretan badago.

**3.** Pertsona fisiko batek, legalki bananduta ez dagoen bere ezkontideak eta pertsona fisikoaren mende dauden seme-alaba adingabeek ohiko egoitza Araban daukatelako, egoitza Espainian duela jotzen denean, ohiko egoitza Araban daukala joko da. Uste horren aurkako froga aurkez daiteke.

**4.** Pertsona juridikoek zerga egoitza Araban dutela jotzen da, sozietate egoitza probintzia horretan badute, eta administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza han zentralizatuta izanez gero. Bestela, gestio edo zuzendaritza hori gauzatzen den lekua izango da.

Zerga egoitza zein den ezin denean erabaki, aurreko irizpideekin bat, honako kasuan joko da pertsona juridikoek Araban dutela zerga egoitza: ibilgetuaren baliorik handiena Euskadin izanda Araban beste probintzietan baino ibilgetu zati handiagoa dutenean.

**5.** Sozietate zibilak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek zerga egoitza Araban dutela joko da, kudeaketa eta zuzendaritza Araban gauzatzen badituzte. Kudeaketako eta zuzendaritzako irizpidea aplikatzeagatik, nortasun juridikorik gabeko erakunde eta sozietate zibilen zerga egoitza zehaztu ezin bada, zerga egoitza Araban dutela joko da, baldin ibilgetuaren balio handiena Euskal Autonomia Erkidegoan izanda, Araban duten ibilgetuaren balioa beste probintzietako bakoitzean dutena baino handiagoa bada.

**6.** Establezimendu iraunkorren zerga egoitza administrazio gestioa eta negozioen zuzendaritza gauzatzen den lurraldekoa izango da.

Zerga egoitza zein den ezin denean erabaki, aurreko irizpidearekin bat, honako kasuan joko da establezimendu iraunkorrek zerga egoitza Araban dutela: ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan izanda, Araban beste probintzietan baino ibilgetu zati handiagoa dutenean.

**3. artikulua.- Lurraldetasuna.**

**Bat.** Zerga hau aplikatuko den gune-eremua Espainiako lurraldea da, zein hurrengo ataleko aurrikuspenen arabera zehaztuko baita; aipatu lurraldean jarraian

adierazita daudenak sarturik daude: ondoko uharteak, urtarrilaren 4eko 10/1977 Legearen 3. artikuluan zehaztutako lurralde-itsasoa, hamabi itsas miliatako mugaraino, eta aipatu eremuari dagokion aire-gunea.

**Bi.** (74) (83) Arau honen ondorioetarako definizio hauek hartuko dira kontuan:

1.- "Estatu kidea", "estatu kide baten lurraldea" edo "herrialdearen barnealdea" estatu kide bakoitzarentzat Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuan zehaztutako aplikazio eremua izango da; salbuespenak:

a) Aduana Batasunean bildurik ez dauden lurraldeei dagokienez: Alemaniako errepublika federalean, Helgoland uhartea eta Büsingen lurraldea; Espainiako erresuman, Ceuta eta Melilla; eta Italiako errepublikan, Livigno.

b) Negozioen kopuruaren gaineko zergen harmonizaziotik salbuetsitako lurraldeei dagokienez: Espainiako erresuman, Kanaria uharteak; Frantziako errepublikan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 349. artikuluan eta 355. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen diren lurralde frantziarrak; Errepublika heleniarrean, Athos mendia; Erresuma Batuan, Kanaleko uharteak; Italiako errepublikan, Campione d'Italia eta Lugano lakuko nazio urak: Finlandiako errepublikan, Aland uharteak.

2.- "Batasuna" eta "Batasunaren lurraldea" estatu kideen "herrialdearen barnealde" guztien multzoa da, aurreko zenbakian ezartzen denarekin bat etorriz.

3.- "Hirugarren lurraldea" eta "hirugarren herrialdea" aurreko 1. zenbakian azaltzen denaren arabera "herrialdearen barnealde" diren lurraldeak ez beste guztiak.

**Hiru.** (74) Zerga honen ondorioetarako, Monako printzerriarekin, Man uhartearekin eta Erresuma Batuaren menpean dauden Akrotiri eta Dhekeliarekin egiten diren eragiketak Frantziarekin, Erresuma Batuarekin eta Ziprerekin, hurrenez hurren, egindakotzat joko dira.

**Lau.** (37)

## I. TITULUA

## ZERGA EGITATEAREN MUGAKETA

## I. KAPITULUA

## ONDASUN-EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK

### 4. artikulua.- Zerga egitatea.

**Bat.** Zergari loturik egongo dira enpresariek edo profesionariek, euren enpresa- edo lanbide-ihardueran aritzean, kostu bidez eta ohizko zein lantzean behingo izaeraz zergaren gune-eremuan burutzen dituzten ondasun-emateak eta zerbitzugintzak, baita burutzen dituzten entitateen euren bazkide, elkartu, kide edo partaideentzakoak izanik ere.

**Bi.** (53) Enpresa edo lanbide jarduera batean aritzean burututakotzat joko dira ondokoak:

a) Merkataritza sozietateen ondasun emateak eta zerbitzugintzak, enpresaburu edo profesional izanez gero.

b) Subjektu pasiboen enpresa edo lanbide ondarea osatzen duten ondasun edo eskubideak, osorik zein zatika, hirugarren batzuei eskualdatzea edo haien erabilera lagatzea, zergapeko izatea eragiten duten jardueretan aritzeari uztean egiten diren ondasun emate eta lagapenak barne.

c) (56) Jabetzaren erregistratzaileek hipoteka barrutietako likidazio bulegoetako likidatzaile titular gisa egiten dituzten zerbitzuak.

**Hiru.** Zergari loturik egotea ez da enpresa- edo lanbide-ihardueran edo eragiketa konkretu bakoitzean lortu nahi diren helburu edo emaitzen araberakoa.

**Lau.** (68) Zerga horren peko eragiketak ez daude Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergak jasotako ‘kostubidezko ondare eskualdaketak’ kontzeptuaren pean.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik salbuetsita daude ondasun higiezinen emate eta errentamenduak, bai eta haien gaineko erabilera eta gozamen eskubide errealen eraketa edo eskualdaketa ere, baldin eta zergatik salbuetsita badaude, salbu eta subjektu pasiboak 20.Bi artikuluan biltzen diren inguruabarretan eta baldintzetan salbuespenari uko egiten dionean.

**5. artikulua.- Enpresari edo profesionari kontzeptua.**

**Bat.** (53) Arau honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ondokoak hartuko dira enpresaburu edo profesionaltzat:

a) Artikulu honetako hurrengo idatz zatian zehaztutako enpresa edo lanbide jardueretan aritzen diren pertsonak eta erakundeak.

Hala ere, ez dira enpresaburu ez profesionaltzat hartuko ondasun emateak edo zerbitzugintzak dohainik soilik egiten dituztenak, hurrengo letran ezarritakoa eragotzi gabe.

b) Merkataritza sozietateak, besterik frogatu ezean.

c) Etengabeko sarrerak lortzeko asmoarekin gauzazko ondasun edo ondasun ukiezin baten ustiapena dakarren ondasun emate edo zerbitzugintzaren bat egiten dutenak.

Ondasun errentatzailea, bereziki, horrelakotzat hartuko dira.

d) Edozein tituluren bidez saldu, adjudikatu edo lagatzeko asmoarekin, lurrak urbanizatzen dituztenak edo eraikinak sustatzen, eraikitzen edo birgaitzen dituztenak, baita noizean behin jardunik ere.

e) Arau honetako 25. artikuluko lehen eta bigarren idatz zatietan xedatutakoa dela bide Zergatik salbuetsita dauden garraiobide berrien emateak noizean behin egiten dituztenak.

Letra honetan aipatutako enpresaburu eta profesionalak bertan adierazitako garraiobideen emateetan soilik hartuko dira halakotzat.

**Bi.** (33) Enpresa edo lanbide jarduerak dira ondasunen edo zerbitzuen produkzio edo banaketan esku hartzeko asmoz, produkzio-, material- eta giza-baliabide alderdiak norbere kabuz antolatzea dakartenak.

Ondorengo jarduerak enpresa- edo lanbide-jardueratzat hartuko dira bereziki. Honakoak dira: ateratze, fabrikazio, merkataritza eta zerbitzugintza jarduerak (artisautza, nekazaritza, basogintza, abeltzaintza, arrantza, eraikuntza, meagintza eta lanbide liberal eta artistikoen jarduerak barne).

Zerga honen ondorioetarako, enpresa- edo lanbide-jarduerak hasita daudela ulertuko da, jarduera horiek garatzeko asmoz, ondasunak edo zerbitzuak eskuratzen direnetik aurrera, aurreko idatz-zatiko b), c) eta d) letretan aipatzen direnak barne. Aipatutako jarduerak garatzeko asmo hori osagai objetiboen bidez egiaztatuko da. Eskuratze horiek egiten dituztenek une horretatik aurrera izango dute enpresario- edo profesional-izaera Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

**Hiru.** Enpresa- edo lanbide-iharduerak burutzen ari direlako ustezkotasuna edukiko da ondoko kasuetan:

a) Merkataritzako Kodearen 3. artikuluak aipatzen dituen balizkoetan.

b) Honako arau honetako 4. artikuluan zehazturik dauden eragiketak burutzeko Iharduera Ekonomikoen gaineko Zerga ordainarazten denean.

**Lau.** (56) Arau honetako 69, 70 eta 72. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako ez beste ezertarako, ondokoak enpresaburutzat edo profesionaltzat hartuko dira egiten zaizkien zerbitzu guztietan (eta hala ari dela pentsatuko da).

1. Aldi berean enpresa edo lanbide jarduerak eta arau honetako 4. artikuluko lehenengo idatz zatian ezarritakoaren arabera Zergaren kargapean ez dauden jarduerak egiten dituztenak.

2. Enpresaburu edo profesional gisa aritzen ez diren pertsona juridikoak, baldin eta Espainiako Administrazioak identifikazio zenbaki bat eman badie Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

**6. artikulua.- Eraikuntzen kontzeptua.**

**Bat.** Zerga honek ondoreak izan ditzan, eraikuntzatzat lur-zoruari edo beste higiezin batzuei era iraunkorrean atxikirik dauden eraikintza-lanak hartuko dira, gainazalean zein zorupean eginak, baldin eta autonomiaz eta lokabe erabil badaitezke.

**Bi.** Ondoan adieraziko diren eraikintza-lanak, bereziki, eraikuntzatzat hartuko dira, baldin eta higiezin bati, gaiari kalterik egin gabe, ez eta objektua narriatu gabe bertatik ezin bereizi ahal izateko moduan, era iraunkorrean atxikirik badaude.

a) Eraikinak, honelakotzat joko dela etxebizitza legez erabiltzeko edo iharduera ekonomiko bati ekiteko egindako eraikuntza iraunkor, bereizi eta lokabe oro.

b) Industri instalazio ez-bizigarriak, hala nola, eustarri, tanke edo zamaketa-guneak.

c) Hidrokarburoen bila miaketak egiteko eta haiek ustiatzeko plataformak.

d) Portu, aireportu eta azokak.

e) Solas- eta kirol-instalazioak, beste eraikuntza batzuen osagarriak ez direnean.

f) Bide, nabigazio-kanal, trenbide, errepide, autoestrata eta lurrezko zein ibaizko gainontzeko komunikazio-bideak, bai eta hauetako zubi edo bidezubi eta tunelak ere.

g) Kablezko garraio-instalazio iraunkorrak.

**Hiru.** Ez dira eraikuntzatzat hartuko:

a) Lurrak urbanizatzeko lanak eta, bereziki, ur-hornikuntza eta hustuketakoak, elektra-energiaren hornidurakoak, eta gas banaketako sare, telefono-instalazio, sarbide, kale eta espaloietakoak.

b) Nekazaritzako ustiategien eraikuntza osagarriak, baldin eta finkaren izaera eta helburuarekiko loturarik badute, ustiategiaren titularrak, honen senideek edo beronekin lan egiten dutenek bertan egoitza eduki arren.

c) Erabilera eta apainketako objektuak, hala nola, makina, tresna eta lanabesak, eta Kode Zibilaren 4. eta 5. zenbakiek aipatzen dituzten gainontzeko erabileragatiko higiezinak.

d) Meatze, harrobi edo sarrategi eta petrolio- edo gas- putzuak edo naturazko ekoizkinak ateratzeko beste toki batzuk.

**7. artikulua.- Zergari loturik ez dauden eragiketak.**

Ez dira Zergari loturik egongo:

1.- (53) Subjektu pasibo baten enpresa edo lanbide ondareko gauzazko elementu batzuk, bai eta ondasun ukiezin batzuk ere, enpresa edo lanbide jarduera batean nor bere kabuz aritzeko aukera ematen duen unitate ekonomiko autonomoa osatzen dutenak, eskualdatzea, beste zerga batzuetan eskualdaketari aplikatu beharreko zerga araubidea eta arau honetako 4. artikuluko laugarren idatz zatian xedatutakoarekin bat etorriz bidezkoa den araubidea gorabehera.

Ondoko eskualdaketak, ordea, zergapean daude, ez baitzaie aplikatuko aurreko paragrafoan ezartzen dena:

a) Ondasunen edo eskubideen lagapen hutsa.

b) Arau honetako 5. artikuluko lehenengo idatz zatiko c) letran xedatzen denarekin bat etorriz (kasu honetan soilik) enpresaburu edo profesional direnek egiten dituzten eskualdaketak, baldin eta xedea ondasunak lagatzea baizik ez bada.

c) Arau honetako 5. artikuluko lehen idatz zatiko d) letran aipatzen den bezala noizean behin eragiketak egiteagatik, ez beste ezergatik, enpresaburu edo profesional direnek egiten dituzten eskualdaketak.

Zenbaki honetan xedatzen denaren ondorioetarako, ez da kontuan hartuko eskuratzaileak eskuratutako elementuak lotuta egon diren jarduera bera edo besteren bat egiten duen, baldin eta frogatzen badu elementuak enpresa edo lanbide jarduera bat egiteko erabiliko dituela.
Zenbaki honetan xedatzen denari dagokionez, ondasunen edo eskubideen eskualdaketa ondasun edo eskubide lagapen hutsa izango da baldin eta haiekin batera eskualdatzen ez bada ekoizpenerako giza baliabideen eta materialen antolamendu egitura, edo bietako bat, unitate ekonomiko autonomoa eskualdatzen dela pentsaraz dezakeena.

Eskualdatutako ondasunak eta eskubideak, denak zein batzuk, noizbait zenbaki honetan ezartzen denaren arabera Zergaren kargapetik askatzen duen enpresa edo lanbide jardueratik desafektatzen badira, desafektazioa Zergaren kargapean egongo da arau honetan ezartzen denarekin bat etorriz.

Zenbaki honetan ezartzen denaren arabera Zergaren kargapean ez dauden ondasunak eta eskubideak eskuratzen dituztenak eskualdatzaileen lekuan subrogatuko dira ondasun eta eskubideei dagokienez arau honetako 20. artikuluko lehenengo idatz zatiko 22. zenbakian eta 92 - 114 bitarteko artikuluetan ezartzen diren arauen aplikaziorako.

2.- Enpresa- edo lanbide-iharduerak sustatu xedez egiten diren merkataritza-balio nabarmen gabeko merkataritzako gai-laginen dohaineko emateak.

Arau honen ondoreetarako, merkataritzako gai-lagintzat ondokoak hartuko dira: aurkezteko era edo kopurua dela eta, sustapen-helburuetarako baizik ezin erabil daitezkeen merkataritzako gai kategoria baten ordezkari diren gaiak.

3.- Enpresa- edo lanbide-iharduerak sustatzeko egiten diren dohaineko frogapen-zerbitzugintzak.

4.- (74) Publizitateko inprimakiak edo objektuak kontraprestaziorik gabe ematea.

Publizitateko inprimakiek agerian eduki behar dute ondasunak ekoizten edo merkaturatzen edo zerbitzuak eskaintzen dituen enpresaburu edo profesionalaren izena.

Arau honen ondorioetarako, publizitateko objektutzat hartuko dira berezko merkataritza baliorik ez dutenak, hain zuzen ere publizitatearen aipamen ezabaezina erantsita dutenak.

Zenbaki honetan xedatzen duenaren salbuespen gisa, publizitateko objektuak ematea Zergaren kargapean egongo da kasu honetan: jasotzaile bati egutegiko urte batean egindako horniduren guztirako kostua 200 euro baino gehiago denean, hornitutakoa beste subjektu pasibo batzuei doan birbanatzeko eman ezean.

5.- Administrazio- edo lanbide-harremanetatiko menpekotasun-erregimenean dauden pertsona fisikoek burutzen dituzten zerbitzugintzak; lanbide-harremanetan izaera berezikoak ere sarturik daude.

6.- Lan elkartuko kooperatibetako bazkideek kooperatibarentzat burutzen dituzten zerbitzugintzak eta lan bazkideek gainontzeko kooperatibentzat burutzen dituztenak.

7.- Arau honetako 9. artikuluaren 1. zenbakian eta 12. artikuluaren 1. eta 2. zenbakietan aurrikusita dauden eragiketak, baldin eta subjektu pasiboari, aipatu eragiketetako objektuak izan diren ondasunen edo beron osagaien erosketa edo inportazioa dela eta, benetan jasaten duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren guztirako edo zati baten kenkaria egiteko eskubidea iratxiki ez bazaio.

Halaber, arau honetako 12. artikuluaren 3. zenbakian aipaturik dauden eragiketak ere ez dira izango Zergapekoak, subjektu pasiboak gainontzekoengandik jasotzen duen zerbitzu bera ematea besterik egiten ez duenean, aipatu zerbitzua jasotzean benetan jasaten duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren guztirako edo zati baten kenkaria egiteko eskubidea iratxiki ez bazaio.

8.- (74) Administrazio publikoek kontraprestaziorik gabe edo zerga kontraprestazio baten bitartez zuzenean egiten dituzten ondasun emateak eta zerbitzugintzak.

Horretarako ondoko hauek dira administrazio publikoak:

a) Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia-erkidegoetako administrazioek eta toki-administrazioa osatzen duten erakundeek.

b) Gizarte Segurantzako kudeaketa-erakundeek eta zerbitzu erkideek.

c) Erakunde autonomoak, unibertsitate publikoak eta estatu agentziak.

d) Aurrekoetako bati atxikitako Zuzenbide Publikoko erakundeak, berezko nortasun juridikoa dutenak, baldin eta jarduteko independentzia edo legez onartutako autonomia berezia badute eta sektore edo jarduera bat kanpotik arautzeko edo kontrolatzeko egitekoak esleituta badituzte.

Ez dira administrazio publikotzat joko estatuko enpresa erakunde publikoak, ez eta, autonomia erkidegoen eta toki erakundeen mendekoak izanik, haien pareko diren erakundeak ere.

Ez daude Zergaren kargapean Sektore publikoko kontratuen Legearen testu bategineko 4.1.n) eta 24.6 artikuluan (testu hori azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen) ezartzen denarekin bat etorriz administrazio publiko agintzailearen eta hari atxikitako botere adjudikatzailearen bitarteko propio instrumentala eta zerbitzu teknikoa diren sektore publikoko erakundeek eta izakiek kudeaketa agindua dela bide egiten dituzten zerbitzuak.

Halaber, ez daude Zergaren kargapean sektore publikoko erakundeek eta izakiek, Sektore publikoko kontratuen Legearen testu bategineko 3.1 artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, atxikita dauden administrazio publikoari edo horri atxikitako beste erakunde edo izaki bati egiten dizkieten zerbitzuak, baldin eta administrazio publikoak badauka titulartasun osoa.

Kasu guztietan Zergaren kargapean daude administrazio, erakunde eta izaki publikoek ondoren azalduko diren jardueretan egiten dituzten zerbitzuak eta ondasun emateak:

a’) Telekomunikazioak.

b’) Ura, gasa, beroa, hotza, energia elektrikoa eta gainerako energia modalitateak banatzea.

c’) Pertsonen eta ondasunen garraioa.

d’) Portu eta aireportuetako zerbitzuak eta trenbideetako azpiegituren ustiapena, hurrengo 9. zenbakian ageri diren kargatik salbuetsitako emakidak eta baimenak barne.

e’) Produktuak lortzea, fabrikatzea edo eraldatzea, gero eskualdatzeko.

f’) Nekazaritza eta abeltzaintzako produktuetan esku hartzea, beraien merkatua erregulatzeko.

g’) Merkataritzako azokak eta erakusketak ustiatzea.

h’) Biltegiratzea eta gordailatzea.

i’) Publizitateko merkataritza bulegoetako jarduerak.

j’) Enpresen, ekonomatuen, kooperatiben eta antzeko establezimenduen jantokiak eta kantinak ustiatzea.

k’) Bidaia agentzietako jarduerak.

l’) Irrati eta telebista izaki publikoen merkataritzako jarduerak, haien instalazioen erabileraren lagapenari lotutakoak barne. Horretarako merkataritzakotzat jotzen dira sektore publikokoak ez diren publizitate sarrerak sortzen dituzten edo sor ditzaketen jarduerak.

m’) Hiltegiko jarduerak.

9.- (20) Administrazio emakidak eta baimenak, ondorengo hauek izan ezik:

a) Portuetako eremu publikoa erabiltzeko eskubidea ematea xedetzat dutenak.

b) Aireportuetako eraikinak eta instalazioak ematea xedetzat dutenak.

c) Tren azpiegiturak erabiltzeko eskubidea ematea xedetzat dutenak.

d) Portuetako eremuan jendeari zerbitzuak emateko eta merkataritza edo industria-jarduerak garatzeko baimenak.

10.- Arau juridiko edo talde hitzarmenak direla bide, subjektu pasiboarentzat derrigorrezkoak diren honako arau honetako 12. artikuluaren 3. zenbakiak aipatzen dituen dohaineko zerbitzugintzak, frankizia erregimenean emandako telegrafo- eta telefono-zerbitzuenak barne.

11.- Ureztatzaile-erkidegoek uren ordenamendu eta aprobetxamendurako burutzen dituzten eragiketak.

12.- Kontraprestazio edo ordainketa bidez egiten diren diru-emateak.

**8. artikulua.- Ondasun-ematearen kontzeptua.**

**Bat.** Ondasun-ematetzat gauzazko ondasunen gaineko baliatze-ahalaren eskualdaketa hartuko da, baita aipatu ondasunen titulu ordezkatzaileen lagapenaren bidez burutzen bada ere.

Honen ondoreetarako, gauzazko ondasun izatea edukiko dute gasak, beroak, hotzak, elektraenergiak eta gainontzeko energia motek.

**Bi.** (9) Ondokoak ere ondasun-ematetzat hartuko dira:

1. (67) Eraikuntza bat egiteko edo birgaitzeko obrak, arau honetako 6. artikuluaren esanetara, baldin eta obra egiten duen enpresariak erabiltzen diren materialen zati bat jartzen badu eta haien kostua zerga oinarriaren ehuneko 40tik gorakoa bada.

2. (70) Zergaren subjektu pasiboek beren enpresa edo lanbide ondareko elementuekin, dirua ez bestelakoekin, sozietateei, ondasun erkidegoei edo bestelako erakundeei egindako ekarpenak eta halako elementuen adjudikazioak, sozietatea, ondasun erkidegoa edo bestelako erakundea likidatu edo deseginez gero (osorik edo zati bat). Nolanahi ere, hori gorabehera Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren "egintza juridiko dokumentatuak" eta "sozietate eragiketak" kontzeptuei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera bidezko den karga ordaindu behar da.

Hain zuzen ere, ondasun ematetzat joko da ondasun erkidego batek bere erkideei lurrak edo eraikinak adjudikatzea bakoitzaren partaidetzaren proportzioan.

3. Arau bat edo administrazioko edo jurisdikzioko ebazpen bat dela bide burutzen diren ondasun-aldaketak, derrigorrezko desjabetzapena barne.

4. Jabari-erreserbari buruzko ituna edo baldintza etengarria duten salmentako kontratuak direla bide burutzen diren ondasun-lagapenak.

5. Errentamendu-salmentako kontratuak eta berdinetsitakoak direla bide burutzen diren ondasun-lagapenak.

Zerga honek ondoreak izan ditzan, errentamendu/salmen-tako kontratuak eta erosteko aukeradun errentamenduko kontratuak berdinetsiko dira, errentariak aipatu aukera erabiltzea bere gain hartzen duenez gero, eta, orohar, baita bi alderdiak lotzen dituen jabetzaren transferentzia-klausula duten ondasun-erentamendukoak ere.

6. Salmentako komisioa edo erosketako komisioa duten kontratuak direla bide, komisio-emaile eta bere izenean diharduen komisiodunaren artean burutzen diren ondasun-eskualdaketak.

7. (38) Edozein euskarri materialetan egindako informatika produktu normalizatu baten hornidura.

Ondorio horietarako, informatika produktu normalizatutzat joko dira edozein erabiltzailek erabiltzeko funtsezko aldaketarik behar ez dutenak.

8. (74) Balore eskualdaketak, baldin eta balorea edukitzeak berekin badakar egitez edo Zuzenbidez ondasun higiezin baten (osoa zein zati bat) jabetza, erabilera edo gozamena, arau honetako 20.Bat.18.k) letrako kasuetan.

**Hiru.** (86) Arau honen ondorioetarako, definizio hauek finkatu dira:

1. "Batasunaren barruko urruneko ondasun salmenta": saltzaile batek ondasun bat zuzenean zein zeharka, edo bere kontura, Batasuneko estatu batetik beste batera bidaltzen edo garraiatzen duenean gertatzen den ondasun ematea, honako hauek gertatuz gero:

a) Ondasunaren hartzailearen Batasunaren barruko eskuraketak ez egotea zergaren kargapean arau honen 14. artikuluan edo ondasuna heltzen den Batasuneko estatuan aplikatzen den xedapen baliokidean xedatzen denaren arabera edo hartzailea ez izatea enpresaburua ez profesionala, hala jarduten duena.

b) Ematen den ondasuna ez izatea jarraian azaltzen direnetako bat:

a') Garraiobide berria (arau honen 13.2 artikuluan zehazten dira).

b') Arau honen 68. Bi.2 artikuluan aipatzen diren instalatzeko edo muntatzeko ondasunetako bat.

2. "Hirugarren herrialde edo lurralde batetik inportatutako ondasunaren urruneko salmenta": saltzaile batek ondasun bat zuzenean zein zeharka, edo bere kontura, Batasunetik kanpoko herrialde edo lurralde batetik Batasuneko estatu batera bidaltzen edo garraiatzen duenean gertatzen den ondasun ematea, honako hauek gertatuz gero:

a) Ondasunaren hartzailearen Batasunaren barruko eskuraketak ez egotea zergaren kargapean arau honen 14. artikuluan edo ondasuna heltzen den Batasuneko estatuan aplikatzen den xedapen baliokidean xedatzen denaren arabera edo hartzailea ez izatea enpresaburua ez profesionala, hala jarduten duena.

b) Ematen den ondasuna ez izatea jarraian azaltzen direnetako bat:

a') Garraiobide berria (arau honen 13.2 artikuluan zehazten dira).

b') Arau honen 68. Bi.2 artikuluan aipatzen diren instalatzeko edo muntatzeko ondasunetako bat.

**8 bis. artikulua.- (86) Interfaze digitalen bidez egiten diren ondasun emateak.**

Enpresaburu edo profesional batek interfaze digital baten bidez (lineako merkatua, plataforma, ataria edo antzekoren bat) honako bat bideratzen duenean:

a) Hirugarren herrialde edo lurralde batetik inportatuko ondasun baten urruneko salmenta, balio intrinsekoa 150 eurotik gorakoa ez bada.

b) Egoitza Batasunean ez daukan enpresaburu edo profesional batek ondasun bat ematea ez enpresaburu edo profesional ez den pertsona bati (hala jarduten duena). Bi kasu horietan ulertuko da interfaze digitalaren titularra den enpresaburuak edo profesionalak ondasuna jaso duela eta bere kabuz bidali duela eta bidalketa edo garraioa egindako salmentarekin lotuta dagoela.

Arau honetan ezartzen denaren ondorioetarako, ondasunaren balio intrinsekoa aduana-legerian ezartzen denarekin bat etorriz zehaztuko da.

**9. artikulua.- Ondasun-emateei berdinetsitako eragiketak.**

Kostu bidezko ondasun-emateak eta ondoko eragiketa hauek berdinetsirik daude:

1.- Norbere ondasun-kontsumoa.

Zerga honek ondoreak izan ditzan, kontraprestaziorik gabe burutzen diren ondoko eragiketak hartuko dira norbere ondasun-kontsumotzat:

a) Subjektu pasiboak bere ondare pertsonalarentzat edo bere kontsumorako burutzen duen bere enpresa- edo lanbide-ondareko gauzazko ondasunen transferentzia.

b) Subjektu pasiboaren enpresa- edo lanbide-ondarea osatzen duten gauzazko ondasunen gaineko baliatze-ahalaren eskualdaketa.

c) (38) Gorputz ondasunen lotura aldatzea, sektore batetik haren enpresa edo lanbide jarduerakoa ez den beste sektore batera.

c) letra honetan zehazten den autokontsumo kasua ez da aplikagarria izango honakoetan:

- Indarrean den araudia aldatu delako, ekonomia jarduera jakin batek, halabeharrez, lehenago txertatua zegoen sektorea ez den beste batean txertatu behar denean.

- Ekonomia jarduera jakin bati aplikatzekoa zaion zerga erregimena aldatzen bada, erregimen orokorretik erregimen berezi erraztura, nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako erregimen berezira, baliokidetasun errekarguko erregimen berezira, edota inbertsioko urrearekiko eragiketen erregimen berezira, edo alderantziz; orobat, aukera eskubide bat gauzatzean ere.

Aurreko paragrafoko bi marretan zehaztutakoaz gainera, hala badagokio, ondokoak ere kontuan hartu beharko dira:

Arau honetako 101., 105., 106., 107., 109., 110., 112. eta 113. artikuluetan zehaztutako kenkarien erregularizazioak.

Arau honetako 99. artikuluko Bi idatz zatian zehaztutakoa aplikatzea, eskuratutako ondasunentzako eta zerbitzuentzako aurreikusitako helburuaren arabera hasiera batean egindako kenkarien zuzenketari buruz, helburu erreala aurreikusitakoaz bestelakoa bada, honako kuota hauen kasuan: kuotak jasan ziren unean helburutzat aurreikus zitzaiekeen ekonomia jarduera hura aurrez sartuta egon ohi zenaz besteko sektore batean sartzen den unea baino lehenago enpresa jarduera edo jarduera profesionala aurrera eramateko inola ere erabili ez ziren inbertsio ondasunez besteko ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeagatik edo inportatzeagatik ordaindutako edo jasandako kuoten kasuan, alegia.

Arau honetako 134 bis eta 155. artikuluetan zehaztutakoa, nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako erregimen bereziak edo baliokidetasun errekargua aplikatzen hastearen edo aplikatzeari uztearen gainean.

Arau honetan zehaztutakoaren ondorioetarako, ondoko hauek hartuko dira jarduera profesionalez edo enpresa jarduerez bestelako sektoretzat:

a') Egindako ekonomia jarduerak eta kenkarien erregimen aplikagarriak ezberdinak dituztenak.

Ekonomia jarduera ezberdintzat joko dira Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalean talde ezberdinak esleituta dituztenak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, jarduera osagarria ez da ezberdintzat joko, beste baten aldean, baldin aurreko urtean izandako eragiketen bolumenak ez badu jarduera nagusiaren % 15 gainditzen, eta gainera, hura gauzatzen laguntzen badu. Aurreko urtean ez bada gauzatu jarduera osagarria, urtean bertan, ehuneko horri buruzko baldintza zergadunaren arrazoizko aurreikuspenen arabera aplikatuko da, ehuneko errealak ezarritako muga gaindituz gero bidezko den erregularizazioa gorabehera.

Jarduera osagarriek beraiei lotutako jarduera nagusien erregimen bera izango dute.

a') letra honetan zehaztutako kenkari erregimenak ezberdintzat joko dira baldin arau honetako 104. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztutako kenkarien ehunekoak, jarduera nagusiaz bestelako jardueretan aplikatu behar direnak, ehuneko 50 puntu baino gehiagoko aldea badute, jarduera nagusiaren aldean.

Jarduera nagusiak, bere jarduera osagarriek eta bere aldean, kenkarien ehunekoetan, ehuneko 50 puntu baino gehiagoko alderik ez duten jarduera ekonomikoek sektore bereizi bakarra osatuko dute.

Jarduera nagusiaren aldean ezberdinak diren jarduerek, haren aldean, kenkarien ehunekoetan, ehuneko 50 puntu baino gehiagoko aldea dutenek, sektore nagusiarekiko bereizia den bestelako sektorea osatuko dute.

a') letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduera nagusitzat joko da aurreko urtean eragiketa bolumen handiena izan duena.

b') Erregimen berezi erraztuetan, nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako erregimen berezian, inbertsio urrearekiko eragiketen erregimen berezian eta baliokidetasun errekarguko erregimen berezian sartutako jarduerak.

c’) (74) Ekainaren 26ko 10/2014 Legeak, kreditu erakundeen antolamenduari, gainikuspenari eta kaudimenari buruzkoak, hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen finantza errentamenduko eragiketak.

d') (40) Kredituak lagatzeko eragiketak edo maileguak, “factoring” kontratu baten barruan egindakoak izan ezik.

d) Subjektu pasiboaren enpresa- edo lanbide-iharduera burutzean inbertsio-ondasun legez erabiltzeko ekoitzi, eraiki, atera, transformatu, erosi edo inportatzen diren ondasunak lotzea edo, hala denean, haien menpekotasunaren aldaketa.

Baldin eta subjektu pasiboari izaera bereko ondasunak gainontzekoei erostean jasango lituzkeen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak oso-osoan kentzeko eskubidea iratxikitzen bazaio, puntu honetan xedatu dena ez da aplikagarria izango.

Ez da iratxikitzat joko izaera bereko ondasunak erostean subjektu pasiboek jasango lituzketen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak oso-osoan kentzeko eskubidea, baldin eta, ihardunean hasi ondoren eta kenkariak araupetzeko aldian, ukituriko ondasunek ondoko helburuetariko bat badute.

a’) Arau honetako 95. eta 96. artikuluetan ezarrita dagoena dela bide, kenkariak egiteko eskubidea mugatu edo baztertzen dutenak.

b’) Kenkariak egiteko eskubiderik ez dakarten eragiketetan erabiltzea.

c’) Kenkariak egiteko eskubidea dakarten eragiketetan soilki erabiltzea, lain orokorreko araua aplikagarri izanik.

d’) Kenkariak egiteko eskubiderik ez dakarren Zergatik salbuetsitako ematea burutzea.

2.- (9)

3.- (83) Subjektu pasibo batek bere enpresako gauzazko ondasun bat beste estatu kide bati transferitzea, ondasuna enpresak aipatu estatuan dituen premiei lotzeko. Ez dira halakotzat hartuko arau honek 9 bis artikuluan ezartzen duenaren arabera ondasunak kontsignansaltzeko akordio baten esparruan egiten diren transferentziak.

Zenbaki honetan xedatutakotik salbuetsita egongo dira ondoko eragiketak burutzeko egiten diren ondasun-transferentziak.

a) Subjektu pasiboak egiten dituen ondasun-emateak, baldin eta emateok, arau honen 68. artikuluaren 2. atalaren 2., 3. eta 4. zenbakietan bildurik dauden irizpideak aplikatuz, salmenta edo garraioaren jomuga den estatu kidearen barnean burututzat hartuko balira.

b) Honako arau honen 68. artikuluaren 2. atalaren 4. zenbakian aipaturik dauden subjektu pasiboak egiten dituen ondasun-emateak.

c) Subjektu pasiboak herriaren barnealdean honako arau honetako 21. artikuluan edo 25.ean aurrikusita dauden baldintzen arabera burutzen dituen ondasun-emateak.

d) (9) Subjektu pasiboarentzat obra bat burutzea, enpresariak ondasunak haien espedizioaren edo garraioaren jomuga den estatu kidean erabiltzen dituenean, beti ere fabrikatutako edo muntatutako obraren entrega salbuetsita badago Arau honen 21 eta 25. artikuluetan azaltzen diren irizpideei jarraiki.

e) (9) Subjektu pasiboarentzako zerbitzugintza, ondasunen espedizio edo garraioaren jomuga den estatu kidean ondasun horiei buruz burutzen diren aditu-

txostenak edo lanak helburu baditu, baldin eta ondasunak, zerbitzugintzaren ondotik, subjektu pasiboari itzultzen bazaizkio Zerga aplikatzen den lurraldean.

Aipatutako lan horien artean, obra konponketa edo burutzapenak daude, zerbitzugintzatzat jo behar badira Arau honen 11. artikuluaren arabera.

f) Aipatu ondasunak Espainian ezarrita dagoen subjektu pasiboak burutzen dituen zerbitzugintzak gauzatzeko aldi batean erabiltzea, ondasun horien salmenta edo garraioaren jomuga den estatu kidean.

g) (92) Aipatu ondasunak aldi baterako, hogeita lau hilabetetakoa baino luzeagoa ezin izan daitekeen aldi baterako, beste estatu kide baten lurraldean erabiltzea, zeinen barnealdean gainontzeko herri batetik aldi baterako erabiltzeko ondasun bera inportatzeak inportazio-eskubideen salbuespen osoa duen aldi baterako inportazio-erregimenaren onura hartuko bailuke.

h) (62) (86) (91) Gasa ematea Batasuneko lurralde eremuko gas naturala banatzeko sare baten bitartez, edo hari konektatutako sare baten bitartez, elektrizitatea ematea, eta beroa edo hotza ematea berokuntza edo hozketa sareen bitartez, baldin eta emateok arau honetako 68. Sei artikuluan ezarritako irizpideen arabera Batasuneko kide den beste estatu batean gertatutzat joko balira.

(42) a) eta h) letren arteko salbuespenek ez dute eraginik izango, ezinbesteko den baldintzetarikoren bat betetzen ez denetik aurrera.

**9 bis. artikulua.- (83) Ondasunak kontsignansaltzeko akordioa.**

**Bat**. Arau honek xedatzen duenaren ondorioetarako, ondasunak kontsignansaltzeko akordio da honako baldintza hauek betetzen dituena:

a) Saltzaileak (edo hirugarren batek haren kontura) ondasunak Batasuneko beste estatu batera bidaltzea edo garraiatzea, gero, heldu ondoren, gaitutako beste enpresari edo profesional batek eskuratzeko bien arteko aurreko akordio baten arabera.

b) Ondasunak bidaltzen edo garraiatzen dituen saltzaileak ez edukitzea bere jarduera ekonomikoaren egoitza ez establezimendu iraunkorra ondasunak heltzen diren Batasuneko estatuan.

c) Ondasunak eskuratuko dituen enpresaria edo profesionala balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako identifikatuta egotea ondasunak heltzen diren Batasuneko estatuan, eta saltzaileak eskuratzailearen identifikazio fiskaleko zenbakiaren eta izenaren (izen-abizenak edo sozietate izen osoa) ezagutzea bidalketa edo garraio hasten denean.

d) Saltzaileak ondasunen bidalketaren berri ezartzea bai arauz agintzen den erregistro liburuan, bai arau honetako 164. artikuluko lehen idatz zatiko 5. zenbakian aipatzen den laburpen aitorpenean, arauz ezartzen den bezala.

**Bi.** Baldin eta, kontsignansaltzeko akordio baten esparruan ondasunak Batasuneko estatu batera heltzen direnetik hamabi hilabete pasatu baino lehen, aurreko

idatz zatiko c) letran edo hurrengo idatz zatiko bigarren paragrafoko a’) letran aipatzen den enpresariak edo profesionalak ondasunak erabiltzeko ahala eskuratzen badu, zergaren aplikazio eremuan honako bi eragiketetako bat gertatu dela ulertuko da (kasuan kasukoa):

a) Saltzailearen ondasun ematea, arau honetako 68. artikuluko bigarren idatz zatiko 1. zenbakiko A) letrako lehen paragrafoan arautzen dena; arau honek 25. artikuluan ezartzen duen salbuespena aplikatu ahal izango zaio.

b) Enpresari edo profesionalaren Batasunaren barruko ondasun eskuraketa, arau honetako 15. artikuluko lehen idatz zatiko b) letran arautzen dena.

**Hiru.** Baldin eta, ondasunak kontsignansaltzeko akordio baten esparruan, aurreko idatz zatian aipatzen den aldian aurreko lehenengo idatz zatian ezartzen diren baldintzetako bat betetzen ez bada, arau honetako 9.3 artikuluan aipatzen den ondasun transferentzia gertatu dela ulertuko da, hau da:

a) Ondasunak ez baditu eskuratzen bidali zaizkion enpresariak edo profesionalak.

b) Ondasunak ez badira bidaltzen ez garraiatzen ondasunak kontsignansaltzeko akordioan ezarritako Batasuneko estatura.

c) Ondasunak ezabatzen edo galtzen badira edo lapurtzen badituzte.

Nolanahi ere, aurreko lehen idatz zatiko baldintzakbetetzat joko dira aldi horretan honako hauek gertatzen badira:

a’) Aurreko lehen idatz zatiko c) letran aipatzen den enpresari edo profesionalaren ordezkoak letra horretan ezartzen diren baldintza guztiak betetzea.

b’) Ondasunak erabiltzeko ahala ez eskualdatzea eta ondasunak bidalketa edo garraioa hasi den Batasuneko estatura itzultzea.

c’) Saltzaileak a’) eta b’) letretan azaltzen diren inguruabarrak ezartzea arauz agintzen den erregistro liburuan.

**Lau.** Baldin eta, kontsignansaltzeko akordio baten esparruan, eta aurreko lehen idatz zatiko baldintzakbetetzen direla, ondasunak Batasuneko estatu batera heltzen direnetik hamabi hilabete pasatu eta hurrengo egunean 9 bis artikuluko lehen idatz zatiko c) letran edo hirugarren idatz zatiko bigarren paragrafoko a') letran aipatzen den enpresariak edo profesionalak ondasunak erabiltzeko ahala eskuratzen ez badu, arau honetako 9.3 artikuluan aipatzen den ondasun transferentzia gertatu dela ulertuko da.

**Bost.** Ondasunak kontsignansaltzeko akordioa sinatzen duten enpresariek edo profesionalek eta hasieran ondasunak jaso behar dituztenen ordezkoek horrelako eragiketen erregistro liburua arteztu behar dute (arauz ezarriko da nola)."

**10. artikulua.- Transformakuntza kontzeptua.**

Arau honen beste manu batzuetan bereziki xedatutakoa salbuetsiz, transformakuntzatzat hartuko da ondasunen edozein aldakuntza, baldin eta ondasunon erabileraren helburu zehatzak aldaraztea badakar.

**11. artikulua.- Zerbitzugintza kontzeptua.**

**Bat.** Balio Erantsiaren gaineko Zergak ondoreak izan ditzan, zerbitzugintzatzat hartuko da, honako arau honen arabera, ondasun-emate, Elkarte barruko eskuraketa, edo inportaziotzat hartzen ez den aipatu tributuari loturiko eragiketa oro.

**Bi.** Bereziki, zerbitzugintzatzat hartuko dira:

1.- Lanbide, arte edo ogibide batean lokabe ihardutea.

2.- Ondasun, industria edo negozio, merkataritzako enpresa edo establezimenduen errentamenduak, erosteko aukera eduki zein ez eduki.

3.- Ondasunen erabileraren edo luperketaren lagapena.

4.- Egile-eskubideen, lizentzien, patenteen, fabrika eta merkataritzako marken eta jabetza intelektual eta industri jabetzako gainontzeko eskubideen lagapen eta emakidak.

5.- Agentziako edo salmenta esklusiboko kontratuetan hizpatutako edo lurralde-gune mugatuetako ondasun-banaketako hitzarmenetatik datozen egiteko nahiz ez egiteko betebeharrak eta abstentzioak.

6.- Arau honetako 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, ondasun-ematetzat ezin har daitezkeen lan-burutzapenak.

7.- Negozio-lokalen intsuldaketak.

8.- Garraioak.

9.- Ostalaritza-, jatetxe- edo kanpaketa-zerbitzuak eta tokian bertan berehala kontsumitzeko edari edo jangaiak.

10.- Aseguru, berraseguru- eta kapitalizazio-eragiketak.

11.- Ospitalizazio-prestazioak.

12.- (28) Diruz emandako mailegu eta kredituak.

13.- Kirol- edo jolas-instalazioak erabiltzeko eskubidea.

14.- Azoka eta erakusketen ustiapena.

15.- Bitartekaritzako eragiketak, eta agentzia edo komisiokoak agente edo komisiodunak inoren izenean diharduenean. Bere izenean ari denean, eta zerbitzugintza bat bitarteko bada, hari dagozkion zerbitzuak berak emantzat hartuko dira.

16.- (38) Informatika produktuen hornidura, ondasun entregatzat hartzen ez denean, eta dagokion euskarria entregatzea zerbitzu-ematearen osagarritzat jotzen denean.

Bereziki, zerbitzu-ematetzat joko da hartzailearen enkarguz eta hartzailearen zehaztapenei jarraituz egin diren informatika produktuen hornidura, bai eta hartzaileak erabil ditzan beharrezko funtsezko egokitzapenak egin zaizkien informatika produktuena ere.

### 12. artikulua.- Zerbitzugintzei berdinetsitako eragiketak.

Zerbitzugintzari berdinetsitako eragiketatzat joko dira, kostu bidez, norbere zerbitzuen kontsumoak

Zerga honek ondoreak izan ditzan, norbere zerbitzuen kontsumotzat hartuko dira kontraprestaziorik gabe burutzen diren ondoko eragiketak:

1.- Subjektu pasiboak enpresa- edo lanbide-ondarearen ondasun eta eskubideak bere ondare pertsonalerako egiten dituen transferentzietarik honako arau honen 9. artikuluaren 1. zenbakian bildurik ez daudenak.

2.- Subjektu pasiboak bere enpresa- edo lanbide-ondarea osatzen duten ondasunak (guztiak zein zati bat) bere erabilera pertsonalerako edo, orohar, bere enpresa- edo lanbide-iharduerez kanpoko helburuetarako aplikatzea.

3.- (47) Subjektu pasiboak doan egindako gainerako zerbitzu-prestazioak (artikulu honetako aurreko zenbakietan aipatu gabekoak), betiere jarduera enpresarial edo profesionalarekin zerikusirik ez duen helburuetarako egiten badira.

## II. KAPITULUA

## ELKARTE BARRUKO ONDASUN-ESKURAKETAK

### 13. artikulua.- Zerga egitatea. (8)

Zerga aplikatzen den gune-eremuan burutzen diren ondoko eragiketak egongo dira Zergaren menpe:

1. Enpresariek, profesionariek edo pertsona juridiko gisa ez diharduten pertsona juridikoek kostu bidez burutzen dituzten elkarte barruko eragiketak, eskualdatzailea enpresari edo profesionaria denean.

Elkarte barruko ondasun-eskuraketa hauetan ez dira bildurik egongo honako hauek:

a) Ondasunen salmenta edo garraioa abiatzen den Estatu kideko Zergaren frankizia-jaurbidearen onura hartzen duen enpresari edo profesionariak entregatutako ondasun-esleipenak.

b) Ondasunen salmenta edo garraioa abiatzen Estatu kidean erabilitako ondasunen, arte-objetuen, antzinakinen eta bildumako objetuen jaurbide berezirako ezarritako araukiko atxikitasunez beren entrega tributatu deneko ondasun-esleipenak.

c) Arau honen 68. artikuluaren Bi apartatuko 2. zenbakian sartzen diren instalatu edo muntatu beharreko ondasunen emateei dagozkien ondasun-esleipenak.

d) (86) Arau honen 68. Hiru.a) artikuluan aipatzen diren urruneko salmentei dagozkien ondasun eskuratzeak.

e) Arau honen 68. artikuluaren Bost apartatuan esaten diren Zerga Bereziren baten menpeko ondasun direnek emateari dagozkion ondasun-esleipenak.

f) Arau honen 22. artikuluaren Batetik Hamaikarako apartatuetan ezarritako irizpideak aplikatuz, salmenta edo garraioa egin deneko Estatuan Zerga jare izan denean eman diren ondasunen elkarte barruko esleipenak.

g) (67) (86) (91) Honako hauei dagozkien ondasun eskuraketak: arau honetako 68. Sei artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz zergaren aplikazio eremuan gertatzen diren gas emateak, Batasuneko lurralde eremuko gas naturala banatzeko sare baten bitartez edo hari konektatutako sare baten bitartez egiten direnak, elektrizitate emateak eta bero edo hotz emateak, berokuntza edo hozketa sareen bitartez egiten direnak.

2. Elkarte barruko garraiobide berrien eskuraketak, baldin eta arau honen 14. artikuluaren 1. eta 2. ataletan aurrikusita dagoen loturarik eza aplika dezaketen pertsonek kostu bidez burutzen badituzte, bai eta enpresari edo profesionari izatea ez duen beste edozein pertsonak burutzen dituenak, eskualdatzailearen izatea edozein dela ere.

Ondore hauetarako, ondokoak hartuko dira garraiobidetzat:

a) 48 zentimetro kubotik gorako motorea duten edo 7,2 kW-ko potentzia gainditzen duten lurgaineko ibilgailuak.

b) Gehienezko luzera 7,5 metrokoa baino handiagoa duten untziak, Arau honen 22. artikuluaren Bat apartatuaren salbuespenak ukiturikoak ezik.

c) Abiadan guztira 1.500 kiloko pisua gainditzen duten aireuntziak, Arau honen 22. artikuluaren Lau apartatuaren salbuespenak ukiturikoak ezik.

Aipatu garraiobideak berritzat hartuko dira haiei dagokienez ondoren adieraziko diren baldintzetariko edozein gertatzen denean:

a) Haien ematea zerbitzuan lehenengoz hasten diren egunetik zenbatu beharreko lehen hiru hilabeteak baino lehen edo, motoreaz eragindako lurgaineko ibilgailuak direnean, esandako egunaren ondorengo sei hilabeteak baino lehen burutzea.

b) Lurgaineko ibilgailuek bidean 6.000 kilometro baino gehiago, untziek itsasoan 100 ordu baino gehiago eta aireuntziak airean 40 ordu baino gehiago eginak ez izatea.

**14. artikulua.- Zergaren menpeko ez diren eskuraketak.**

**Bat.** Ez dira Zergaren menpeko izango ondoko pertsona edo entitateek burutzen dituzten Elkarte barruko ondasun-eskuraketak, ondorengo atalean xedatuta dauden mugak izango direla:

1.- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen bereziari helduta dauden subjektu pasiboak, aipatu erregimenaren menpean dagoen iharduera burutzea helburua duten ondasunei dagokienez.

2.- Zergaren guztirako edo zati bateko kenkariak egiteko eskubidea ez dakarten eragiketak besterik burutzen ez dituzten subjektu pasiboak.

3.- Enpresari edo profesionari gisa ez diharduten pertsona juridikoak.

**Bi.** (35) (86) Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera kargapean ez egotea aipatutako pertsonek ondasunak Batasunean bertan erosten dituztenean baino ez da aplikatuko, baldin eta gainerako estatuetan egindako erosketen zenbateko osoa, estatu horietan ordaindutako zerga kenduta, 10.000 eurora iritsi ez bada aurreko urte naturalean.

Zergaren kargapean ez egotea aipatu zenbatekora iritsi arte aplikatuko da aribideko egutegiko urtean.

Apartatu honetan aipatzen den muga aplikatzean kontuan eduki behar da eskuratzen diren ondasunen kontraprestazioaren zenbatekoa ezin dela zatikatu ondorio hauetarako.

Apartatu honetan adierazten den muga kalkulatzeko, arau honen 8. Hiru.1 artikuluan aipatzen diren ondasun-emateen kontraprestazioaren zenbatekoa konputatuko da, baldin eta arau honen 68. artikuluko arauak aplikatuz zergaren aplikazio-lurraldetik kanpo egintzatjotzen badira.

**Hiru.** Honako artikulu honetan xedaturik dagoena ez da aplikagarria izango zerga berezien objektu diren garraiobide berri eta ondasunen eskuraketei dagokienez; aipatu zergen zenbatekoa ez da konputatuko aurreko atalean adierazitako mugan.

**Lau.** Lehen atalean xedatutakoa gora-behera, bertan deskribaturik dauden eragiketak Zergari loturik egongo dira haiek burutzen dituzten pertsonek hari loturik egotea aukeratzen dutenean, arau bidez ezartzen den eran.

Aukerak bi urtetako gutxienezko aldia iraungo du.

**15. artikulua.- Elkarte barruko ondasun-eskuraketaren kontzeptua.**

**Bat.** (83) Batasunaren barruko ondasun ematea da:

a) Eskuratzailearentzat zergaren aplikazio lurraldera Batasuneko beste estatu batetik eskualdatzaileak, eskuratzaileak berak edo hirugarren batek aurreko bietako baten izenean bidaltzen edo garraiatzen dituen gauzazko ondasun higigarriak erabiltzeko ahala lortzea.

b) Arau honek 9 bis artikuluko bigarren idatz zatian ezartzen duenaren arabera ondasunak kontsignansaltzeko akordio baten esparruan, gauzazko ondasun higigarriak erabiltzeko ahala lortzea

**Bi.** Enpresari edo profesionari gisa ez diharduen pertsona juridiko batek eskuratzen dituen ondasunak pertsona horrek gainontzeko lurralde batetik garraiatu eta beste estatu kide batean inportatzen baditu, aipatu ondasunak inportazioa egiten den estatu kidetik saldu edo garraiatutzat hartuko dira.

**16. artikulua.- Elkarte barruko ondasun-eskuraketei berdinetsirik dauden eragiketak.**

Kostu bidezko ondasun-emateak eta ondoko eragiketa hauek berdinetsirik daude:

1.- (9)

2.- Zergaren aplikazio-lurraldean burutzen diren enpresari edo profesionari baten iharduerei lotzea enpresari horrek, edo besteren batek beronen kontura, beste estatu kide batetik saldu edo garraiatzen duen ondasuna, estatu kide horretan aipatu ondasuna enpresari horrek estatu kide honetako bere enpresa- edo lanbide-ihardueran aritzean ekoitzi, atera, transformatu, eskuratu edo inportaturik dagoelarik.

Zenbaki honetan xedatutakotik salbuetsirik daude honako arau honen 9. artikuluaren 3. zenbakian bildurik dauden irizpideen arabera ondasun-eskualdaketaren kontzeptutik baztertu diren eragiketak.

3.- (92) Honako hauek egindako afektazioa:

a) Ipar Atlantikoko Tratatuaren kide den estatu baten indarrek zergaren aplikazio lurraldean, haiek edo haiekin batera doan elementu zibila erabiltzeko, edo

b) Edozein estatu kidetako indar armatuek, indar horiek edo haien zerbitzura dauden langile zibilak erabiltzeko, baldin eta indar horiek defentsa ahalegin bat egin behar badute segurtasun eta defentsa politika erkidearen eremuan Batasunak jarduera bat egin dezan indar edo elementu zibil horiek Erkidegoan zerga ordaintzekobaldintza normaletan

eskuratu ez dituzten ondasunetan, edo ondasun horien inportazioa ezin bada izan arau honetako 62. artikuluan ezarritako zergaren salbuespenaren onuradun.

4.- Enpresari edo profesionari batek herriaren barnealdean eginez gero, honako arau honen 8. artikuluan xedatutakoa dela bide, ondasun-ematetzat joko litzatekeen eragiketa baten ondoriozko edozein eskuraketa.

## III. KAPITULUA

## ONDASUN-INPORTAZIOAK

### 17. artikulua.- Zerga egitatea.

Zergari loturik egongo dira ondasun-inportazioak, direnak direla hauen xedea eta inportatzailearen izatea.

### 18. artikulua.- Ondasun-inportazioaren kontzeptua.

**Bat.** Ondasun-inportaziotzat hartuko dira:

Lehena.- Erabilera askea ez duen ondasuna sartzea herriaren barnealdera, baldin eta Europako Ekonomi Elkartearen eraketa-itunbenaren 9. eta 10. artikuluetan aurrikusirik dauden baldintzak betetzen ez baditu edo, Europako Ikatz-Altzairuen Elkarte eraketa-itunbearen aplikazio-eremuan bildurik badago.

Bigarrena.- Beste lurralde batetiko ondasun bat, aurreko zenbakian aipatzen direnez bestekoa, herriaren barnealdera sartzea.

**Bi.** (74) (92) Bat apartatuan xedatutakoa gorabehera, bertan aipatzen diren ondasunetako bat, zergaren aplikazio lurraldearen barruan sartzen denetik, arau honetako 23. artikuluan aipatzen diren egoeretan jartzen denean, edo 24. artikuluan jasotako araubideren bati lotzen bazaio, salbu eta aduanaz bestelako gordailu araubideari, ondasun hori inportatuko da zergaren aplikazio lurraldean adierazitako egoerak amaitzen direnean edo araubideak azkentzen direnean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa kasu hauetan bakarrik aplikatuko da: ondasunak egoera horietan jartzen direnean edo adierazitako araubideei lotzen zaizkienean, kasu bakoitzean aplikatu beharreko legeria betez.

Egoera eta araubide horien legeria ez betetzeak ondasun inportazioaren zerga egitatea ekarriko du.

Hala ere, ez da inportaziotzat joko 23. artikuluan aipatzen diren egoerak amaitzea edo 24. artikuluan jasotako araubideak azkentzea, arau honen 21., 22. edo 25. artikuluetan ezarritako salbuespenak aplikagarri zaizkion ondasun ematea zehazten duenean.

Era berean, ez da inportaziotzat joko egoerak amaitzea edo aurreko paragrafoan aipatutako araubideak azkentzea, baldin eta hark ontzi edo aireontzien pleitamendu edo errentamendu bat ezartzen badu, edo ontzi eta aireontzi horietara sartzen diren objektuak alokatzea, haiei arau honen 22. artikuluaren Bat, Bi, Lau eta Bost apartatuetan jasoriko salbuespenak aplikatu behar bazaizkie.

**Hiru.** (92) Inportatutako merkantziak aduanaz bestelako gordailu araubideari lotzeko, arau honetako 65. artikuluan aipatutakoak baino ez dira hartuko kontuan.

Lehenago inportatutako eta araubide horretara lotutako ondasunen aduana araubideaz bestelako gordailu araubidea amaitzen bada, eta haien inportazioari arau honetako 65. artikuluan jasoriko salbuespena aplikatu bazaio, ondasunen inportazioaren zerga egitatea zehaztuko da.

**19. artikulua.- Ondasun-inportazioei berdinetsitako eragiketak.**

Ondasun-inportazioak eta ondokoak berdinetsitzat hartuko dira:

1.- Zergaren salbuespenaren onura hartzen duten untziak nazioarteko itsas nabigazioari lotzeko beharkizun zehaztaileak ez betetzea, honako arau honen 22. artikuluaren 1. atalaren 1. zenbakian, 26. artikuluaren 1. atalean eta 27. artikuluaren 2. zenbakian aipaturik dauden kasuetan.

2.- Emate, Elkarte barruko eskuraketa edo inportazioa zerga honen salbuespenaren onura hartzen duten untziak salbamendu, itsas urgazpen edo itsasertzeko arrantzarekiko esklusiboki ez lotzea.

3.- Merkataritzako ihardueran egiten dituzten konpainiak funtsean nazioarteko aire-nabigazioan aritzea zehazten duten beharkizunak ez betetzea, emate, Elkarte barruko eskuraketa edo inportazioak Zergaren salbuespenaren onura 22. artikuluaren 4. atalak, 26.aren 1. atalak eta 27.aren 3. zenbakiak aipatzen dituzten kasuetan hartzen duten aireuntziei dagokienez.

4.- Zergaren aplikazio-lurraldean burutzen diren ondasun-eskuraketak, baldin eta haien aurretiazko emate, Elkarte barruko eskuraketa edo inportazioak honako zerga honen salbuespenaren onura hartzen badute, honako arau honen 22. artikuluaren 8. eta 9. ataletan, 26. artikuluan, aurrekoarekiko loturari dagokionez, eta 60. eta 61. artikuluetan xedatuta dagoena dela bide.

Hala ere, aurreko lerroaldean xedatu dena ez da aplikagarria izango eskuratzaileak aipatu ondasunak Elkartetik kanpora berehala eta behin betiko saldu edo garraiatzen dituenean.

5.- (74) (92) 23. artikuluan aipatzen diren egoerak amaitzea edo arau honetako 24. artikuluan bildutako araubideak azkentzea, baldin eta ondasunak egoera horietan jartzeko Europar Batasunaren barruan entregatu edo eskuratu badira edo araubide horiei lotuta badaude eta aipatutako artikuluetan eta 26. artikuluaren Bat apartatuan xedatutakoaren

arabera zergaren salbuespena jaso badute, edo artikulu horiek salbuetsitakozerbitzu emateak edo prestazioak izan badituzte.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren salbuespen gisa, ez da inportazioekin parekatutako eragiketatzat joko arau honen 23. artikuluan aipatzen diren egoerak amaitzea, ezta 24. artikuluan barne hartzen diren honako ondasun hauen araubideak azkentzea ere: eztainua (NC 8001 kodea), kobrea (NC 7402, 7403, 7405 eta 7408 kodeak), zinka (NC 7901 kodea), nikela (NC 7502 kodea), aluminioa (NC 7601 kodea), beruna (NC 7801 kodea), indioa (NC ex 811292 eta ex 811299 kodeak), zilarra (NC 7106 kodea) eta platinoa, paladioa eta errodioa (NC 71101100, 71102100 eta 71103100 kodeak). Kasu horietan, egoerak amaitzea edo aipatutako araubideak azkentzeak zergaren likidazioa ekarriko du, arau honen eranskinaren seigarren apartatuan ezarritako moduan.

Hala ere, ez da ez da inportazioekin parekatutako eragiketatzat joko 23. artikuluan aipatzen diren egoerak amaitzea edo 24. artikuluan jasotako araubideak azkentzea, arau honen 21., 22. edo 25. artikuluetan ezarritako salbuespenak aplikagarri zaizkion ondasun ematea zehazten duenean.

## II. TITULUA

## SALBUESPENAK

### I. KAPITULUA

### ONDASUN-EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK

#### 20. artikulua.- Barne eragiketetako salbuespenak. (25)

**Bat.** Zerga honetatik ondoko eragiketak salbuetsiko dira:

1.- (62) Posta zerbitzu unibertsaleko zerbitzugintzak eta haien osagarri diren ondasun emateak, osorik edo partzialki emateko konpromisoa hartu duten operadoreek eginez gero.

Salbuespen hau ez zaie aplikatuko banaka negoziatzen diren zerbitzuei.

2.- Zuzenbide publikoko entitateek edo eskuetsitako edo jakinarazitako prezio erregimeneko entitate edo establezimenduek burutzen dituzten ospitalizazioko edo sanitate urgazpeneko zerbitzugintzak, bai eta hauekiko lotura zuzena dutenak ere.

Ospitalizazioko eta sanitate urgazpeneko zerbitzugintzei zuzen lotutzat hartuko dira klinika, sanitate laborategi eta ospitalizazioko eta sanitate urgazpeneko gainontzeko establezimenduek burutzen dituzten elikadura, ostatu, kirurgia eta medikamenduen eta sanitateko materialen hornidurako zerbitzugintzak eta antzeko beste batzuk.

Ondoko eragiketak salbuespenaz ate daude:

a) Zenbaki honen lehen lerroaldean aipatu diren establezimenduetatik kanpo kontsumitzeko diren medikamenduak ematea.

b) Ospitalizazioko eta sanitate urgazpeneko zerbitzuen destinatariez eta berauen lagunez beste pertsona batzuentzat burutzen diren elikadura eta ostatuko zerbitzugintzak.

c) Albaiterigintza.

d) Honako zenbaki honek aipatu dituen entitateek burutzen dituzten ondasun-errentamenduak.

3.- Medikuntza edo sanitateko profesionariek pertsona fisikoentzat burutzen duten urgazpena, dena dela emandako zerbitzuen pertsona destinataria.

Zerga honek ondoreak izan ditzan, medikuntza edo sanitateko profesionari izatea edukiko dute ordenamendu juridikoan halakotzat hartuta daudenak eta zentro ofizialetan diplomaturik edo Administrazioak onarturik dauden psikologo, logopeda eta optikoak.

Salbuespenean bildurik dago eritasunen diagnostiko, aurrearreta eta tratamenduari buruzko medikuntza, kirurgia eta sanitateko urgazpena, analisi klinikoak eta miaketa erradiologikoak barne.

4.- Medikuntzako edo ikerkuntzako xedeetarako edota xede bereko prozesamendurako burutzen diren odol, odol-plasma eta giza gorputzeko beste jariakin, ehun eta beste osagai batzuen emateak.

5.- Estomatologo, odontologo, mekanikari-haginlari eta hagin-protesien egileek, nork bere lanbidearen eremuan, burutzen dituzten zerbitzugintzak, bai eta berauek burutzen dituzten hagin-protesi eta masaila-ortopedien emate, konponketa eta ezarketak ere, dena dela aipatu eragiketa horien kargudun pertsona.

6. (70) (79) Jarduera salbuetsi bat edo zergaren pean ez dagoen bat, kenkarirako eskubidea eragiten ez duena, gauzatzen duten pertsonek baizik eratzen ez duten batasunek, taldeek edo entitate autonomoek (interes ekonomikoko taldeek barne) beren kideei zuzenean emandako zerbitzuak, honako baldintzak bilduz gero:

a) Zerbitzuak jarduera horretan zuzenean erabiltzea, eta horrexetarako baino ez, eta jarduerarako beharrezkoak izatea.

b) Kideek batera egindako gastuetatik dagokien zatia bakarrik itzultzea.

c) Gauzatzen den jarduera salbuetsia ez izatea artikulu honetako Bat apartatuko 16., 17., 18., 19., 20, 22., 23., 26., eta 28. zenbakietan aipatzen denetakoa.

Kasu honetan ere aplikatuko da salbuespena: aurreko b) letran ezarritako betebeharra beterik, kenkariaren hainbanatzea ez denean ehuneko 10 baino gehiago eta zerbitzua ez

denean erabiltzen kenkarirako eskubidea eragiten duten eragiketetan bakarrik eta zuzenean.

Salbuespen hau ez zaie aplikatuko merkataritzako sozietateek ematen dituzten zerbitzuei.

7.- Gizarte Segurantzak, bere helburu zehatzak betetzeko, zuzenean edo bere entitate kudeatzaile edo laguntzaileen bidez burutzen dituen ondasun-emate eta zerbitzugintzak.

Salbuespen hau halako eragiketak burutzen dituztenek ondasunen eskuratzaileen edo zerbitzuen destinatarien Gizarte Segurantzaren kotizazioez beste inolako kontraprestaziorik jasotzen ez badute soilik aplikatu ahal izango da.

Salbuespena ez da hedatzen Gizarte Segurantzaren konturako medikamenduen edo sanitate materialen emateetara.

8.- (73) Zuzenbide publikoko erakundeek edo gizarte izaerako erakunde edo establezimendu pribatuek eman dituzten gizarte laguntzarako ondorengo zerbitzuak:

a) Haurrak eta gazteak babestea. Haurrak eta gazteak babesteko jardueratzat hartuko dira haurrak eta gazteak birgaitzekoak eta prestatzekoak, bularreko umeei laguntzekoak, haurrak zaindu eta artatzekoak, haurrentzako eta gazteentzako ikastaro, txango, udaleku edo bidaiak egitekoak eta hogeita bost urtetik beherakoei emandako antzeko beste batzuk.

b) Hirugarren adinekoentzako laguntza.

c) Ezinduentzako hezkuntza berezia eta laguntza.

d) Gutxiengo etnikoentzako laguntza.

e) Errefuxiatu eta iheslarientzako laguntza.

f) Behin-behineko egoiliarrentzako laguntza.

g) Partekatu gabeko familia zamak dituztenentzako laguntza.

h) Gizarte, komunitate eta familia ekintza.

i) Preso ohientzako laguntza.

j) Gizarteratzea eta delinkuentziaren prebentzioa.

k) Alkoholiko eta toxikomanoentzako laguntza.

l) Garapenerako lankidetza.

Salbuespenak barne hartzen ditu aipatutako establezimendu edo erakundeek, norbere baliabideekin edo beste batzuenekin, eman dituzten eta aurrekoen osagarriak diren zerbitzu hauek: janaria, ostatua edo garraioa.

9.- (74) Zuzenbide Publikoko erakundeek edo jarduerok egiteko baimena duten erakunde pribatuek egiten dituzten jarduera hauek: haurren eta gazteen hezkuntza, haurrak zaindu eta begiratzea (are haurrei arreta ematea ikastetxeetan jateko denboran edo haurtzaindegi zerbitzuko geletan eskola orduetatik kanpo); eskolako, unibertsitateko eta graduatu ondoko irakaskuntza; hizkuntzen irakaskuntza; heziketa eta birziklapen profesionala.

Salbuespena aurreko paragrafoan aipatutako zerbitzuekin zuzenean lotutako ondasun emateetara eta zerbitzuetara hedatuko da, baldin eta ekintzok zerbitzu horiek egiten dituzten irakaskuntzako edo hezkuntzako enpresek eginak badira, bitartekoak norberarenak zein besteenak izan.

Salbuespenak ez ditu honako eragiketok hartuko barnean:

a) Kirola praktikatzeari lotutako zerbitzuak, ikastegiak ez diren enpresek eginak.

Letra honetan inoiz ez dira sartuko ikastegiei lotutako ikasleen gurasoen elkarteek egiten dituzten zerbitzuak.

b) Ostatu emateko eta elikatzeko jarduerak, ikasle egoitza nagusiek eta txikiek egiten dituztenak.

c) A eta B lehorreko ibilgailuak gidatzeko baimenei eta kirol edo jolas ontzi edo aireontziak gidatzeko beharrezko diren tituluei, lizentziei edo baimenei lotutako eskolek (ibilgailuak gidatzekoek) egindako jarduerak.

d) Kostu bidezko ondasun emateak.

10.- Pertsona fisikoek hezkuntza sistemako edozein maila eta graduren barnean bildurik dauden ikasgaiei buruz ematen dituzten klase partikularrak.

Ez dira partikularrean emandako klasetzat joko, horiek burutzeko, Iharduera Ekonomikoen gaineko Zergaren enpresa-edo arte-ihardueren tarifetan alta eman beharra dutenak.

11.- Zuzentzako Ministraritzako erregistro egokian izena emanda duten erlijio-entitateek, beren xedeak betez, burutzen dituzten pertsonal-lagapenak, ondoko iharduerak egitea helburu dutela:

a) Ospitalizazioa, sanitate-urgazpena eta bi hauekin zuzenean erlazionaturik dauden gainontzekoak.

b) Atal honen 8. zenbakian bildurik dauden gizarte-urgazpenekoak.

c) Lanbide- heziketa, irakaskuntza, prestakuntza eta birziklapena.

12.- (74) Balio erantsiaren gaineko zergatik salbuetsita daude zerbitzugintzak eta haien osagarri diren ondasun emateak, legez onartutako irabazteko asmorik gabeko erakundeek, helburu politikoa, erlijiosoa, sindikala, abertzalea, filantropikoa edo zibikoa dutenek, beren berariazko helburuak lortzeko beren kideei zuzenean eginak, baldin eta trukean inolako kontraprestaziorik jasotzen ez badute, estatutuetan finkatutako kotizazioez besterik.

Aurreko paragrafoan sartutzat hartuko dira elkargoak, ganbara ofizialak, enpresaburu elkarteak eta zenbaki honetan aipatzen diren organismoak edo erakundeak biltzen dituzten federazioak.

Salbuespen hau aplikatzeko ezinbestekoa da lehia ez distortsionatzea.

13.- (20) Kirola edo heziketa fisikoa praktikatzen duten pertsonei emandako zerbitzuak, zerbitzua ematen duen edozein pertsona edo erakunde izanda ere, baldin eta zerbitzu horiek aipaturiko praktikekin zuzenean erlazionatuta badaude eta hurrengo pertsonek edo erakundeek ematen badute:

a) Zuzenbide publikoko erakundeak.

b) Kirol federazioak.

c) Espainiako Batzorde Olinpikoa.

d) Espainiako Batzorde Paraolinpikoa.

e) Izaera soziala duten kirol erakunde edo establezimendu pribatuak.

Salbuespena ez da kirol ikuskizunetara zabaltzen.

14.- Zuzenbide publikoko entitateek edo gizarte izaeradun kultur establezimendu pribatuek burutzen dituzten zerbitzugintzak; zerbitzugintzok ondoren zerrendatuko ditugu:

a) Liburutegi, artxibategi eta dokumentazio-zentroei berezko zaizkienak.

b) Museo, arte areto, pinakoteka, monumentu, toki historiko, lorategi botaniko, parke zoologiko, parke natural eta antzeko ezaugarriak dituzten gune natural babestuetarako bisitaldiak.

c) Antzerki, musika, koreografia, ikusentzunezko eta zinema emanaldiak.

d) Erakusketa eta antzeko agerraldien antolaketa.

15.- Eri edo zaurituak beren beregi egokiturik dauden anbulantzia edo ibilgailuetan garraiatzea.

16.- (46) Aseguru, berraseguru eta kapitalizazio eragiketak.

Aldi berean, tartekaritza zerbitzuak, eta horien barruan sartzen dira arestian aipatu diren eragiketa horietan esku hartzeko bezeroak lortzeko tartekaritza zerbitzuak, zerbitzu horiek egiten dituena enpresaburua edo profesionala izatea gorabehera.

Aseguru eragiketen barruan aurreikuspen modalitateak sartzen dira.

17.- Espainian legezko diren posta-zigilu eta efektu tinbredunen emateak, baldin zenbatekoa haien azaleko balioa baino handiagoa ez bada.

Salbuespena ez da hedatzen gainontzekoen izenean eta kontura ematen diren aipatu ondasunen luzapen-zerbitzuetara.

18.- Ondoko finantza-eragiketak:

a) (40) Dirutan dauden gordailuak, bere era guztietan, kontu korrontean eta aurrezki kontuetan dauden gordailuak barne, eta gordailu horiekin zerikusia duten beste eragiketa batzuk, gordailuzainak gordailugilearen alde eskaintzen dituen kobratzeko edo ordaintzeko zerbitzuak barne.

Salbuespena ez da kredituak, kanbio letrak, ordainagiriak eta beste agiri batzuk kudeatzeko zerbitzuetara hedatuko. “Factoring” kontratuen barruan emaileari eskainitako zerbitzuetara ere ez da hedatuko salbuespena, kontratu hauetan eskaini daitezkeen funtsen aurrerakinak izan ezik.

Txekeen edo taloien kontuetan ordaintzeko eragiketak ez dira kobrantza-kudeaketatzat joko.

b) Eskudirutako gordailuen eskualdaketa, baita gordailu-ziurtagiri edo antzeko zeregina betetzen duten tituluen bidez buruturik ere.

c) Dirutako kreditu eta maileguak ematea, dena dela hauek bideratzeko erabiltzen den modua, baita finantza-efektu edo beste izaera bateko tituluen bidez izanik ere.

d) Mailegu edo kredituak osorik edo zatika ematen dituztenek haiei buruz burutzen dituzten gainontzeko eragiketak, kudeaketa barne.

Salbuespena ez da hedatzen gainontzeko mailegu-emaileei adierazitako maileguetan ematen zaizkien zerbitzuetara.

Finantza-trukaketako eragiketak salbuetsirik daude, beti ere.

e) Mailegu edo kredituen eskualdaketa.

f) Fidantza, abal, gaude eta gainontzeko ondasun-berme edo berme pertsonalak ematea, bai eta jaulkipen, abisu, baiezpen eta agiridun kredituei buruzko gainontzeko eragiketak ere.

Salbuespena mailegu edo kredituen bermeen kudeaketara hedatzen da, baldin eta mailegu edo kreditu bermatuak edo bermeak berak eman zituztenek burutzen badituzte, baina ez gainontzekoek burutzen badituzte.

g) Bermeen eskualdaketa.

h) (40) Transferentziak, igorpenak, txekeak, ordainketa-aginduak, zor-agiriak, kanbio letrak, ordaintzeko txartelak edo kreditu txartelak eta beste ordainketa-agindu batzuk.

Salbuespena ondoko eragiketetara hedatuko da:

a') Txekeak eta taloiak banku artean konpentsatzea.

b') Onarpena eta onarpenaren kudeaketa.

c') Protestoa edo ordezko aitorpena eta protestoaren kudeaketa.

Salbuespenean ez da sartzen kanbio letrak edo kobrantzaren kudeaketan jaso diren gainontzeko dokumentuak kobratzeko zerbitzua. "Factoring" kontratuen barruan emaileari eskainitako zerbitzuak ere ez dira salbuespenean sartzen, kontratu hauetan eskaini daitezkeen funtsen aurrerakinak izan ezik.

i) (40) Aurreko letran aipatzen diren efektuak eta ordainketa-aginduak eskualdatzea, efektu deskontatuak barne.

Salbuespenean ez da efektuak kobrantza-komisio bidez lagatzea sartzen. "Factoring" kontratuen barruan emaileari eskainitako zerbitzuak ere ez dira salbuespenean sartzen, kontratu hauetan eskaini daitezkeen funtsen aurrerakinak izan ezik.

j) (77) Ordainketarako legezko medioak diren dibisak, banku-bileteak eta monetak (bildumarako moneta eta bileteak eta urre, zilar eta platinozko piezak izan ezik) helburu dituzten erosketa, salmenta, aldaketa edo antzeko zerbitzuen operazioak.

Aurreko lerroaldean ezarritakoaren ondorioetarako, bildumetakotzat joko dira normalean ordaintzeko legezko bitarteko gisa erabiltzen ez diren txanponak eta billeteak, edo numismatika interesa dutenak, salbu jaulkitzaileak ageriko balioko edo hortik beherako zenbatekoaren truke emandako bilduma txanponak, zeinak zergatik salbuetsita egongo baitira.

Salbuespen hori ez zaie ezarriko arau honen 140. artikuluaren 2. zenbakian ezarritakoaren arabera inbertsio urretzat jotzen diren urrezko txanponei.

k) (68) Zerbitzuak eta eragiketak, gordailuak eta kudeaketa izan ezik, sozietateetan diren akzio eta partaidetzei, obligazioei eta zenbaki honen aurreko idatz zatietan ez aipatutako balioei dagozkienak, salbu eta ondokoak:

a') Salgaien adierazgarriak.

b’) Jabegoa izatez edo legez ziurtatzen dutenak, higiezin bat osorik edo zati batean erabiltzea edo gozatzea dakartenak, baldin eta sozietateetako akzioak edo partaidetzak ez badira.

c’) Bigarren mailako merkatu ofizialetan negoziatzea onartutako balioak, bigarren mailako merkatuetan egindakoak, zeinen eskualdatzearen bidez nahi izan bada balio horiek ordezkatzen dituzten erakundeen higiezinen eskualdatzeei dagozkien zergen ordainketa ekiditea, Balio Merkatuaren Legearen 108. artikuluan xedatutakoaren arabera.

l) Aurreko puntuan aipatu diren baloreen eskualdaketa eta datxezkion zerbitzuak, jaulkipen edo amortizazioagatikoak barne, salbuespen berak daudela.

m) Zenbaki honen aurreko puntuetan deskribitu diren eragiketa salbuetsietan eta enpresa- edo lanbide-iharduerak egitean burutzen ez diren izaera bereko eragiketetan bitartekari izatea.

Salbuespena gordailuak, dirutako maileguak edo baloreak merkaturatzeko edo eskualdatzeko bitartekaritza-zerbitzuetara hedatzen da, zein haien entitate jaulkitzailearen, titularren edo beste bitarteko batzuen kontura burutzen baitira, aipatu eragiketen aseguraketa tartean deneko kasuak barne.

n) (24) Bakoitzaren legeriaren arabera eratutako, pentsio fondoen, Hipoteka Merkatuaren Erregulazioaren, Aktibo Titulazioen eta jubilazio kolektiboen, administrazio Errejistro berezietan errejistratutako eta baimendutako sozietate kudeatzaileak kudeatutako Kapital-Arrisku entitateen, inbertsio kolektiboen instituzioak kudeatzea eta gordailua.

ñ) (74)

19.- (63) Estatuko Loteria eta Apustuen Estatuko Sozietateak, Itsuen Erakunde Nazionalak eta autonomia erkidegoen organismo eskudunek antolatzen dituzten loteria, apustu eta jokoak, bai eta jokoaren eta ausazko konbinaketen gaineko tributuen zerga gaiak diren jarduerak ere.

Salbuespena ez zaie honakoei aplikatuko: kudeaketa zerbitzuak eta aurreko paragrafoan adierazitako eragiketen osagarri diren bestelako eragiketak, jokoaren gaineko tributuen zerga gaiak ez direnak, salbu eta bingoaren kudeaketa zerbitzuak.

20.- Nekazaritzako ustiategia burutzeko ezinbestekoak diren landalurren eta eraikigarri ez diren gainontzeko lurren emateak, beraietan iltzaturik dagoen edozein izaeratako eraikuntzak barne, bai eta esklusiboki parke eta lorategi publiko izateko edo erabilera publikodun bideak egiteko diren lurren emateak ere.

Ondore hauetarako, eraikigarritzat hartuko dira Lurzoruaren Erregimen eta Hiri Antolamenduari buruzko Legeak eta hirigintzako gainontzeko arauek orube kalifikatzen dituzten lurrak, bai eta administrazio-lizentzia egokiaren bidez eskuesten direlako eraikigai diren gainontzeko lurrak ere.

Salbuespena ez da hedatzen ondoko lurren emateetara, eraikigarri izaterik eduki ez arren.

a) (74) Lur urbanizatuen edo urbanizatzen ari diren lurren emateetara, parke eta lorategi publiko edo erabilera publikoko bideak egiteko baino ez diren lurren emateetara izan ezik.

b) Eraikitzen ari diren eraikinak edo buruturik dauden eraikinak iltzaturik dauden lurren emateetara, lurrak hauekin batera eskualdatzen direnean eta eraikinon emateak Zergari loturik eta hartatik salbuetsi gabe daudenean. Hala ere, salbuetsirik egongo dira lurrak ustiatzeko ezinbestekoak diren nekazaritzako eraikuntzak iltzaturik dauden lur ez-eraikigarrien emateak, bai eta eraikuntza gerarazi, aurrizko edo lurreratuak dauden izaera bereko lurren emateak ere.

21.- (74)

.

22.- (58) A) (70) Eraikinen bigarren emateak eta ondokoak, eraikina dagoen lurrak barne, eraikuntza edo birdoikuntza amaitu ondoren egiten direnean.

Arau honetan xedatutakoaren ondorioetarako, eraikin baten lehenengo ematea sustatzaileak egiten duena da, eraikuntza edo birgaikuntza amaitutakoan eginez gero. Hala ere, ez da lehenengo ematetzat hartuko sustatzaileak egiten duena jabeak edo gozamen eskubide errealen titularrek edo erosteko aukerarik gabeko errentamendu kontratuen bidez higiezina bi urtez edo denbora gehiagoz etengabe erabili eta gero; salbuespena: aldi horretan eraikina erabili duena eroslea bera bada, ematea lehenengoa izango da. Honen ondorioetarako, eskualdaketa gauzatzeko egindako eragiketa suntsiarazten bada, eskuratzaileak eraikina erabili duen aldia ez da konputatuko.

Eraikina dagoen sailean sartuko dira urbanizazio lan osagarriak egin diren lurrak ere. Hala ere, familia bateko etxebizitzei dagokienez, lursail urbanizatu osagarriaren azalera ezin da izan 5.000 metro karratutik gorakoa.

Arau honetako 7. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoaren arabera Zergaren kargapean ez dauden eskualdaketak ez dira lehenengo ematetzat hartuko zenbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako.

Ondokoei ez zaie aplikatuko zenbaki honetan xedatutako salbuespena:

a) Finantza errentamenduko eragiketak egin ohi dituzten enpresek errentamendu kontratu bati dagokion erosteko aukeraz baliatzean egiten dituzten eraikin emateei. Hori dela eta, errentatzaileari higiezina erosteko aukera erabiltzeko konpromisoa hartzea erosteko aukeraz baliatzearekin berdinetsiko da.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren finantza errentamenduko kontratuen iraupena hamar urtekoa izan behar da gutxienez.

b) Eskuratzaileak birgaitzeko egiten diren eraikinen emateei, arauz ezartzen diren baldintzak betez gero.

c) Hirigintzako sustapen berri bati ekin aurretik errausten diren eraikinen emateei.

B) Arau honen ondorioetarako, ondoko betekizunak betetzen dituztenak obrak hartuko dira birgaikuntzako obrak:

1. Obren xede nagusia eraikin bat birgaitzea izan behar da; hau betetzat jotzeko birgaikuntza proiektuaren guztirako kostuaren % 50 egitura elementuak, fatxadak edo estalkiak sendotzeko edo tratatzeko obrek eta birgaikuntzakoen antzeko obrek edo haiekin lotutakoek eragin behar dute.

2. Proiektuko obren guztirako kostua ondoko bi zenbateko baten % 25 baino gehiago izan behar da: eraikinaren eskuraketa prezioa, eskuraketa obrak hasi aurreko bi urteetan egin bada; gainerako kasuetan, obrei ekitean eraikinak edo haren zatiak merkatuan eduki duen balioa. Horren ondorioetarako, eskuraketa preziotik edo eraikinak merkatuan duen baliotik lurzoruari dagokion zati proportzionala kenduko da.

Ondokoak dira birgaikuntzakoen antzeko obrak:

a) Eraikinaren egitura egokitzeko egiten direnak, hau da, eraikinaren segurtasuna, egonkortasuna eta erresistentzia mekanikoa finkatzeko egiten direnak.

b) Zimenduak sendotzeko edo egokitzeko egiten direnak, eta pilareak eta forjatuak tratatzeko egiten direnak.

c) Eraikitako azalera sestra gainean eta sestrapean handitzeko egiten direnak.

d) Fatxadak eta barruko patioak berreraikitzeko egiten direnak.

e) Igogailuak instalatzeko obrak, are oztopo arkitektonikoak ezabatzeko, ezinduen onurarako, egiten direnak ere.

Ondoren azalduko diren obrak birgaikuntzakoekin lotutzat joko dira, baldin eta beraien guztirako kostua egitura elementuak, fatxadak edo estalkiak sendotzeko edo tratatzeko obrek eta, eginez gero, antzekotzat jotako obrek eragindako kostua baino gutxiago bada, haiekin ezinbestean lotuta badaude eta beraien xedea ez bada eraikina akabatzea edo apaintzea, ez fatxada mantentzea ez pintatzea:

a) Igeltsaritza, iturgintza eta arozkintzako obrak.

b) Itxiturak, instalazio elektrikoak, uraren instalazioa, girotze instalazioa eta suteen aurkako babesa hobetzeko egiten diren obrak.

c) Birgaikuntza energetikorako obrak.

Ondokoak dira birgaikuntza energetikorako obrak: eraikinen portaera energetikoa egiten direnak, hau da, eskari energetikoa murrizteko, berokuntzako sistema eta instalazioen errendimendua hobetzeko edo energia iturri berriztagarridun ekipoak sartzeko egiten direnak.

23.- Honako arau honen 11. artikuluan xedaturik dagoenaren arabera, zerbitzutzat hartzen diren errentamenduak, eta eduki eta luperketako ondasun-eskubideak eratu eta eskualdatzea, baldin eta eskubideok gaitzat ondoko ondasunak badituzte:

a) Lurrak, landa-finka bat ustiatzeko erabiltzen diren nekazaritzako eraikuntza higiezinak barne.

Salbuetsirik daude lurraren ustiapenarekiko lokabe den abeltzaintzan erabiltzen diren eraikuntza higiezinak, baldin eta beroriek iharduerei lotuta badaude.

b) (42) Etxebizitzen programa publikoen erakunde kudeatzaileek edo Sozietateen gaineko Zergan adierazitako etxebizitzak alokatzen dituzten araubide bereziko elkarteek alokatzen edo saltzen dituzten etxebizitza-eraikinak edo haien zatiak. Salbuespena garajeei, etxebizitzen eranskin osagarriei eta altzariei ere aplikatuko zaie, baldin eta etxebizitzekin batera alokatu badira.

Ondokoak ez dira salbuetsiak izango:

a’) Ibilgailuak aparkatzeko lurrak alokatzea.

b’) Andelak edo ondasun, gai edo produktuen biltegiak edo enpresa jardueraren bat jartzeko lurrak alokatzea.

c’) Erakusketetarako edo publizitaterako lurrak alokatzea.

d’) Lurrak edo etxebizitzak alokatzea, baldin eta gero horiek erosteko aukera badago eta zerga ordaindu behar badute.

e’) Altzariak dituzten apartamendu edo etxebizitzak alokatzea, baldin eta maizterra edo errentaria behartuta badago hoteletako zereginekin zerikusirik duen zerbitzu osagarriren bat egitera, hala nola: jatetxe, garbiketa, arropa garbi-ikuzi edo antzekoren bat.

f’) Berrakuratuko den eraikinaren edo haren zatiaren alokatzea, salbu eta aurreko b) idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorriz egindakoa.

g’) Hiri Errentamenduen Legean xedatutakoaren ildotik, etxebizitzen zati diren eraikinen edo haren zatien alokatzea.

h’) a’), b’), c’), e’) eta f’) idatz-zatietan aipatzen diren ondasunak erabiltzeko eta gozatzeko eskubide errealak eratzea edo eskualdatzea edo besterentzea.

j’) Azalerari buruzko eskubide errealak eratzea edo eskualdatzea edo besterentzea.

24.- (15) Artikulu honetan ezarritakoaren arabera, Zergatik salbuetsitako eragiketak burutzeko eskualdatzaileak erabili dituen ondasun-emateak, baldin eta subjetu

pasiboari ez bazaio aitortu jasandako Zergaren kenkari oso edo zati bat egiteko eskubidea, aipatutako ondasunak zein horien osagaiak eskuratu, hartu edo inportatzean.

Aurreko lerroaldian xedatutakoaren ondorioetarako, subjektu pasiboari jasaten dituen kuotetatik kenketa partziala egiteko eskubidea aitortu ez zaiola ulertuko da kasu hauetan: eskuratzen dituen zerbitzu eta ondasunak erabiltzean, Zergatik salbuetsiak ez diren eragiketak burutzean, hainbanako erregela ezar daitekeen arren.

Zenbaki honetan aipatutakoa ez da ezarriko:

a) Araupetze-denboraldian burutzen diren inbertsioko ondasun-emateetan.

b) (74) Aurreko 20., 21. eta 22. zenbakietan ezartzen diren salbuespenak bidezko gertatuz gero.

25.- Honako arau honen 95. eta 96. artikuluetan xedatuta dagoena dela bide, eskuraketa, lotze edo inportazioa burutzean eskuratzailearentzako kenkariak egiteko eskubidea oso-osoan baztertzea eragiten duten ondasunen emateak.

26.- Artista plastikoek, idazleek, egunkari eta aldizkarietako literatura-, irudi- eta argazki-kolaboratzaileek, musikagileek, antzerki lan eta argumentuzkoen egileek, ikusentzunezko lanen moldaketa, gidoia eta elkarrizketen egileek, itzultzaileek eta moldatzaileek ematen dituzten profesionari-zerbitzuak, kontraprestazio gisa egile-eskubideak dituztenak barne.

27.- (48) Alderdi politikoek euren xede berezia betetzeko diru laguntza lortzeko egindako zerbitzuei eta emandako ondasunei eta euren onurarako bakarrik egindako erakustaldiei dagokienez.

**Bi.** (74) Subjektu pasiboek uko egin ahal diete aurreko idatz zatiko 20. eta 22. zenbakietako salbuespenei (arau bidez ezarriko da nola eta zer baldintza bete beharko diren), baldin eta eskuratzailea enpresa edo lanbide jarduera batean ari den subjektu pasiboa bada eta eskuraketa dela eta jasandako zergaren kenkari osoa edo partziala aplikatzeko eskubidea onartzen bazaio edo, aurrekoa gertatzen ez denean, eskuratutako ondasuna, osorik edo zati bat, ezarritakoa xedea dela eta pentsatzekoa bada kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duen eragiketa batean erabiliko dela.

**Hiru.** (70) Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, gizarte erakunde edo establezimendutzat hartuko dira ondoko betekizunak betetzen dituztenak:

1. Erakundeak edo establezimenduak ezin du eduki irabazteko asmorik; gainera, inoiz mozkinik lortuz gero, mozkinok irabazteko asmorik gabeko jarduerak egiteko erabili behar ditu.

2. Lehendakariaren, buruaren edo legezko ordezkariaren karguak dohainekoak izan behar dira, eta kargudunek ezin dute eduki interesik ustiapenaren emaitza ekonomikoetan, ez berek zuzenean, ez bitarteko pertsonen bidez.

3. Salbuetsitako eragiketen hartzaile nagusiak ezin dira izan erakunde edo establezimenduetako bazkide, erkide eta partaideak, ez eta horien ezkontide eta bigarren mailarainoko odolkidetasuneko ahaideak ere; halaber, horiek guztiek ezin dituzte jaso zerbitzuak modu berezian.

Betekizun hau ez zaie aplikatuko artikulu honetako lehenengo idatz zatiko 8. eta 13. zenbakietan aipatzen diren zerbitzugintzei.

Aurreko baldintzak betetzen dituzten erakundeek gizarte erakunde edo establezimendu izaera aitortzea eska diezaiokete Zerga Administrazioari, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintza, zehaztapen eta betekizunekin. Aitorpen hori loteslea izango da Administrazioarentzat; dena den, eraginkorra izateko, arau honetan xedatutakoaren arabera salbuespenerako oinarri diren baldintza eta betekizunak bere horretan mantendu behar dira.

Aurreko baldintzak betetzen dituzten gizarte izaerako erakundeek edo establezimenduek emandako zerbitzuei dagozkien salbuespenak berdin aplikatuko dira, nahiz eta aurreko lerroaldean aipatzen den izaera aitortu ez, baldin eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko baldintzak betetzen badira.

**20 bis. artikulua.- (86) Interfaze digitalen bidez egiten diren ondasun emateen salbuespena.**

Arau honen 8 bis.b) artikuluan arautzen den kasuan, zergaren kargatik salbuetsita daude ondasun ematea interfaze digitalaren bitartez bideratzen duen enpresaburuaren edo profesionalaren alde egiten diren ondasun emateak, ematea zergaren aplikazio lurraldean egintzat joz gero.

**21. artikulua.- Ondasun-esportazioetako salbuespenak.**

Arau bidez ezartzen diren baldintza eta beharkizunak betez gero, ondoko eragiketak Zergatik salbuetsirik egongo dira:

1.- Eskualdatzaileak, edo beronen izenean eta kontura dihardruen gainontzeko batek, Elkartetik kanpora saldu edo garraiatzen dituen ondasunen emateak.

2.- Eskuratzaileak, baldin eta Zergaren aplikazio-lurraldean establezimendurik ez badauka, edo beronen izenean eta kontura dihardruen gainontzeko batek Elkartetik kanpora saldu edo garraiatzen dituen ondasunen emateak.

Aurreko lerroaldean xedatutakotik salbuetsirik daude kirol-edo jolas-untzi, turismo motako hegazkinak edo erabilera pribatuko edozein garraiobide ekipatu edo hornitzeko ondasunak.

Halaber, zerga honetatik salbuetsirik daude:

A) Bidaiariei egindako ondasun-emateak, ondoko beharkizunak betez gero:

a) (9) (79) Salbuespena gauzatuko da eskuratzeetan jasandako zerga itzuliz.

b) Bidaiariek ohizko egoitza Elkartetik ate eduki dezatela.

c) Eskuratzen diren ondasunak benetan Elkarteko lurraldetik irten daitezela.

d) Eskuratzen diren ondasunen multzoa merkataritzako salmenta ez dadila izan.

Arau honek ondoreak izan ditzan, bidaiariek daramatzaten ondasunak merkataritzako salmenta ez direla ondoko kasuan ulertuko da: bidaiarien erabilera pertsonalerako edo berauen ahaideen erabilerarako edo opari gisa eskaintzeko lantzean behin eskuratzen diren ondasunak izaki, duten izaera eta kopuruagatik merkataritzako iharduera bateko gaiak direlako ustea ezin eduki daitekeenean.

B) Aduanazko kontrolaren pean, portu eta aireportuetan dauden zergarik gabeko dendetan burutzen diren ondasun-emateak, eskuratzaileak beste lurraldetara berehalaxe irteten direnean, bai eta beste lurraldetan dauden portu edo aireportuak jomuga dituzten nabigazioak egiten dituzten untzi eta aireuntzietan burutzen direnak ere.

3.- (92) Zerbitzu emate hauek: zerga aplikatzen den lurraldean egindako lanak, haiek egin ahal izateko eskuratu edo inportatutako ondasun higigarrien gainean egindakoak, eta, ondoren, lan horiek egin dituenak, haien hartzaileak (zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta ez badago), aduana araudian xedatutakoaren arabera esportatzailea ez den beste pertsona batek edo aurreko edozeinen izenean eta kontura diharduen beste pertsona batek Erkidegotik kanpo egin edo garraiatutakoak.

Salbuespena ez da hedatzen kirol edo laketontzien, turismo hegazkinen edo iragaitzazko edo aldi baterako inportazioko araubidean sartutako erabilera pribatuko beste edozein garraiobideren konponketa edo mantentze lanetara.

4.- (64) Organismo aintzatetsientzako ondasun emateak, baldin eta organismook, beren gizaldezko, karitatezko edo hezkuntzazko jarduerak egitean, Erkidegotik kanpora esportatzen badituzte, aurretiaz salbuespenerako eskubidea aitortuta.

Hala ere, zenbaki honetako aurreko paragrafoan aipatzen diren ondasunak ematen dituena gizarte izaerako entitate publikoa edo establezimendu pribatua bada, guztiz kendu ahal izan ez den zerga jasanarazia itzultzea eskatu ahal izango dute. Horretarako, aldez aurretik zenbateko hori justifikatu behar dute emate horiek egin eta hiru hilabeteko epean.

5.- (76) Arau honen 20. artikuluaren arabera salbuespena dutenez beste zerbitzugintzak, garraio eta eragiketa osagarrienak barne, Elkartearen lurraldetik kanporako ondasun-esportazioekiko erlazio zuzena edukiz gero.

Aipatu esportazioei zuzen lotutzat hartuko dira ondoko baldintzak betetzen dituzten zerbitzuak:

a) Zerbitzuak ematea esportazio horiek egiten dituztenei, ondasunen jasotzaileei, beraien aduanako ordezkariei, edo batzuen eta besteen kontura jarduten duten garraio bitartekariei eta kontsignatarioei.

b) Egitea ondasunak erkidegotik kanpoko destino batera edo portu, aireportu edo muga eremu batean kokatuta dagoen puntura zuzenean bidaltzen direnetik aurrera, lurralde horretatik kanpora berehala bidaltzeko.

Aurreko b) hizkiak jasotzen duen baldintza ez da eskatuko zerbitzu hauei dagokienean: garraiobideen errenta, zamaren enbalajea eta egokitzapena, erosleek salgaiak onartzea eta bidalketa egiteko ezinbesteko diren antzekoak.

6.- Gainontzekoen izenean eta kontura diharduten bitartekoek burutzen dituzten zerbitzugintzak, honako artikulu honetan deskribatu diren eragiketa salbuetsietan esku hartzen dutenean.

7.- (92) Aduana araudian xedatutakoarekin bat etorriz esportatzailea izaki eskualdatzailea ez denak edo zergaren aplikazio lurraldean finkatu gabeko eskuratzailea denak, edo beroren izenean eta kontura diharduen hirugarren batek Erkidegotik kanpo igorritako edo garraiatutako ondasun emateak.

**22. artikulua.- Esportazioei berdinetsiriko eragiketetako salbuespenak.**

Arau bidez ezartzen diren baldintza eta beharkizunak betez gero, ondoko eragiketak Zergatik salbuetsirik egongo dira:

**Bat.** (50) Jarraian adierazten diren itsasuntzien emateak, eraikuntzak, eraldaketak. konponketak, mantenimendua, erabateko fletadura eta errentamendua:

1. Itsas zabalean nabigatzeko egokiak diren itsasontziak, merkatugai edo pertsonen garraio ordainduko merkataritza jardueren, turismo zirkuituak barne, edota industri edo arrantza jardueren egikaritzan nazioarteko itsas nabigazioari lotutakoak.

Salbuespena ez zaie ezein kasutan kirol edo astialdi jardueretara edo orokorrean erabilera pribatuko jardueretara destinatutako itsasontziei aplikatuko.

2. Salbamendu, itsas urgazpen edo itsasertzeko arrantzari esklusiboki loturik dauden ontziak.

Aurreko lerroaldean adierazi diren helburuak dituen ontzi baten jaregiteak gutxienezko urtebeteko epealdiaren barruan izango ditu ondoreak, ondoren ontzia ematen denean izan ezik.

3. Gerra itsasontziak.

Paragrafo honetan deskribaturik dagoen salbuespena gerta dadin aipatu ondasunen eskuratzaileak edo zerbitzuen hartzaileak, jarduerok egiten dituen konpainia bera izaki, jarduerak egitean ontziak erabili beharko ditu edo baita, hala denean,

eskuratzaile edo hartzaileak defentsako xedez ontziak darabiltzan entitate publikoa izan beharko du.

Arau honek ondoreak izan ditzan:

Lehenengoa. Nazioarteko itsas nabigaziotzat itsasoko uretan egiten dena hartuko da, ondokoak beteta:

a) Zerga aplikatzen den gune-eremuan kokaturiko aireportu batetik abiatu eta aipatu gune-eremuaz kanpoko beste aireportu batean bukatzea, edota eskala egitea.

b) Zerga aplikatzen den gune-eremuaz kanpo kokaturiko aireportu batetik abiatu eta aipatu gune-eremuaren barruan zein eremuaz kanpo kokaturiko beste aireportu batean bukatzea, edota eskala egitea.

c) Eskalarik egin gabe edozein portutan hasi eta amaitzen dena, Zergaren aplikaziorako espazio eremuaren lurralde itsasotik kanpo kokatutako uretan emandako denbora berrogeita zortzi ordu baino gehiagokoa denean.

Adierazitako c) letra honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko pertsona edo merkatugaien garraio ordainduko merkataritza jarduerak burutzen dituzten itsasontziei.

Nazioarteko itsas nabigazio kontzeptu honetan ez dira barne hartuko horniketa, konponketa edo antzeko zerbitzuetarako egindako eskala teknikoak.

Bigarrena. Itsasontzi bat nazioarteko itsas nabigazioari lotuta dagoela ulertuko da aipatu nabigazioaren egunaldietako ibilbideak jarraian adieraziko diren denbora tarteen barruan egindako ibilbide osoaren 100eko 50 baino luzeagoak direnean:

a) Konponketa edo mantenimendu eragiketak burutu aurreko urtea, hurrengo letran xedatutakoa salbu.

b) Itsasontziaren emate, eraikuntza, eraldaketa, Batasun barruko eskurapen, inportazio, pleitamendu oso edo errentamenduaren suposamenduetan, edo itsasontzia aurreko 2 zenbakian aipatutako helburuetatik kendu den suposamenduan, aipatu eragiketak egiten diren urte naturala, baldin eta urte horretako lehen seihilaren ondoren egiten ez badira; azken kasu horretan kontuan hartu beharreko tartea urte natural hori eta hurrengoa izango da.

Irizpide hau ezarriko da aurreko letran aipatu diren eragiketei dagokienez, honako letra honetan aipatutakoen ostean burutzen direnean.

Idatz zati honetan xedatutakoaren ondorioetarako, itsasontzi bat egitea amaitu dela ulertuko da Itsas Erregistroan behin-betiko matrikulatu denean.

Baldin eta b) letra honetan aipatutako denbora tarteak igarotakoan itsasontziak nazioarteko itsas nabigazioarekin duen lotura finkatzen duten beharkizunak betetzen ez baditu, bere zerga egoera erregularizatuko da apartatu honetako eragiketei dagokienez, foru dekretu honetako 19. artikuluaren 1 zenbakian xedatutakoari jarraiki.

**Bi.** Aurreko ataleko salbuespenek ukitzen dituzten untziei erasten zaizkien edo haien bornuan dauden gaien emate, errentamendu, konponketa eta mantenimendua, arrantzako tresnena barne, baldin eta eragiketok aipatu onura fiskalak aplikagarri diren aldietan burutzen badira.

Salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

1.- Aipatu eragiketen destinatari zuzena untziaren ustiapenaren titularra izan dadila edo, hala denean, untziaren jabea.

2.- Aipatu diren gaiak untzi horien ustiapenean soilik erabil daitezela edo, hala denean, horretan erabiltzeko destina daitezela.

3.- Salbuespenek ukitzen dituzten eragiketak aipatu untziak itsas erregistro egokian behin betiko matrikulatu ondoren buru daitezela.

**Hiru.** Ondoren adieraziko diren untzientzako hornidura-gaien emateak, aipatu untzien ustiapenaren titularrek eskuratzen dituztenean:

1.- Aurreko 1. atalaren 1. eta 2. zenbakietako salbuespenek aipatu dituzten untziak, baldin eta onura fiskalok aplikagarri diren aldietan burutzen badira.

Hala ere, itsasertzeko arrantzari loturik dauden untziak direnean, salbuespena ez da hedatzen bornuko horniduren emateetara.

2.- Nazioarteko itsas nabigazioa egiten duten gudauntziak, 1. atalean deskribatu denaren arabera.

**Lau.** Ondoko aireuntzi hauen emate, transformakuntza, konponketa, mentenimendu, guztirako pleitamendu edo errentamendua:

1.- Funtsean merkataritzako gaien edo bidaiarien garraio-iharduera ordainduak egiteko nazioarteko aire nabigazioan aritzen diren konpainiek esklusiboki darabiltzatenak.

2.- Entitate publikoek beren eginkizun publikoak betetzean darabiltzatenak.

Salbuespena gerta dadin aipatu ondasunen eskuratzaileak edo zerbitzuen destinatariak, lehengo iharduerok egiten dituen konpainia bera izaki, iharduerak egitean aireuntziak erabili behar ditu edo, hala denean, eskuratzaile edo destinataria eginkizun publikoetarako aireuntziak darabiltzan entitate publikoa bera izan beharko du.

Arau honek ondoreak izan ditzan:

Lehenengoa.- Nazioarteko aire nabigaziotzat ondoko balizkoak betez burutzen dena hartuko da:

a) Zerga aplikatzen den gune-eremuan kokaturiko aireportu batetik abiatu eta aipatu gune-eremuaz kanpoko beste aireportu batean bukatzea, edota eskala egitea.

b) Zerga aplikatzen den gune-eremuaz kanpo kokaturiko aireportu batetik abiatu eta aipatu gune-eremuaren barruan zein eremuaz kanpo kokaturiko beste aireportu batean bukatzea, edota eskala egitea.

Nazioarteko aire nabigazioaren kontzeptu honetan ez daude bilduta janaritu, konponketak egin edo antzeko zerbitzuak burutzeko egiten diren eskala teknikoak.

Bigarrena.- (15) Konpainia bat funtsean nazioarteko aire-nabigazioari lotuta dagoela ulertuko da, aipatutako nabigazioari konpainiak erabiltzen dituen aireuntzi guztiek ondoren adieraziko diren denboraldietan egiten dituzten hegaldi guztien %50 baino gehiago dagokionean:

a) Konponketa eta mantenimenduko eragiketak baino lehenagoko urte naturalean, ondorengo letran xedatutakoa izan ezik.

b) Aireuntzia eman, egin, eraldatu, Elkarte barruan eskuratu, inportatu, pleitamendu osoa egin edo akuratzen bada, aipatutako eragiketak burutzen diren egutegiko urtean, baldin eta aipatutako urteko lehen seihilabetekoaren ondoren burutzen ez badira, hala izanez gero kontuan hartu beharreko aldia egutegiko urte horrek eta hurrengoak osatzen dutena izango baita.

Irizpide hau ezarriko da aurreko letran aipatu diren eragiketei dagokienez, honako letra honetan aipatutakoen ostean burutzen direnean.

b) letran aipatutako denboraldiak agortuta, konpainiak nazioarteko aire-nabigazioari loturik egotea zehazten duten betebeharrak betetzen ez baditu, haren zerga-egoera honako atal honetako eragiketei dagokienez araupetuko da, 19. artikuluaren 3. zenbakian xedatutakoaren arabera.

**Bost.** Aurreko ataleko salbuespenek ukitzen dituzten aireuntziei erasten zaizkien edo haien bornuan dauden gaien emateak, errentamenduak, konponketak eta mantenimendua.

Salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

1.- Aipatu eragiketen destinatari zuzena eragiketok gaitzat duten aireuntziaren ustiapenaren titularra izan dadila.

2.- Aipatu diren gaiak aireuntzi horien ustiapenean erabil daitezela edo, hala denean, horretan erabiltzeko destina daitezela.

3.- (12) Salbuespenetan aipatzen diren eragiketak aipatu aireuntzi horiek erregelamendu bidez zehazten den Matrikula Erregistro matrikulatu ondoren egitea.

**Sei.** Laugarren atalean ezarritako salbuespenek aipatzen dituzten aireuntzientzako hornidura-gaien emateak, aipatu aireuntzien ustiapenaren konpainia edo entitate publiko titularrek eskuratzen dituztenean.

**Zazpi.** (92) Artikulu honetako aurreko apartatuetan zerrendatutakoez bestelako zerbitzu prestazioak, aurreko Bat eta Lau apartatuetan ezarritako salbuespenei dagozkien ontzien eta aireontzien zuzeneko beharrei erantzuteko edo ontzi eta aireontzi horien kargamentu premiei erantzuteko egindakoak.

Aurreko paragrafoan aipatutako zerbitzuenhartzaileakontzi horien ustiapenaren titularrak edo aireontzi horiek erabiltzen dituzten konpainia edo erakunde publikoak izan beharko dira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren salbuespen gisa, salbuetsita egongo dira arau honen 22. artikuluaren Bat apartatuan aipatutako ontzien kargamentu beharrekin zerikusia duten karga, estibatze, deskargatze, desestibatze eta ontzi aldaketako zerbitzuak, estibatzaile profesionalek beren izenean ematen dituztenak enpresa estibatzaileen alde, eta enpresa horiek, aldi berean, ontzi horien ustiapenaren titularrei emandako zerbitzuetanerabiltzen dituztenak.

**Zortzi.** Harreman diplomatiko eta kontsularren markoan burutzen diren ondasun-emate eta zerbitzugintzak, arau bidez zehazten diren kasuetan eta beharkizunak betez.

**Bederatzi.** (62) (88) Espainiak aintzatetsitako nazioarteko erakundeentzako eta erakunde horietan estatutu diplomatikoarekin lanean ari diren pertsonentzako ondasun emateak eta zerbitzugintzak, erakundeok sortu dituzten nazioarteko itunetan edo kasu bakoitzean aplikatu beharreko egoitza akordioetan ezartzen diren mugekin eta baldintzekin.

Hain zuzen ere, apartatu honetan sartuko dira Europar Batasunarentzako, Energia Atomikoaren Europako Erkidegoarentzako, Europako Banku Zentralarentzako, Europako InbertsioBankuarentzako ondasun emateak eta zerbitzugintzak, eta Europako erkidegoen pribilejioei eta immunitateei buruzko 1965eko apirilaren 8ko Protokoloa aplikatzen zaien Europako erkidegoetako erakundeentzakoak, Protokoloan eta hura aplikatzeko akordioetan eta egoitza akordioetan ezarritako mugen barruan eta bertako baldintzak beteta egiten direnak, baldin eta lehian distortsioriksortzen ez bada.

Halaber, apartatu honetan sartuko dira Batzordeak edo Batasunaren Zuzenbidearen arabera sortutako organo edo erakunde batek, Batasunaren Zuzenbidearen arabera dauzkan egitekoetan ari dela, ondasunak edo zerbitzuakeskuratzea COVID-19aren pandemiari aurre egiteko, baldin eta Batzordeak edo erakundeak eskuratzen diren ondasunak eta zerbitzuak gero ez baditu erabiltzen beste inori kostu bidez emateko.

**Hamar.** (92) Honako hauetarako egindako ondasun emateak eta zerbitzu prestazioak:

a) Ipar Atlantikoko Tratatua sinatu duten gainerako estatuetako indarrak, tratatu hori sinatu duten estatuen arteko hitzarmenean haien indarren estatutuari buruz ezarritakoaren arabera;

b) Espainia ez den beste edozein estatu kidetako indar armatuak, indar horiek edo haien zerbitzura dauden langile zibilak erabiltzeko, edo haien jantokiak edo kantinak

hornitzeko, betiere indar horiek Batasunaren jarduera bat gauzatzeko segurtasun eta defentsa politika erkidearen esparruan egindako defentsa ahalegin bati lotuta badaude.

**Hamaika.** (92) Beste estatu kide baterako egindako ondasun emateak eta zerbitzu prestazioak, eta honako hauentzat:

a) Ipar Atlantikoko Tratatua sinatu duten edozein estatutako indarrak, helmugako estatu kideaz bestelakoak, tratatu hori sinatu duten estatuen arteko hitzarmenean haien indarren estatutuari buruz ezarritakoaren arabera;

b) Helmugako estatu kideaz bestelako edozein estatu kidetako indar armatuak, indar horiek edo haien zerbitzura dauden langile zibilak erabiltzeko, edo haien jantokiak edo kantinak hornitzeko, betiere indar horiek Batasunaren jarduera bat gauzatzeko segurtasun eta defentsa politika erkidearen esparruan egindako defentsa ahalegin bati lotuta badaude.

**Hamabi.** Espainiako Bankuarentzako urre-emateak.

**Hamahiru.** (79) Bidaiarien eta haien bagajeen itsasozko edo airezko garraioak, zergaren peko eremutik kanpoko portu edo aireportu batetik datozenak edo horrelako batera doazenak.

Apartatu honetan sartzen direla joko da airezko garraio titulu bakar batek babesturik aire konexiozko hegaldiak dauzkatenak.

**Hamalau.** Azoreak edo Madeira irla jomuga duten edo aipatu irlotatik abiatzen diren Elkarte barruko ondasun-garraioko zerbitzugintzak; Elkarte barruko ondasun-garraioa arau honen 72. artikuluaren bigarren atalean definiturik dago,

**Hamabost.** (9) Bitartekoek hirugarren baten izenean eta kontura burutzen dituzten zerbitzugintzak, baldin eta, artikulu honetan xedatutakoa dela bide, Zergapeko eragiketetan esku hartzen badute.

**Hamasei.** (13) (92) Aurreko apartatuetan xedatutakoa aplikatzetiksalbuetsita dauden eragiketek ez dituzte barne hartuko arau honen 20., 20 bis, 21. eta 25. artikuluen arabera salbuetsita daudenak.

**Hamazazpi.** (9)

**23. artikulua.- (92) Aldi baterako gordailutze egoerei eta beste egoera batzuei buruzko salbuespenak.**

**Bat.** Arau bidez ezartzen diren baldintza eta beharkizunak betez gero, ondoko eragiketa hauek salbuetsirik egongo dira:

1. Aldi baterako gordailuan dauden ondasun emateak, bai eta aurreko ondasun emateekin zuzenean lotutako zerbitzu prestazioak eta ondasunak egoera horretan dauden bitartean egindakoak ere.

2. Lurralde itsasorabideratzen diren ondasun emateak, zulaketa edo ustiapen plataformetan txertatzeko, haiek eraiki, konpondu, mantendu, eraldatu edo ekipatzeko edo plataforma horiek kontinentearekin lotzeko.

Salbuespena aurreko paragrafoan aipatutako plataformak hornitzera bideratutako ondasun emateei aplikatuko zaie.

3. Aurreko 2. zenbakian deskribatutako ondasun emateekin zuzenean lotutako zerbitzu prestazioak, bai eta apartatu honetan aipatutako egoeretan jartzekoak diren ondasunen inportazioekin zuzeneko lotura dutenak ere.

4. Aurreko 2. zenbakian adierazitako egoeran dauden ondasun emateak, bai eta ondasunak egoera horretan dauden bitartean egindako zerbitzu prestazioak ere.

**Bi.** Aldi baterako gordailu egoera eta artikulu honetan aipatutako ondasunak aldi baterako gordailu egoeran jartzea aduana legeriak ezarritako definizioaren, arauen eta baldintzen araberakoak izango dira.

**Hiru.** Artikulu honetan ezarritako salbuespenak, nolanahi ere, aplikatuko dira baldin eta ondasun horiek ez badira erabiltzen eta bideratzen azken kontsumora adierazitako egoeretan.

**Lau.** Bat apartatua oinarri salbuetsita dauden zerbitzu prestazioek ez dituzte barne hartuko arau honen 20., 21. eta 22. artikuluen arabera salbuetsita daudenak.

**24. artikulua.- (92) Aduana eta zerga araubideei buruzko salbuespenak.**

**Bat.** Arau bidez ezartzen diren baldintza eta beharkizunak betez gero, ondoko eragiketa hauek Zergatik salbuetsirik egongo dira:

1. Jarraian adierazten diren ondasun emateak:

a) Zona frankoaren araubideari lotuta egotera bideratuta daudenak eta araubide horri lotuta daudenak.

b) Perfekzionamendu aktiboko aduana eta zerga araubideen babesean egindako prozesuetan erabiltzeko direnak, bai eta araubide horiei lotuta daudenak ere, salbu eta perfekzionamendu aktiboaren behar baino lehenagoko esportazioaren modalitatea.

c) Aldi baterako inportazio araubideari lotuta daudenak, inportazio edo kanpo igarotzeko eskubideen salbuespen osoarekin.

d) 18. artikuluaren Bat apartatuaren 2. zenbakian sartutakoak, aldi baterako inportazioaren zerga araubidearen edo barne igarotzearen araubidearen babesean daudenak.

e) Aduana gordailuaren araubideari lotuta egotera bideratuta daudenak eta araubide horri lotuta daudenak.

f) Aduana gordailuaren ez bestelako araubide bati lotuta egotera bideratuta daudenak eta araubide horri lotuta daudenak.

2. Aurreko zenbakian deskribatutako emateekin zuzenean lotutako zerbitzu prestazioak.

3. Honako eragiketa eta ondasun hauekin zuzenean lotutako zerbitzu prestazioak:

a) Zona frankoaren araubidearekin lotzen diren ondasunen inportazioak.

b) Kanpo igarotzearen araubidearekin lotzen diren ondasunen inportazioak.

c) 18. artikuluaren Bat apartatuaren 2. zenbakian sartutako ondasunen inportazioak, aldi baterako inportazioaren zerga araubidearen edo barne igarotzearen araubidearen babesean jartzen direnak.

d) Perfekzionamendu aktiboko aduana eta zerga araubideekin lotzen diren ondasunen inportazioak.

e) Aduana gordailuaren araubidearekin lotzen diren ondasunen inportazioak.

c) Aldi baterako inportazio araubideari lotuta dauden ondasun inportazioak salbuespen osoarekin.

g) Aduanaz bestelako gordailu araubide bati lotzen zaizkion ondasunen inportazioak, arau honen 65. artikuluaren arabera salbuetsita daudenak.

h) Aurreko a), b), c), d), e) eta g) letretan deskribatutako araubideei lotutako ondasunak.

**Bi.** Aurreko apartatuan aipatzen diren araubideak aduana legerian definitutakoak dira, eta haien lotura eta haietan irautea legeria horretan ezarritako arau eta betekizunetara egokituko dira.

Perfekzionamendu aktiboaren zerga araubidea izen bereko aduana araubidetik kanpo geratzen diren ondasunei dagokienez baimenduko da, eta gainerakoan, aduana araubide hori arautzen duten arau berberak bete beharko dira.

Aldi baterako inportazioen zerga araubidea arau honen 3. artikuluaren Bi apartatuko 1. zenbakiaren b) letran jasotako lurraldeetatik datozen ondasunei dagokienez baimenduko da, baldin eta aldi baterako inportazioa inportazio eskubideen salbuespen osoaren onuradun bada edo, ondasunak hirugarren herrialdeetatik badatoz, salbuespen horren onuradun bada.

Arau honen ondorioetarako, aduanaz bestelako gordailu araubidea arauaren eranskinaren Bost apartatuan zehaztutakoa izango da.

**Hiru.** Bat apartatuan deskribatutako salbuespenak aipatutako ondasunak lehen adierazitako araubideei lotuta dauden bitartean aplikatuko dira.

**Lau.** Aduana eta zerga araubideei dagozkien salbuespenak, nolanahi ere, aplikatuko dira baldin eta ondasun horiek indarrean dauden bitartean ez badira erabiltzen ez eta bideratzen ere azken kontsumorako, perfekzionamendu aktiboko aduana eta zerga araubideen babesean egiten diren eraldaketa prozesuetan txertatutako ondasunei kalterik egin gabe.

**Bost.** Bat apartatua aplikatzearen ondorioz salbuetsita dauden zerbitzu prestazioek ez dituzte barne hartuko arau honen 20. artikuluaren arabera salbuetsita daudenak.

**25. artikulua.- Beste estatu kide batentzako ondasun-emateetako salbuespenak.**

Ondoko eragiketak Zergatik salbuetsita daude:

**Bat.** (9) (83) Arau honek 8. artikuluan zehazten dituen ondasun emateak, baldin eta saltzaileak, eskuratzaileak edo hirugarren batek aurreko bietako baten izenean eta kontura bidaltzen edo garraiatzen baditu Batasuneko beste estatu bateko lurraldera, eskuratzailea enpresaburua edo profesionala bada, edo hala ez diharduen pertsona juridikoa, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako identifikazio fiskaleko zenbakia badauka, Espainiako Erresuma ez Batasuneko beste estatu batek emana, eta zenbaki horren berri eman badio saltzaileari.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, baldintza hau bete behar da: saltzaileak eragiketa horiek sartu behar ditu arau honetako 164. artikuluko lehen idatz zatiko 5. zenbakian aipatzen den laburpen aitorpenean, arauz ezartzen den bezala.

Idatz zati honetan azaltzen den salbuespena ez zaie aplikatuko honako ondasun emate hauei: ematearen xede den Batasuneko estatuan Batasunaren barruko ondasun eskuraketak arau honetako 14. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan bildutako irizpideak direla bide zerga honen kargapean ez dituzten pertsonentzako ondasun emateei.

Halaber, salbuespen hau ondasun erabili, arte objektu, antigoaleko objektu eta bilduma objektuen araubide berezian dauden ondasun emateei ere ez zaie aplikatuko zaie (araubide hori arau honen IX. Tituluko IV. Kapituluan ezartzen da).".

**Bi.** (8) Garraiobide berrien emateak, Bat apartatuan adierazita dauden baldintzetan burutzen direnean eta jomugako eskuratzaileak aurreko lerroaldian bildurik daudenak edo enpresaria edo profesionaria ez diren beste edozein pertsona direnean.

**Hiru.** Arau honen 9. artikuluaren 3. zenbakian bildurik dauden ondasun-emateak, baldin eta, destinataria beste enpresari edo profesionari bat izanez gero, ondasun-emateoi 1. ataleko salbuespena aplikatu ahal bazaie.

**Lau.** (26) (83) Ondasunak kontsignansaltzeko akordio baten esparruan, eta arau honetako 9 bis artikuluko bigarren idatz zatian ezartzen diren baldintzakbetetzen direla, egiten diren ondasun emateak.

## II. KAPITULUA

## ELKARTE BARRUKO ONDASUN-ESKURAKETAK

### 26. artikulua.- Elkarte barruko ondasun-eskuraketetako salbuespenak.

Zergatik salbuetsita daude:

**Bat.** Zergaren aplikazio-lurraldean, arau honen 7., 20., 22., 23. eta 24. artikuluetan xedaturik dagoena dela bide, beti zergarekiko menpekotasunik gabe edo hartatik salbuetsirik eman daitezkeen Elkarte barruko ondasun-eskuraketak.

**Bi.** Titulu honen III. kapitulua dela bide, beti ere Zergatik salbuetsirik inporta daitezkeen Elkarte barruko ondasun-eskuraketak.

**Hiru.** (2) Elkarte barruko ondasun-eskuraketak zeinetan ondorengo baldintzak ematen diren:

1.- Ondoren enpresari edo profesional batek egiten dituenak:

a) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoriotarako Zergaren aplikazioko lurraldean ez dadila egon bizitzen ez eta identifikatuta, eta

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoriotarako Elkarteko beste Estatu kide batetan identifikatuta egon dadila.

2.- Eskuratzaile berak Zergaren aplikazioko lurraldearen barne egindako, eskuratutako ondasunen ondorengo ematea baten burutzapenerako egin daitezela.

3.- Eskuratutako ondasunak eskuratzailea Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoriotarako identifikatuta aurkitzen denaren desberdin Estatu kide batetik hasita zuzenean saldu edo garraiatuak izan daitezela eta zeinentzat ondorengo ematea egiten den pertsonarentzat.

4.- Ondorengo ematearen hartzailea enpresari edo profesional bat edo pertsona juridiko bat baina horrela iharduten ez dena, zeintzuetan Arau honen 14. artikuluan ezarritako ez menpekotasunak eraginik ez dutenak eta Administrazio espainiarrak emandako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoriotarako identifikazio zenbaki bat izendatuta dutenak.

**Lau.** (56) Batasunaren barruko ondasunen eskuraketak, baldin eta arau honetako 119 edo 119 bis artikuluan xedatutakoaren arabera eskuratzaileak badauka haiengatik sortutako zerga zor guztia itzultzeko eskubidea.

**Bost.** (40)

## III. KAPITULUA

## ONDASUN-INPORTAZIOAK

**27. artikulua.- Barnealdeko ematea Zergarekiko menpekotasunetik ate duten ondasunen inportazioa.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira ondoko ondasunak inportatzea:

1.- Odola, odol-plasma eta giza gorputzaren gainontzeko jariakin, ehun eta osagaiak, medikuntza edo ikerkuntzako xedez edo xede berauetarako prozesatzeko inportatzen direnean.

2.- Honako arau honen 22. artikuluaren 1. eta 2. ataletan ezarririk dauden salbuespenek aipatzen dituzten untziak eta hauei erasteko diren gaiak.

3.- Honako arau honen 22. artikuluaren 4. eta 5. ataletan ezarrita dauden salbuespenek aipatzen dituzten aireuntziak eta hauei erasteko diren gaiak.

4.- Zerga aplikatzen den gune-eremuan sartu eta aipatu lurralde-eremuan kokaturiko portura edo portuetara heldu bitartean eta berauetan xedeak betetzeko behar bezainbateko epean dauden bitartean, honako arau honen 22. artikuluaren 3. atalean ezarrita dauden hornidura-emateen salbuespenak dagozkien untzietan kontsumitu eta berauen bornuan dauden hornidura-ekoizkinak, aipatu manuan aurrikusita dauden mugekin.

5.- Zerga aplikatzen den gune-eremuan sartu eta aipatu lurralde-eremuan kokaturiko aireportura edo aireportuetara heldu bitartean eta berauetan xedeak betetzeko behar bezainbateko epean dauden bitartean, honako arau honen 22. artikuluaren 6. atalean ezarrita dauden hornidura-emateen salbuespenak dagozkien aireuntzietan kontsumitu eta berauen bornuan dauden hornidura-ekoizkinak, aipatu atalean ezarrita dauden baldintzak betez gero.

6.- Arau honen 22. artikuluaren 3. eta 6. ataletan ezarrita dauden salbuespenek ukitzen dituzten untzi eta aireuntzien ustiapenaren enpresa titularrek inportatzen dituzten hornidura-ekoizkinak, baldin eta aipatu manuetan ezarrita dauden mugak betetzen badituzte eta untzi eta aireuntzi horietan erabiltzeko xedea baizik ez badute.

7.- (62) Legezko ordainbide diren dibisak, bankuko billeteak eta txanponak, ondokoak izan ezik: bildumetako txanponak eta billeteak, eta urrezko, zilarrezko eta platinozko piezak.

8.- Balore-tituluak.

9.- (8)

10.- Espainiako Bankuak zuzenean inportatzen duen urrea.

11.- Honako arau honen 23. artikuluaren 1. atalaren 2. zenbakian plataformetarako direnak, baldin eta manu horretan aipatzen diren xede beretarako badira.

12.- (62) Beste estatu kide bat jomuga edukirik saldu edo garraiatzen diren ondasunak, baldin eta inportatzaileak edo beraren zerga ordezkariak ondoren burutzen duen ondasun horien ematea Zergaren kargapean ez badago arau honetako 25. artikuluan xedatu denaren arabera.

Zenbaki honetako salbuespena aplikatzeko ezinbestekoa da arauz ezartzen diren betekizunak betetzea.

**28. artikulua.- Ohizko egoitzaren lekualdaketarengatiko ondasun pertsonalen inportazioa.**

**Bat.** Zergatik salbuetsirik daude ohizko egoitza Espainiako erresumaz beste lurralde batetik lekualdatzen duten pertsona fisikoen ondasunen inportazioak.

**Bi.** Salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

1.- Interesatuek ohizko egoitza gutxienez lekualdaketa aurreko jarraiko hamabi hilabetez Elkarteaz kanpo eduki izana.

2.- Inportatzen diren ondasunak egoitza berrian aurrekoan zituzten erabilera edo xede beretarako erabiltzea.

3.- Ondasun horiek jatorrizko herriko tributu-baldintza normaletan eskuratu edo inportatzea eta aipatu herritik irtetean sorrarazten diren kuoten ezein salbuespen edo berreskurapenen onura ez hartu izana.

Beharkizun hau betetzat joko da ondasunak erregimen diplomatiko edo kontsularrean xedaturik dauden salbuespenen itzalpean eskuratu edo inportatzen direnean, edota egoitza jatorrizko estatuan duten nazioarteko organismoetako kideentzat direnean, aipatu organismoak sortu dituzten nazioarteko htzarmenek edo egoitzari buruzko erabakiek ezarrita dauzkaten muga eta baldintzekin.

4.- Inportagai diren ondasunak interasatuaren edukitzan egon izana edo, ondasun ez-suntsigarriak badira, hark bere egoitza zaharrean berau utzi aurreko sei hilabetetako gutxienezko aldian erabili izana.

Dena den, errepidean ibiltzeko ibilgailu motore mekanikodunak, hauen atoiak, kanping-eko karabanak, etxebizitza garraiagarriak, jolasuntziak eta turismo motako hegazkinak direnean, baldin eta aurreko 3. zenbakiaren bigarren lerroaldean aipaturik dauden salbuespenen eskuratu edo inportatzen badira, aurreko lerroaldean deskribaturik dagoen erabileraldiak hamabi hilabete baino luzeagoa izan beharko du.

Ez da eskatu zenbaki honetan ezarri diren epeak bete daitezen aduanazko legeriak hala jokatzea onartzen duen salbuespenezko kasuetan, inportazio-eskubideen ondoreetarako

5.- Ondasunen inportazioa egoitza Zerga aplikatzen den lurraldera lekualdatzen den egunetik zenbatzen hasi eta hamabi hilabetetako gehienezko epean burutzea.

Hala ere, ondasun pertsonalak lekualdaketa egin baino lehen inportatu ahal izango dira, baldin eta aurretiaz interesatuak bere egoitza berria inportazioa burutu eta hurrengo sei hilabeteak igaro aurretik ezartzeko konpromezua hartzen badu; konpromezu hau betearazteko bermea eskatu ahal izango da.

Aurreko lerroaldean adierazitakoa gertatzen bada, aurreko zenbakian ezarri diren epeak inportazioa burutzen den egunaren arabera kalkulatuko dira.

6.- Salbuespenarekin inportatzen diren ondasunak inportatu eta ondorengo hamabi hilabeteetako epean ez eskualdatu, lagatu edo errentatzea, bidezko arrazoirik egon ezean.

Beharkizun hau betetzen ez bada, Zerga ez-betetzea gertatzen den egunari dagokionez ordainarazi beharko da.

**Hiru.** Salbuespenetik ate daude ondoko ondasunak:

1.- Aduana arantzelaren NC 22.03 eta 22.08 bitarteko kodeetan bildurik dauden ekoizkin alkoholdunak.

2.- Tabakoa, langabea zein landua.

Dena den, 2. zenbaki honetan eta aurreko 1. zenbakian bildurik dauden ondasunak arau honen 35. artikuluan araupeturik dagoen bidaiarien erregimenean frankiziaz baimenduriko diru-kopuruen mugetara iritsi arteko salbuespenaz inportatu ahal izango dira.

3.- Industri izaerako garraiobideak.

4.- Inportatzaileak bere lanbide edo ogibidean iharduteko darabiltzan tresna eramankorrez lanbide erabilerako beste materialak.

5.- Merkataritza- edo lanbide-xedeetarako erabiltzen diren erabilera mistoko ibilgailuak.

**29. artikulua.- Ondasun pertsonalen kontzeptua.**

Arau honek ondoreak izan ditzan, ondasun pertsonaltzat hartuko dira interesatuaren edo berarekin bizi diren pertsonen erabilerarako izan ohi direnak edo berauen etxeko beharrizanetarako direnak, baldin eta ondasunak, izaera eta

kopuruagatik, enpresa-edo lanbide-ihardueraren bati loturik daudelako ustezkotasunik eduki ezin bada.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gora-behera, ondasun pertsonalak dira, halaber, inportatzaileak bere lanbide edo ogibidean iharduteko behar dituen tresna eramankorrak.

**30. artikulua.- Bigarren mailako etxebizitza jazteko xedea duten ondasun pertsonalen inportazioa.**

**Bat.** Zergatik salbuetsita daude partikularrek inportatzailearen bigarren mailako etxebizitza bat jazteko burutzen dituzten ondasun personalen inportazioak.

**Bi.** Aurreko lerroaldean ezarri den salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

1.- Arau honen 28. artikuluaren 2. atalaren 2., 3., 4. eta 6. zenbakietan ezarrita daudenak, aplika daitezkeen heinean.

2.- Inportatzailea bigarren mailako etxebizitzaren jabea edo, hala denean, errentaria izan dadila hamabi hilabetetako gutxienezko epealdian.

3.- Inportatzen diren ondasunak bigarren mailako etxebizitzaren ohizko altzariei edo ostilamenduari dagozkionak izan daitezela.

**31. artikulua.- Ondasun pertsonalen ezkontzagatiko inportazioak.**

**Bat.** Ez dira Zergapekoak izango, ezkontza dela eta, ohizko egoitza Zerga aplikatzen den lurraldeko gainontzeko herrietatik lekualdatzen duten pertsonek burutzen dituzten ostilamendu- eta altzari-ondasunen inportazioak.

**Bi.** Salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

1.- Arau honen 28. artikuluaren 2. atalaren 1., 3. eta 6. zenbakietan ezarrita daudenak.

2.- Interesatuak ezkontzaren froga eta, hala denean, hura burutzeko kudeaketa ofizialak hasi direlako froga eman dezala.

3.- Inportazioa ezkontza burutu aurreko bi hilabeteak eta burutu ondorengo lau hilabeteak bitarteko aldian egin dadila.

Inportazioa ezkontza burutu aurretik gauzatzen denean Administrazioak behar adinako bermea eskatu ahal izango du.

**Hiru.** (35) Salbuespen hori beste kasu hauetan ere aplikatzen da: ohiko bizitokia Erkidegotik kanpo duten pertsonek, batez ere ezkontzeagatik, aurreko Bat idatz zatian

aipatutako pertsonei gauzaren bat oparitzen dietenean, baldin eta oparitutako gauza bakoitzaren balioa 200 euro baino gehiago ez bada.

**Lau.** Artikulu honetan xedatutakoa ezin aplikatu ahal izan zaie errepidean ibiltzeko ibilgailu motoredunei, hauen atoiei, kanping-eko karabanei, etxebizitza garraiagarriei, jolasuntziei eta turismo motako hegazkinen arau honen 28. artikuluan xedaturik dagoenaren kalterik gabe.

**Bost.** Halaber, ez dira Zergatik salbuetsirik egongo arau honen 28. artikuluaren 3. atalaren 1. eta 2. zenbakietan bildurik dauden ekoizkinak, aipatu manuan jarrita dauden salbuespenekin.

**Sei.** Ezkontza burutzeko adierazten den egunetik zenbatzen hasi eta lau hilabetetara ezkontza-frogagiririk ezak Zergaren ordainarazpena eragingo luke, inportazio burutzen den egunetik.

**32. artikulua.- Ondasun pertsonalen jaraunspenagatiko inportazioak.**

**Bat.** Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira *mortis causa* eskuratzen diren ondasun pertsonalen inportazioak, Zerga aplikatzen den lurraldean ohizko egoitza duten pertsona fisikoek burutzen dituztenean.

**Bi.** Salbuespena interesatuak eskuratzen diren ondasunen edukitza lortu eta bi urtetako epean inportatzen dituen ondasunei dagokienez baizik ez da aplikatuko, Administrazioak aintzat hartzen dituen aparteko kariak izan ezik.

**Hiru.** Aurreko ataletan xedatu dena Zerga aplikatzen den lurraldean egoitza duten irabazi asmorik gabeko entitateek *mortis causa* eskuratzen dituzten ondasun pertsonalen inportazioei ere aplikatuko zaie.

**Lau.** Salbuespenetik ate daude ondoko ondasunak:

1.- Aduana arantzelaren NC 22.03 eta 22.08 bitarteko kodeetan bildurik dauden ekoizkin alkoholdunak.

2.- Tabakoa, langabea zein landua.

3.- Industri izaerako garraiobideak.

4.- Hilaren lanbidean iharduteko beharrezko diren tresna eramankorrez lanbide erabilerako beste materialak.

5.- Lehengaien eta ekoizkin burutu edo erdiburutuen izakinak.

6.- Familiako hornidura arruntari dagozkion kopuruak gainditzen dituzten azienda biziaren eta nekazaritzako ekoizkinen izakinak.

**33. artikulua.- Ikasleek burutzen dituzten ondasun higigarrien inportazioak.**

**Bat.** Zergatik salbuetsirik egongo dira ikasle-gela baten ohizko ekipamendua diren ostilamendu, ikasketako material eta gainontzeko ondasun higigarri erabilien inportazioak, baldin eta ondasunok zerga honen aplikazio-lurraldean ikasketak burutzeko aldi baterako bizi izango diren pertsonenak badira eta ikasketak iraun bitartean haien erabilera pertsonalerako erabiltzen badira.

Salbuespen hau aplikatzeko:

a) Ikasletzat ondokoa hartuko da: Zerga aplikatzen den lurraldean establezimendua daukan ikastetxe batean bertako ikastaroetara dedikazio osoz joateko arau bidez inskribiturik dagoen pertsona oro.

b) Ostilamendutzat ondokoa: erabilera pertsonaleko edo etxeko arropa, baita berria izanik ere.

c) Ikasketako materialtzat ondokoa: ikasleek beren ikasketak burutzeko erabili ohi dituzten gai eta tresnak.

**Bi.** Salbuespena eskola-urtean behin emango da soilik.

**34. artikulua.- (56) (86)**

**35. artikulua.- (53) Bidaiarien araubideko ondasunen inportazioak.**

**Bat.** Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden beste herrialde batzuetatik datozen bidaiarien bagaje pertsonaleko ondasunen inportazioak, ondoko muga eta betekizun hauekin:

1º. Inportazioa ezin da izan merkataritzakoa, 21. artikuluko 2. zenbakiko A) letrako d) letran ezarritakoaren arabera.

2.. Inportatzen diren ondasunen guztirako balioa ezin da izan 300 euro baino gehiago, pertsonako. Hala ere, bidaiariak Zergaren aplikazio lurraldera itsasoz edo hegazkinez heltzen badira, gehieneko zenbatekoa 430 euro izango da.

Bidaiaria hamabost urtetik beherakoa izanez gero, salbuetsitako gehieneko zenbatekoa 150 euro izango da.

Ondasunen guztirako balioa handiagoa izanez gero, gehieneko zenbatekoa soilik utziko da Zergatik salbu, eta bereiz inportatuz gero salbuespena aplikatu ahal zaien ondasunei dagokienez soilik.

Aurrean ezarritako salbuespen mugak aplikatzean ez da konputatuko aldi baterako inportatzen diren ondasunen balioa, ez aldi baterako esportazioaren ondoren berrinportatzen diren ondasunena, ez eta bidaiariek erabili ohi dituzten sendagaiena ere.

**Bi.** Salbuespen honen ondorioetarako, bidaiarien bagaje pertsonaltzat hartuko dira heltzean aduanan aurkezten dituzten fardelak, bai eta geroago aurkezten dituztenak ere, baldin eta frogatzen badute irtetean enpresa arduradunak bidaiari baten bagaje gisa erregistratu dituela.

Erregaiak ez dira bagaje pertsonalekotzat hartuko, kopuru hauek gaindituz gero.

a) Garraiobide motordunen biltegi arrunten edukiera.

b) Erregai biltegi eramangarrien edukiera, 10 litroko mugarekin.

**Hiru.** Lehenengo idatz zatian ezarritakoa eragotzi gabe, ondoren azalduko diren ondasunen inportazioak Zergatik salbu daude:

a) Tabakogaiak:

- Zigarretak: 200.
- Zigarro txikiak (bakoitzak 3 gramo gehienez): 100.
- Puruak: 50.
- Erreteko tabakoa: 250 gramo.

Bidaiari bakoitzaren kasuan, frankizia tabako gaien zeinahi konbinaziori aplika dakioke, baina beti ere baimendutako frankiziatik erabilitako ehunekoa % 100 baino gehiago ez bada

b) Alkoholak eta edari alkoholdunak:

- Alkohol bolumena % 22tik gorakoa duten edari destilatu eta espiritutsuak; alkohol etilikoa, desnaturalizatuta ez dagoena, % 80ko alkohol bolumena edo handiagoa duena: litro bat, guztira.
- Alkohol bolumena % 22koa edo txikiagoa duten edari destilatuak eta espiritutsuak, ardoz edo alkoholez egindako aperitiboak, tafia, sakea edo antzeko edariak; ardo apardunak eta ardo oparoak: 2 litro, guztira.
- Beste ardo batzuk: 4 litro, guztira.
- Garagardoa: 16 litro, guztira.

Bidaiari bakoitzaren kasuan, frankizia alkohol eta edari alkoholdunen zeinahi konbinaziori aplika dakioke, baina beti ere baimendutako frankiziatik erabilitako ehunekoa % 100 baino gehiago ez bada.

Ondasun hauen balioa ez da konputatuko aurreko lehenengo idatz zatian adierazitako guztirako mugak aplikatzean.

Hamazazpi urtetik beherako bidaiariei ez zaizkie aplikatuko idatz zati honetan ezarritako salbuespenak.

**Lau.** Bidaiaria herrialde batetik heltzen bada beste herrialde batera joateko eta frogatzen badu ondasunak Batasuneko beste estatu bateko ohiko zerga karga aplikatuta eskuratu dituela, ondasunen inportazioa, bidaiarien araubidean egindakoa, salbuetsita egongo da, eta ez dira aplikatuko aurreko lehen eta hirugarren idatz-zatietan ezarritako guztirako balioaren eta kopuruaren mugak. Honen ondorioetarako, Zergaren aplikazio lurraldearen gainetik hegaz dabiltzan bidaiariak ez dira hartuko iraganbidekotzat, hegazkinak lur hartzen ez badu.

**Bost.** Zergaren kargatik salbuesteko artikulu honetan ezarri diren mugak ehuneko hamarrera txikituko dira ondasunak nazioarteko trafikoan ari diren garraiobideetako langileek inportatzen dituztenean beren lanbide jardueretan egin beharreko joan-etorrietan.

**36. artikulua.- Bidalketa txikien inportazioak.**

**Bat.** Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira gainontzeko herrietatik datozen bidalketa txikien inportazioak, baldin eta merkataritzako salmenta izan ez, eta partikular batek Zerga aplikatzen den lurraldean dagoen beste partikular batentzat bidaltzen dituenean.

**Bi.** Ondore hauetarako, merkataritza-izaerarik gabeko bidalketa txikitzat hartuko dira ondoko beharkizunak betetzen dituztenak:

1.- Lantzean behin inportatuak izatea.

2.- Gaitzat destinatariaren edo beronen senitartekoen erabilera pertsonaleko ondasunak soilik eduki ditzatela eta ondasunok, berauen izaera edo kopuruagatik, enpresari-edo lanbide-iharduera bati lotu dakizkiolako ustezkotasunik ez dadila izan.

3.- Bidaltzaileak dohainik bidal ditzala.

4.- (35) Inportatutako ondasunen guztizko balioa 45 euro baino gehiago ez izatea.

**Hiru.** Salbuespena ondorengo zerrendan ageri diren ondasunei ere aplikatuko zaie, berauekin batera adierazita dauden kopuruetara iritsi arte:

a) Tabakogaiak:

- Zigarrotxoak: 50 ale, edo

- Purotxoak (aleko gehienez 3 gr dituzten zigarroak): 25 ale, edo

- Puroak: 10 ale, edo

- Erretzeko tabakoa: 50 gramo.

b) Alkoholak eta edari alkoholdunak:

- Bolumenaren ehuneko hogeita bia baino alkohol gehiago duten edari destilatuak eta izpiritutsuak; alkohol etilikoa, ez-desnaturaldua, bolumenaren ehuneko laurogeia edo gehiago duena: Botila standard bat (litro bat gehienez), edo

- Bolumenaren ehuneko hogeita bia edo gutxiagoko alkohol kopurua duten edari destilatuak eta izpiritutsuak, ardo edo alkoholez egindako gezigarriak, tafia, sake edo antzeko edariak; ardo apartsu edo gozoak: Botila standard bat (litro bat gehienez), edo

- Beste ardo mota batzuk: 2 litro guztira.

c) Lurrinak: 50 gr, eta

Apain-mahaiko urak: litro laurdena edo 8 ontza.

d) Kafea: 500 gr, edo

Kafearen aterakin eta esentziak: 200 gramo.

e) Tea: 100 gr, edo

Tearen aterakin eta esentziak: 40 gramo.

Atal honetan bildurik dauden ondasunen kopuruek adiera-zitako horiek gaindituko balituzte, salbuespenaren onuratik ate geratuko lirateke.

**37. artikulua.- Ihardueraren egoitzaren lekualdaketagatiko ondasun-inportazioak.**

**Bat.** Ekoizpen- edo zerbitzu-enpresa baten enpresa- edo lanbide-iharduerari loturik dauden inbertsio-ondasunen inportazioak Zergatik salbuetsirik egongo dira, baldin eta enpresa horrek gainontzeko herri batean duen enpresa-iharduera utzi eta Zerga aplikatzen den lurraldean antzeko iharduera egiteari ekiten badio.

Salbuespena ez da hedatzen gainontzeko herri batean finkaturik dauden enpresen ondasunetara, baldin eta enpresa hauek Zergaren aplikazio-lurraldera aurretiaz lurralde horretan egon den enpresa batekiko bategitea dela eta, edo horietariko enpresa batek irentsi izanagatik, lekualdatzen badira, iharduera berriari ekin gabe.

Iharduera transferitzen duen enpresak jatorrizko tokian abeltzaintzazko ihardueraren bat egingo balu, salbuespena aipatu ustiapenean erabiltzen den abere biziei ere aplikatuko litzaieke.

Honako salbuespen honetatik bazterturik daude ondoko ondasunak:

a) Ekoizpen edo zerbitzuko tresna izaera ez duten garraio-bideak.

b) Giza kontsumorako edo animalien elikadurarako mota guztietako hornidurak.

c) Erregaiak.

d) Lehengai eta ekoizkin amaitu edo erdiamaituen izakinak.

e) Abere-tratularien edukitzan dauden abereak.

**Bi.** Aurreko lerroaldean ezarririk dagoen salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizun hauek bete behar dira:

a) Inportatzen diren ondasunak enpresak nondikako tokian iharduera utzi aurreko hamabi hilabetetako gutxienezko aldian erabili izana.

b) Zerga aplikatzen den lurraldean ondasunek erabilera berak izan ditzatela.

c) Ondasunen inportazioa nondikako tokian iharduera utzi eta ondorengo hamabi hilabeteetan buru dadila.

d) Inportatzen diren ondasunak ez daitezela izan funtsean honako arau honen 20. artikuluan ezarrita dagoena dela bide Zergapeko ez diren eragiketak egitean datzan iharduerak egiteko.

e) Ondasunak enpresaren izaera eta garrantziarentzat egokiak izan daitezela.

f) Zerga aplikatzen den lurraldera iharduera transferitzen duen enpresak Zergaren subjektu pasibo gisa alta adierazpena aurkez dezala, ondasunen inportazioa burutu aurretik.

**38. artikulua.- Gainontzeko herrietan dauden lurretan nekazaritza edo abeltzaintzako ekoizleek lortzen dituzten ondasunak.**

**Bat.** Ez dira Zergapekoak izango zerga hau aplikatzen den lurraldearen ondoko gainontzeko herri baten lurretatiko nekazaritza, abeltzaintza, baratzantza edo oihan-langintzako ekoizkinen inportazioak, baldin eta ustiapenaren egoitza herri haren ondo-ondoko aipatu lurraldean duen ekoizleek lortzen badituzte.

**Bi.** Artikulu honetan aurrikusita dagoen salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

1.- Abeltzaintzako ekoizkinek Elkartearen tributu-ordainketako baldintza orokorren arabera hazi, eskuratu edo inportatzen diren abereetatikoak izan behar dute.

2.- Jatorri garbiko zaldi-behorrek ezin eduki izango dute sei hilabete baino gehiago, eta gainontzeko herri batean jaioak izan beharko dute, Zergaren aplikazio-lurraldean ernaldu ondoren erditzeko aldi baterako esportatzen den behorrak erditurik.

3.- Ondasunak ekoizleak edo honen izenean eta kontura diharduen pertsonak inportatu beharko ditu.

**39. artikulua.- Haziak, ongarriak eta lurra, eta landareen tratamendurako gaiak.**

**Bat.** Zergatik salbuetsirik egongo dira, elkarrekikotasuna egotekotan, gainontzeko herri baten ondo-ondoan dauden lurrak ustiatzeko diren hazi, ongarri eta lurra, eta landareen tratamendurako ekoizkinak, baldin eta lur horiek ustiatzen dituzten nekazaritzako ekoizleek aipatu gainontzeko herri horretan badute ustiapenaren egoitza, Zerga aplikatzen den lurraldearen ondo-ondoan.

**Bi.** Salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

1.- Ekoizkinok xede dituzten lurrak ustiatzeko beharrezko diren ekoizkin horien kopuruak baino handiagoak ez daitezela inporta.

2.- Inportazioa ekoizleak edo honen izenean eta kontura dihardduen pertsonak egin dezala.

**40. artikulua.- Ikerkuntzarako diren laborategiko animalien eta substantzia biologiko eta kimikoen inportazioa.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira gainontzeko herrietatik laborategietan erabiltzeko beren beregi prestaturik dauden animalien eta substantzia biologiko eta kimikoen burutzen diren dohainezko inportazioak, baldin eta batzuk zein besteak funtsezko helburu zientzia-irakaskuntza edo ikerkuntza duten establezimendu publikoek, edo hauen menpeko zerbitzuek, inportatzen badituzte, edota, baimena jaso ondoren, funtsean iharduera beretan ari diren establezimendu pribatuek inportatzen badituzte ere.

Artikulu honetan ezarri den salbuespena aduanazko legerian finkaturik dauden muga eta baldintza berekin emango da.

**41. artikulua.- Giza jatorriko substantzia terapeutikoen eta odol-talde eta giza ehunak zehazteko erreaktibarien inportazioak.**

**Bat.** Honako arau honen 27. artikuluaren 1. zenbakian xedatu denaren kalterik gabe, Zergatik salbuetsirik egongo dira giza jatorriko substantzia terapeutikoen eta odol-taldeak eta giza ehunak zehazteko erreaktibarien inportazioak.

Salbuespena ekoizkin horiek garraiatzeko ezinbesteko diren enbalaketa berezietara ere hedatzen da, bai eta haiek artatu eta erabiltzeko behar diren disolbagarri eta osagarrietara ere.

**Bi.** Ondore hauetarako,

Giza jatorriko substantzia terapeutikotzat hartuko dira giza odola eta honen eratorkinak, hala nola, giza odol osoa, giza plasma lehortua, giza albumina, eta giza plasma-proteina, inmoglobulina eta giza fibrinogenoko soluzio iraunkorrak.

Odol-taldeak zehazteko erreaktibaritzat hartuko dira giza, landare- edo bestelako jatorriko odol-taldeak zehazteko eta odol-bateraezintasunak sumatzeko erreaktibari guztiak.

Giza ehun-taldeak zehazteko erreaktibaritzat hartuko dira giza, animalia-, landare- edo bestelako jatorriko giza ehun-taldeak zehazteko erreaktibari guztiak.

**Hiru.** Salbuespen hau gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

1.- Administrazioaren eskuespena duten organismo eta laborategientzat izan daitezela, haietan medikuntza- edo zientzia-xedeetarako soilik erabiliak izan daitezen.

2.- Inportatzen diren ondasunak identifikazio-txartel berezia dutela aurkez daitezela.

3.- Inportatzen diren ondasunen izaera eta xedea inportazioa burutzen denean froga dadila, nondikako herriko organismo eskudunak saltzen duen ziurtagiri baten bidez.

**42. artikulua.- Medikamenduen kalitatea kontrolatzeko erreferentzia-substantzien inportazioa.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira medikamenduak fabrikatzeko erabiltzen diren gaien kalitatea kontrolatzeko Osasunerako Mundu-Erakundearen eskuespena duten erreferentzia-substantzien laginak, baldin eta bidalketak salbuespenak dituztela jasotzeko eskuespena duten entitateek inportatzen badituzte.

**43. artikulua.- Nazioarteko kirol-lehiaketetan erabiltzen diren farmazi gaiak.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira nazioarteko kirol-lehiaketetako partaide diren pertsona edo animalien erabilerarako farmazi gaien inportazioak, aipatu partaideek zerga honen aplikazio-lurraldean dauden bitartean dituzten premientzako kopuru egokiak inportatuz gero.

**44. artikulua.- Karitate edo filantropiazko organismoentzako ondasunen inportazioak.**

**Bat.** Zergatik salbuetsirik egongo dira, baldin entitate publikoek edo organismo pribatu eskuetsiek burutzen badituzte, karitate edo filantropiazko izaerako ondoko ondasunen inportazioak:

1.- Pertsona behartsuei dohain banatzeko dohain eskuratzen diren lehen beharrizaneko ondasunak.

Honek ondoreak izan ditzan, lehen beharrizaneko ondasuntzat hartuko dira pertsonen berehalako beharrizanak asetzeko ezinbestekoak direnak, hala nola, elikagaiak, medikamenduak eta oheko eta kaleko arropak.

2.- Merkataritzako ihardueragai ez diren edozein motatako ondasunak, baldin eta Elkartetik kanpo finkaturik dauden pertsona edo entitateek pertsona behartsuentzako ongintzako lantzean behingo agerraldietan antolatzen diren fondo-bilketetarako dohain bidaltzen badituzte.

3.- Merkataritzako ihardueragai ez diren ekipamendu eta bulegoko materialak, baldin eta Elkartetik kanpo finkaturik dauden pertsona edo entitateek dohain bidaltzen badituzte aipatu organismoek lortu nahi dituzten karitate eta filantropiazko helburuen funtzionamenduaren eta burutzapenaren beharrizanak asetzeko.

**Bi.** Salbuespen honetatik ate daude:

a) Aduanazko arantzelaren NC 22.03 eta 22.08 kodeen bitartean bildurik dauden ekoizkin alkoholdunak.

b) Tabakoa, landugabea zein manufakturatua.

c) Kafea eta tea.

d) Anbulantziez beste ibilgailu motoredunak.

**Hiru.** Aurreko 1. atalean aipatu diren ondasunak ezin erabili, mailegatu, errentatu edo lagatu izango dira, ez kostu bidez ez dohainik, aipatu atalaren 1. eta 2. zenbakietan aurrikusita daudenez beste xede batzuetarako, eragiketa horiek aurretiaz Administrazioari jakinarazi ezean.

Aurreko lerroaldean ezarri dena beteko ez balitz edo artikulu honetan aipatzen diren organismoek salbuespena aplikatzea bidezkotzen duten beharkizunak betetzeari utziko baliote, Zerga inguruabarrok gertatzen diren egunetik ordaintzea eskatuko litzateke.

Dena den, aipatu ondasunak mailegugai, errentagai edo lagagai izango dira, salbuespena galdu gabe, eragiketok honako artikulu honetan aurrikusita dauden beharkizunak betetzen dituzten beste organismo batzuentzat burutzen direnean.

**45. artikulua.- Pertsona minusbaliodunen onurarako inportatzen diren ondasunak.**

**Bat.** Zergatik salbuetsirik egongo dira minusbalio fisiko zein mentala duten pertsonen hezkuntza, enplegu edo gizarte sustapenerako beren beregi pentsaturiko ondasunen iharduera nagusia honelako pertsonen hezkuntza edo urgazpena duten erakunde edo organismo eskuetsiek burutzen dituzten inportazioak, baldin eta ondasunok dohainik eta merkataritzako xederik gabe bidaltzen bazaizkie aipatu erakunde eta organismoei.

Salbuespena ondasun horien ordezkai, elementu edo osagarrien inportazioetara eta haien mantenimendu, kontrol, kalibrazio edo konponketan erabiltzen diren erreminta edo tresnen inportazioetara hedatuko da, ondasunekin batera inportatzen direnean edota haiei dagozkiela identifikatzen denean.

**Bi.** Entitate edo establezimendu onuradunek salbuespena dutela inportatzen diren ondasunak irabazi asmorik gabe mailegatu, alokatu edo lagatu ahal izango dizkiete aurreko lerroaldean aipatu diren pertsonei, salbuespenaren onuraren kalterik gabe.

**Hiru.** Aurreko lerroaldean aurrikusi denaren kalterik gabe, artikulu honetan araupetu diren salbuespenei, eta beronetan deskribatu diren xedeei dagokienez, honako arau honen 44. artikuluaren 3. atalean xedaturik dagoena aplikatuko da.

**46. artikulua.- Hondamendien biktimentzako ondasunen inportazioak.**

**Bat.** Zergatik salbuetsirik egongo dira karitate edo filantropiazko izaerako entitate publikoek edo organismo pribatu eskuetsiek burutzen dituzten edozein motatako ondasunen inportazioak, ondoko xedeak izanez gero:

1.- Zerga aplikatzen den lurraldea ukitzen duten hondamendien biktimentzat dohainik banatzea.

2.- Aipatu hondamendien biktimei dohainik lagatzea, ondasunen jabetza organismo horiek mantenduz.

**Bi.** Halaber, Zergatik salbuetsirik egongo dira sorospen-unitateek aipatu pertsonak sorosteko esku hartzen duten aldietan dituzten beharrizanak asetzeko burutzen dituzten ondasun-inportazioak.

**Hiru.** Honako artikulu honetan ezarri den salbuespenetik bazterturik daude hondamendia gertatzen den aldeak berreraikitzeko edozein motatako materialak.

**Lau.** Artikulu honetan ageri den salbuespena Europako Elkarteen batzordeak aurretiaz eskuetsi izanak baldintzaturik egongo da. Hala ere, eskuespen hori eman bitartean inportazioa Zergaren ordainketa behin-behinean etenez burutu ahal izango da, inportatzaileak behar adinako bermea ematen badu.

**Bost.** Artikulu honetan araupeturik dauden salbuespenetan, eta hauek baldintzatzen dituzten xedeei dagokienez, arau honen 44. artikuluaren 3. atalean xedaturik dagoena aplikatuko da.

**47. artikulua.- Nazioarteko zenbait harremanen markoan burutzen diren ondasun-inportazioak.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira, merkataritza-izaerarik ez badute, ondoko ondasunen inportazioak:

1.- Gainontzeko herri bateko agintariek zerga hau aplikatzen den lurraldean ohizko egoitza duten pertsonei ematen dizkieten kondekorazioak.

2.- Zerga aplikatzen den lurraldean ohizko egoitza duten pertsonei gainontzeko herri batean pertsona horiek arte, zientzia, kirol edo zerbitzu publikoetan burutzen duten iharduueraren omenez edo gertakari konkretu bat dela eta, beraien merituak aintzatetsiz ematen zaizkien kopa, domina eta funtsean izaera sinbolikoa duten antzeko objektuak, baldin eta interesatuek berek inportatzen badituzte.

3.- Kari berengatik Zerga aplikatzen den lurraldearen barruan emateko, gainontzeko herri bateko agintariek edo herri horretan finkaturik dauden pertsonek eskaintzen dituzten aurreko zenbakiko ondasunak.

4.- Zerga aplikatzen den lurraldean nazioarteko kongresu, negozio-bilera edo antzeko agerraldiak egiten direnean, ohizko egoitza zerga hau aplikatzen den lurraldetik kanpo duten pertsonei dohainik banatzeko diren donari, trofeo, izaera sinbolikoko eta balio gutxiko oroigarriak.

5.- Opari gisako eta lantzean behingo ondasun hauek:

a) Zergaren gune-eremuan ohizko egoitza edukirik, gainontzeko herri batera bisitaldi ofiziala egitera joan eta, han bisitaldi hori dela eta, herri horretako agintariek halako opariak ematen dizkieten pertsonek inportatzen dituztenak.

b) Zerga aplikatzen den lurraldera lurralde honetako agintarientzako opari gisa emateko bisitaldi ofiziala egiten duten pertsonek inportatzen dituztenak.

c) Zerga aplikatzen den lurraldean denon intereseko iharduerak egiten dituzten agintari, korporazio publiko edo elkartzeei opari gisa gainontzeko herri bateko izaera bereko agintari, korporazio edo elkartzeek adiskidetasun edo gogo onaren froga modura bidaltzen dizkietenak.

Zenbaki honetan aipatu diren kasu guztietan salbuespenetik bazterturik daude ekoizkin alkoholdunak eta tabakoa, langabea zein landua.

Zenbaki honetan xedatu dena bidaiari-erregimenari buruzko xedapenen kalterik gabe aplikatuko da.

6.- Espainiako errege-erreginei dohaintzan ematen zaizkien ondasunak.

7.- Atzerriko estatuburuek, hauen ordezkariek edo berauen antzeko onurabideak dituztenek Zerga aplikatzen den lurraldean ofizialki dauden bitartean erabili edo kontsumitzekotzat jo ohi daitezkeen ondasunak, elkarrekikotasuna egotekotan.

**48. artikulua.- Merkataritzako sustapenerako diren ondasunen inportazioak.**

**Bat.** Zergatik salbuetsirik egongo dira ondoko ondasunak inportatzea:

1.- Merkataritzako balio nabarmenik ez duten merkataritzako gaien laginak.

Zenbaki honetako salbuespena ondoko 4. zenbakiaren a) puntuan xedaturik dagoenaren kalterik gabe aplikatuko da.

2.- Publizitateko inprimakiak, hala nola, ondoren adieraziko direnei buruzko katalogoak, prezio-zerrendak, erabilera-jarraipideak edo merkataritzako liburuskak:

a) Elkartearen lurraldean establezimendurik ez duten enpresari edo profesionariek saldu edo errentatzeko diren merkataritzako gaiei buruzkoak.

b) Gainontzeko herri batean finkaturik dauden pertsonek ematen dituzten garraio, merkataritza-aseguru edo banka arloetako zerbitzugintzei buruzkoak.

Zenbaki honetako salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

a) Inprimakiek agerian eduki beharko dute merkataritzako gaiak ekoitzi, saldu edo alokatzen dituen edo inprimakietan aipaturik dauden zerbitzugintzak eskaintzen dituen enpresari edo profesionariaren izena.

b) Bidalketa bakoitzean agiri bakoitzaren ale bat baino ezin daiteke egon edo, ale bat baino gehiago bildurik badago, guztirako pisu gordina ezin izan daiteke kilo batekoa baino handiagoa.

c) Inprimakiak ez dira bidaltzaile berak destinatari berarentzat bildurik egiten dituen bidalketetan erabili beharko.

3.- Merkataritzako barne-barneko baliorik ez edukirik, hornitzaileek beren bezeroei dohainik bidaltzen dizkieten publizitateko gaiak, baldin publizitatekoaz beste xede ekonomikorik ez badute.

4.- Ondoko zerrendan ageri diren ondasunak, zein erakusketa edo antzeko agerpenetakoak baitira:

a) Merkataritzako gaien lagin txiki ordezkatzaileak.

Salbuespena gerta dadin, ondoko zerrendako beharkizunak bete behar dira:

a’) Halakotzat dohainik inporta daitezela edo agerpenean lor daitezela mordoka inportatzen diren merkataritzako gaiak erabiliz.

b’) Agerpen edo erakusketan jendeari dohainik bana dakizkiola, erabili edo kontsumituak izan daitezen.

c’) Aleko balio gutxiko publizitate izaerako lagin legez identifikagarriak izan daitezela.

d’) Ez daitezela merkaturagai izan eta, hala denean, merkatuan eskaintzen den gai bereko kopururik txikiena baino merkataritzako gai kopuru txikiagoa duten ontzietan aurkez daitezela.

e’) Aurreko puntuan adierazi den eran atondurik ez dauden elikadurako ekoizkin eta edariei dagokienez, agerpenean bertan berehala kontsumi daitezela.

f’) Haien balio osoa eta kopurua bat etor daitezela erakusketa edo agerpenaren izaerarekin, bisitarien kopuruarekin eta erakuslearen partaidetzaren garrantziarekin.

b) Froga-lanak egiteko edo erakusketa edo agerpenetan aurkezten diren makina edo gailuen funtzionamendua ahalbideratzeko soilik erabiltzeko direnak.

Salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

a’) Inportatzen diren ondasunak agerpen edo erakusketak dirauen bitartean kontsumi edo deusez daitezela.

b’) Haien balio osoa eta kopurua erakusketa edo agerpenaren izaera, bisitarien kopuru eta erakuslearen partaidetzaren garrantziaren heinekoa izan dadila.

c) Erakuslearen pabiloiak eraiki, instalatu edo apaintzeko erabili eta horretarako erabilitakoan deuseztatzen diren balio gutxiko materialak, hala nola, bernizak, paper pintatuak edo antzekoak.

d) Erakusketa edo agerpenaren gai diren ondasunei buruzko publizitatea egiteko soilik diren inprimaki, katalogo, prospektu, prezio-zerrenda, kartel, egutegi, bornatu gabeko argazkiak edo antzekoak.

Salbuespena gerta dadin, ondoko beharkizunak bete behar dira:

a’) Inportatzen diren ondasunak erakusketa edo agerpena egiten den tokian jendeari dohainik banatzeko soilik izan daitezela.

b’) Haien balio osoa eta kopurua erakusketa edo agerpenaren izaeragatik, bisitarien kopuru eta erakuslearen partaidetzaren garrantziaren heinekoak izan daitezela.

**Bi.** Aurreko atalaren 4. zenbakian ezarrita dauden salbuespenak ez zaizkie aplikatuko ez edari alkoholdunei, ez tabakoari (langabe zein landua), ezta erregaiei ere.

**Hiru.** Honako arau honetan xedaturik dagoenak ondoreak izan ditzan, erakusketa edo antzeko agerpentzat hartuko dira merkataritza, industria, nekazaritza edo eskulangintzako erakusketa, azoka, areto, edo antzeko gertakariak, hots, filantropia, zientzia, teknika, eskulangintza, arte, hezkuntza, kultura, kirol edo erlijiozko xedez, edo iharduera sindikal eta turistikoen edo herrien arteko harremanen garapena hobetzeko, antolatzen direnak. Halaber, kontzeptu honetan bildurik daude nazioarteko erakunde edo taldeen ordezkarien bilerak eta izaera ofizial edo oroitzarreko zeremoniak.

Ez dira honelakotzat hartuko merkataritzako gaiak saltzeko erabiltzen diren biltegi edo lokaletan izaera pribatuz antolatzen direnak.

**49. artikulua.- Azterketa, analisi edo entseiuak egiteko diren ondasunen inportazioak.**

**Bat.** Zergatik salbuetsirik egongo dira osakera, kalitatea edo beste ezaugarri tekniko batzuk zehazteko azterketa, analisi edo entseiuak egiteko diren ondasunen inportazioak, ondasunoi buruz industria edo merkataritzako informazioak lortu edo ikerkuntzak burutu xedez egiten direnean.

Salbuespenetik bazterturik daude berez merkataritzako sustapen-eragiketak diren azterketa, analisi edo entseiuetan erabiltzen diren ondasunak.

**Bi.** Salbuespena, adierazi diren helburuak burutzeko aipatu ondasunen beharrezko den kopurura baino ez da helduko, eta gerta dadin beharrezkoa izango da ondasunak guztiz kontsumi edo deusez daitezen ikerkuntzako eragiketak egitean.

Hala ere, salbuespena eragiketa horietatik sor daitezkeen gainontzeko ekoizkinetara hedatuko da, baldin eta, Administrazioak eskuespena emanik, deuseztatu, merkataritza-baliorik gabeko ondasun bihurtu, estatuarentzat gasturik gabe utzi edo gainontzeko herri batera esportatzen badira. Aipatu eskuespenik ezean, ekoizkin horiek Zergapekoak izango dira dauden estatuan, azterketa, analisi edo entseiuko eragiketak burutzen diren egunetik hasita.

Ondore hauetarako, gainontzeko ekoizkintzat hartuko dira azterketa, analisi edo entseiuen ondoriozko ekoizkinak, edo eragiketa horietarako inportatu ondoren benetan erabiltzen ez diren merkataritzako gaiak.

**50. artikulua.- Jabetza industrial zein intelektualaren babesaren arloko organismo eskudunentzako ondasunen inportazioak.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira marka, modelu edo diseinuen inportazioak, bai eta jabetza industrial zein intelektualaren gaineko eskubideen eskabideari buruzko organismo eskudunentzako espedienteenak ere.

**51. artikulua.- Agiri turistikoen inportazioak.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira ondoko agiri turistikoen inportazioak:

1.- Elkartetik kanpoko tokietarako bidaiei buruzko propaganda egiteko dohainik banatzeko direnak, batez ere bidaiak kultura-, turismo-, kirol-, erlijio- edo lanbide-izaerako bilera edo agerpenetan parte hartzeko direnean, baldin eta agiriek duten publizitatearen % 25a baino gehiago ez bada merkataritzako publizitate pribatua eta izaera orokorreko propaganda egitea xede dutela agerikoa bada.

2.- Elkartetik kanpo ustiatzen diren atzerriko hoteletako zerrenda edo urtekariak eta garraio-zerbitzuen gidak, baldin eta, turismoko organismo ofizialek edo hauen babespean argitaratuak izanik, dohainik banatzeko xedea badute eta duten merkataritzako publizitate pribatua % 25a baino ez bada.

3.- Turismoko organismo ofizial nazionalen ordezkari kreditatuei edo organismo berauek izeneztatzen dituzten korrespontsalei bidaltzen zaien material teknikoa, baldin eta materialok urtekari, telefono edo telexeko abonatu-zerrenda, hotel-zerrenda, azoka-katalogo, merkataritza-balio nabaririk gabeko artisaulan-lagin, edo museo, unibertsitate, urbero eta antzeko beste erakundeei buruzko informazio gisa banatzeko ez badira.

**52. artikulua.- Bestelako agirien inportazioa.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira ondoko ondasunak inportatzea:

1.- Entitate publikoei dohainik bidaltzen zaizkien agiriak.

2.- Gainontzeko herrietako gobernuek eta nazioarteko organismo ofizialek, dohainik bana daitezen, egiten dituzten agerkariak.

3.- Zerga aplikatzen den lurraldetik kanpoko organismoek deitzen dituzten hauteskundeetako hauteskunde-txartela.

4.- Espainiako erresumako epaitegi, auzitegi edo beste auzialdi ofizial batzuetan froga modura erabiltzeko edo antzeko xedeek dituzten objektuak.

5.- Zerbitzu publiko edo banketxeen arteko ohizko informazio-elkartrukeetan saltzen diren sinadura-aitortzeak eta honi loturiko zirkular inprimatuak.

6.- Espainiako Bankuarentzako inprimaki ofizialak.

7.- Atzerriko sozietateek jaulkitzen dituzten tituluen ukandun edo harpidedunentzako txosten, ihardueraren memoria, informazio-ohar, prospektu, harpidetza-boletin eta gainontzeko agiriak.

8.- Informazioa eskualdatzeko, destinatariei dohainik bidaltzen zaizkien fitxa zulatu, soinu-erregistro, mikrofilm eta beste euskarri batzuk.

9.- Bilera, hitzaldi edo nazioarteko kongresuetan erabiltzeko diren espediente, artxibategi, formulario eta gainontzeko agiriak, bai eta aipatu agerpenetako akta eta laburpenak.

10.- Eskariak lortu edo burutzeko, edo Zerga aplikatzen den lurraldean antolatzen den lehiaketan parte hartzeko inportatzen diren plano, marrazki tekniko, kopia, deskripzio eta antzeko beste agiri batzuk.

11.- Zerga aplikatzen den lurraldean Elkartetik kanpo finkaturik dauden erakundeek antolatzen dituzten azterketetan erabiltzeko diren agiriak.

12.- Nazioarteko hitzarmenak aplikatuz, ibilgailu edo merkataritzako gaien nazioarteko trafikoan agiri ofizial gisa erabiltzeko diren formularioak.

13.- Elkartetik kanpo finkaturik dauden garraio- edo hotel-enpresek Zerga aplikatzen den lurraldean establezimendua daukaten bidai agentzientzat saltzen dituzten formulario, etiketa, garraio-titulu eta antzeko agiriak.

14.- Merkataritza edo bulegoko formulario eta garraio-titulu, untzirapen-agiri, garraio-gutun eta gainontzeko agiri erabiliak.

15.- Agintari nazionalen zein nazioartekoen inprimaki ofizialak eta nazioarteko ereduei loturik dauden inprimakiak, baldin eta Elkartetik kanpo finkaturik dauden elkarteek berei dagozkien Zergaren aplikazio-lurraldean establezimendua duten elkarteentzat bidaltzen badituzte, banatuak izan daitezen.

16.- Prentsa-agentzia edo egunkari eta aldizkarien argitarazleei bidaltzen zaizkien argazki, diapositiba eta argazkientzako klitxeak, are argazki-oinak ere.

17.- Esportazio-herriaren eta herri honetan finkaturik dauden nazioarteko organismo, entitate publiko, zuzenbide publikoko organismoen agintaritza publikoaren ohizko adierazbide diren agerkari ofizialak, bai eta Espainiak, hauteskundeak direla eta, ofizialki halakotzat aintzatesten dituen erakunde politiko ofizialek banatzen dituzten inprimakiak, baldin eta aipatu agerkari eta inprimakiak esportazio-herrian Balio Erantsiaren gaineko Zergak edo antzeko tributu batek kargaturik egon badira eta esportazioagatiko zergarinketagai izan ez badira.

**53. artikulua.- Nazio Batuen Erakundeak ekoizten dituen ikusentzunezko gaiak.**

Salbuetsirik egongo dira Nazio Batuen Erakundeak edo beronen organismo espezializaturen batek ekoizten dituen hezkuntza, zientzia edo kultura izaerako ikusentzunezko gaiak, zein ondoan ageriko diren:

| NC KODEA | Merkantziaren izena |
|---|---|
| 3704 00 | - Argazkilaritzako plakak, pelikulak, papera, kartoia eta ehungintzazkoak, inpresionaturik baina errebelatu gabe. |
| hed 3704 00 10 | - Plaka eta pelikulak. |
| | - Hezkuntza, zientzia edo kulturazko filme positiboak. |
| hed 3705 | - Argazkilaritzako plaka eta pelikulak, inpresionatu eta errebelaturik. |
| | - Hezkuntza, zientzia edo kulturazkoak ezik. |

| | |
|---|---|
| 3706 | Filme inpresionatu eta errebelatuak, soinu-erregistroarekin zein erregistrorik gabe, edo soinu-erregistro hutsarekin: |
| 3706 10 | - 35 mm edo gehiagoko zabalera dutenak. |
| | - Gainontzekoak. |
| hed 3706 10 99 | - Positiboak diren gainontzekoak. |
| | - Inportatzen direnean gaurkotasuna duten gertakariak jaso eta gehienez ere gai bakoitzeko bi kopia eginez berregiteko inportatzen diren gaurkotasunezko pelikulak. |
| | - Gaurkotasunezko pelikulei laguntzeko burutzen diren artxiboko pelikulak (soinua eduki zein ez eduki). |
| | - Haurrentzat eta gazteentzat bereziki egokiak diren jolas-pelikulak. |
| | - Hezkuntza, zientzia edo kulturazko gainontzekoak. |
| 3706 90 | - Gainontzekoak. |
| | - Gainontzekoak. |
| | - Positiboak diren gainontzekoak. |
| hed 3706 90 51<br>hed 3706 90 91<br>hed 3706 90 99 | - Inportatzen direnean gaurkotasuna duten gertakariak jasotzen dituzten eta gehienez ere gai bakoitzeko bi kopia eginez berregiteko inportatzen diren gaurkotasunezko pelikulak. |
| | - Gaurkotasunezko pelikulei laguntzeko burutzen diren artxiboko pelikulak (soinua eduki zein ez eduki). |
| | - Haurrentzat eta gazteentzat bereziki egokiak diren jolas-pelikulak. |
| | - Hezkuntza, zientzia edo kulturazko gainontzekoak. |
| 4911 | Gainontzeko inprimakiak, irarki, grabatu eta argazkiak barne: |
| | - Gainontzekoak. |
| 4911 99 | - Gainontzekoak. |
| hed 4911 99 90 | - Gainontzekoak. |
| | - Ordenagailu bidezko informazio- eta dokumentazio-zerbitzuek erabiltzen dituzten hezkuntza, zientzia edo kulturazko mikrotxartelak edo beste euskarri batzuk. |

| | | |
|---|---|---|
| | - | Erakusketa eta irakaskuntzarako baino ez diren hormairudiak. |
| hed 8524 | - | Soinua grabatzeko edo grabaketa analogikoak egiteko disko, zinta eta gainontzeko euskarriak, diskoak fabrikatzeko gargara eta molde galbanikoak barne, 37. artikuluko ekoizkinak izan ezik. |
| | - | Hezkuntza, zientzia edo kulturazkoak ezik. |
| hed 9023 00 | - | Beste erabilerarik eduki ezin dezaketen frogapenak (irakaskuntzan edo erakusketetan esaterako) egiteko proiektatzen diren tresna, gailu eta modeluak. |
| | - | Frogapenak egiteko eta irakaskuntzarako soilik diren hezkuntza, zientzia eta kultura izaerako modelu, maketa eta hormairudiak. |
| | - | Molekulen egiturak edo matematikazko formulak bezalako kontzeptu abstraktuak irudikatzeko maketa edo modeluak. |
| Bestelakoak | | Laser bidez proiektatzeko hologramak. |
| | | Multimedia jokoak. |
| | | Programatutako irakaskuntzako materiala, talde-erako materiala barne, berari dagokion material inprimatuarekin. |

**54. artikulua.- Bilduma- edo arte-objektuen inportazioak.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira hezkuntza, zientzia edo kulturazko bilduma- edo arte-objektuak, baldin eta objektuok berauek salbuespenez jasotzeko eskuespena duten museo, arte-areto eta beste establezimendu batzuek saldu eta inportatzeko ez badira.

Salbuespena gerta dadin, objektuak dohainik inportatu beharko dira edo, kostu bidez inportatzekotan, enpresari edo profesionari gisa ez dihardduen pertsona edo entitate batek eman beharko ditu.

**55. artikulua.- Merkataritzako gaiak atondu eta babesteko materialen inportazioak.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira merkataritzako gaiak garraiatzen diren bitartean atondu edo babesteko, are berotik ere, erabiltzen diren materialen inportazioak, baldin eta, aipatu materialei dagokienez, ondoko beharkizunak betetzen badira:

a) Normalean, ez daitezela izan berrerabilgai.

b) Haien kontraprestazioa Zergaren oinarriaren barnean bildurik egon dadila, haiei dagozkien merkataritzako gaien inportazioetan.

**56. artikulua.- Animalien bidatzako atondura edo elikadurarako ondasunen inportazioak.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira inportatzen diren animalien bidatzako atondura edo elikadurarako ondasunen inportazioak, baldin eta aipatu ondasunak garraioak irauten duen bitartean erabiltzen badira edo animaliei ematen bazaizkie.

**57. artikulua.- Erregai eta labangaiak.**

**Bat.** Zergatik salbuetsirik egongo dira zerga hau aplikatzen den lurraldean sartzen diren industri eta turismo motako ibilgailu automobilen eta erabilera bereziko edukinontzien depositüetako erregai eta labangaien inportazioak, ondoko beharkizunak betez gero:

1.- Industri ibilgailu automobilen eta erabilera bereziko edukinontzien depositu normaletan bildurik dagoen erregaia berrehun litrotako muga duen kopurura arte baino ezin izango da inportatu, salbuespenaren onura duela.

Gainontzeko ibilgailuei dagokienez, depositu normaletan dagoen erregai kopurua mugarik gabe inportatu ahal izango da, salbuespenaren onura duela.

2.- Turismo motako ibilgailuen depositu eramankorretan dagoen erregai kopurua hamar litrotako muga gainditu gabe soilik inportatu ahal izango da.

3.- Ibilgailuen barruan dagoen labaingaiaren kopurua ibilgailuok kasuan kasuko bidartean beren funtzionamendurako dituzten beharrizanei dagokiena izango da.

**Bi.** Artikulu honek ondoreak izan ditzan,

1. Industri ibilgailu automobiltzat ondokoa hartuko da: dituen ezaugarriengatik eta ekipamenduarengatik pertsonak (bederatzi pertsona baino gehiago, gidaria barne) edo merkataritzako gaiak garraiatzeko, ordainketarekin zein ordainketarik gabe, bai eta garraioaz beste industri erabilera batzuetarako ere, gai den eta horretarako egindako errepidean ibiltzeko gauza den ibilgailu motoredun oro.

2. Turismo motako ibilgailu automobiltzat: industri ibilgailu automobilaren kontzeptuan bildurik egon ez baina errepidean ibiltzeko gauza den ibilgailu motoredun oro.

3. Erabilera bereziko edukinontzitzat: hozteko, oxigenatzeko, isolamendu termikoko eta antzeko beste sistema batzuetara beren beregi moldaturiko eragingailuak dauzkan edukinontzi oro.

4. Depositu normaltzat ondokoa: egileak saldokako ibil^ gailu guztiei edo mota bereko edukinontzi guztiei modu iraunkorrean erasten dizkien depositüak, gasarenak barne, baldin eta depositüoz baliatzeak erregaia ibilgailuaren trakzioan zuzen erabiltzea,

edota, hala denean, ibilgailuak edo erabilera bereziko edukinontziek dituzten hozteko sistema edo beste ezein sistemaren funtzionamendua ahalbideratzen badu.

**Hiru.** Salbuespena dutela onartzen diren erregaiak ezin erabili izango dira inportatzen direnez beste ibilgailu batzuetan, ez berauetatik atera, ez biltegiratu, aipatu ibilgailuei beharrezko konponketa bat egiten zaienean izan ezik, ez eta ezin izango dira izan salbuespenaren onuradunak burutzen duen kostubidezko edo dohainezko lagapen baten gaia ere.

Hala ez denean, arestian aipatu diren erabilera irregularren gai diren kopuruak Zergapekoak izango dira.

**58. artikulua.- Hilkutxa, eta hilerriko material eta objektuen inportazioak.**

**Bat.** Zergatik salbuetsirik egongo dira gorpuak edo hauen errautsak dauzkaten hilkutxa eta errautsontzien inportazioak, bai eta Zerga aplikatzen den lurraldean egiten diren hiletetara datozen gainontzeko herri bateko egoiliarrek dakartzaten lore, koroa eta apaindurako gainontzeko objektuak, edo hauek lurralde honetan kokaturik dauden hilobiak apaintzeko darabiltzatenak, baldin eta objektuon kopuruak merkataritzako iharduera bati ez badagozkio.

**Bi.** Halaber, Zerga aplikatzen den lurraldean ehortzirik dauden gainontzeko herri bateko gerra-biktimen hilerri, hilobi eta monumentu oroigarriak eraiki, artatu edo apaintzeko diren edozein izaeratako ondasunen inportazioak ere salbuetsirik egongo dira, baldin eta aipatu inportazioak behar bezala eskuespena duten erakundeek burutzen badituzte.

**59. artikulua.- Arrantza-ekoizkinen inportazioak.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira, itsas aduanak erabiliz burutzen diren arrantza-ekoizkinen inportazioak, ondoko beharkizunak betetzen direnean:

1.- Arranuntzien armadoreek berek buru ditzatela, edo beste norbaitek haien izenean eta kontura, eta ekoizkinak zuzen-zuzenean haien arrantzuetakoak izan daitezela.

2.- Ekoizkinak harrapatzen diren egoera berean, edo merkaturatu asmoz babesteko egiten zaizkien eragiketak, hala nola, garbiketa, zatiketa, sailkaketa eta enbalaketa, hozketa, izozketa edo gatz-ematea, burutu ondoren dauden egoeran inporta daitezela.

3.- Aipatu ekoizkinak ez daitezela izan inportatu aurreko emate baten gaiak.

**60. artikulua.- Erregimen diplomatiko edo kontsularreko ondasunen inportazioak.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira erregimen diplomatiko edo kontsularreko ondasunen inportazioak, inportazio-eskubideen salbuespenaren onura dutenean.

**61. artikulua.- (62) (88) Nazioarteko erakundeentzako ondasunen inportazioak.**

Zergaren kargatik salbuetsita daude Espainiak aintzatetsitako nazioarteko erakundeentzako eta erakunde horietan estatutu diplomatikoarekin lanean ari diren pertsonentzako ondasunen emateak eta zerbitzugintzak, erakundeok sortu dituzten nazioarteko itunetan edo kasu bakoitzean aplikatu beharreko egoitza akordioetan ezartzen diren mugekin eta baldintzekin.

Hain zuzen ere, zergaren kargatik salbuetsita daude Europar Batasunarentzako, Energia Atomikoaren Europako Erkidegoarentzako, Europako Banku Zentralarentzako, Europako InbertsioBankuarentzako ondasunen emateak eta zerbitzugintzak, eta Europako erkidegoen pribilejioei eta immunitateei buruzko 1965eko apirilaren 8ko Protokoloa aplikatzen zaien Europako erkidegoetako erakundeentzakoak, Protokoloan eta hura aplikatzeko akordioetan eta egoitza akordioetan ezarritako mugen barruan eta bertako baldintzak beteta egiten direnak, baldin eta salbuespenak lehian distortsioriksortzen ez badu.

Halaber, zergaren kargatik salbuetsita dago Batzordeak edo Batasunaren Zuzenbidearen arabera sortutako organo edo erakunde batek, Batasunaren Zuzenbidearen arabera dauzkan egitekoetan ari dela, ondasunak inportatzea COVID-19aren pandemiari aurre egiteko, baldin eta Batzordeak edo erakundeak eskuratzen diren ondasunak gero ez baditu erabiltzen beste inori kostu bidez emateko.

**62. artikulua.- (92) Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundera eta indar armatuetara bideratutako ondasunen inportazioak, Europako segurtasun eta defentsa politika erkidearen eremuan.**

Zerga ordaintzetiksalbuetsita egongo dira honako hauek egindako ondasun inportazioak:

a) Ipar Atlantikoko Tratatua sinatu duten gainerako estatuetako indarrak, tratatu hori sinatu duten estatuen arteko hitzarmenean haien indarren estatutuari buruz ezarritakoaren arabera;

b) Espainia ez den beste edozein estatu kidetako indar armatuak, indar horiek edo haien zerbitzura dauden langile zibilak erabiltzeko, edo haien jantokiak edo kantinak hornitzeko, betiere indar horiek Batasunaren jarduera bat gauzatzeko segurtasun eta defentsa politika erkidearen esparruan egindako defentsa ahalegin bati lotuta badaude.

**63. artikulua.- Ondasun-berrinportazioak.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira, aurretiaz esportatu direnean, zeuden egoera berean berrinportatzen diren ondasunen inportazioak, baldin eta esportatzen dituenak burutzen baditu eta inportatzaileek, halaber, inportazio-eskubideen onura hartzen badute.

**64. artikulua.- Inportazioei loturiko zerbitzugintzak.**

Zergatik salbuetsirik egongo dira honako arau honen 20. artikuluan salbuetsitzat hartu direnez beste zerbitzugintzak, baldin eta zerbitzugintza hauen kontraprestazioa berei dagozkien ondasun-inportazioen zerga-oinarriaren barnean bildurik badago, arau honen 84. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.

**65. artikulua.- (74) Aduanakoez bestelako gordailu araubide bati lotutako ondasunen inportazioak.**

Aduanakoez bestelako gordailu araubide bati lotutako ondoko ondasunen inportazioak Zergaren kargatik salbuetsita egongo dira, arau bidez zehazten diren baldintzak eta beharkizunak betez gero, egoera horrek irauten duen bitartean, bai eta inportazio horiekin zuzenean lotutako zerbitzugintzak ere; hona ondasunak:

a) Arau honen eranskineko bosgarren idatz zatiko a) letran aipatzen diren ondasunak.

b) Arau honetako 3. artikuluko bigarren idatz zatiko 1. zenbakiko b) letran aipatzen diren lurraldeetatik datozen ondasunak.

c) Ondoko hauek: patatak (kodea: NC 0701), olibak (kodea: NC 071120), kokoak, Brasileko intxaurra eta cajuil intxaurra (kodea: NC 0801), beste fruitu oskoldun batzuk (kodea: NC 0802), kafea, txigortu gabe (kodeak: NC 09011100 eta 09011200), tea (kodea: NC 0902), zerealak (kodea: NC 1001 - 1005 eta NC 1007 - 1008), arroza, oskol eta guzti (kodea: NC 1006), hazi eta fruitu oleaginosoak (soia barne) (kodeak: NC 1201 - 1207), landaren koipeak eta olioak eta beraien zatikiak, gordinean, finduta baina kimikoki aldatu gabe (kodeak: NC 1507 - 1515), azukrea, gordinean (kodeak: NC 170111 eta 170112), kakaoa, aleak zein zatituta, gordinean zein txigortuta (kodea: NC 1801), hidrokarburoak (propanoa eta butanoa eta petrolio mineral gordinak barne (kodeak: NC 2709, 2710, 271112 eta 271113), produktu kimikoak, ontziratu gabe (kodeak: NC, 28. eta 29. kapituluak), kautxoa, lehengai modura edo xafletan, orrietan edo zerrendetan (kodeak: NC 4001 eta 4002), artilea (kodea: NC 5101), eztainua (kodea: NC 8001), kobrea (kodeak: NC 7402, 7403, 7405 eta 7408), zinka (kodea: NC 7901), nikela (kodea: NC 7502), aluminioa (kodea: NC 7601), beruna (kodea: NC 7801), indioa (kodea: NC ex 811292 eta ex 811299), zilarra (kodea: NC 7106), platinoa, paladioa eta rodioa (kodeak: NC 71101100, 71102100 eta 71103100).

d) (76) Aduana kontrolpean egonik, portu eta aireportuetan dauden eta zerga salbuespena duten dendetarako diren ondasunak.

**66. artikulua.- (56) Salbuespenak ondasunen inportazioetan zergapetze bikoitza saihesteko.**

Ondoko eragiketak Zergatik salbuetsita daude:

1.- Ondasunen inportazioak, baldin eta Zergaren aplikazio lurraldean emantzat jotzen badira arau honetako 68. artikuluko bigarren idatz zatiko 2. zenbakian ezarritakoaren arabera.

2.- Ondasunen aldi baterako inportazioak, inportazio eskubideen salbuespen partziala dutela, baldin eta jabeak Zergaren kargapeko eta hartatik salbuetsi gabeko zerbitzuak (arau honetako 69. artikuluko bigarren idatz zatiko j) letran aipatutakoak) eginez lagatzen baditu.

3.- (62) (91) Gasa inportatzea Batasuneko lurralde eremuko gas naturala banatzeko sare baten bitartez, edo hari konektatutako sare baten bitartez, elektrizitatea ematea, eta beroa edo hotza ematea berokuntza edo hozketa sareen bitartez, ondasunen emateak non gertatzen diren gorabehera.

Zenbaki honetako salbuespena ondokoei ere aplikatuko zaie: gas naturalaren inportazioak, itsasontzien bidez egiten direnak, itsas garraioaren ondoren banaketa sare batera edo gasodi sare batera bideratzen denean.

4.- (86) Ondasun inportazioak, baldin eta balio erantsiaren gaineko zerga aitortu behar bada arau honen IX. tituluaren XI. kapituluaren 4. atalean arautzen den araubide bereziaren arabera edo ondasuna heltzen den Batasuneko estatuko arau baliokidearen arabera eta saltzaileak edo haren kontura ari den bitartekariak araubide berezi hori aplikatzeko esleitutako banakako identifikazio zenbakia aurkeztu badu aduanan foru arau honen 163 septvicies artikuluan edo identifikazioaren Batasuneko estatuan aplikatzen den arautegiaren arabera, beranduenez ere inportazioaren aduana aitorpena aurkeztu behar denean.

**67. artikulua.- Honako kapitulu honetan aurrikusten diren salbuespenei aplikagarri zaizkien arau orokorrak.**

(36) Inportatzaileak aurreko artikuluetan ezarri diren beharkizunak betetzen dituela benetakotzeko adina frogagiri aurkeztu beharko du.

## III. TITULUA

## ZERGA EGITATEAREN BURUTZAPEN-LEKUA

### I. KAPITULUA

### ONDASUN-EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK

**68. artikulua.- (86) Ondasunak emateko tokia.**

Ondasun ematea non gertatu den zehazteko erregela hauek aplikatuko dira:

**Bat.** Garraiorik ez duten ondasun emateak zerga aplikatzeko lurraldean egin direla ulertuko da ondasunak eskuratzailearen esku jartzen direnean lurralde horretan.

**Bi.** Honako hauek ere zergaren aplikazio lurraldean egintzat hartuko dira:

1. A) Ondasun higigarri gorpuzdunak emateak, baldin eta ondasuna bidali edo garraiatu behar bada eskuratzaileari helarazteko, ondoko hirugarren eta laugarren apartatuetan aipatzen direnak ez besteak, bidalketa edo garraioa lurralde horretan hasiz gero.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, inportatzeko diren ondasunen bidalketa edo garraioa hasten den lekua hirugarren herrialde batean badago, inportatzaileak egiten dituen horien emateak eta, hala denean, ondoko eskuratzaileek egiten dituztenak zergaren aplikazio eremuan egintzat joko dira.

B) Aurreko A) letrako lehen paragrafoan xedatzen denaren ondorioetarako, ondasunak hainbat aldiz ematen badira Batasuneko estatu batetik beste batera bidalita edo garraiatuta, zuzenean, hau da, lehen hornitzailetik kateko azken eskuratzaileak jaso arte, bidalketa edo garraioa bitartekariaren alde egindako ondasun ematearekin bakarrik egongo da lotuta.

Hala ere, bitartekariak Espainiako Erresumak balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako emandako identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazten badio hornitzaileari, bidalketa edo garraioa bitartekariak egindako ondasun ematearekin bakarrik egongo da lotuta.

Aurreko bi paragrafoen ondorioetarako, hauxe da bitartekaria: enpresaburua edo profesionala, lehen hornitzailea ez dena, ondasunak zuzenean edo beraren izenean eta kontura ari den hirugarren baten bitartez bidaltzen edo garraiatzen dituena.

Aurrekoa ez da aplikatuko arau honen 8 bis artikuluan arautzen diren kasuetan.

2. Besteren esku jarri aurretik instalatu edo muntatu behar diren ondasunen emateak, instalakuntza aipatu lurraldean burutzen denean eta instalazioek edo muntaketak berekin badakar ondasunak ibilgetzea.

3. Aipatu lurraldean errotzen diren ondasun higiezinen emateak.

4. Batasunaren barruko garraio tartean, garraioaren abiapuntua zergaren aplikazio eremuan eta jomuga Batasuneko beste puntu batean daudela, ontzi, hegazkin edo tren baten barruan bidaiariei egiten zaizkien ondasun emateak.

Joan-etorriko bidaietan bi garraio gertatzen dira, bata joanekoa eta bestea itzulerakoa.

Zenbaki honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Batasunaren barruko garraio tartea Batasunaren barruko abiapuntutik jomugara bitartekoa da, beste lurraldetan eskalarik egin gabe.

b) Abiapuntua Batasunaren barruan bidaiariak ontziratzeko aurreikusitako lehen lekua da, are Batasunetik kanpoko azkeneko eskala egin ondoren ere.

c) Jomuga Batasunean ontziratutako bidaiariak Batasunaren barruan lehorreratzeko aurreikusitako azken lekua da, are beste lurralde batean eskala egin baino lehen ere.

**Hiru.** Honako hauek ere zergaren aplikazio lurraldean egintzat hartuko dira:

a) Batasunaren barruko ondasun emateak, baldin eta bezeroak jaso beharreko bidalketaren edo garraioaren jomuga Batasunaren lurraldean badago.

Aurreko araua ez da aplikatuko honako bi baldintzak betez gero:

a') Salmenta egiten duen enpresaburuak edo profesionalak, hala diharduenak, daukan egoitza bakarra Batasuneko beste estatu batean egotea, han daukalako bere jarduera ekonomikoaren egoitza edo Batasuneko establezimendu bakarra edo, bestela, bere bizileku iraunkorra edo ohiko egoitza.

b') Ez gainditzea arau honen 73. artikuluan ezartzen den muga eta ez erabiltzea zerga destinoan ordaintzeko aukera, artikulu horretan edo a') letran aipatzen den Batasuneko estatuaren legeriako xedapen baliokidean arautzen dena.

b) Batasunaren barruko urruneko ondasun salmentak, baldin eta salmenta egiten duen enpresaburuak edo profesionalak, hala diharduenak, daukan egoitza bakarra zergaren aplikazio lurraldean badago, han daukalako bere jarduera ekonomikoaren egoitza edo Batasuneko establezimendu bakarra edo, bestela, bere bizileku iraunkorra edo ohiko egoitza eta honako inguruabar hauek gertatzen badira:

a') Zergaren aplikazio lurraldea bezeroak jaso beharreko ondasunaren bidalketaren edo garraioaren abiapuntua izatea.

b') Ez gainditzea arau honen 73. artikuluan ezartzen den muga eta ez erabiltzea zerga destinoan ordaintzeko aukera, artikulu horretan arautzen dena.

c) Hirugarren herrialde edo lurralde batetik inportatutako ondasunen urruneko salmentak, ondasuna Batasuneko estatu batetik beste batera bidaltzen edo garraiatzen denean, baldin eta zergaren aplikazio lurraldea bidalketaren edo garraioaren jomuga bada.

d) Hirugarren herrialde edo lurralde batetik inportatutako ondasunen urruneko salmentak, ondasuna Batasuneko estatu batetik beste batera bidaltzen edo garraiatzen denean, baldin eta zergaren aplikazio lurraldea bidalketaren edo garraioaren jomuga bada eta salmenta dela eta egin beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren aitorpena arau

honen IX. tituluaren XI. kapituluaren 4. atalean ezartzen den araubide berezian egin behar bada.

Apartatu honetan ezartzen dena ez zaie aplikatuko ematea salmenta edo garraioa abiatzen den Batasuneko estatuan erabilitako ondasunen, arte objektuen, antzinakinen eta bildumarako objektuen araubide bereziaren arabera kargatutako ondasunei.

**Lau.** (92) Ez dira joko zergaren aplikazio lurraldean egintzat bidalketa edo garraioa lurralde horretan hasi eta azken bezeroa dagoen Batasuneko beste estatu batean amaitzen den ondasun emateak, baldin eta eragiketa bada aurreko Hiru apartatuko b) letran aipatzen diren ondasunetakoez bestelako, urruneko eta Batasunaren barruko salmenta.

Hiru apartatuaren b) letrako urruneko eta Batasunaren barruko salmenta horiek ez dira inolaz ere zergaren aplikazio lurraldean egintzat joko honako kasu honetan: ondasuna zerga berezi baten kargapean egonez gero eta ondasunaren hartzailearen Batasunaren barruko eskuraketak ez badaude zergaren kargapean arau honen 14. artikuluan edo ondasuna heltzen den Batasuneko estatuan aplikatzen den xedapen baliokidean xedatzen denaren arabera.

**Bost.** Zerga berezi baten kargapean dauden ondasun emateak, hirugarren apartatuko a) letran azaltzen den bezala egiten direnak, zergaren aplikazio lurraldean egintzat joko dira honako kasu honetan: ondasunaren bidalketa edo garraioa heltzen den tokia lurralde horretan badago eta ondasunaren hartzailearen Batasunaren barruko eskuraketak ez badaude zergaren kargapean arau honen 14. artikuluan xedatzen denaren arabera.

Apartatu honetan aipatzen diren ondasun emateen zenbatekoa ez da kontuan hartuko arau honen 73. artikuluko mugarako.

**Sei.** Gasa ematea Batasuneko lurralde eremuko gas naturala banatzeko sare baten bitartez, edo hari konektatutako sare baten bitartez, elektrizitatea ematea, eta beroa edo hotza ematea berokuntza edo hozketa sareen bitartez Batasuneko lurralde eremuan gertatutzat joko dira kasu hauetan:

1. Hartzailea enpresaburua edo profesionala da eta gasa edo elektrizitatea beste bati saldu dio, eta bere jarduera ekonomikoaren egoitza lurralde horretan dago, edo establezimendu iraunkorra du bertan edo, bestela, bere etxebizitza, eta gasa edo elektrizitatea egoitzarako, establezimendurako edo etxebizitzarako da.

Honen ondorioetarako, enpresaburua edo profesionala gasa, elektrizitatea, beroa edo hotzabirsaltzen diharduela pentsatuko da baldin eta erosten duen gehiena besteri saltzen badie eta berak oso gutxikontsumitzen badu.

2. Beste zeinahi kasu, baldin eta eskuratzaileak ondasunak zergaren aplikazio eremuan erabiltzen edo kontsumitzen baditu. Honen ondorioetarako, ondasuna zergaren aplikazio lurraldean erabili edo kontsumitutzat joko da bertan badago neurgailua.

Eskuratzaileak ez baditu kontsumitzen ondasun guztiak, kontsumitu gabe geratzen direnak zergaren aplikazio lurraldean erabili edo kontsumitutzat joko dira eskuratzaileak lurralde horretan badu bere jardueraren egoitza edo bertan badu establezimendu iraunkorra edo bere etxebizitza, eta, gainera, gasa edo elektrizitatea egoitzarako, establezimendurako edo etxebizitzarako izan bada.

**69. artikulua.- (56) Zerbitzua egin den tokia. Arau orokorrak.**

**Bat.** Zerbitzuak Zergaren aplikazio lurraldean egintzat joko dira ondoko kasuetan, artikulu honetako hurrengo idatz zatian eta arau honetako 70. eta 72. artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe:

1. Hartzailea enpresaburua edo profesionala da eta hala dihardu, bere jarduera ekonomikoaren egoitza aplikazio lurraldean dauka, edo bertan dauka establezimendu iraunkorra edo bere ohiko etxebizitza, eta zerbitzuen hartzailea egoitza, establezimendu iraunkorra edo ohiko etxebizitza da (ez da kontuan hartzen zerbitzugilea nongo egoiliarra den, ez nondik egiten dituen zerbitzuak).

2. Hartzailea ez da enpresaburua ez profesionala (hala diharduena), baldin eta zerbitzuak enpresaburu edo profesional batek egiten baditu eta beraren jarduera ekonomikoaren egoitza edo zerbitzuak egiteko erabili duen establezimendu iraunkorra edo ohiko etxebizitza Zergaren aplikazio lurraldean badago.

**Bi.** (74) Artikulu honetako lehenengo idatz zatiko 2. zenbakiak xedatzen duenak salbuespen hau dauka: ondoren zehaztuko diren zerbitzuak ez dira hartuko Zergaren aplikazio lurraldean egintzat, baldin eta hartzailea ez bada ez enpresaburua ez profesionala (hala diharduena), eta egoitza edo ohiko etxebizitza Batasunetik kanpo badauka (horretan ez dira sartzen Kanaria uharteak, Ceuta eta Melilla):

a) Egile eskubideak, lizentziak, fabrika markak edo merkataritzako markak eta jabetza intelektualaren gainerako eskubide guztiak, eta antzeko eskubide guztiak, lagatzea eta ematea.

b) Merkataritzako funtsak, salmenta edo erosketa esklusibak edo lanbide jarduera batean aritzeko eskubidea lagatzea edo ematea.

c) Publizitate zerbitzuak.

d) Aholkularitza, auditoretza, ingeniaritza, azterlan bulegoen zerbitzuak, abokatuen zerbitzuak, kontabilitateko edo zergen arloko adituenak eta antzekoak, arau honetako 70. artikuluko lehenengo idatz zatiko 12. zenbakian adierazitakoak izan ezik.

e) Datuen tratamendua eta informazioa hornitzea, merkataritzako prozedurak eta esperientziak barne.

f) Itzulpengintza, testuak zuzentzea eta testu konposizioa, eta interpretaritza.

g) Aseguru, berraseguru eta kapitalizazio zerbitzuak, arau honetako 20. artikuluko lehenengo idatz zatiko 16. zenbakian aipatuak, eta idatz zati bereko 18. zenbakian

aipatutako finantza zerbitzuak, are salbuetsita ez daudenak ere, segurtasun kutxen alogera izan ezik.

h) Langileak lagatzea.

i) Filmak bikoiztea.

j) Ondasun higigarri eta gorpuzkorren errentamenduak, garraiobideenak eta edukiontzienak salbu.

k) Batasuneko lurralde eremuko gas naturala banatzeko sare batera edo haietako bati konektatutako sare batera, elektrizitatea banatzeko sare batera edo berokuntza edo hozketa sare batera konektatzea, eta produktu horiek sare horien bitartez garraiatzea edo banatzea, bai eta letra honetako zerbitzuei zuzenean lotutako zerbitzuak egitea ere.

l) Idatz zati honetako zerbitzuetako bat osorik zein partzialki egin behar ez izatea.

**Hiru.** Arau honen ondorioetarako, definizio hauek finkatu dira:

1. Jarduera ekonomikoaren egoitza: enpresaburu edo profesionalek beren enpresa edo lanbide jarduera eta beraren kudeaketa zentralizatzen dituzten tokia.

2. Establezimendu iraunkorra: enpresaburu edo profesionalek jarduera ekonomikoak egiteko erabiltzen duten negozio leku finkoa.

Bereziki, halakotzat hartuko dira:

a) Zuzendaritzaren egoitza, sukurtsalak, bulegoak, lantegiak, tailerrak, instalazioak, dendak eta, oro har, subjektu pasiboaren izenean eta kontura kontratuak egiteko eskuespena daukan agentzia eta ordezkaritza guztiak.

b) Meategi, harrobi edo sarrategiak, petrolio edo gas putzu eta lehengaiak ateratzeko beste leku batzuk.

c) Eraikuntza edo muntaketa obrak, hamabi hilabete baino gehiago luzatzen badira.

d) Nekazaritzako, basogintzako edo abeltzaintzako ustiategiak.

e) Enpresaburu edo profesionalek beren merkataritzako gaiak biltzeko eta gero emateko modu iraunkorrean ustiatzen dituzten instalazioak.

f) Ondasunak erosteko edo zerbitzuak eskuratzeko zentroak.

g) Errentamendua edo beste edozein titulu dela bide ustiatzen diren ondasun higiezinak.

3. Telekomunikazio zerbitzuak: hari, irrati, bide optiko nahiz bestelako edozein bide elektromagnetikoren bidez seinale, testu, irudi eta hots edo edozein eratako informazioa transmititu, bidali edo jaso, transmititu, bidali edo jasotzeko bideak erabiltzeko

eskubideen lagapena edo emakida eta, aldi berean, sare informatikoetara sartzeko hornikuntza barne, xedetzat duten zerbitzuak joko dira telekomunikazio zerbitzutzat.

4. Baliabide elektronikoez egiten diren zerbitzuak: zerbait prozesamenduko ekipoak erabiliz bidaltzea kablearen, irrati uhinen, sistema optikoren baten edo bestelako bitarteko elektronikoren baten bidez, trinkotze numerikoa eta datu biltegiratzea barne; hona zerbitzu horietako batzuk:

a) Leku informatikoen horniketa eta ostatua.

b) Programen eta ekipamenduen urruneko mantenua.

c) Programen eta haien eguneraketen horniketa.

d) Irudien, testuen, informazioaren horniketa eta datubaseak eskuragarri jartzea.

e) Musikaz, pelikulaz, jolasaz, baita zorizko edo dirua jokatzekoez, eta emanaldi eta adierazpen politiko, kultural, artistiko, zientifikoez edota kirolezko edota aisiazkoez hornitzea.

f) Urruneko irakaskuntza ematea.

Honen ondorioetarako, zerbitzugilea eta zerbitzuen hartzailea posta elektronikoaren bidez harremanetan egoteak ez du berez ekarriko zerbitzua bide elektronikoaz baliatuz egintzat hartu beharra.

5.- (74) Irrati eta telebista zerbitzuak: erantzukizun editoriala bereganatuta daukala komunikazio zerbitzuak egiten dituen batek entzuteko eta ikusentzunezko edukiak, esaterako irrati edo telebista saioak, hornitzea bere komunikazio sareen bitartez, programatutako ordu jakin batzuetan multzoka entzuteko edo ikusteko.

**70. artikulua.- (56) Zerbitzua egin den tokia. Arau bereziak.**

**Bat.** Zergaren aplikazio lurraldean egintzat joko dira ondoko zerbitzu hauek:

1. Aipatu lurraldean finkaturik dauden ondasun higiezinei zuzenean lotzen zaizkienak.

Besteak beste, hauexek hartuko dira ondasun higiezinei zuzenean lotutzat:

a) Ondasun horiek, baita altzariz hornitutako etxebizitzak ere, edozein tituluren bidez alokatzea edo erabiltzeko uztea.

b) Higiezin lanak burutzeko prestatzeko, koordinatzeko eta burutzeko zerbitzuak.

c) Lanak burutzeko zerbitzu teknikoak, arkitektoek, arkitekto teknikariek eta ingeniariek egiten dituztenak barne.

d) Higiezinen edo higiezin eragiketen inguruko kudeaketa zerbitzuak.

e) Higiezinak zaintzeko zerbitzuak eta haien segurtasunaren ingurukoak.

f) Segurtasun kutxen alokairuak.

g) Bidesaria daukaten bideak erabiltzea.

h) Ostalaritzako establezimenduetan, kanpamenduetan eta bainuetxeetan ostatu ematea.

2. Ondoren azalduko diren garraio zerbitzuak, Zergaren aplikazio lurraldean dagoen ibilbide tarteari dagokionez, arau honetako 3. artikuluan zehaztu den bezala:

a) Bidaiarien garraio zerbitzuak, hartzailea gorabehera.

b) Arau honetako 72. artikuluan adierazitakoak ez beste ondasun batzuk garraiatzeko zerbitzuak, hartzailea ez bada ez enpresaburua ez profesionala (hala dihardduena).

3. (60) Kulturaren, artearen, kirolaren, zientziaren, hezkuntzaren eta aisialdiaren arloko zerbitzuak eta antzekoak (azokak eta erakusketak, esaterako), eta haien zerbitzu osagarriak, baldin eta hartzailea enpresaburua edo profesionala (hala dihardduena) bada eta zerbitzuak lurralde horretan egiten badira.

4. (70) (79) (86) Bitarteko elektronikoz, telekomunikazioz eta irrati eta telebista bidez ematen direnak, baldin eta hartzailea ez bada enpresaburua edo profesionala, hala dihardduena, eta, betiere, hura zerga aplikatzen den lurraldean badago ezarrita edo han badauka bere egoitza edo ohiko bizilekua, kasu hauetan:

a) Honako inguruabar hauek gertatzen direnean:

a') Enpresaburu edo profesional batek, hala dihardduenak, egitea eta honen egoitza bakarra batasuneko beste estatu batean egotea, han daukalako bere jarduera ekonomikoaren egoitza edo Batasunean daukan establezimendu iraunkor bakarra edo, bestela, bere bizileku iraunkorra edo ohiko egoitza; eta

b') arau honen 73. artikuluan ezartzen den muga gainditzea eta zerga destinoan ordaintzeko aukera, artikulu horretan arautzen dena, erabiltzea.

b) Enpresaburu edo profesional batek, hala dihardduenak, egitea, aurreko a) letrako a') letran aipatzen direnak besteko batek.

5. A) (67) Jatetxe eta catering zerbitzuak, kasu hauetan:

a) Batasunaren barruan bidaiariak garraiatzen ari diren ontzi, hegazkin eta trenetan egiten direnak, bidaia hasi den tokia Zergaren aplikazio lurraldean egonez gero.

Joan-etorriko bidaietan bi garraio gertatzen dira, bata joanekoa eta bestea itzulerakoa.

b) Gainerako jatetxe eta catering zerbitzuak, Zergaren aplikazio lurraldean eginez gero.

B) Zenbaki honetako A) idatz zatiko a) letran ezarritakoaren ondorioetarako kontzeptu hauek zehaztu dira:

a) Bidaiarien garraioaren Batasunaren barruko ibilbide tartea: Bidaiarien garraioaren ibilbideko tarte bat, Batasuneko bi punturen artean dagoena eta beste herrialde edo lurralde batean eskala egin ondoren zeharkatzen dena.

b) Garraio zerbitzuaren abiagunea: Batasunean bidaiariak hartzeko ezarritako lehen tokia, aurretik bertatik kanpo beste eskala bat egon arren.

c) Zerbitzua amaitzen den gunea: Batasunean bidaiariak uzteko ezarritako azken tokia, beste herrialde edo lurralde batean beste eskala bat egon arren.

6. Besteren izenean eta kontura egiten diren bitartekaritza zerbitzuak, hartzailea ez bada ez enpresaburua ez profesionala (hala dihardruena) eta bitartekaritzan kudeatzen diren eragiketak Zergaren aplikazio lurraldean egintzat jo behar badira arau honetan ezarritakoaren arabera.

7. (61) Ondoren azalduko diren zerbitzuak, Zergaren aplikazio lurraldean eginez gero eta hartzailea ez bada ez enpresaburua ez profesionala (hala dihardruena):

a) Garraioaren osagarri diren zerbitzuak: zama lanak, garraio aldaketa, eskuztatzea eta antzekoak.

b) Ondasun higigarri eta gorpuzkorretan egiten diren lanak eta obrak, eta ondasun horiei buruzko peritu txostenak, balorazioak eta irizpenak.

c) Kulturaren, artearen, kirolaren, zientziaren, hezkuntzaren eta aisialdiaren arloko zerbitzuak eta adurrezko jokoen eta antzekoen ingurukoak (azokak eta erakusketak, esaterako), are haien antolaketa zerbitzuak eta zerbitzu osagarri guztiak.

8. (74) (79) (86) Baliabide elektronikoen, telekomunikazioen, irratiaren edo telebistaren bidez egiten direnak, baldin eta eragiketa egiten duen enpresaburuak edo profesionalak, hala dihardruenak, daukan egoitza bakarra zergaren aplikazio lurraldean badago, han daukalako bere jarduera ekonomikoaren egoitza edo Batasuneko establezimendu bakarra edo, bestela, bere bizileku iraunkorra edo ohiko egoitza eta honako inguruabar hauek gertatzen badira:

a) hartzailea ez izatea enpresaburua edo profesionala, hala dihardruena, egoitza edo ohiko bizilekua Batasuneko beste estatu batean daukana; eta

b) Ez gainditzea arau honen 73. artikuluan ezartzen den muga eta ez erabiltzea zerga destinoan ordaintzeko aukera, artikulu horretan arautzen dena.

9. (69) A) Garraiobideak errentatzeko zerbitzuak, kasu hauetan:

a) Garraiobideak epe laburrerako errentatzeko zerbitzuak, hartzaileak Zergaren aplikazio lurraldean jasotzen baditu.

b) Epe luzerako errentamenduak, baldin eta hartzailea ez bada ez enpresaburua ez profesionala (hala diharduena) eta egoitza edo ohiko etxebizitza aplikazio lurraldean badauka.

Hala ere, ez enpresaburua ez profesionala (hala diharduena) ez den pertsonari epe luzerako errentatutakoa aisiarako ontzia bada, zerbitzua Zergaren aplikazio lurraldean egintzat hartuko da hartzaileak ontzia bertan jasotzen badu eta zerbitzua enpresaburu edo profesional batek egiten badu bere jarduera ekonomikoaren egoitzatik edo aplikazio lurraldean daukan establezimendu batetik.

B) Zenbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako hauxe izango da epe laburra: garraiobide bat gehienez hogeita hamar egun edukitzea edo erabiltzea etengabean (ontzien kasuan, laurogeita hamar egun gehienez).

**Bi.** (74) (85) (92) Era berean, ondoren adieraziko diren zerbitzuak zergaren aplikazio lurraldean emantzat joko dira, baldin eta, zerbitzu horiei aplika dakizkiekeen egite tokiari buruzko arauei jarraituta, ulertzen bada ez direla eman erkidegoan, Kanarietan, Ceutan edo Melillan, baina horien erabilera edo ustiapena lurralde horretan gertatu bada.

1. Arau honen 69. artikuluko Bi apartatuan aipatutakoak eta garraiobideak alokatzekoak, haien hartzailea enpresaburu edo profesional gisa jarduten duen enpresaburua edo profesionala ez bada.

2. Arau honen 69. artikuluko Bi apartatuko g) letran aipatutakoak eta garraiobideak aloka-tzekoak, haien hartzailea enpresaburu edo profesional gisa jarduten duen enpresaburua edo profesionala bada.

## II. KAPITULUA

## ELKARTE BARRUKO ERAGIKETAK

### 71. artikulua.- Elkarte barruko ondasun-eskuraketak burutzen diren tokia.

**Bat.** Elkarte barruko ondasun-eskuraketak Zergaren aplikazio-lurraldean burututzat joko dira, baldin eta eskuratzailearentzako salmenta edo garraioaren jomuga lurralde horretan bertan badago.

**Bi.** Zergaren aplikazio-lurraldean burututzat joko dira honako arau honen 13. artikuluaren 1. zenbakian aipatu diren Elkarte barruko eskuraketak ere, eskuratzaileak saltzaileari identifikazio zenbakiaren berri ematen dionean, estatu espainiarreko Administrazioak iratxikitzen duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako, salmenta edo garraioaren jomuga dagoen estatu kidean kargatu ez badira.

**72. artikulua.- (56) Non egiten diren Batasunaren barruko ondasun garraioak, hartzailea ez denean ez enpresaburua ez profesionala (hala diharduena).**

**Bat.** Batasunaren barruko ondasun garraioak, hartzailea ez bada ez enpresaburua ez profesionala (hala diharduena), Zergaren aplikazio lurraldean egintzat joko dira garraioa bertatik abiatzen denean.

**Bi.** Arau honetan xedatutakoaren ondorioetarako, kontzeptu hauek finkatu dira:

a) Batasunaren barruko ondasun garraioa: ondasun batzuk garraiatzea Batasuneko estatu batetik beste batera.

b) Garraio zerbitzuaren abiagunea: ondasunen garraioa abiatzen den lekua, ondasunok dauden tokira iristeko egindako bidaiak kontuan hartu gabe.

c) Zerbitzua amaitzen den gunea: ondasunen garraioa amaitzen den tokia.

## III. KAPITULUA (86)

## BATASUNAREN BARRUKO URRUNEKO ONDASUN SALMENTA ETA ZERBITZUGINTZA BATZUEN GEHIENEKO KOPURUAK

**73. artikulua.- (56) (86) (92) Urruneko eta Batasunaren barruko ondasun salmentak (arau honetako 68. Hiru.a eta b) eta zerbitzu prestazioak (arau honetako 70. Bat.4 eta 8): gehieneko kopuruak.**

**Bat.** Arau honetako 68. Hiru.a) eta b) artikuluan eta 70. Bat.4 eta 8 artikuluan ezartzen denaren ondorioetarako, egutegiko aurreko urtean Batasunaren barruan egindako ondasun emateen edota zerbitzu prestazioen gehieneko kopurua 10.000 euro izango da, guztirako zenbatekoa kontuan hartuta, zerga zenbatu gabe, edo horren baliokidea moneta nazionalean.

Abian den urtean egindako eragiketen guztirako zenbatekoak aurreko paragrafoan ezartzen den muga gainditzen badu, arau honetako 68. Hiru.a) eta 70. Bat.4.a) artikuluetan ezartzen dena aplikatuko da.

Apartatu honen lehenengo paragrafoan jasoriko muga ez da aplikatuko Urruneko eta Batasunaren barruko ondasun salmentak, osorik edo partzialki, establezimendua ez den beste estatu kide batetik egiten direnean.

**Bi**. Honelako eragiketak egiten dituzten enpresaburuek eta profesionalek hautatu ahal izango dute haien gaineko zerga aurreko paragrafoko 10.000 euroko muga gainditu balitz bezala ordaintzea, ondasun emateen kasuan ondasunen bidalketak edo garraioak hasten diren Batasuneko estatuan, eta zerbitzugintzen kasuan, egoitza duten estatuan. Egoitza zergaren aplikazio lurraldean duten enpresaburuek eta profesionalek lurralde horretatik egiten badituzte zerbitzuak edo bidaltzen badituzte ondasunak, hautapena

erregelamenduz ezartzen den bezala egin beharko da eta egutegiko bi urte iraungo du gutxienez.

Artikulu honetan aipatzen den muga aplikatzean, ondasun emateen kontraprestazioaren zenbatekoa zatiezina izango da ondorio hauetarako.

**74. artikulua.- (56)**

# IV. TITULUA

# ZERGAREN SORTZAPENA

## I. KAPITULUA

## ONDASUN-EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK

**75. artikulua.- Zergaren sortzapena.**

**Bat.** (35) Zerga hau honako egoera hauetan sortuko da:

1. Ondasunak ematean, betiere ondasun horiek eskuratzaileari ematen zaizkionean, edo, hala dagokionean, aplikagarri zaien legeriari jarraiki ematen direnean.

Aurreko paragrafoan onartutakoa gorabehera, honako kasu hauetan, Zergaren xede diren ondasunen jabe eskuratzailea egiten denean sortuko da Zerga: jabetza erreserbatzeko ituna edo bestelako baldintza etenarazleren bat duten salmenta kontratuetan emandako ondasunak direnean, eta ondasunak alokatzen edo saltzen direnean, edo ondasunak alokatuz gero, alde bientzat loteslea den jabetza eskualdatzeko klausula dagoenean.

2. (56) Zerbitzugintzetan, kargapeko eragiketak eman, burutu edo gauzatzen direnean.

Hala ere, zerbitzu baten hartzailea Zergaren subjektu pasiboa bada arau honetako 84. artikuluko lehenengo idatz zatiko 2. eta 3. zenbakietan ezarritakoaren arabera, zerbitzua urtebete baino aldi luzeagoan egin bada etengabe eta aldi horretan ordainketa aurreraturik eragin ez badu, zerbitzugintzaren gaineko karga abenduaren 31n sortuko da urtero, eta sortu ere eragiketa hasi denetik edo aurreko sortzapenetik egun horretara arteko aldiaren proportzioan, harik eta zerbitzugintza amaitu arte.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoak badauka salbuespen bat: material ekarpenak behar dituzten lan burutzapenetan, ondasunak lanaren jabearen esku jartzen diren unean sortuko da.

2.bis. (74) Obren hartzaileak administrazio publikoak direnean, materialak eman edo ez, ondasunak jasotzen diren unean, Sektore Publikoaren kontratuen Legearen testu bateginak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartuak, 235. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz.

3. Salmenta komisioetako kontratuetan, komisio emailearen eta komisio hartzailearen artean ondasunak eskualdatzen direnean, eta azkenak bere izenean jarduten duenean, komisio hartzaileak adierazitako ondasunak ematen dituen unean.

Alde batek besteari ondasun higigarriak emateko kontratuen araberako ondasunak ematen direnean, eta ondasun horien balioa zenbateko jakin bat izanik, ondasuna jasotzen duenak epe baten barruan ondasunak saltzeko eta saldutako ondasunen balio estimatua eta saldu ez diren gainerakoen balioa itzultzeko betebeharra hartzen duenean, ondasunak jasotzen dituenak eskuratzailearen esku uzten dituenean sortuko da saldutako ondasunei dagokien sortzapena.

4. Erosketa komisioetako kontratuetan, komisio hartzailearen eta komisio emailearen artean ondasunak eskualdatzen direnean, eta lehenak bere izenean jarduten duenean, adierazitako ondasunak komisio hartzaileari ematen zaizkion unean.

5. Autokontsumoko kasuetan, kargatutako eragiketak egiten direnean.

Hala ere, Arau honetako 9 artikuluko, 1 zenbakiko, d) letrako hirugarren paragrafoan adierazten diren kasuetan, Zerga honako egoeratan sortuko da.

a) Kenkaria izateko eskubidea mugatzen edo galarazten duten egoerak sortzen direnean.

b) Xede diren ondasunak kenkaria izateko eskubidea sortzen ez duten eragiketetarako erabiltzen diren urteko azken egunean.

c) Prorrata arau orokorra aplikagarri den urteko azken egunean.

d) Salbuetsitako ematearen sortzapena sortzen denean.

6. (73)

7. (70) Errentamenduetan, hornikuntzetan eta, oro har, segidako edo etengabeko traktu eragiketetan, hartukizun bakoitzak barne hartzen duen prezioaren zatia galda daitekeen unean.

Hala ere, preziorik hitzartu ez bada edo, prezioa hitzartu arren, noiz ordaindu behar den zehaztu ez bada, edo ordaintzeko maiztasuna egutegiko urtea baino luzeagoa izatea hitzartu bada, Zergaren sortzapena urte bakoitzeko abenduaren 31n sortuko da, eragiketa hasten den unetik, edo aurreko sortzapenetik, adierazitako egunera arte pasatutako denborari dagokion zati proportzionalean.

Hornikuntza arau honetako 25. artikuluko lehenengo eta hirugarren idatz zatietan aipatutako ondasun emateetakoa bada eta preziorik hitzartu ez bada, edo prezioa hitzartu arren noiz ordaindu behar den zehaztu ez bada, edo ordaintzeko maiztasuna egutegiko urtea baino luzeagoa izatea hitzartu bada, Zergaren sortzapena urte bakoitzeko abenduaren 31n sortuko da, eragiketa hasten den unetik, edo aurreko sortzapenetik, adierazitako egunera arte pasatutako denborari dagokion zati proportzionalean.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko aurreko 1. zenbakiko bigarren paragrafoan aipatzen diren eragiketei.

8. (70) (83) Arau honetako 25. artikuluan aipatzen diren ondasun emateen kasuan (aurreko zenbakian aipatzen direnak ez beste guztiak) zergaren sortzapena hauetako batean:

a) Eskuratzailearentzako bidalketa edo garraioa hasten den hilaren ondoko hilaren 15ean.

b) Arau honetako 9 bis artikuluko bigarren idatz zatian ezartzen den bezala egiten diren ondasun emateen kasuan, ondasunak eskuratzailearen esku jartzen diren hilaren ondoko hilaren 15ean.

Aurreko a) eta b) letretan ezartzen denaren ondorioetarako, baldin eta egun hori baino lehen eragiketari dagokion faktura egiten bada, zergaren sortzapena faktura egiten den egunean gertatuko da.

c) Arau honetako 9 bis artikuluko hirugarren idatz zatian aipatzen diren baldintzakbetetzen direnean.

d) Arau honetako 9 bis artikuluko laugarren idatz zatian ezartzen den 12 hileko epealdia amaitzen den egunaren biharamunean.

**Bi.** Aurreko atalean xedatutakoa gora-behera, zerga egitatea gauzatu baino lehenagoko ordainketa aurreratuak sortzen dituzten eragiketa kargagarrietan, benetan hartzen den zenbatekoengatiko prezioaren guztizko edo zatikako kobrantzaren unean izango du Zergak sortzapena.

Aurreko lerroaldean agindutakoa ez da aplikagarria izango Arau honen 25. artikuluan aurkitzen diren ondasunen emateei. (2)

**Hiru.** (86) Aurreko apartatuetan xedatzen dena gorabehera, arau honetako 8 bis artikuluan ezartzen denaren arabera egiten diren ondasun ematetan, salmenta edo ematea bideratzen duen enpresaburuaren edo profesionalaren aldeko ematearen eta berak egindakoaren gaineko zerga bezeroak ordainketa onartzen duenean gertatuko da.

## II. KAPITULUA

## ELKARTE BARRUKO ONDASUN-ESKURAKETAK

**76. artikulua.- Zergaren sortzapena.**

Elkarte barruko ondasun-eskuraketetan, antzeko ondasunak emantzat jotzen diren unean izango du Zergak sortzapena, honako arau honen 75. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurreko lerroaldean agindutakoa gora-behera, ondasunen elkarte arteko eskuraketetan, aipatutako eskuraketak egin aurretiko aurreratutako ordainketak eragiten dituzten eragiketen zortzapenari buruzko 75. artikuluaren bi atala ez da aplikagarria izango. (2)

(73)

## III. KAPITULUA

## INPORTAZIOAK

**77. artikulua.- Zergaren sortzapena.**

**Bat.** Ondasunen inportazioetan, aduanazko legeriarekin bat, Zergaren sortzapena inportazioari buruzko eskubideen sortzapena gertatzen den unean gauzatuko da, inportaziook aipatu inportazioari buruzko eskubideei lotuta egon ala ez.

Hala ere, aduanazkoaz beste gordailu-erregimena utziko balitz, sortzapena erregimen hori uzten den unean gauzatuko litzateke.

**Bi.** Arau honen 19. artikuluan zehaztutako inportazioei berdinetsiriko eragiketetan, sortzapena bertan adierazten diren inguruabarrak gertatzen diren unean gauzatuko da.

# V. TITULUA

# ZERGA OINARRIA

## I. KAPITULUA

## ONDASUN-EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK

**78. artikulua.- Zerga-oinarria. Arau orokorra.**

**Bat.** Zergaren zerga-oinarria hari lotzen zaion destinatari edo gainontzekoengandiko eragiketen kontraprestazioaren guztirako zenbatekoak osatuko du.

**Bi.** Bereziki, ondoko hauek sartzen dira kontraprestazio kontzeptuan:

1.- (6) Komisio eta garraio gastuak, aseguruak, prestazio aurreratuengatiko sariak, ordainketa geroratuetako korrituak eta ematea burutzen edo prestazio nagusitik edo haren osagarrietatik eratortzen den zerbitzua egiten duenarentzako benetako beste edozein kreditu.

Aurreko lerroartekoan esandakoa gorabehera, ez dira kontraprestazioan sartuko prezioaren ordainketa gerorapenaz egiteagatiko korrituak, gerorapen hori ondasunak edo zerbitzuak eman eta geroko aldi bati dagokion zatiarekiko.

Aurreko lerroartekoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, honakoak baino ez dira korritutzat joko: prezioaren ordainketa gerorapenaz egiteari buruzko finantza eragiketen ordainsariak, Zerga ordaintzeko salbuespena dutenean Arau honen 20. artikuluko Bat atalaren 18. zenbakiaren c) letran ezarritakoaren arabera eta subjektu pasiboak eginiko fakturan berex jasotzen denean.

Merkatuan antzeko eragiketei aplikatu ohi zaien korritua gainditzen duen kontraprestazio zatia ez da inolaz ere korritutzat joko.

2.- (6)

3.- (33) Zergari lotzen zaizkion prezioarekin zuzeneko lotura duten dirulaguntzak.

Zergari lotzen zaizkion prezioarekin zuzeneko lotura duten dirulaguntzak direla ulertuko da ematen diren unitateen edo egin diren zerbitzuen kopuruaren arabera ezartzen diren dirulaguntzak, baldin eta eragiketa egin aurretik gauzatu badira.

4.- Eragiketa kargatuen gaineko era guztietako tributu eta kargak, Balio Erantsiaren gaineko Zerga bera izan ezik.

Zenbaki honetan xedatu denak eragiketa kargatuen gai diren ondasunei buruz eska daitezkeen zerga bereziak barne bilduko ditu, garraiobide zehatz batzuen matrikulazioaren gaineko zerga berezia ezik.

5.- Zuzenbidearen arabera prestazioa ematera behartuta dagoenak atxekitzen dituen hartukizunak, baldin eta Zergari lotzen zaizkion eragiketak suntsiarazten badira.

6.- Eragiketaren destinatariei kargatzen zaien ontzi eta enbalaketen zenbatekoa, itzulgaiak ere barne, aipatu zenbatekoa jasotzen den kontzeptua edozein dela ere.

7.- Zorren guztirako edo zatikako kontraprestazio gisa Zergari loturik dauden eragiketen destinatariak bereganatzen dituen zor horien zenbatekoa.

**Hiru.** Ondoko hauek ez dira zerga-oinarrian sartuko:

1.- Izaeraz eta funtzioz Zergari lotzen zaizkion ondasun-emateen edo zerbitzugintzen kontraprestazio edo konpentsazio ez diren eta aurreko atalean biltzen direnez beste kalteordainak direla bide jasotzen diren dirukopuruak.

2.- Zuzenbidean onartu ohi den edozein bidez frogatu eta eragiketa burutu aurretik edo aldi berean eta haren arabera ematen diren deskontu eta hobariak.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa ez da aplikagarria izango prezio gutxipenak beste eragiketa batzuen ordainketak direnean.

3.- Bezeroaren izenean eta kontura ordaintzen diren diru-kopuruak, haren berariazko agindua dela bide. Subjektu pasiboak gastu horien benetako zenbatekoa frogatu beharko du eta ezin izango dio gastuok inoizka karga zitzakeen Zergaren kenkaria egiteari ekin.

4. (74) Eragiketen prezioari lotuta ez dauden dirulaguntzak; ez dira halakoak hirugarrenek eragiketen kontraprestazio gisa ordaintzen dituzten zenbatekoak.

**Lau.** (38) Balio Erantsiaren Zergaren gaineko Zergari lotutako eragiketak kargatzen dituzten zerga horretako kuotak ez badira fakturan berariaz jasanarazten, ordainak kontu horiek ez zituela barne hartu joko da.

Aurreko paragrafoan zehaztutakotik kanpo geratzen dira:

1. Zergaren berariazko jasanarazpena beharrezkoa ez den kasuak.

2. Artikulu honetako Bi idatz zatian, 5. zenbakian zehazten diren kasuak.

**79. artikulua.- Zerga-oinarria. Arau bereziak.**

**Bat.** (74) Kontraprestazioa diruzkoa ez den eragiketen zerga oinarria alderdiek hitzartutako zenbatekoa izango da, dirutan adierazita.

Besterik frogatu ezean, zerga oinarria hurrengo hirugarren eta laugarren idatz zatietan ezartzen diren erregelen aplikazioaren emaitzako zenbatekoa izango da.

Hala ere, kontraprestazioaren zati bat diru zenbatekoa bada, zerga oinarria kalkulatzeko hauxe egin behar da: diruzkoa ez den kontraprestazio zatiaren zenbatekoa (alderdiek hitzartua, dirutan adierazia) diruzko zatiaren zenbatekoari gehitu, baldin eta emaitza aurreko paragrafoetan xedatzen dena aplikatuz kalkulatutakoa baino gehiago bada.

**Bi.** Eragiketa berean eta prezio bakarrez zenbait ondasun-emate edo zerbitzu mota egiten direnean, enpresa-ondare bat oso-osoan edo haren zati bat eskualdatzeko balizkoak ere barne, bakoitzari dagokion zerga-oinarria ematen diren ondasun edo egiten diren zerbitzuen merkatuko balioaren heinean ezarriko da.

Aurreko lerroaldean xedatu dena ez da aplikatuko aipatu ondasun edo zerbitzuak Zergari lotzen zaion prestazio nagusiaren prestazio osagarrien gaia ez direnean.

**Hiru.** Arau honen 9. artikuluaren 1. eta 3. zenbakietan biltzen diren autokontsumo eta ondasun transferentzia balizkoetan, zerga-oinarria ezartzeko ondoko arau hauek izango dira aplikagarri:

1.- Ondasunak eskuratu diren egoera berean emango balira subjektu pasiboak edo beste batek haren kontura fabrikazio, gertaketa edo transformakuntzarik egin gabe, zerga-oinarria ondasunok eskuratuko liratekeen eragiketan finkatzen dena litzateke.

Baldin eta inportatzen diren ondasunak balira, zerga-oinarria haien inportazioan zerga likidatzeko nagusitzen dena izango litzateke.

2.- Ematen diren ondasunekin eskualdatzaileak edo beste batek haren kontura fabrikazio, gertaketa edo transformakuntza prozesuak burutuko balitu, zerga-oinarria aipatu ondasunak lortzeko subjektu pasiboak erabiltzen dituen ondasun eta zerbitzuen kostua litzateke, xede bererako egiten diren pertsonalaren gastuak barne.

3. (90) Hala ere, entregatutako ondasunen balioak aldaketarik izan badu haien erabileraren, narriaduraren, zaharkitzearen, txikitzearen, errebalorizazioaren edo beste edozein kausaren ondorioz, ondasunek entrega egiten den unean duten balioa hartuko da zerga oinarritzat.
3. arau honetan xedatutakoaren ondorioetarako, erabateko narriadura gertatu dela ulertuko da, baldin eta Hiru paragrafo honetan aipatutako eragiketen xedea irabazteko xederik gabeko erakundeek aplikagarri zaien irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko araudian zehaztuta daude erakunde horiek eskuratutako ondasunak badira, eta betiere, gai honetan aplikatzekoa zaien araudiak xedatutakoaren arabera garatzen dituzten interes orokorreko helburuetarako erabiltzen badira.

**Lau.** Zerbitzuen autokontsumo kasuetan, zerbitzugintzaren kostua hartuko da zerga-oinarritzat, hala denean, lagatzen diren ondasunen amortizazioa barne.

**Bost.** (47) Eragiketa honetan esku hartzen duten alderdien artean binkulaziorik dagoenean, zerga oinarria bere merkatuko balio normala izango da.

Binkulazioa frogatzeko zuzenbidean onartutako edozein bide erabili ahal izango da. Hurrengo kasuak binkulaziotzat hartuko dira:

a) Alderdi esku-hartzaileren bat Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboa edo Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergaduna den kasuan, aplikagarriak izango diren aipatutako Zergen arauetatik hala ateratzen denean.

b) Subjektu pasiboen eta lanbide edo administrazio izaeradun harremanez lotzen diren pertsonen artean burutzen diren eragiketetan.

c) Subjektu pasiboaren eta beraren ezkontidearen edo bigarren gradura arteko odol-ahaideen artean burutzen diren eragiketetan, aipatutako bigarren gradukoen artekoak barne.

d) Irabazteko asmorik gabeko erakundeen (Irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga-erregimenari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 4. artikuluan aipatutakoa) eta horien fundatzaile, bazkide, patronu, estatutuordezkari, gobernu organoetako kide, ezkontide edo izatezko bikotekide, edo hirugarren gradura arteko ahaideen artean (horiek barne) egindako eragiketetan.

e) Enpresaria edo profesionala den erakunde baten eta bere bazkide, elkartu, kide edo partaideen artean egindako eragiketetan.

Binkulazio-arau hori hurrengo betekizunak betetzen direnean aplikatu ahal izango da soilik:

a) Eragiketaren destinatarioak ez duenean eragiketari dagokion zerga guztiz deduzitzeko eskubidea, eta hitzartutako kontraprestazioa lehia libreko egoeretan izan behar dena baino txikiagoa denean.

b) Ondasunak ematen edo zerbitzuak egiten dituen enpresaria edo profesionalak bere kenkariak hainbanako-araua aplikatuz zehazten dituenean, eta, kenkari-eskubiderik sortzen ez duenean, hitzartutako kontraprestazioa merkatuko balio normala baino txikiagoa denean.

c) Ondasunak ematen edo zerbitzuak egiten dituen enpresaria edo profesionalak bere kenkariak hainbanako-araua aplikatuz zehazten dituenean, eta, kenkari-eskubiderik sortzen duenean, hitzartutako kontraprestazioa merkatuko balio normala baino handiagoa denean.

Arau honen ondorioetarako, hauxe hartuko da merkatuko balio normaltzat: delako ondasun edo zerbitzuak une zehatz horretan eskuratzeko destinatario batek hornitzaile independente bati (ondasunak eman edo zerbitzuak egiten diren merkaturatze-fasea berean) ordaindu behar liokeena Zerga aplikatzen den lurraldean, lehia libreko baldintzetan.

Ondasun emate edo zerbitzu egite konparagarririk egiten ez denean, hauxe hartuko da merkatuko baliotzat:

a) Ondasunak emateari dagokionez, aipatutako ondasunen edo antzeko ondasunen eskuratze prezioaren zenbateko berdina edo handiagoa, edo, erosketa preziorik ezean, ematen den une zehatzean zehazten den kostu prezioa.

b) Zerbitzuak egiteari dagokionez, zerbitzuok egiteak enpresariari edo profesionalari dakarkion kostu osoa.

Aurreko bi letren ondorioetarako, Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, bidezkoa denean.

**Sei.** Salmenta-komisioko kontratuak direla bide, komisio-emaileak komisiodunarentzat burutzen dituen ondasun-eskualdaketetan, komisiodunak bere izenean diharduenean, zerga-oinarria azken honek hitzartzen duen kontraprestazioa izango da, komisioaren zenbatekoa kenduta.

**Zazpi.** Erosketa-komisioko kontratuak direla bide, komisiodunak komisio-emailearentzat burutzen dituen ondasun-eskualdaketetan, lehenengoak bere izenean diharduenean, zerga-oinarria azken honek hitzartzen duen kontraprestazioa izango da, komisioaren zenbatekoa gehituta.

**Zortzi.** Gainontzeko baten kontura burutzen diren zerbitzugintzetan, zerbitzua egiten duenak bere izenean diharduenean, komisio-emailearen eta komisiodunaren artean burutzen den eragiketa azken honek kontzertatzen duen kontraprestazioa izango da, komisioaren zenbatekoa kenduta.

**Bederatzi.** Gainontzekoen kontura egiten diren zerbitzu-eskuraketetan, zerbitzuak eskuratzen dituenak bere izenean diharduenean, komisiodunaren eta komisio-emailearen artean burutzen den eragiketa lehenengoak hitzartzen duen kontraprestazioa izango da, komisioaren zenbatekoa gehituta.

**Hamar.** (35) Inbertitzeko urrea xedetzat edo emaitzatzat ez duten ondasunak edo zerbitzuak ematean, eta ondasun edo zerbitzu horietan hartzaileak jarritako urrea erabiltzen denean, eta urre hori eskuratzea edo inportatzea salbuetsita badago, Arau honetako 140 bis artikuluko 1 zenbakiko Bat idatz zatiaren arabera (edo Europar Erkidegoko kide den beste edozein herrialdeko araudi baliokidearen arabera), zerga oinarria honela lortuko da: kontraprestazioaren guztizkoari, urre horrek Zergaren zortzapenaren datan duen merkatuko balioa gehituta.

**Hamaika.** (35) Kontraprestazioa Espainiakoez beste moneta edo dibisa batean ezarrita duten eragiketetan, sortzapena gauzatzen den unean indarrean dagoen saltzaile-trukaneurria aplikatuko da, zein Espainiako Bankuak ezarriko baitu.

**Hamabi.** (35) Aurreko ataletan aipatu diren eragiketen zerga-oinarrian, bidezko den ginoan, aurreko artikuluko bigarren eta hirugarren ataletan, hurrenez hurren, dauden gastuak zein osagaiak sartu edo kendu beharko dira.

**80. artikulua.- (15) Zerga-oinarria aldatzea.**

**Bat.** 78. eta 79. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehazten den zerga-oinarria, honako zenbateko hauetan murriztuko da:

1. Itzulgai izan eta birziklatzeko gai diren ontzi eta enbalajeen zenbatekoan.

2. Eragiketa burutu ostean emandako deskontu eta hobarietan, behar bezala frogatuta daudenean.

**Bi.** Epailearen edo administrazio-ebazpen irmoz edo zuzenbidearen edota merkataritza-usadioen arabera zergapetutako eragiketak guztiz edo partzialki ondoriorik gabe geratzen direnean edo eragiketa burutu ondoren prezioa aldatzen bada, zerga-oinarriak egoki den zenbatekoan aldatuko dira. (16)

**Hiru.** (74) Zerga oinarria murriztu ahal izango da Zergaren kargapean dauden eragiketa baten hartzaileak jasanarazitako kuota ordaindu ez badu, baina horretarako ezinbestekoa da eragiketaren sortzapenaren ondoren konkurtsoa adierazten duen autoa ematea. Nolanahi ere, uztailaren 9ko 22/2003 Legeak, konkurtsoenak, 21. artikuluko 1. idatz zatiko 5. zenbakian finkatzen duen epealdia amaitzen denetik ni hilabete pasatutakoan ezin egin izango da aldaketarik.

Konkurtsoen Legeko 176.1 artikuluko 1., 4. eta 5. idatz zatietan azaltzen diren arrazoietako bategatik konkurtsoa amaitzea erabakitzen bada, eta kasu honexetan soilik, zerga oinarria aldatu duen hartzekodunak goraka aldatu beharko du berriro, eta horretarako bidezko kuota jasanarazten duen faktura zuzentzailea eman beharko du arauz ezartzen den epealdian.

**Lau.** (70) Zerga oinarria kasu honetan ere murriztu ahal izango da modu proportzionalean: kargapeko eragiketengatik jasanarazitako kuotei dagozkien kredituak kobraezinak badira (osorik edo zati bat). Hori dela eta:

A) Kreditua erabat edo partzialki kobraezintzat hartuko da ondokoak gertatzen direnean

1. (74) (92) Jasanarazitako zergaren sortzapenetik urtebete pasatzen bada horri dagokion kreditu osoa edo haren zati bat kobratzea lortu gabe.

Hala ere, eperako edo prezio geroratuko eragiketetan, urtebete pasatu behar da ordaindu gabeko kopuruaren epea mugaeguneratu denetik zerga oinarriari txikipen proportzionala aplikatu ahal izateko. Horretarako, eperako eragiketatzat joko dira hainbat ordainketetan jasotzen direnak eta prezio geroratutako eragiketatzat bakar batean jasotzen direnak, baldin eta jasanarazitako Zerga sortu denetik azken ordainketa edo ordainketa bakarra egiteko epealdiaren mugaegunera arte urtebete baino gehiago pasatu bada.

Baldin eta murriztu nahi den zerga oinarria sortu duen kreditu eskubidearen titularra enpresaburua edo profesionala bada eta beraren eragiketen bolumena, arau honetako 121. artikuluan xedatu den bezala kalkulatuta, aurreko egutegiko urtean 6.010.121,04 euro baino gehiago izan ez bada, baldintza honetako aldia sei hilekoa edo urtebetekoa izan daiteke.

Eragiketari kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatzen bazaio, arau honetako 163 terdecies artikuluan aipatzen den abenduaren 31ko mugaeguna aplikatuta Zergaren sortzapena gertatzen den egunean betetzat joko da.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena gorabehera, eragiketa eperakoa bada edo prezioa geroratuta badauka, ezinbestekoa izango da sei hileko edo urtebeteko aldia, 1. erregela honetan aipatzen dena, pasatzea epealdia (edo epealdiak) amaitzen denetik eragiketaren sortzapena gertatu arte.

2. Inguruabar hori zerga honetarako eskatutako erregistro liburuetan islatuta egotea.

3. (92) Eragiketaren hartzaileak enpresaburu edo profesional gisa jardutea edo, bestela, haren zerga oinarria, balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe, 50 euro baino gehiago izatea.

4. (92) Subjektu pasiboak hura kobratzeko eskatu izana zordunari erreklamazio judizial baten bidez edo notario errekerimendu baten bidez, edo haren kobrantza erreklamatu dela modu frogagarrian egiaztatzen duen beste edozein bitartekoren bidez, baita erakunde publikoek finkatutako kredituak direnean ere.

Aurreko 1. baldintzan aipatutako epekako eragiketen kasuan, nahikoa izango da haietako bat aurreko 4. baldintzan aipatutako edozein bitartekoren bidez kobratzekoeskatzea zerga oinarria aldatzeko, ordaindu gabeko epeari edo epeei dagokien proportzioan.

Erakunde publikoek zor dituzten kredituak direnean, aurreko 4. baldintzanaipatzen diren baliabideen ordez erakunde publiko zordunaren organo eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, erakunde publiko horren kontu hartzailearen edo diruzainaren txostenaren arabera. Ziurtagiri horretan, obligazioaren aitorpena eta zenbatekoa jasoko dira.

B) (74) (92) Aldaketa sei hileko epealdian burutu beharko da, aurreko 1. puntuan aipatzen den urtebeteko aldia amaitzen denetik aurrera, eta Zerga Administrazioari jakinarazi beharko zaio arauz finkatzen den epealdian.

Eragiketari kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatzen bazaio, aldaketa egiteko ezarritako sei hileko epealdia arau honetako 163 terdecies artikuluan aipatzen den mugaegunetik aurrera konputatuko da, hau da, abenduaren 31tik aurrera.

C) Zerga oinarriari murrizketa aplikatu ondoren haren zenbatekoa ezin gehitu izango da, nahiz eta subjektu pasiboak kontraprestazioaren kopuru osoa edo haren zati bat jaso, eragiketaren jasotzaileak enpresaburu edo profesional gisa ez diharduenean izan ezik. Hala denean, Balio Erantsiaren gaineko Zerga jasotako kopuruetan sartutzat joko da jasotako kontraprestazio zatiaren proportzio berean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, subjektu pasiboak atzera egiten badu epai erreklamazioan edo zordunarekin akordio batera iristen bada zorra kobratzeko epai agindeia bidali ondoren, honen ondorioz zein beste arrazoi batengatik, berriz ere zerga oinarria aldatu beharko du, goraka hain zuzen, eta horretarako bidezko kuota jasanarazten duen zuzenketa faktura bidali beharko du atzera egiten duenetik edo zorra kobratzen duenetik hilabete pasatu baino lehen.

**Bost.** (70) Aurreko hirugarren eta laugarren idatz zatietan ezarritako kasuetan zerga oinarria aldatzeko ondoko erregela hauek aplikatuko dira:

1. Ondoko kredituok edukiz gero, zerga oinarria ez da aldatuko:

a) Benetako bermea duten kredituak, bermatutako zatian.

b) Elkarrekiko bermea duten elkarteek edo kreditu etxeek bermatutako kredituak, edo kreditu edo gaude aseguruko kontratuak estalitakoak, bermatutako zatian.

c) Arau honetako 79. artikuluko bosgarren idatz zatian azaldu diren lotutako pertsona edo erakundeen arteko kredituak.

d) Herri erakundeek bermatutako edo zordundutako kredituak.

Letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko zerga oinarria murrizten denean arau honetako 80. artikuluko laugarren idatz zatian erabat edo modu partzialean kobraezintzat jotzen diren kredituez ezarritakoaren arabera. Hala ere, idatz zati horretako 4. baldintza bete behar da, hau da, agiri bidez frogatu behar da zorra ez dela ordaindu.

2. (92) Eragiketen hartzailea zergaren aplikazio lurraldean, Kanarietan, Ceutan edo Melillan finkatuta ez dagoenean ere ez da zerga oinarria aldatuko.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik kanpo geratzen dira beste estatu kide bateko organo jurisdikzional batek deklaratutako kaudimengabezia prozesu baten ondoriozko kreditu kobraezinen kasuak, kaudimengabezia prozedura horiei Kaudimengabezia Prozedurei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/848 (EB) Erregelamendua aplikatu behar zaienean. Kasu horietan, hala badagokio, subjektu pasiboaren zerga oinarria aldatu ahal izango da, arau honen 80. artikuluko Hiru apartatuan jasotako moduan.

3. Halaber, ondoko kasuan ere zerga oinarria ez da aldatuko arau honetako laugarren idatz zatian ezarri den bezala: konkurtsoa adierazten duen autoa emandakoan, sortzapena hori baino lehen geratu den eragiketen ondorioz jasanarazitako kuotei dagozkien kredituei dagokienez.

4. Aldaketaren aurretik ordainketa partzialik eginez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren karga jasotako kopuruetan sartutzat joko da, hain zuzen ere ordaindutako kontraprestazioaren zatiaren proportzio berean.

5. (74) Eragiketen hartzaileak arau honetako 114. artikuluko bigarren idatz zatiko 2. zenbakiko laugarren paragrafoan xedatzen denaren arabera zuzendu behar ditu kenkariak, eta zuzenketak Ogasunaren aldeko kreditua sortuko du.

Zergapeko eragiketen hartzaileak ez badauka zerga osorik kentzeko eskubidea, Ogasunari zor izango dio kendu ezin duen zergari dagokion kuotaren zenbatekoa. Hartzaileak ez badu jarduten ez enpresaburu ez profesional gisa, aurreko laugarren idatz zatiko C) puntuan ezarritakoa aplikatuko da, ordaintzeko falta zaion zorraren heinean.

**Sei.** Kontraprestazioaren zenbatekoa, zergaren sortzapena egiten denean ez bada ezagutzen, subjetu pasiboak probisionalki jarri egin beharko du, bere irizpideak ezarriz.

**Zazpi.** Aurreko ataletan aipatutako kasuetan, zerga-oinarria aldatzea, erregelen bidez ezartzen diren betebeharren baldintzapean egongo da.

**81. artikulua.- Zerga-oinarriaren zehaztapena.**

**Bat.** Orohar, zerga-oinarria zuzeneko zenbatespen erregimenaren arabera zehaztuko da, arau honetan eta zerga-oinarrien zeharkako zenbatespen erregimenaren arau erregulatzaileetan ezarri direnez beste salbuespenik gabe.

Zeharkako zenbatespen erregimenaren aplikazioak subjektu pasiboak egiten dituen ondasun- eta zerbitzu-eskuraketen zenbatekoa eta hauei dagokien Zerga hartuko ditu.

**Bi.** Arau bidez, sektore edo iharduera ekonomikoetan eta zehazten diren mugen arabera, zerga-oinarriaren zehaztapenerako zenbatespen objektiboaren erregimena ezarri ahal izango da.

Erregimen hau inoiz ere ez da aplikatuko ondasun higiezinen emateetan, ez eta arau honen 9. artikuluaren 1. zenbakiren c) eta d) puntuetan eta 13. eta 17. artikuluetan eta 84. artikuluaren lehenengo atalaren 2. zenbakian aipatzen diren eragiketetan ere.

**Hiru.** Aitorpen edo likidazioak aurkezten ez badira, arau honen 168. artikuluan ofiziozko behin-behineko likidazioari buruz xedatutakoaren arabera ihardungo da.

## II. KAPITULUA

## ELKARTE BARRUKO ONDASUN-ESKURAKETAK

**82. artikulua.- Zerga-oinarria.**

**Bat.** (12) Elkarte barruko ondasun-erosketen zerga-oinarria aurreko kapituluan xedatutakoari jarraituz zehaztuko da.

Bereziki, Arau honetako 16. artikuluaren 2. zenbakian aipatzen diren eskuraketen kasuan, Arau honetako 79. artikuluaren Hiru idazatian ezarritakoaren arabera zehaztuko da zerga-oinarria.

Eskuratzaileak ondasunen espedizio edo garraioak sorburu duen estatuan zerga bereziak itzultzea lortzen badu, erregelamendu bidez zehazten den moduan erregularizatuko da zerga-egoera.

**Bi.** 71. artikuluaren 2. atalean aurrikusitakoa aplikagarri denean, zerga-oinarria ondasunen bidalketa edo garraioaren jomuga den estatu kidean kargatu ez diren Elkarte barruko eskurakete dagokiena izango da.

## III. KAPITULUA

## INPORTAZIOAK

**83. artikulua.- (4) Zerga-oinarria.**

**Bat.** Arau orokorra.

Ondasunen inportazioetan, zerga-oinarria aduanako balioari ondoko kontzeptu hauek gehitzean aterako da, baldin eta delako balioaren barnean ez badaude:

a) Zergaren aplikazio-lurraldetik kanpoko sortzapena duten zerga-eskubide, ordainarazpen eta gainerako kargak, eta bai inportazioa dela bide sortzen direnak ere, Balio Erantsiaren gaineko Zerga ezik.

b) Gastu osagarriak, hala nola, Elkartearen barruan lehenengo jomugara iritsi arte, ondasunen komisioak eta enbalaketa, garraio eta aseguru gastuak.

Garraio-agirian edo Elkartean ondasunak sartzea babesten duen beste edozein agiritan azaltzen dena joko da "lehenengo jomuga"tzat. Horrelako adierazkaririk ez balego, lehen jomuga Elkartearen barruan ondasunak eraskabetzen diren lehen tokia dela ulertuko litzateke.

**Bi.** (92) Arau bereziak.

1. Konpontzeko, eraldatzeko, egokitzeko edo enkarguzko lanak egiteko Erkidegotik kanpora aldi baterako esportatutako ondasunak berriz inportatzearen zerga oinarria lan horien kontraprestazioa izango da, zeina titulu honen lehenengo kapituluan jasotako arauen arabera zehaztu baita.

Aurreko apartatuko a) eta b) letretan aipatzen diren kontzeptuak ere zerga oinarrian sartuko dira, aurreko paragrafoan zehaztutako kontraprestazioan sartuta ez daudenean.

2. 19. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakietan aipatutako inportazioen zerga oinarriak barnean hartuko du inportazio horien aurretik kasuan kasuko garraiobideei buruz egindako eragiketa guztien kontraprestazioaren zenbatekoa, baldin eta eragiketa horiek zergaren salbuespenaren onura izan badute.

3. Arau honetako 18. artikuluko Bi eta Hiru apartatuetan aipatzen diren inportazioetan, arau honetako 23. artikuluan edo 24. artikuluan xedatutakoa aplikatzeagatik zergatik salbuetsita geratu diren emateetan edo zerbitzu prestazioetan jaso badira ondasunak, salbuetsita geratu diren zerbitzuei dagokien kontraprestazioari honako hauek gehitzearenemaitza izango da zerga oinarria:

i. Aurreko Bat apartatua aplikatzetik ateratako balioa edo, hala badagokio,

ii. Aduana edo zerga araubide horiek indarrean dauden bitartean edo ondasunak manu horretan araututako egoeretan dauden bitartean egindako azken entregaren kontraprestazioa.

4. Honako hau izango da aduanaz bestelako gordailu araubidea bertan behera uzten duten ondasunen zerga oinarria, zerga egitateak ez badu inportazioa zehazten arau honetako 18. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoaren arabera, baizik eta inportazio batekin parekatutako eragiketa, arau honetako 19. artikuluko 5. zenbakian xedatutakoaren arabera:

a) Beste estatu kide batetik datozen ondasunen kasuan, 82. artikuluko edo artikulu honetako Bat apartatuko arauak, edo, hala badagokio, gordailu horretan egindako azken emateari dagokiona, hurrenez hurren, aplikatzetikateratzen dena.

b) Herrialdearen barrutik datozen ondasunen kasuan, ondasun horien azken emateari dagokiona, zerga ordaintzetiksalbuetsita.

c) Aurreko letretan jasotako ondasunak sartzeko edo eraldatzeko prozesuen ondoriozko ondasunen kasuan, letra horietan jasotako arauak aplikatzearen ondoriozko zerga oinarrien batura.

d) Kasu guztietan, Europar Batasunaren barruan edo, hala badagokio, ondasunen azken ematean eskuratu ondoren emandako eta Zergatik salbuetsitakozerbitzuei dagozkien kontraprestazioen zenbatekoa jaso beharko du.

e) Ondasunen inportazioarekin parekatutako eragiketagatik aduana araubideaz bestelako gordailu araubidea bertan behera uzten den kasu guztietan, araubide hori bertan behera uzteagatik eska daitekeen zerga berezia sartuko da zerga oinarrian.

5. Arau honen 19. artikuluko 5. zenbakian aipatzen diren gainerako eragiketen zerga oinarria hau izango da: Europar Batasunaren barruko azken ondasun ematearen edo eskuratzearen kontraprestazioen eta entrega edo eskuratze horren ondoren emandako zerbitzuen batura, haiek guztiak Zergatik salbuetsita, titulu honen I eta II. kapituluetan xedatutakoaren arabera.

6. Produktu informatiko normalizatuen inportazioetan, zerga oinarria izango da haiei eran-tsitako euskarriari eta programa edo informazioei dagokiena.

**Hiru.** Arau honen 80 artikuluan agertzen diren arauak, baita ere aplikagarri izango dira inportazioen zerga-tasaren zernolakotzea egiten denean.

**Lau.** Zerga-tasaren elementu determinatzaileak espaniarraz besteko diru edo dibisa desberdinetan finkatzen direnean, trukaketa tasa aduanan Balioa kalkulatzeko indarrean dauden elkarteko xedapenekin bat zernolakotuko da.

## VI. TITULUA

## SUBJEKTU PASIBOAK

### I. KAPITULUA

### ONDASUN-EMATEAK ETA ZERBITZUGINTZAK

**84. artikulua.- (56) Subjektu pasiboak.**

**Bat.** Zergaren subjektu pasiboak honako hauek izango dira:

1. Enpresaburu edo profesional izanik, Zergapeko ondasun emateak edo zerbitzuak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, hurrengo zenbakietan xedatutako kasuetan izan ezik.

2. Kargapeko eragiketak egiten zaizkien enpresaburu edo profesionalak, kasu hauetan:

a) Eragiketak Zergaren aplikazio lurraldean finkaturik ez dauden pertsona edo erakundeek egiten dituztenean.

Hala ere, letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko ondoko kasu hauetan:

a') Zerbitzuaren hartzailea ere ez badago egoiliartuta Zergaren aplikazio lurraldean; salbuespena: arau honetako 69. artikuluko lehenengo idatz zatiko 1. zenbakian aipatutako zerbitzuak.

b') Arau honetako 68. artikuluko hirugarren eta bosgarren idatz zatietan aipatzen diren ondasun emateetan.

c') (83) (92) Arau honetako 20 bis, 21, artikuluko 1., 2. eta 7. zenbakietan edo 25. artikuluan ezartzen denaren arabera zergatik salbuetsita dauden ondasun emateak direnean, eta artikulu honetan aipatzen diren zergapeko ondasun emateak direnean eta salbuetsita ez daudenean.

d') (92) Zergari lotuta eta salbuetsi gabe dauden ondasun higiezinen errentamendu zerbitzuak direnean.

e') (92) Ondasun higiezinen errentamenduan bitartekaritzazerbitzuak ematen direnean.

b) Landu gabeko urrea edo urrezko gai erdilanduak ematen direnean, baldin eta urrearen legea 325 milaren edo gehiago bada.

c) (92) Honako kasu hauetan:

- Emate hauek: industriako hondakin berriak; galdaketako hondakin eta zaborrak; metal ferriko eta ez-ferrikoez osaturiko hondakinak eta gainerako materialak; haien aleazioak; zepak; errautsak eta metalak edo haien aleazioak dauzkaten industriako hondakinak.

- Aurreko gidoian aipatutako produktuak hautatzeko, ebakitzeko, zatikatzeko eta prentsatzeko egiten diren eragiketak.

- Plastikozko zaborren, hondakinen edo ebakinen emateak.

- Paper, kartoi edo beiraren hondakinen emateak.

- Zapi, kordel, soka edo sokateria hondakinen edo gai erabiltezinen emateak.

- Lehen gidoian aipatutako metal ez-ferrikoak eraldatzearen, lantzearen edo galdatzearen ondoriozko produktu erdilanduen emateak, salbu eta nikelez osatutakoak. Zehazki, produktu erdilandutzat joko dira lingoteak, blokeak, plakak, barrak, aleka, granaila eta alanbre burdina.

Nolanahi ere, aurreko paragrafoetan sartutzat joko dira arau honen eranskinean definitutako materialen emateak.

d) Ondoko xedeetako bat duten zerbitzugintzak direnean: berotegi efektuko gasak emititzeko eskubideak, halako gasen emisio murrizpen ziurtatuak eta gas horien murrizketa unitateak; horiek guztiak berotegi efektuko gasak emititzeko eskubideen merkataritza araupetu duen martxoaren 9ko 1/2005 Legean eta Kiotoko Protokoloan ezarritako malgutasun mekanismoetan parte hartzeko esparruan garatu duen uztailaren 20ko 1031/2007 Errege Dekretuan finkatu dira.

e) (68) Ondoko ondasun higiezinen ematea denean:

- Konkurtso prozesu baten ondorio diren emateak.

- 20.Bat.20 eta 20.Bat.22 paragrafoetan arauttakoko emate salbuetsiak, baldin eta subjektu pasiboak uko egin badio salbuespenari.

- Ondasun higiezinen gainean eratuko bermea gauzatzeko egindako emateak. Horrelakoetan bermea gauzatuko da higiezina eskualdatzean bermatutako zorra, osorik edo zati batean, edo hart-zaileak zor hori kitatzeko duen beharra iraungitzen denean.

f) (68) Obrak gauzatzean, materialen ekarpena egin ala ez, bai eta haiek egiteko langileak uztea ere, baldin eta horiek sustatzaileak eta lurrak urbanizatzea eta eraikinak eraikitzea edo zaharberritzea helburu dituen kontratistak zuzenean izenpetutako kontratuen ondorio bada.

Honako hauetan ere aplikatuko da aurreko ahapaldian xedatutakoa: aipatutako egoerotan eragiketen hartzaileak kontratista nagusia edo beste azpikontratista batzuk direnean.

g) (74) Produktu hauen emateak (arau honen eranskineko hamargarren idatz zatian azaltzen dira):

– Zilarra, platinoa eta paladioa, gordinean, hautsa edo erdilandua; emate horiek bezalakoak izango dira enpresaburu edo profesional eskuratzaileak egiten dituen eraldaketa jardueraren ondorioz metal horiek xede dituzten emateak. Nolanahi ere, produktuak ezin dira izan ondasun erabilien, arte objektuen, antzinateko objektuen eta bilduma objektuen araubide bereziaren aplikazio eremukoak.

– Sakelako telefonoak.

– Bideojokoen kontsolak, ordenagailu eramangarriak eta tablet digitalak.

Azken bi gidoietan ezarritakoa hartzailea hauetako bat denean bakarrik aplikatuko da:

a') Objektu horiek birsaltzen dituen enpresaburua edo profesionala, ematearen zenbatekoa gorabehera.

b') Aurreko letran aipatutakoak ez beste enpresaburu edo profesional bat, halako ondasunekin egindako emateen guztirako zenbatekoa 10.000 eurotik gorakoa bada, balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe. Emate guztiak faktura berean sartu beharko dira.

Aipatutako muga kalkulatzeko, emateak faktura batean baino gehiagotan aurkezten badira egindako emateen zenbateko osoa hartuko da kontuan, baldin eta egiaztatuta geratzen bada eragiketa bakarra dela eta eragiketa hori modu artifizialean banakatu dela, arau hau aplikatzea saihesteko.

Aurreko bi letretan aipatzen den enpresaburu edo profesional izaera eskuraketa egin baino lehen edo aldi berean egiaztatu beharko da (arautegian ezarriko da nola).

Ondasun horien emateen hartzaileak zergaren subjektu pasiboak badira, 2. zenbaki honetan ezartzen denaren arabera, emate horiek serie berezi baten bidez jaso beharko dira fakturan.

3. Zergaren aplikazio lurraldean egoiliartuta ez dauden enpresaburu edo profesionalek egindako kargapeko eragiketak (ondoren zehaztuko direnak) jasotzen dituzten pertsona juridikoak, ez badihardute enpresaburu edo profesional gisa:

Arau honetako 26. artikuluko hirugarren idatz zatian aipatutako Batasunaren barruko ondasun eskuraketen ondoko emateak, baldin eta Espainiako Administrazioak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako emandako identifikazio zenbakiaren berri eman badiete haiek egin dituzten enpresaburu edo profesionalei.

b) Arau honetako 69. eta 70. artikuluetan aipatutako zerbitzugintzak.

4. (67) (86) Aurreko zenbakietan xedatutakoa eragotzi gabe, arau honetako 68. Sei artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz zergaren aplikazio eremuan egintzatjotzen diren emateen bidez gasa, elektrizitatea, beroa edo hotza (berokuntza edo hozketa sareen bitartez) jasotzen duten enpresaburuak edo profesionalak, bai eta ez enpresaburu ez

profesional gisa ari ez diren pertsona juridikoak ere, baldin eta ematea lurralde horretan egoitza ez daukan enpresaburu edo profesional batek egiten badu eta balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako Espainiako administrazio batek emandako identifikazio zenbakia jakinarazi badiote.

**Bi.** Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Zergaren aplikazio lurraldean egoiliartutzat joko dira jarduera ekonomikoaren egoitza, zerga egoitza edo kargapeko ondasun emateak eta zerbitzuak egiteko erabiltzen den establezimendu iraunkorra bertan duten subjektu pasiboak.

Subjektu pasibo batek establezimendu iraunkorra ondasun emateak edo zerbitzuak egiteko erabiltzen duela pentsatuko da bertako ekoizpen faktore materialak edo ekoizpeneko giza baliabideak ondasunak edo zerbitzuak egiteko antolatzen baditu.

**Hiru.** Subjektu pasibotzat hartzen dira jaraunspen banatugabeak, ondasun erkidegoak eta nortasun juridikorik izan ez arren zergagai diren batasun ekonomikoa edo ondare banandu izaera duten gainontzeko entitateak, baldin eta Zergaren kargapeko eragiketak egiten badituzte.

## II. KAPITULUA

## ELKARTE BARRUKO ONDASUN-ESKURAKETAK

### 85. artikulua.- Subjektu pasiboak.

Elkarte barruko ondasun-eskuraketetan Zergaren subjektu pasiboak eskuraketok burutzen dituztenak izango dira, arau honen 71. artikuluan aurrikusitakoaren arabera.

## III. KAPITULUA

## INPORTAZIOAK

### 86. artikulua.- (62) Subjektu pasiboak.

**Bat.** Inportazioak egiten dituztenak izango dira Zergaren subjektu pasiboak.

**Bi.** Aduanei buruzko legerian ezarritakoa betez gero, ondoko hauek hartuko dira inportatzailetzat:

1. Inportatzen diren ondasunen destinatariak (eskuratzaileak, lagapen hartzaileak zein jabeak) edo ondasunen inportazioan diharduen kontsignatariak, beren izenean ari badira.

2. Bidaiariak Zergaren aplikazio lurraldean sartzean aldean daramatzaten ondasunen inportatzaileak izango dira.

3. Aurreko zenbakietan biltzen ez diren kasuetan, ondasunen jabeak.

4. Arau honetako 19. artikuluan aipatutako ondasunen eskuratzaileak edo, hala denean, jabeak, errentariak edo pleitariak.

**Hiru.** Artikulu honetako lehenengo idatz zatian xedatutakoa eragotzi gabe, arau honetako 27. artikuluko 12. zenbakiko inportazioen kasuan, baldin eta inportatzaileak zerga ordezkariaren bitartez badihardu, ordezkariak arauetan ezarritakoaren arabera inportazioak direla eta ezartzen diren betebehar materialak eta formalak bete beharko ditu.

## IV. KAPITULUA

## ZERGAREN ERANTZULEAK

### 87. artikulua.- Zergaren erantzuleak.

**Bat.** (38) Engainuzko edo erruzko ekintzaren baten bidez, edo daturik ez ematearen bidez, Zergen jasanarazpen zuzena saihesten dutenen eragiketen hartzaileak subjektu pasiboari ordaintzea dagokion zerga zorraren erantzule solidario izango dira.

Ondorio horietarako, erantzukizunak egoki den zigorra barne hartuko du.

**Bi.** Ondasun-inportazioetan, ondoko hauek ere Zergaren ordainketaren erantzule solidarioak izango dira:

1.- Nazioarteko hitzarmenetan zehazten diren kasuetako elkarte bermatzaileak.

2.- Renfe, nazioarteko hitzarmenak direla bide, gainontzekoen izenean dihardue n kasuetan.

3.- (20) Bere izenean eta inportatzaileen kontura jarduten duten pertsonak edo erakundeak.

**Hiru.** (87) Inportatzailearen izenean eta haren kontura jarduten duten pertsonak edo erakundeak izango dira zergaren ordainketaren erantzule subsidiarioak.

**Lau.** Hirugarren eta laugarren ataletan ezarritako erantzukizunek ez dituzte ukitzen aduana-eremuetatik kanpo burutzen diren iharduketen ondorioz azaltzen diren tributu-zorrak.

**Bost.** (47) 1. Hauek izango dira subjektu pasiboek ordaindu behar izango dituzten zergapeko eragiketei dagozkien zerga-kuoten arduradun subsidiarioak: horien destinatario diren enpresariak edo profesionalak, arrazoiz presumitu behar dutenak eragiketok egiten dituen enpresari edo profesionalak, edo delako ondasunak eskuratu eta

eman dituenak, jasanarazitako edo jasanarazi beharreko Zerga ez dela aitortzekoa ez ezta ingresatzekoa.

2. Ondorio horietarako, aurreko 1. atalean aipatutako eragiketen destinatarioek arrazoien bidez presumitu beharko dute jasanarazitako edo jasanarazi behar izan duen Zerga ez dela aitortu ezta ingresatu behar, horren ondorioz, horiengatik erabat anomaloa den prezioa ordaindu dutenean.

Hauxe izango da erabat anomaloa den prezioa:

a) Eragiketaren inguruko baldintzetan ondasun horiei dagokiena edo ondasun berdin-berdinetan aurretik egindako eskuraketetan ordaindutakoa baino askoz baxuagoa dena.

b) Eman dituenak ondasun horiek eskuratzeagatik ordaindutako prezioa baino askon baxuagoa dena.

Eragiketaren prezioa erabat anomalo gisa kalifikatzeko, Zerga Administrazioak esku artean duen dokumentazioa zein destinatarioek emandakoa aztertuko du, eta, ahal dunenean, sektore ekonomiko berean egindako beste antze-antzeko eragiketa batzuk aztertuko ditu, eragiketa egin den unean ondasunon merkatuko balio normala zein zen kuantifikatzeko.

Ez da erabat anomaloa den preziotzat joko Zergaren aplikazioaz bestelako faktore ekonomikoengatik justifikatzen dena.

3. Erantzukizun hori exijitzeko, Zerga Administrazioak egiaztatu egin beharko du Zerga jasanarazi bat edo jasanarazi behar izan duen Zerga bat dagoela aitortu edo ingresatu gabe.

4. Zerga Administrazioak aurreko ataletan ezarritako betekizunak gertatu direla egiaztatzen duenean, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 41. artikuluaren 5. atalean xedatutakoaren arabera aitortuko du erantzukizuna.

## V. KAPITULUA

## ZERGAREN JASANARAZPENA

### 88. artikulua.- Zergaren jasanarazpena.

**Bat.** Subjektu pasiboek oso-osoan jasanaraziko diote Zergaren zenbatekoa kargatzen den eragiketa egiten zaionari, azken honek jasanarazpena arau honetan xedatzen denarekin bat datorren kasu guztietan jasan beharko duelarik, bi alderdien artean izan litezkeen hizpaketak gora-behera.

Destinatari ente publikoak dituzten eta Zergari loturik eta honetatik salbuetsirik ez dauden ondasun-emate eta zerbitzugintzetan, Zergaren subjektu pasiboek beren proposamen ekonomikoak azaltzean, ahozkoak izaki ere, haien barnean Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu dutela ulertuko da, zein, hala ere. bidezko denean, kobrantzarako aurkezten diren agirietan partida lokabe gisa jasanaraziko baita, kontratatu den zenbateko osoak, jasanarazten den tributuaren zainpeketaren ondoriozko gehikuntzarik izan gabe.

**Bi.** (70) Zergaren jasanarazpena fakturaren bidez gauzatu behar da, eta arau bidez ezartzen diren baldintzak eta beharkizunak betez.

Horretarako, zerga oinarritik bereiz jarriko da kuota jasanarazia, administrazioek ezarritako prezioak direnean ere (aplikatu den zerga tasa adierazi behar da).

Idatz zati honetako aurreko paragrafoetan zehaztutakotik salbuetsiko dira arauz zehazten diren eragiketak.

**Hiru.** (70) Zerga faktura egin eta ematen denean jasanarazi behar da.

**Lau.** Sortzapen egunetik urtebete igaroz gero, jasanarazpen-eskubidea galduko da.

**Bost.** Balio Erantsiaren gaineko Zergak kargatzen duen eragiketaren destinatariak ez dio aipatu Zergaren sortzapen unearen aurretik jasanarazpenari eutsi beharko.

**Sei.** Zergaren jasanarazpenari buruz sor daitezkeen hizka-mizkak, hala haren nondikakoari, nola zenbatekoari buruz, tributu izaerakotzat hartuko dira, ekonomiko-administraziozko bidean jar daitezkeen erreklamazioen ondoreetarako.

**89. artikulua.- (12) Zerga-kuota oihartzunduak zuzentzea.**

**Bat.** (28) Subjektu pasiboek zerga-kuota jasan erazitakoak zuzendu beharko dituzte, kuota hauen diru kopurua gaizki zehazten denean edo, Arau honen 80. artikuluan ezarritakoaren arabera, zerga-oinarria aldatzera behartzen duten zirkunstantziak sortzen direnean.

Zuzenketa kuotak gaizki zehaztearen arrazoiak antzematen diren momentuan, edo aurreko paragrafoan aipatzen diren gainontzeko zirkunstantziak sortzen direnean egin beharko da, operazioari dagokion Zerga sortu zuen momentutik lau urte pasatu ez badira edo, hala balegokio, aipatutako 80. artikuluan zehaztutako zirkunstantziak egon zirenetik.

**Bi.** (70) Aurreko idatz zatian xedatutakoa ondoko kasuan ere aplikatuko da: kuotarik jasanarazi ez eta eragiketaren faktura egiten denean.

**Hiru.** (73) Aurreko ataletan xedatutakoa gorabehera, ez da bidezkoa izango hurrengo egoeretan jasanarazitako zerga kuotak zuzentzea:

1. Zuzenketa arau honen 80. artikuluan bildutako arrazoiek eragin ez dutenean, zuzenketak jasandako kuoten igoera eragiten duenean eta eragiketen hartzaileek enpresaburu edo profesional gisa ez dihardutenean, salbu eta zerga tasen legezko igoera gertatzen bada, horrelakoetan zuzenketa zerga-tasa berrian indarrean jartzen den hilabetean eta hurrengoan egin ahal izango da eta.

2. Zerga administrazioa izan bada bidezko likidazioen bitartez agerian utzi duena subjektu pasiboak aitortutakoa baino zerga kuota handiagoak sortu direla eta ez direla jasanarazi, eta egiaztatzen bada, datu objektiboen bidez, subjektu pasibo horrek iruzurra egiten ari zela, edo bazekiela edo jakin beharko zukeela, horretarako arrazoizko eginbide bat erabilita, iruzurraren zati baten baitako eragiketa egiten ari zela.

**Lau.** Zerga-kuota oihartzunduen zuzenketa erregelamendu bidez ezartzen den moduan dokumentatu beharko da.

**Bost.** (68) Kuoten zuzenketak hasieran jasanarazitako kuoten gehikuntza eragiten badu eta subjektu pasiboari aurretiaz errekerimendurik egiten ez bazaio, subjektu pasiboak likidazio aitorpen zuzentzailea aurkeztuko du, eta bidezkoak diren errekargua eta berandutze korrituak aplikatuko zaizkio aitorpen horri, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz.

Aurreko ahapaldian xedatutakoa gorabehera, zuzenketa oinarritzen bada arau honen 80. artikuluan xedatutako zerga oinarria aldatzeko zioetan edo legez arrazoitu daitekeen huts batean, subjektu pasiboak alde hori zuzenketa egin behar den aldiari dagokion likidazio aitorpenean jaso ahal izango du.

Aldaketak hasiera batean jasanarazitako kuoten murrizketa badakar, subjektu pasiboak honako aukera bi hauen artean hautatu ahal izango du:

a) (74) Autolikidazioak zuzentzeko prozedura hastea Zerga Administrazioaren aurrean. Prozedura hori otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 116.4 artikuluan eta hura garatzen duen araudiak finkatzen dute.

b) Zerga egoera arautzea zuzenketa egin behar den aldiari, dagokion edo zuzenketa hori egin behar zenetik kontatzen hasita urtebete barruan egin beharreko likidazio aitorpenetan. Azken egoera horretan, subjektu pasiboa behartuta dago arauz goitik jasanarazitako kuoten zenbatekoa eragiketaren hartzaileari itzultzera.

Konkurtso itzulketa baten edo konkurtsoaren baitan aurka egitearen ondorioz indargabetzen bada kargatutako eragiketa, subjektu pasiboak zuzendu egin beharko ditu sortutako kuotak aitortu ziren aldiari dagokion likidazio aitorpenean hasiera batean jasanarazitako kuotak.

## VII. TITULUA

## ZERGA-TASA

### 90. artikulua.- Zerga-tasa orokorra.

**Bat.** (67) Ehuneko 21ko zerga tasa aplikatuko da, hurrengo artikuluan xedatutakoa salbuetsita.

**Bi.** Eragiketa bakoitzean aplikagarri den zerga-tasa sortzapenaren unean indarrean dagoena izango da.

**Hiru.** (9) Elkartetik kanpora esportatutako ondasunak berrinportatzen direnean, berrinportazioa hirugarren herri batean konponketa, transformazio, egokitzapen edo obra-egiterapena egin bazaizkie edo beste ondasunak atxiki bazaizkie, eragiketa horiek Zerga aplikatzen den lurraldean egin izan balira izango luketen zerga tasa aplikatuko zaizkie.

Ondasun-inportaziotzat hartutako eragiketetan zerbitzu salbuetsiak baino egin izan ez badira Arau honetako 23 eta 24 artikuluetan aipatzen diren erregimen edo egoerei loturik iraun duten bitartean, zerbitzu horiei loturik egon izan ez balitz aplikatuko litzaiekeen zerga tasa aplikatuko zaie.

### 91. artikulua.- (67) Zerga-tasa txikituak.

**Bat.** Ehuneko 10eko tasa aplikatuko zaie honako eragiketa hauei:

**1.** Komunitate barruko ondasunen erosketak, inportazioak edo ematea. Hona hemen zerrenda:

1. (85) (92) (93) Beren ezaugarriak, aplikazioak, osagaiak, prestaketa eta kontserbazio egoera direla eta gizakien edo animalien elikadurarako modu egoki eta ohikoan erabil daitezkeen substantziak edo produktuak, haien jatorria edozein dela ere, Elikadura Kodean eta hura garatzeko emandako xedapenetan ezarritakoaren arabera.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik kanpo geratzen dira honako hauek:

a) Edari alkoholdunak.

Edari alkoholduntzathartzen da gizakiek irentsitakontsumitzeko egokia den eta etil alkohola duen likido oro.

b) Azukre edo edulkoratzaileerantsiak dituzten edari freskagarriak, zukuak eta gaseosoak.

Zenbaki honen ondorioetarako, tabakoa ez da elikagaitzat hartuko, ez eta entregatu, Europar Batasunaren barruan eskuratu edo inportatu diren egoera berean gizakiek edo animaliek kontsumitu ezin dituzten substantziak ere.

2. Arestiko zenbakian aipatutako produktuak lortzeko, zuzenean zein beste jatorri batekoekin nahastuta ohikotasunez eta egokitasunez erabil daitezkeen animaliak, landareak eta gainontzeko produktuak.

Zenbaki honetan sartzen dira pertsona edo animaliek jateko erabili aurretik loditzen diren abereak eta hauen edo aurreko paragrafoan azaltzen direnen aurrerako abereak.

3. Hurrengo ondasun hauek, baldin eta beraien ezaugarri objetiboengatik, ontziengatik aurkezpenagatik eta kontserbazio egoeragatik zuzenean, sarritan eta modu egokian erabili ahal badira nekazaritza, basogintza edo abeltzaintzako jardueretan. animalien edo landareen ugalketan erabil daitezkeen haziak eta gainerako materialak (animalia edo landare jatorrikoak); ongarriak, hondakin organikoak, osagarriak eta medeagarriak, herbizidak, erabilpen fitosanitariorako edo abelkuntzarako plagizidak; lurrestaltzean, tunelean edo negutegian jarritako landaretzetarako erabiltzen diren plastikoak; uzta aurreko frutak babesteko paperezko poltsak.

4. Gizakien eta animalien elikadurarako edo lurra ureztatzeko erabil daitezkeen urak, are egoera solidoan daudenean ere.

5. (74) Albaitaritzako sendagaiak.

6. (74) Ondasun hauek:

a) Nomenklatura Konbinatuko 30. kapituluan («Farmaziako produktuak») jasotako farmaziako produktuak, azken kontsumitzaileak zuzenean erabil ditzakeenak, baina baldin eta ez badira Bat.1 idatz zati honetako 5. zenbakiko produktuak eta artikulu honetako Bi.1 idatz zatiko 3. zenbakian ezarritako zerga tasa aplikatu ahal zaien produktuak.

b) (92)

c) Arau honen eranskineko zortzigarren idatz zatiarekin zerikusia duten ekipamendu medikuak, aparatuak eta tresnak, baldin eta horiek guztiak, beraien ezaugarri objektiboak direla eta, gabeziak arintzeko edo tratatzeko diseinatuta badaude, urritasun fisikoak, adimenekoak, intelektualak edo zentzumenetakoak dituzten pertsonen erabilera esklusiborako, artikulu honetako Bi.1 idatz zatian xedatzen dena eragotzi gabe.

Letra honetan ez dira sartzen ondasun horien osagarriak, ordezko piezak eta pieza aldagarriak.

7. Etxebizitza gisa erabili ahal diren eraikinak edo haien zatiak, garajeko plazak barne, gehienez bi unitate dituztenak, eta batera eskualdatzen diren eta haietan kokatuta dauden eranskinak.

Arau honi dagokionez, ez dira etxebizitzen eranskintzat joko negozio lokalak, nahiz eta eraikinekin edo etxebizitza gisa erabiltzeko diren beraien atalekin batera eskualdatu.

Ez dira joko etxebizitza gisa erabiltzeko egokitzat erraustekoak diren eraikinak, hain zuzen ere arau honetako 20. artikuluko lehenengo idatz zatiko 22. zenbakiko A) ataleko c) letran aipatzen direnak.

8. (74) Loreak, apaintzeko erabiltzen diren landare biziak, eta haziak, bulboak, kimuak eta halakoak lortzeko erabil daitezkeen landare jatorri hutseko bestelako produktuak ere bai.

**2.** Ondoko zerbitzugintza hauek:

1. Bidaiariak eta beraien fardelak garraiatzea.

2. (77) Ostalaritza, kanpatze eta bainuetxeetako zerbitzuak, jatetxeetakoak eta, oro har, unean bertan kontsumitzeko janari eta edarien hornikuntza, baita hartzaile izango denak aurrez eskatuta egiten badira ere.

3. Nekazaritza, basogintza edo abeltzaintzako ustiategien garapenerako beharrezko zerbitzuak, haien titularrei egiten zaizkienak; hona: landaketa, ereintza, txertaketa, ongarriztapena, lur lanketa eta uzta bilketa; produktuen enbalajea eta egokitzapena, produktuen lehorketa, garbiketa, azala kentzea, zatikatzea, siloratzea, biltegiratzea eta desinfekzioa barne; laborantzako sailak nibelatzea, berdintzea eta mailakatzea; laguntza teknikoa; landare eta animalia kaltegarriak akabatzea eta landaketak eta sailak lainoztatzea; drainatzea; zuhaitzen inausketa, entresaka, ezpaltzea eta azal kentzea; eta albaitaritzako zerbitzuak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko inondik inora erabilpenerako edo gozamenerako lagapenei, ez ondasun errentamenduei.

Era berean, zerga tasa hau aplikatuko zaie nekazaritzako kooperatibek beren kooperatiba jardueren ondorioz eta sozietatearen xedea betetzeko bazkideei ematen dizkieten zerbitzuei (zerbitzu horietan sartzen da bazkideek komunean dituzten tresnak erabiltzea).

4. Bide, parke eta lorategi publikoak garbitzeko zerbitzuak.

5. Zerbitzu hauek: hondakinen bilketa, biltegiratze, garraio, balorizazio edo ezabaketa; estolderia publikoen garbiketa eta arratoi-hilketak, eta hondakin uren bilketa edo tratamendua.

Aurreko paragrafoan sartzen dira hondakinak biltzeko erabiltzen diren ontzi normalizatuak lagatzeko, instalatzeko eta mantentzeko zerbitzuak.

Barruko uretan eta itsas uretan isurkinak bildu edo tratatzeko zerbitzuak ere zenbaki honetan sartzen dira.

6. (77) (79) Liburutegi, agiritegi eta dokumentazio zentro, museo, arte galeria, pinakoteka, zinema areto, antzoki, zirku, zezenketa ospakizun, kontzertu eta bizian ematen diren gaineko kultur ikuskizunetarako sarrerak.

7. Arau honetako 20. artikuluko lehenengo idatz zatiko 8. zenbakian aipatzen diren zerbitzugintzak, baldin eta haren arabera salbuetsita ez badaude eta ezin bazaie aplikatu artikulu honetako Bi.2 idatz zatiko 3. zenbakian ezarritako karga tasa.

8. Afizionatu izaeradun kirol ikuskizunak.

9. Merkataritza izaeradun erakusketa eta azokak.

10. Etxebizitza eraikinak edo haien atalak berriztatzeko eta konpontzeko egiten diren obrak, ondokoak betez gero:

a) Hartzailea pertsona fisikoa izan behar da, ezin da aritu ez enpresaburu ez profesional gisa, eta etxebizitza beretzat erabili behar du.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, jabeen erkidegoei egiten zaizkien obrak ere zenbaki honetan sartzen dira.

b) Obrak egiten diren etxebizitzaren eraikuntza edo birgaikuntzako obrak hasi baino bi urte lehenago amaitu behar dira.

c) Obrak egiten dituen pertsonak ezin du ekarri materialik obrak burutzeko; ekartzen baditu, haien kostua ezin da izan eragiketaren zerga oinarriaren ehuneko 40 baino gehiago.

11. Etxebizitzetarako soilik diren eraikinak edo beraien zati bat erosteko aukera duten alokairuak, garaje plazak (bi gehienez) eta bertan diren eranskinak barne direla, haiekin batera alokatzen badira.

12. Eraikinak, higiezin multzoak edo arkitektura aldetik bereizita dauden haien sektoreak txandaka aprobetxatzeko eskubideak lagatzea, baldin eta eraikinean gutxienez hamar bizitegi badaude, honelako zerbitzuei buruzko araudian ezarritakoarekin bat etorriz.

13. (80) Pertsona fisikoak diren interpretari, artista, zuzendari eta teknikariek ikuskizun aretoetan ematen diren filmen produktoreei eta antzerki eta musika lanen antolatzaileei ematen dizkietenak.

**3.** Hurrengo eragiketak:

1. Nagusiki etxebizitzatarako diren eraikinak edo haien zatiak eraiki edo birgaitzea (haietan dauden lokal, eranskin, garaje, instalazio eta zerbitzu osagarriak barne) xede eta sustatzailearen eta kontratistaren artekoak diren kontratuen ondorio diren obrak, materiala dakartenak edo ez, gauzatzea.

Nagusiki etxebizitzatarako diren eraikuntzatzat jotzen dira gutxienez azalera eraikiaren 100eko 50 erabilera horretarako dutenak,

2. Aurreko 1. zenbakian aipatzen diren eraikinetarako sukaldeko eta bainugelako armairuen eta hormako armairuen salmentak (instalazio eta guzti), baldin eta

eraikuntzaren edo birgaitzearen sustatzailearekin zuzenean egindako kontratuaren ondoriozkoak badira.

3. Aurreko 1. zenbakian zehazten diren eraikuntzen edo haien zatien jabeen erkidegoen eta kontratistaren artean zuzenean gauzatzen diren kontratuen ondoriozko diren obra gauzatzeak, materiala dakartenak edo ez; eta betiere, kontratuen xedea eraikuntza horien osagarri izango diren garajeak eraikitzea bada, eta obra gauzatzeak erkidego horien elementu komun diren lur edo lokaletan egiten badira; jabe bakoitzari esleitu beharreko garaje plazak ez dira bi baino gehiago izan behar.

**4.** (72) Arteko, antigoaleko eta bildumarako objektuen inportazioak, berdin delarik zein den inportatzailea, eta honako hauek egindako arte-lanen entregak:

1. Arte-lanen egileek edo egileen eskubidedunek.

2. Arte-lanen birsailtzaileak ez diren enpresari edo profesionariek, Arau honetako 136. artikuluan aipatzen direnek, kenkari osoa izateko eskubidea dutenean zuzeneko oihartzunagatik jasandako zerga edo ondasuna erostean edo inportatzean ordaindu duena dela eta.

**5.** (72) Elkarte barruan egiten arte-lan erosketak, arte-lan horien hornitzailea aurreko 4. puntuko 1. edo 2. zenbakietan aipatzen direnetakoa bada.

**Bi.** Honako eragiketa hauei %4ko tipoa ezarriko zaie:

**1.** Komunitate barruko ondasunen erosketak, inportazioak edo ematea. Hona hemen zerrenda:

1. (92) (93) (95) (96) Honako produktu hauek:

a) Ogi arrunta, bai eta ogi arrunt izoztuaren orea eta ogi arrunt izoztua ere, ogi arrunta egiteko baino ez badira erabiltzen.

b) Ogi irinak.

c) Edozein animalia espeziek ekoitzitako esne mota hauek: naturala, ziurtatua, pasteurizatua, kontzentratua, gaingabetua, esterilizatua, UHT, lurrundua eta hautsa.

d) Gaztak.

e) Arrautzak.

f) Frutak, barazkiak, lekaleak, tuberkuluak eta zerealak, baldin eta Elikadura Kodearen eta hura garatzeko emandako xedapenen arabera produktu naturalak badira.

g) Oliba olioak.

2. (84) Liburuak, egunkariak eta aldizkariak, baita elektronikoki emandako zerbitzutzatjotzen direnean ere, baldin eta soilik publizitatea ez badute edo funtsean

publizitaterik ez badute, eta osorik edo nagusiki bideo edo musika entzungarriko edukiak ez badira, bai eta haiekin batera prezio bakarrean entregatzen diren elementu osagarriak ere.

Zenbaki honetan lan gauzatzeak sartuko dira, baldin eta berehalako emaitza bada liburu, egunkari edo aldizkari bat lortzea pleguan edo jarraian, ondasun horien fotolito bat, edo gauza bada haiek koadernatzea.

Ondorio horietarako, elementu osagarritzat joko dira liburu, egunkari edo aldizkariarekin unitate funtzional bat osatzen duten zinta magnetofonikoak, diskoak, bideokaseteak eta antzeko bestelako euskarri soinuzkoak edo bideomagnetikoak, haien edukia hobetuz edo osatuz, eta haiekin batera saltzen direnak, honako salbuespen hauekin:

a) Musika lanak soilik dituzten disko eta zinta magnetofonikoak, baldin eta haien merkatu balioa bada haiekin batera entregatutako liburu, egunkari edo aldizkariarena baino handiagoa.

b) Film zinematografikoak, programak edo fikziozko telebista telesailak edo musikalak dauzkaten bideokaseteak eta bestelako euskarri soinudun edo bideomagnetikoak, baldin eta haien merkatu balioa bada haiekin batera entregatzen diren liburu, egunkari edo aldizkariarena baino handiagoa.

c) Aurreko letretan adierazitako euskarrietan, edozein bitartekoren bidez grabatutako produktu informatikoak, baldin eta nagusiki merkatuan modu independentean merkaturatzen diren programak edo aplikazioak baldin badauzkate.

Liburuek, egunkariek eta aldizkariek batez ere publizitatea daukatela ulertuko da, baldin eta argitaratzaileari ematen dizkioten diru sarreren ehuneko 90 baino gehiago kontzeptu horrengatik lortzen badira.

Partiturak, mapak eta marrazketa koadernoak zenbaki honetan sartutzat joko dira, salbu eta artikulu eta aparatu elektronikoak.

3. (74) Gizakientzako sendagaiak, bai eta forma galenikoak, formula magistralak eta prestakin ofizinalak ere.

4. (74) Martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak, Trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide segurtasunari buruzko Legea onartzen duenak, I. eranskineko 20. puntuan aipatzen dituen mugikortasun murriztuko pertsonentzako ibilgailuak (abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, ibilgailuen araudi orokorra onartzen duenak, II.A eranskinean finkatzen duen testua) eta desgaitasuna duten pertsonentzat baizik ez diren gurpildun aulkiak.

Gurpildun aulkia behar duten desgaituak garraiatzeko erabiliko diren autotaxi eta autoturismo bereziak, egokituta zein egokitu aurretik, eta gurpildun aulkian dauden edo mugikortasun murriztua duten desgaituak garraiatzeko erabiliko diren motordun ibilgailuak, egokituta zein egokitu gabeak, gidaria nor izango den gorabehera.

Aurreko paragrafoan azaldutako ibilgailuei zerga tasa murriztua aplikatzeko ezinbestekoa da aurretik eskuratzailearen eskubidea onartzea eta hark ibilgailua zertarako erabiliko den azaltzea.

Bigarren idatz zati honen ondorioetarako, desgaitutzat hartuko dira ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak. Desgaitasun gradua Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak edo autonomia erkidegoko organo eskudunak emandako ziurtagiri edo ebazpen baten bidez frogatu behar da.

5. (74) Desgaitasuna duten pertsonentzako protesiak, ortesiak eta barne inplanteak.

6. Administrazioak araubide bereziko babes ofizialeko edo sustapen publikoko kalifikatutako etxebizitzak, horiekin batera eskualdatzen diren garajeak eta etxebizitzari atxikitakoak barne, baldin eta etxebizitza horiek sustatzaileek berek saltzen badituzte Ondorio horietarako, garajeko plazak ezin dira izan bi baino gehiago.

Sozietateen gaineko Zergapeko etxebizitzak alokatzen diharduten erakundeen araubide berezia aplikatzen zaien erakundeek erositako etxebizitzak, baldin eta, horiek alokatu ondoren, irabazitako errentei etxebizitzak alokatzearen ondorio diren errentetarako zehaztutako hobaria aplikatu ahal bazaie. Etxebizitza horiek Sozietateen gaineko Zergaren araubide berezian daude zehaztuta. Ondorio horietarako, erakunde erosleak horren berri eman beharko dio arauzko eran subjektu pasiboari salerosketa egin aurretik.

7. (92) Konpresak, tanpoiak, slip babesak, preserbatiboak eta medizinalak ez diren beste antisorgailu batzuk.

**2.** Ondoko zerbitzugintza hauek:

1. (74) Artikulu honetako Bi.1 idatz zatiko 4. zenbakiko lehenengo paragrafoan aipatzen diren ibilgailuen eta gurpildun aulkien konponketaz arduratzen diren zerbitzuak eta desgaitasunen bat duten pertsonentzako autotaxiak eta autoturismoak eta manu bereko bigarren paragrafoan adierazitako motordun ibilgailuak egokitzen dituzten zerbitzuak, gidaria nor den gorabehera.

2. Eraikinak edo haien elementuak, garaje plazak barne (bi gehienez), eta haiekin batera doazen eranskinak administrazio klasifikazioaren arabera araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitza gisa erabiltzeko errentatzea erosteko aukerarekin.

3. (79) Telelaguntzako, etxez etxeko laguntzako, eguneko eta gaueko zentroetako eta egoitzazko arreta zentroetako zerbitzuak, 39/2006 Legearen 15. artikuluaren 1. apartatuko b), c), d) eta e) letretan aipatzen direnak (39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonentzako arretari buruzkoa) betiere plaza itunduak dauzkaten zentro edo egoitzetan edo zerbitzu horiek ematen dituzten enpresei esleitutako administrazio lehiaketa baten ondoriozko prezioen bidez ematen badira, edo zerbitzu horiei lotutako diruzko prestazio baten ondorioz ematen badira, eta betiere prezioaren ehuneko 10 baino gehiago estaliz, eta, bai kasu batean bai bestean, legean xedatutakoaren ondorioz.

**Hiru.** Zerbitzugintza diren lan-egiterapenei ere aplikatuko zaie artikulu honetako Bat.1 eta Bi.1 idazatietan xedatutakoa, Arau honetako 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldin eta haien lehenengo emaitza ondasun bat lortzen denean eta ondasun horren emateak agindu horietan aurrikusitako tasa murriztuetakoren bat aplikagarri duenean.

Aurreko lerroartearen edukina ez zaie aplikatuko obra-egiterapenei buruzko artikulu honetako Bat.3 idazatian aipatzen diren eraikuntza eta zahar-berrikuntzei dagozkienean, erregimen bereziko babes ofizialeko edo sustapen publikoko etxebizitzetan egiten badira.

**Lau.** (90) Irabazteko xederik gabeko erakundeei aplikagarri zaien irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko araudian zehaztuta daude erakunde horiek dohaintza gisa egindako ondasun entregei ehuneko 0ko tasa aplikatuko zaie, baldin eta gai honetan aplikatzekoa zaien araudiak xedatutakoaren arabera garatzen dituzten interes orokorreko helburuetarako erabiltzen badira.

## VIII. TITULUA

## KENKARIAK ETA ITZULKETAK (29)

### I. KAPITULUA

### KENKARIAK

#### 92. artikulua.- Tributu-kuota kengarriak.

**Bat.** (74) Subjektu pasiboek herrialdearen barruan egiten dituzten zergapeko eragiketengatik sortzen diren balio erantsiaren gaineko zergaren kuotetatik hauek kendu ahal izango dituzte: lurralde berean sortuak izanik, zuzenean jasanarazi zaizkienak edo eragiketak jakin batzuei dagozkienak:

1. Zergaren beste subjektu pasibo batek egiten dituen ondasun emateak eta zerbitzugintzak.

2. Ondasun inportazioak.

3°. Arau honetako 9.1.c) eta d), 84.Bat.2 eta 4 eta 140 quinque artikuluetan aipatzen diren ondasun emateak eta zerbitzugintzak.

4. Arau honetako 13. artikuluko 1. zenbakian eta 16. artikuluan zehazten diren Batasunaren barruko ondasun eskuraketak.

**Bi.** Aurreko lerroaldean ezarritako kenketa-eskubidea ez da bidezkoa izango, baldin eskuratu diren ondasun eta zerbitzuak arau honen 94. artikuluaren lehen atalean biltzen diren eragiketak burutzeko erabiltzen ez badira.

**93. artikulua.- (33) Kenketaren beharkizun subjektiboak.**

**Bat.** Zerga-kenketak egiteko eskubidea dute Zergaren subjektu pasiboek, Arau honetako 5. artikuluan xedatutakoaren arabera enpresario- edo profesional-izaera dutenean eta, enpresa- edo lanbide-jarduerei dagozkien ohiko ondasun-emate edo zerbitzugintza ohikoak egin dituztenean.

Aurreko lerroaldean xedatuta gora-behera, Arau honetako 111, 112 eta 113. artikuluetan xedatutakoaren arabera kendu ahal izango dira enpresa- edo lanbide-jardueren ohiko ondasun-emate eta zerbitzugintza hasi baino lehen ordaindu edo jasandako kuotak.

**Bi.** Era berean, Zergaren subjektu pasiboek ere kenketa egiteko eskubidea erabili ahal izango dute, Arau honetako 25. artikuluaren Bat eta Bi idatz-zatietan adierazitako garraiobide berrien lantzean behingo emateak egiten badituzte.

**Hiru.** Arau honetako IX. idazpuruan araututako erregimen bereziei aplikatzekoak diren sektore edo jarduerek duten kenketa egiteko eskubidearen erabilpena, aipatutako idazpuruan horietako bakoitzarentzat ezarritako arauei jarraituz egin beharko da.

**Lau.** Ez dute kenketarako eskubiderik izango, ez inolako neurri zein zenbatekoan, enpresa- edo lanbide-jarduerak burutzean erabiltzeko asmorik gabe ondasunak zein zerbitzuak eskuratu edo inportatzeagatik jasan edo ordaindutako kuotek, nahiz eta geroago aipatutako jardueretan osorik edo zati batean ondasun edo zerbitzu horiei atxikiak izan.

**Bost.** (74) Zergapeko eragiketak eta, arau honetako 7. artikuluko 8. zenbakian ezarritakoa aplikatuta, zergapetuta ez dauden eragiketak batera egiten dituzten subjektu pasiboek aukera izango dute eragiketa batzuk eta besteak egiteko aldi berean erabilitako ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeagatik jasandako kuotak kentzeko; horretarako, zergapeko eragiketak egiteko erabilitako ondasunei eta zerbitzuei dagozkien kuotak egozteko irizpide egoki eta homogeneo bat hartuko dute kontuan. Ondorio hauetarako, arau honetako 94.Bat.2 artikuluan aipatzen diren eragiketak ere sartzen dira. Irizpide horri denboran eutsi behar zaio, bidezko arrazoiren bategatik aldatu behar ez bada.

Irizpide hori aplikatuta sortzen den kalkulua behin-behinean zehaztu ahal izango da, aurreko urte naturaleko datuak kontuan hartuta, urte bakoitzaren amaieran egin beharreko erregularizazioa gorabehera.

Hala ere, ez dira kengarriak izango —ez eta proportzioan ere— arau honetako 7.8 artikuluan aipatzen diren zergapetu gabeko eragiketak egiteko soilik erabilitako ondasun edo zerbitzuen eskuraketengatik edo inportazioengatik jasandako edo ordaindutako kuotak.

Idatz zati honetan ezartzen diren kenkariek arau honetako VIII. tituluko I. kapituluan finkatzen diren baldintzak eta betekizunak bete beharko dituzte, eta, bereziki, hainbanaketa erregelari dagozkionak ere bai.

**94. artikulua.- Kenkariak egiteko eskubidea sorrarazten duten eragiketak.**

**Bat.** Aurreko artikuluaren lehenengo atalak aipatu dituen subjektu pasiboek kendu ahal izango dituzte 92. artikuluan bildu diren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak, baldin eta ondasun edo zerbitzuak, zeinen eskuraketa edo inportazioak kenkariak egiteko eskubidea zehazten baitute, subjektu pasiboak ondoko eragiketa hauek burutzean erabiltzen baldin baditu:

1.- Zerga aplikatzen den gune-eremuan burutzen diren eragiketa hauek:

a) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren menpeko eta hartatik salbuetsi gabeko ondasun-emateak eta zerbitzugintzak.

b) Balioa ondasunen inportazioen zerga-oinarriaren barruan sarturik duten zerbitzugintzak, arau honen 83. artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) (86) Arau honetako 20 bis, 21., 22., 23., 24. eta 25. artikuluetan xedatutakoa dela bide salbuesten diren eragiketak, eta apartatu honetako 2. zenbakian aipatzen diren eragiketak egiten ez diren Batasunetik kanpoko gainerako behin betiko ondasun esportazioak ere bai.

d) Bidai agentziek egiten dituzten zerbitzuak, baldin eta arau honen 143. artikuluan ezartzen dena dela bide, Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsirik badaude.

2.- Zergaren aplikazio-lurraldetik ate burutzen diren eragiketak, baldin eta, aipatu aplikazio-lurralde barruan eginez gero, kenkariak egiteko eskubideak sorrarazten baditu.

3.- Aseguru, berraseguru eta kapitalizazio eragiketak eta hauei lotzen zaizkien zerbitzuak, eta bai banku- eta finantza- eragiketak ere, arau honen 20. artikuluaren lehenengo atalaren 16. eta 18. zenbakietan xedatutakoa dela bide, Zergaren aplikazio-lurraldean burutzen direnean, baldin eta zerbitzugintzon destinataria Elkartetik kanpoko establezimendua badu, edo aipatu eragiketak Elkartetik kanporako esportazioei zuzen loturik egon eta harako saltzen diren ondasunak igorri ondoren burutzen badira, eragiketok kontzertatu diren unea edozein dela ere.

Aurreko lerroaldean xedatu denak ondoreak izan ditzan, enpresari edo profesionari izaera ez duten pertsona edo entitateak Elkartean ez-finkatutzat joko dira lehen aipatu lurraldean ohizko egoitza edo bigarren egoitzarik edo interes ekonomikoen zentrorik ez dutenean, eta lurralde horretan lan- edo administrazio- harremanetatik eratortzen den menpekotasuneko erregimeneko zerbitzurik egiten ez dutenean.

**Bi.** Aurreko artikuluaren bigarren atalean bildurik dauden subjektu pasiboek arau honen 25. artikuluaren bigarren atalean aipatu den ematearen gai izan daitezkeen garraiobideen eskuraketarengatik jasaten den edo ordaindu den Zerga kendu ahal izango

dute, emate hori salbuetsita ez balego jasanarazi beharko litzatekeen Zergaren kuotaren zenbatekoa jo arte.

**Hiru.** Inoiz ere ez dira bidezkoak izango legez egoki diren kuoten zenbatekoetatik gorako kenketak, ez eta zuzenbidearen arabera sortzapena izan baino lehen egiten direnak ere.

**95. artikulua.- Kenkariak egiteko eskubidearen mugak.**

**Bat.** Enpresari edo profesionariek ezin izango dituzte beren iharduerari, zuzen eta esklusiboki, lotzen ez zaizkien ondasun-eta zerbitzu- eskuraketa edo inportazioengatik jasaten edo ordaintzen diren kuotak kendu.

**Bi.** Ondoko hauek, besteak beste, ez dira enpresari- edo lanbide-iharduerari lotutzat joko:

1.- Iharduera hori eta txandakako denboraldiez enpresari- edo lanbide-izaerarik ez duten beste batzuk egiteko erabiltzen diren ondasunak.

2.- Enpresari- edo lanbide-ihardueretarako eta beharrizan pribatuetarako aldi berean erabiltzen diren ondasun edo zerbitzuak.

3.- Subjektu pasiboaren enpresari- edo lanbide-ihardueraren kontabilitatean edo erregistro ofizialetan ez dauden ondasun eta eskubideak.

4.- Subjektu pasiboak eskuratzen duen enpresari- edo lanbide-ondarearen barruan ez dauden ondasun eta eskubideak.

5.- Enpresari edo profesionarien, hauen senitartekoen edo berauen menpeko langileen norbanakoei buruzko beharrizan pertsonalak betetzeko erabiltzen diren ondasunak, salbu eta enpresaren lokal edo instalazioetan zaintza eta segurtasunaz arduratzen diren langileei dohainik ostatu emateko xedea dutenak eta aipatu ihardueraren zerbitzuko langilegoaren ekonomi eta gizarte-kultur zerbitzuetakoak.

**Hiru.** (15) (16) Aurreko atalean esandakoa alde batera utzita, enpresa edo lanbide jarduerak osorik edo zatika, garatzeko erabiltzen diren ondasun-inbertsioak erosteagatik, inportatzeagatik, alokatzeagatik, zein beste titulu baten truke usaera-lagapena egiteagatik jasandako kuoten kenkaria egin ahal izango zaie honako erregelen arabera:

1. Ondorengo erregelan jasota dauden ondasun- inbertsioak ez badira, eta baldin eta, ondasun horiek enpresa edo lanbide jardueretan erabiltzekoak direla aurreikusten bada, irizpide fundatuen arabera.

2. Ibilgailuak eta haien erremolkeak, ziklomotoreak zein motozikletak enpresa edo lanbide jarduerari atxikitutzat joko dira %50eko proportzioan.

Ondorio horietarako, ibilgailutzat, erremolketzat, ziklomotoretzat eta motozikletatzat joko dira honako hauetan ezarritakoak: batetik, Trafikoa, Motordun

Ibilgailuen Zirkulazioa eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartu zuen martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegilearen Eranskinean. Bestetik, Gehigarri horretan ibilgailu mistotzat hartzen direnak, bai eta mendiko kotxeak edo "jeep" tipokoak.

Bigarren erregela horretan esandakoa alde batera utzita, honako ibilgailu hauek %100eko proportzioan joko dira enpresa edo lanbide jarduerei atxikitutzat:

a) Merkantziak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailu mistoak.

b) Kontraprestazio truke bidaiarientzako garraio-zerbitzuak eskaintzeko erabiltzen direnak.

c) Kontraprestazio truke gidariei eta pilotuei irakaskuntza zerbitzuak eskaintzeko erabiltzen direnak.

d) Ibilgailu-fabrikatzaileek frogak, entsaioak eta erakustaldiak egiteko zein salmenta-promozioetan erabiltzen dituztenak.

e) Errepresentante edo agente komertzialek laneko joan-etorrietarako erabiltzen dituztenak.

f) Zainketa-zerbitzuetan erabiltzen direnak.

3. Aurreko erregelek aipatzen dituzten kenkariak araupetuko dira ziurtatzen denean une horretan ondasun horiek enpresa edo lanbide jardueraren garapenean duten erabilera maila eta hasieran ezarri zen erabilera desberdinak direla.

Aipatutako araupetzea egiteko, inbertsio-ondasunak erosteagatik jasandako kuotak deduzitzeari eta erregularizatzeari buruz, Arau honetako I idazpuruko VIII. kapituluan jasotako prozedura bete beharko da. Hor jasotakoak, operazio-kopuruak guztira hartuta, kenketa egiteko eskubidea ematen duen operazio-portzentaiaren ordez, enpresa edo lanbide jardueran ondasunok duten erabilera-portzentaiak hartzen du kontuan.

4. Subjetu pasiboek ziurtatu egin beharko dute, legezkoa den edozein probaren bitartez, enpresa edo lanbide jardueran ondasunok duten erabilera maila. Ez dira nahikoa izango subjetu pasiboak aurkeztutako kitapen-aitorpena, ez eta inbertsio-ondasunok enpresa edo lanbide jardueren erregistro ofizialetan sartzea edo kontabilizatzea ere.

5. 5.a Atal honetan ezarritakoaren ondorioetarako, ondasunak ez dira inongo proportzioan enpresa edo lanbide jarduera bati atxikitutzat joko, artikulu honetako bigarren ataleko 3. eta 4. zenbakietan ezarritako kasuak.

**Lau.** (15) Aurreko atalean ezarritakoa honako atal honetan jasotako ondasun eta zerbitzu hauek erosi edo inportatzeagatik jasandako eta ordaindutako kuotei ere ezarriko zaie:

1. Aipatutako ondasunentzako gehigarriak eta ordezko piezak.

2. Ondasunak funtzionatzeko beharrezkoak diren erregai, karburante, lubrifikatzaile eta produktu energetikoak.

3. Aparkementu-zerbitzuak eta bidesari-ordainlekuen erabilera.

4. Ondasunak birgaitzea, berritzea eta konpontzea.

**96. artikulua.- (15) Kenkariak egiteko eskubidearen baztertze eta murrizketak.**

**Bat.** Ez dute inongo proportziotan kenkariak egiteko eskubiderik izango ondoren aipatzen diren ondasun eta zerbitzuak zein horien osagarriak diren ondasun eta zerbitzuak erosteagatik, nahiz eta norbere kontsumorako izan, inportatzeagatik, alokatzeagatik, itxuraldatzeagatik, konpontzeagatik, mantenimenduagatik edo erabiltzeagatik jasandako kuotek:

1. Bitxiak, apaingarriak, harribitxiak, perla natural zein landutakoak, eta osorik edo zatika urrez edo platinoz egindako objetuak.

Zerga honen ondorioetarako, harribitxitzat joko dira diamanteak, zafiroak, esmeraldak, akuamarinak eta turkesak.

2. (28)

3. Janari, edari eta tabakoak.

4. Aisaldiko zerbitzu eta ikuskizunak.

5. Bezeroen, soldatapekoen zein gainontzeko pertsonen harrerarako ondasun eta zerbitzuak.

Ez dira aurreko multzoan sartuko:

a) Araudi honetako 7. artikuluko 2. eta 4. zenbakietan zehaztutako dohaineko erakusgaiak eta balio gutxiko publizitate-objektuak.

b) Zuzenean edo itxuraldaketa bidez, eta prestazioen truke, emateko diren edo usaera-lagapenerako diren ondasunak, beti ere, erosi ostean, bezeroei, soldatapekoei zein gainontzeko pertsonei oparitzeko badira.

6. Joan-etorrietarako edo bidaietarako zerbitzuak, hostalaritzakoak eta zaharberritzekoak, horien zenbatekoa Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren edo Sozietateen gaineko Zergaren arabera gastu kengarritzat jotzen bada salbu.

**Bi.** Aurreko ataletik kanpo geratu dira bertan aipatutako eragiketen ondorioz jasandako kuotak eta ondoko ondasun eta zerbitzuei dagozkien kuotak:

1. Objetiboki aztertuta, industria, merkataritza, nekazaritza, klinika edo zientzia erabilera dutenak.

2. Zuzenean edo itxuraldaketa bidez, eta prestazioen truke, emateko diren edo usaera-lagapenerako diren ondasunak, beti ere, horretara dedikatzen diren enpresari edo profesionalek ematen edo lagatzen dituztenean.

3. Zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresario eta profesionalei prestazio truke emateko jasotzen diren zerbitzuak.

**Hiru.** Artikulu honetan eta aurrekoan jasotako kenkariek arau honetako VIII. tituluko I. kapituluan jasotako baldintzak bete beharko dituzte, eta bereziki hainbanako erregela.

### 97. artikulua.- (38) Kenkariaren baldintza formalak.

**Bat.** (40) Kenkarirako eskubidea dutela egiaztatzen duen agiria erakusten duten enpresariei edo profesionalei bakarrik aplikatu ahal izango zaie kenkaria.

Ondorio horietarako, honako agiri hauek erabili ahal izango dira kenkarirako eskubidearen egiaztagiri gisa:

1. Zerbitzua eskaini duenak edo eman duenak egindako jatorrizko faktura, edo haren bezeroak edo hirugarren batek haren izenean edo haren kontura egindakoa. Kasu bietan, arauz ezarritako betekizunak bete beharko dira.

2. Produktua eman duenak egindako jatorrizko faktura, ematen duen produktu horrekin zergaren menpe dagoen ondasun bat komunitate artean erostea baldin badakar. Erosketa hori ondo adieraziko da Arau honen 164. Artikuluaren Bat idatz-zatiaren 6. Zenbakian aipatzen den aitorpen-likidazioan.

3. (53) Inportazioetan, Administrazioak egindako likidazioa jasotzen duen agiria; eragiketa inportazioarekin berdinetsita badago, Zergaren kargaren ziozko kopurua jasotzen duen autolikidazioa.

4. (62) Ondasuna eman duenak edo zerbitzua egin duenak (Zergaren subjektu pasiboa denak) emandako jatorrizko faktura edo eragiketaren kontabilitateko frogagiria, arau honetako 84. artikuluko lehenengo idatz zatiko 2., 3. eta 4. zenbakietan eta 140 quinque artikuluan aipatutako kasuetan, baldin eta ematea edo zerbitzugintza behar bezala agertarazi bada arau honetako 164. artikuluko lehenengo idatz zatiko 6. zenbakian aipatutako aitorpen-likidazioan.

Ondasuna eman duenak edo zerbitzua egin duenak Batasunean badauka egoitza, aurreko paragrafoan aipatutako jatorrizko fakturak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sistema komunari buruzko 2006/112/CE Zuzentarauko 226. artikuluak ezarritako betekizunak bete behar ditu.

5. Arau honen 134. Artikuluaren Hiru idatz-zatian zehaztutako kasuetan ustiakuntzaren (nekazaritzakoa, basogintzakoa, abeltzaintzakoa edo arrantzakoa) titularrak egindako faktura.

**Bi.** Legez eta arauz ezarritako baldintza guztiak betetzen ez dituzten aurreko dokumentuek ez dute kenkari eskubidea justifikatuko, baldintza horiek modu egokian zuzentzen ez badira. Dokumentu zuzentzaile bidez justifikatzen diren kuoten kenkari eskubidea enpresaburu edo profesionalak dokumentu hori jasotzen duen zergaldian baino ezingo da egin, edota hurrengoetan, baldin arau honetako 100. artikuluan zehazten den epea igaro ez bada; hala ere, Arauko 114. artikuluko Bi idatz zatian xedatutakoak indarra izango du.

**Hiru.** Inola ere ez da onartuko kenkaria justifikatzen duen dokumentuaren arabera jasanarazi den, edo hala badagokio, ordaindu den berariaz eta bereiz jasotako zerga kuota baino zenbateko handiagoa kentzeko eskubidea.

**Lau.** Komunean hainbat pertsonak eskuratutako ondasun edo zerbitzuak badira, eskuratzaile bakoitzak kendu ahalko du, hala badagokio, dagokion zati proportzionala, betiere, jatorrizko dokumentuan eta fakturaren kopia bakoitzean, bereiz, jasotzaile bakoitzari jasanarazitako kuota eta zerga oinarriaren zatia jartzen badira.

**98. artikulua.- Kenkariak egiteko eskubidearen sorrera.**

**Bat.** Kuota kengarriek sortzapena duten unean sortzen da kenkariak egiteko eskubidea, ondoko ataletan, aurrikusiko diren kasuetan ezik.

**Bi.** (50)

**Hiru.** Arau honen 5. artikuluaren lehenengo atalaren e) puntuan aipatu diren pertsonek burutzen dituzten garraiobide berrien emateetan, eragiketari doakion ematea gauzatzen den unean sortzen da kenkariak egiteko eskubidea.

**Lau.** (8) Arau honen 135. artikuluko Bi apartatuan esaten diren artezko, antiolako eta bildumatarako objetuak erosi edo inportatu izanagatik jasandako edo ordaindutako kuotak murrizteko eskubideak ondasun horiek entregatzeari dagokion Zerga-zorra sortzen den unean izango du hasiera.

**Bost.** (74) Ondasun eta zerbitzuak bidaia bat egiteko eskuratu edo inportatuz gero, ondasun-zerbitzuok bidaiariari onura ekartzen badiote zuzenean eta arau honetako 147. artikuluan ezarritakoaren arabera bidai agentzien araubide berezia aplikatu ezin zaion eragiketaren baterako erabiltzen badira, orduan, eragiketari dagokion zerga sortzen den unean sortuko da eskuraketari edo inportazioari dagokion kuotari (arau honetako 146. artikulua) kenkaria aplikatzeko eskubidea.

**99. artikulua.- (28) Kenkaria izateko eskubidea erabiltzea.**

**Bat.** Likidazio-aldi bakoitzari dagozkion aitorpen-likidazioetan, subjektu pasiboek, aldi horretan eutsitako kuota kengarrien kopuru osoa, globalki kendu ahal izango dute, Zergaren aplikazio lurraldean likidazio epe berean sortutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuoten kopuru osotik, ondasunen emate, erkidegoaren barruan ondasunak eroste edo haiengatik emandako zerbitzuen ondorioz.

**Bi.** Erositako ondasun eta zerbitzuen aurreikusitako helburuaren arabera egin beharko dira kenkariak, helburua aldatu ezkero, ondoren egin daitekeen zuzenketari utzi gabe.

Hala ere, behar bezala arrazoitu ondoren, subjektu pasiboari leporatu ez dakiokeen kasuetan, erosi edo inportatutako ondasunen hondamen edo galera gertatzen bada, ezin izango da aipatutako zuzenketa exijitu.

**Hiru.** (68) Titularrak kendu daitezkeen kuotak ordaindu behar izan dituen likidazio aldiari dagokion likidazio aitorpenean edo hurrengoetan baino ezin izango da egikaritu kenkari eskubidea, baldin eta eskubidea sortu zenetik lau urteko epea igaro ez bada.

Dena den, konkurtsoa deituz gero, deitu aurretik sortutako eta kentzeke dauden kuoten kenkari eskubidea gauzatuko da kuotak jasanarazi ziren likidazio aldiari dagokion likidazio aitorpena egitean.

Aurreko paragrafoan aipatutako jasanarazitako kuota kengarriak sartu ez badira likidazio aitorpen horietan eta kuota horiek kentzeko eskubidea sortu zenetik dagoen lau urteko epea igaro ez bada, konkurtsopekoak edo, Konkurtso Legearen 86.3 artikuluak xedatutakoetan, konkurtso administrazioak kendu ahal izango ditu, haiek jasanarazi ziren aldiari dagokion likidazio aitorpenean zuzendu ondoren.

Administrazioak galdatu edo ikuskatzerik izanez gero, kengarri izango dira, hala dagozkion likidazioetan, zerga horretarako arauz ezarritako erregistro liburuetan zuzen zenbatetsitako eta jasanarazitako kuotak; zenbatetsi gabeko kuotak, berriz, zenbatetsi beharreko aldiari dagokion likidazio aitorpenean edo hurrengoetan izango dira kengarria. Dena den, kuota horiek, batzuk zein besteak, lehen paragrafoan zehaztutako epea igaro aurretik baino ezingo dira kendu.

Arau honen 5.1.e) artikuluan aipatutako noizbehinkako salmentei dagokienez, kenkari eskubidea garraiobide berriei dagokien emate aldiari buruzko aitorpenean baino ezin izango da gauzatu.

**Lau.** (62) Kuota kenkorrak une honetan jasantzat joko dira: jasan dituen enpresaburuak edo profesionalak faktura egokia edo kenkaria aplikatzeko eskubidea frogatzen duen agiria jasotzen duenean.

Zergaren sortzapena faktura jaso ondoren gertatzen bada, kuotak sortzen direnean jasantzat joko dira.

Arau honetako 98. artikuluko laugarren idatz zatian aipatutako kasuan, kuotak kenkaria aplikatzeko eskubidea sortu denean jasantzat joko dira.

**Bost.** (68) Bidezko diren kenkarien zenbatekoa likidazio aldian sortutako kuoten zenbatekoa baino gehiago denean, gaindikin hori hurrengo likidazio aitorpenetan konpentsatu ahal izango da, baldin eta gaindikin hori sortu zen aldiari dagokion likidazio aitorpena aurkeztu zenetik kontatzen hasita lau urte igaro ez badira.

Hala ere, arau honetako titulu honen II. kapituluan xedatutakoaren arabera, bidezkoa denean, subjektu pasiboak bere alde dagoen saldoa itzultzeko aukera balia dezake; hala egiten badu, hori konpentsatzeak ez du eraginik izango geroagoko likidazio aitorpenetan, edozein dela itzulketa hori gauzatu arte doan denbora tartea.

Konkurtso aitorpenaren aurreko zerga gaien likidazio aitorpenean, arauz xedatutakoan, aitorpen horren aurretiko likidazio aldietan konpentsatu beharreko saldo metatu guztiak aplikatuko dira.

**100. artikulua.- (28) Kenkaria izateko eskubidearen iraungipena.**

Kenkaria izateko eskubideak iraungiko du, titularrak Arau honen 99. artikuluan aipatutako epe eta kopuruetan erabiltzen ez duenean.

Hala ere, kenkaria izateko eskubidearen jatorria edo kenkariaren zenbatekoa ebazpenaren zain dagoenean, administrazio bide edo epaitegian dagoen eztabaida baten ondorioz, kenkaria izateko eskubideak iraungiko du ebazpena edo epaia irmoak diren egunetik hasita lau urte pasatzen direnean.

**101. artikulua.- (15) Enpresa edo lanbide jardueren sektore ezberdinen kenkari erregimena.**

**Bat.** (74) Enpresa edo lanbide jardueraren arlo bereizietan jarduera ekonomikoren bat egiten duten subjektu pasiboek bereizita aplikatu beharko dute kenkarien araubidea, sektore bakoitzari dagokionez.

Hainbanaketa bereziaren erregela bereizita aplikatu ahal izango zaio enpresa edo lanbide jardueraren sektore bakoitzari; sektoreok arau honetako 9. artikuluko 1. zenbakiko c) letrako a’), c’) eta d’) letretan xedatzen denaren arabera zehaztuko dira.

Arau honetako 9. artikuluko 1. zenbakiko c) letrako b’) letran xedatzen dena aplikatuz zehazten diren jarduera sektoreei dagozkien kenkarien araubideak arau honetan araubide berezi errazturako, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezirako, inbertsio urrearekin egiten diren eragiketen araubide berezirako eta baliokidetasun errekarguaren araubide berezirako ezarritakoak eraenduko ditu, kasu bakoitzean dagokionak.

Jarduerako hainbat sektore bereizitan batera erabiltzeko ondasun edo zerbitzuak eskuratzen edo inportatzen badira, arau honetako 104. artikuluko bigarren idatz zatian eta hurrengoetan ezartzen dena aplikatuko da eskuraketa edo inportazio horietan jasandako kuotei aplikatzen zaien kenkari ehunekoa zehazteko. Horretarako, sektore bereizietan

egindako eragiketak sektore bereizietan egindako eragiketak konputatuko dira, eta kontuan hartuko da nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezian edo baliokidetasun errekarguaren araubide berezian sartuta dauden eragiketek ez dutela sortzen kenkariak egiteko eskubiderik.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren salbuespen gisa, ez dira kontuan hartuko erakunde taldearen jarduera sektore bereizian egindako eragiketak. Halaber, eta paragrafo horretan ezarritakoa aplikatu ezin denean, gerta daiteke ondasun eta zerbitzu horiek araubide berezian hartutako jardueretan eta nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren edo baliokidetasun errekarguaren araubide berezian dauden beste jarduera batzuetan aldi berean erabiltzeko izatea. Horrelakoetan, araubide erraztuaren ondorioetarako kenkaria ehuneko 50ekoa izango da, baldin eta afektazioak araubide berezietako bitan dauden jarduerak ukitzen baditu, eta beste kasuetan heren batekoa.

**Bi.** Administrazioak subjetu pasiboaren enpresa edo lanbide jardueren sektore ezberdinei kenkari erregimen amankomuna ezartzeko baimena eman ahalko du Araudi honetako 9. artikuluko 1. zenbakiko c) letrako a) letran jasotakoa kontuan hartuta.

Baimen horrek ez du eraginik izango kasu honetan: baldin eta urteko kenkari erregimen amankomunaren emaitza, sektore ezberdin bakoitzari berez ezarri beharreko kenkari erregimena ezarriz gero, aterako zen emaitza baino %20 gehiago bada, kontuan hartu gabe sektore ezberdin bakoitzaren kenkari erregimena.

Baimena ematen bada, urtero jarraituko du indarrean, subjetu pasiboak baliogabetu arte edo baimenari uko egi arte.

Atal honetan aipatu diren baimenak erregelamentu bidez ezarriko diren baldintza eta jardunbidearen arabera arautuko dira.

### 102. artikulua.- Lainari buruzko araua. (21)

**Bat.** (43) Hainbanaketa araua aplikatuko da subjektu pasiboak, bere jarduera enpresarial edo profesionalean diharduenean, kenkari eskubidea sortzen duten ondasun emateak edo zerbitzu prestazioak eta aipatu eskubidea erabiltzeko aukera ematen ez duten antzeko izaerako beste eragiketa batzuk aldi berean egiten dituenean.

**Bi.** Aurreko atalean xedatutakoa gora-behera, subjektu pasiboek oso-osoan kendu ahal izango dituzte ondasun-eskuraketa edo inportazioetan edota zerbitzugintzetan jasaten diren kuotak, baldin eta arau honen 9. artikuluaren 1. zenbakiaren d) puntuan bildutako izakin eta autokontsumoak osatzen dituzten ondasunak gaitzat dauzkaten eta artikulu horren zenbaki bereko c) puntuan aipatzen diren autokontsumoak burutzeko erabiltzen badira.

### 103. artikulua.- Lain motak eta hauen aplikaziorako irizpideak.

**Bat.** Lainari buruzko araua aplikatzeko bi modu izango dira: orokorra eta berezia.

Lain orokorrari buruzko araua hurrengo atalean azaltzen diren inguruabarrak gertatzen ez direnean aplikatuko da.

**Bi.** Lain bereziari buruzko araua ondoko kasu hauetan izango da aplikagarri:

1. Subjektu pasiboek delako arauaren aplikazioa aukeratzen dutenean, arau bidez zehazten diren epe eta eraren arabera. (16)

2. (74) Hainbanaketa orokorraren erregela egutegiko urte batean aplikatuz sortzen diren kuota kengarrien guztirako kopurua hainbanaketa bereziaren erregela aplikatuz sortuko liratekeena baino ehuneko 10 gehiago denean.

**104. artikulua.- Lain orokorra.**

**Bat.** (15) Proportzionaltasunaren erregela orokorra ezartzen den kasuetan, bakarrik kitapen-aldi bakoitzean jasandako Zerga kenduko da eta ondoko bigarren atalean jasotako proportzioaren arabera egingo da.

Aurreko lerroaldian jasotakoa ezartzean, jasandako Zergan ez dira kontuan hartuko Araudi honetako 95. eta 96. artikuluetan jasotakoaren arabera kengarriak ez diren kuotak.

**Bi.** (15) Aurreko atalak aipatzen duen kenketa-portzentaia jakiteko honako osagaiak dituen zatiketa baten emaitza bider 100 egingo da:

1. Zenbakitzailean urte natural bakoitzaren buruan, kenketa-eskubidea duten jarduera guztien zenbatekoa agertuko da, hau da, subjetu pasiboek enpresa edo lanbide jarduerak garatzean, edo hala badagokio, sektore ezberdinetako jarduerak burutzean ondasunak eman eta zerbitzuak eskainiz egindako jardueren zenbatekoa.

2. (43) Izendatzailean: subjektu pasiboak bere jarduera enpresarial edo profesionalaren jardunean edo, bestela, sektore diferentziatuan egindako ondasun emate eta zerbitzu prestazioen zenbateko osoa, urte natural bakoitzerako kalkulatua, baldin eta horiek kenkari eskubidea sortzen badute, kenkari eskubidea sortzen ez dutenak ere sartuz.

Ordainketako legezko bitartekoak diren dibisak, bankuko billeteak eta monetak lagatzeko eragiketetan, baldin eta zerga honetatik salbuetsita badaude, izendatzailean konputatu beharreko zenbatekoa ordainketa bitarteko horien birsalmentaren kontraprestazioarena izango da, hala dagokionean, jasotako komisioen zenbatekoa gehituta eta beren erosketa prezioa edo, hau ezin bada kalkulatu, egun berean erositako izaera bereko dibisa, bilete edo moneta batzuen prezioa gutxituta.

Entitate finantzarioen karteran sartu gabeko ordaindukoak eta baloreak lagatzeko eragiketetan, izendatzailean konputatu beharreko zenbatekoa efektu horien birsalmentaren kontraprestazioarena izango da, hala dagokionean, interes eta komisio exigigarrien zenbatekoa gehituta eta beren erosketa prezioa gutxituta.

Entitate finantzarioen karteran sartutako baloreak direnean, hainbanaketaren izendatzailean hala dagokion denboraldian exigigarriak diren interesak konputatu beharko dira eta, aipatu baloreen eskualdaketak direnean, sujetuak lortutako plusbalioak.

Aurreko irizpideak erabiliz ateratzen den kenkari hainbanaketa goi unitaterantz biribilduko da.

**Hiru.** Kenkariaren ehunekoa zehazteko ez dira ondoko ele-mentu hauek erlazioaren ezein aldetan konputatuko:

1. (73) Zergaren aplikazio lurraldetik kanpo dauden establezimendu iraunkorretatik egindako eragiketak.

2. Aurreko atalean aipatzen diren eragiketak zuzen kargatu dituzten Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak.

3. Subjektu pasiboak bere enpresari- edo lanbide-ihardueran erabili dituen inbertsiorako ondasun- emateen eta esportazioen zenbatekoa.

4. Subjektu pasiboaren ohizko enpresari- edo lanbide-ihardueran sartzen ez diren higigarriei buruzko eragiketak eta finantza-eragiketak.

Beti ere joko da subjektu pasiboaren ohizko enpresari-edo lanbide-ihardueratzat errentamenduari doakiona.

Ondore hauetarako, arau honen 20. artikuluaren lehenengo atalaren 18. zenbakian deskribatu diren eragiketak finantza-eragiketatzat hartuko dira, salbuetsirik ez daudenak ere barne.

5. Arau honen 7. artikuluan xedatu denaren arabera Zergari loturik ez dauden eragiketak.

6. Arau honen 9. artikuluaren 1. zenbakiaren d) puntuan aipatu diren eragiketak.

**Lau.** Laina kalkulatzeko, eragiketen guztirako zenbatekotzat hartuko da hauei dagozkien kontraprestazioen batura, eragiketok arau honen 78. eta 79. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehaztu eta Zergatik salbuetsirik edo hari loturik ez dauden eragiketei doakiena ere barne delarik.

Aurreko lerroaldean xedatu denak ondoreak izan ditzan, kontraprestazioa Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zerga-oinarria baino txikiagoa den eragiketetan, azken honen zenbatekoa konputatu beharko da haren ordez.

Beste estatu kide batzuetaranzko emateak edo behin betiko esportazioak direnean, eta kontraprestaziorik ezean, eragiketaren zenbatekotzat eman edo esportatu diren produktuen Zergaren aplikazio-lurraldearen barneko merkatuko balioa joko da.

**Bost.** Zergaren aplikazio-lurraldetik kanpo egiten diren lan-burutzapen eta zerbitzugintzetan, eragiketaren zenbatekotzat hartuko da Zergaren aplikazio-lurraldean

jasaten den kostuaren zatiari dagokion kopuruari eragiketaren guztirako kostua zatikatzetik ateratzen den koefizienteari kontraprestazioaren guztirakoa biderkatuz ateratzen den emaitza.

Aurreko lerroaldean xedatu denaren ondoreetarako, enpresaren menpeko pertsonalaren gastuak ez dira konputatuko.

**Sei.** Aldi baterako egozketa burutzeko aplikagarri izango dira, aurreko ataletan bildu diren eragiketei dagokienez, arau honen IV. tituluan ezarri diren Zergaren sortzapenari buruzko arauak.

Hala ere, arau honen 21. artikuluan xedatutakoa dela bide, Zergatik salbuetsirik dauden esportazioak eta ondasunen gainontzeko behin betiko esportazioak, ondore hauetarako, burututzat emango dira aduanak kasuan kasuko irteera-eskabidea onartzen duen unean.

**105. artikulua.- Lain orokorraren prozedura.**

**Bat.** Artikulu honen bigarren eta hirugarren ataletan xedatutakoa ezik, egutegiko urte bakoitzeko aplikatuko den behin-behineko kenkariaren portzentaia aurreko urterako behin betikotzat finkatzen dena izango da.

**Bi.** Aurreko atalean ezarritakoaz beste portzentaia baten aplikazioa eskatu ahal izango da hura nabarmen aldarazteko inguruabarrak gertatzen diren kasuetan.

**Hiru.** (33) Arau honetako 111. artikuluaren Bi idatz-zatian jasotakoa izango da aplikatzekoa den kenkari-portzentaje ohikoa, enpresa- edo lanbide-jarduerak hasten direnean eta aldez aurretik garatzen dauden sektoreen artean ez dagoen sektore bereiztua osatuko duten jardueren hasieran. Kenketa egiteko ohiko portzentaje hori dagokion jarduerarekin lotutako ondasun-emateak eta zerbitzugintza egiten hasten den urtean aplikatuko da.

Arau honetako 111. artikuluaren Bi idatz-zatian jasotakoaren arabera kenkari-portzentaje ohikorik ezarri ezean, aurreko lerroaldeko ohiko portzentajea agindu horretan aurreikusitakoaren antzera ezarriko da.

**Lau.** Egutegiko urte bakoitzari dagokion Zergaren azken aitorpen-likidazioan subjektu pasiboak aipatu egutegiko urtean burutu dituen eragiketen arabera kalkulatuko du behin betiko kenkariaren laina eta behin-behineko kenkariei doakien araupeketa egingo du.

**Bost.** Enpresari- edo lanbide-iharduerak edo, hala denean, sektore desberdinetakoak egutegiko urte batean edo gehiagotan etenez gero, aipatu urte bakoitzean aplikatu beharreko behin-behineko kenkariaren portzentaia eragiketak burutu diren egutegiko azken hiru urteetakoei oso-osoan eta batera dagokiena izango da.

**Sei.** Kenkariaren portzentaia, artikulu honen aurreko ataletan xedatutakoaren arabera zehaztua, subjektu pasiboak ekitaldiari doakion egutegiko urtean jasaten duen

kuoten baturari aplikatuko zaio, arau honen 95. eta 96. artikuluetan ezarritakoa dela bide, kengarri ez diren kuotak ezik.

**106. artikulua.- Lain berezia. (21)**

**Bat.** (43) Hainbanaketa berezian kenkaria egiteko eskubidearen egikaritza, ondorengo erregelei egokituko zaie:

1. Kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten eragiketak egitean bakarrik erabilitako ondasun edo zerbitzuen eskurapen edo inportazioan jasandako zerga kuoten kenkari osoa egin ahal izango da.

2. Kenkaria egiteko eskubiderik sortarazten ez duten eragiketak burutzean soilik erabilitako ondasun edo zerbitzuen eskuraketa edo inportazioan jasandako zerga kuotak ezingo dira kendu.

3. Kenkaria egiteko eskubidea sortarazten duten eragiketak burutzean zati batean soilik erabilitako ondasun edo zerbitzuen eskuraketa edo inportazioan jasandako zerga kuotak, kuota hauen zenbateko osoari 104. artikuluaren bigarren eta hurrengo ataletan aipatzen den portzentaia aplikatzearen emaitzazko proportzioan kendu ahal izango dira.

Aipatutako ehunekoaren aplikazioa Foru Dekretu honen 105. artikuluan ezarritako prozedura arauei egokituko zaie.

**Bi.** Inoiz ere ez dira kengai izango arau honen 95. eta 96. artikuluetan xedatutakoa dela bide, kengarri ez diren kuotak.

**107. artikulua.- Inbertsio-ondasunengatiko kenkarien erregularizazioa. (21)**

**Bat.** Inbertsio-ondasunen eskuraketa edo inportazioarengatiko kuota kengarriak subjektu pasiboek eragiketok burutu urtearen osteko egutegiko lau urteetan zehar erregularizatu beharko dira.

Dena den, ondasunok benetan erabiltzea edo ihardunean jartzea haiek eskuratu edo inportatu ondoren gertatzen denean, erregularizazioa aipatu inguruabarrak jazotzen diren urtean eta hurrengo lau urteetan burutuko da.

Atal honetan adierazten diren erregularizazioak aipatu urte bakoitzari dagokion behin betiko kenkariaren portzentaiaren eta jasanarazpena jasaten den urtean nagusitzen denaren artean hamar puntutako aldea dagoenean baino ez dira egingo.

**Bi.** Halaber, aurreko atalak aipatzen duen erregularizazioa aplikatuko da subjektu pasiboek inbertsio-ondasunen eskuraketaren urtean kenkariak egiteko eskubidea sortzen duten eragiketak besterik burutu ez dituztenean edo, bestela, eskubide hori sortzen ez duten eragiketak, eta, ondoren, egoera hori aurreko atalean aurrikusten denaren arabera hurrengo urteetan aldatzen denean.

**Hiru.** (2) Lurrak eta eraikinak direnetan, bere eskuratzeagatik kengarriak diren kuotak dagokion eskuraketen ondorengo berezko bederatzi urte bitartean erregularizatu beharko dira.

Halere, baldin bere benetako erabilera edo funtzionamenduan sartzea bere eskuraketa egin eta geroago hasten badira erregularizazioa baldintza horiek gertatzen diren urtean eta ondorengo bederatzi urte naturaletan egingo da.

**Lau.** Inbertsio-ondasunen eskuraketa edo inportazioa egin edo, hala denean, hauen benetako erabilera edo iharduna hasi ostean jasaten diren zerga-kuoten erregularizazioa, kuotok jasaten diren urtea amaitu orduko eta aipatu inguruabarrak gertatu diren egunetik aurrera eta ordutik igarotzen den urte bakoitzeko burutu beharko da.

**Bost.** Artikulu honetan xedatzen dena ez da aplikagarria izango arau honen 7. artikuluaren 1. zenbakian aipatzen diren eragiketetan, eskuratzailea berez eskualdatzailearen egoeran ordainezarririk geratzen dela.

Halakoetan, erregularizazioaldiko urtean eta aldi hori bukatzeko falta diren urteetan zehar, ondasunongatiko kenkarien erregularizazioa egiteko aplika daitekeen kenketa-laina eskuratzaileari doakiona izango da.

**Sei.** Inbertsio-ondasunak subjektu pasiboari egoztezineko eta behar bezala frogatuzko kariz galdu edo behin betiko deuseztatuko balira, aipatu inguruabarra gertatu osteko urteetan ezin izango litzateke inolako erregularizaziorik burutu.

**Zazpi.** Inbertsio-ondasunengatiko kenkarien erregularizazioaren emaitza diren sarrerak edo, hala denean, kenkari osagarriak haiei dagokien egutegiko urteko likidazioaldiaren aitorpen-likidazioan burutu beharko dira, laugarren atalean aipatu dena gertatzen denean ezik, kasu horretan jasanarazten diren kuotak jasan urte berean burutu beharko baitira.

**108. artikulua.- Inbertsio-ondasun kontzeptua.**

**Bat.** Zerga honek ondoreak izan ditzan, inbertsio-ondasuntzat joko dira izaeraz eta ihardunez lan-tresna edo ustiabide gisa urtebetetik gorako denboraldi batez erabiltzekoak diren gauzazko ondasunak, higigarriak, abereak edo higiezinak.

**Bi.** Ez dira inbertsio-ondasuntzat joko:

1. Subjektu pasiboak erabil ditzakeen inbertsio-ondasunak konpontzeko eskuratzen diren aldagailuak eta osagarriak.

2. Bestelako inbertsio-ondasunak konpontzeko lan-burutzapenak.

3. Ontzi eta enbalaketak, nahiz eta birrerabilgai izan.

4. Subjektu pasiboek edo menpeko pertsonalak erabiltzen dituzten arropak.

5. Mila eta bostehun pezetako eskuraketa-baliotik beherako beste edozein ondasun.

**109. artikulua.- Inbertsio-ondasunengatiko kenkarien erregularizazioa egiteko prozedura.**

Arau honen 107. artikuluan aipatu den kenkari-erregularizazioa honako modu honetara egingo da:

1. Behin erregularizazioa egin behar den urte bakoitzean behin betiko aplikagarri den kenketa-portzentaia jakinez gero, kuoten jasanarazpena kontuan hartzen den urtean jasaten bada bidezko izango litzatekeen kenkari-zenbatekoa zehaztuko da.

2. Aipatu zenbatekoa jasanarazpena gauzatu den urtean burutu den kenkariaren diru-kopurutik kendu beharko da.

3. Alde positibo edo negatiboa zati bost egingo da edo, lur edo eraikinak badira, zati hamar, eta ateratzen den zatidura egin beharreko sarreraren edo kenkariaren zenbatekoa izango da.

**110. artikulua.- Erregularizazioaldiko inbertsio-ondasunen emateak.**

**Bat.** Erregularizazioaldian zehar inbertsio-ondasunen emateak gertatuz gero, aipatu aldi horretan igarotzeko den denborarako erregularizazio bakarra burutuko da.

Horretarako, ondoko arau hauek aplikatuko dira:

1. Baldin eta ematea Zergapekoa izan eta hartatik salbuetsirik ez badago, inbertsio-ondasuna kenkariak egiteko eskubidea emate hori burutu den urte osoan zehar eta hurrengoetan erregularizazioaldia ahitu arte sortzen duten eragiketak burutzeko baino ez dela erabili ulertuko da.

Dena den, ez da kengarria izango aurreko lerroaldea aplikatuz ateratzen den diru-kopuruaren eta ondasunaren ematearengatik sortzen den zenbatekoaren arteko aldea.

2. Baldin eta ematea Zergapekoa izan ez eta hartatik salbuetsirik badago, inbertsio-ondasuna emate hori burutu den urte osoan zehar eta hurrengoetan erregularizazioaldia ahitu arte kenkariak egiteko eskubiderik sortzen ez duten eragiketak burutzeko baino ez dela erabili ulertuko da.

Aurreko atalean ezarri den araua aplikagarria izango da, baldin eta subjektu pasiboak, arau honen 95. eta 96. artikuluetan ezarritakoaren arabera eta inguruabarrok gertatzen diren urte osoan eta erregularizazioaldia amaitu bitarteko urteetan, inbertsio-ondasunak kenkariak egiteko eskubidearen muga, baztertze edo murrizketen aplikazioa eragiten duten xedeetarako erabiltzen baditu.

Arau honen lehenengo lerroaldean aurrikusten denetik salbuetsirik daude kenkariak egiteko eskubidea sortzen duten eta zergapekoak ez diren inbertsio-ondasunen emateak, zeinei lehenengo erregela aplikatu beharko baitzaie; kasu honi dagokionez, bidezko diren kenkariek ezin gainditu izango dute izaera bereko ondasun-emateen gaineko zerga-tasa Elkarteko beste estatu kide bati esportatu edo bidaltzen zaizkion ondasunen barne-balioari aplikatuz aterako litzatekeen kuota.

**Bi.** Artikulu honek aipatzen duen erregularizazioa, aurreko urteetan lainari buruzko araua aplikagarria izan ez bada ere, egin beharko da.

**Hiru.** Artikulu honetan xedatutakoa aplikagarria izango da inbertsio-ondasunak subjektu pasiboak erabili baino lehen eskualdatzen direnean ere.

**Lau.** Artikulu honetan xedatutakoa ez da inoiz ere aplikagarria izango arau honen 7. artikuluaren 1. zenbakian aipatzen diren eragiketetan.

**111. artikulua.- (33) Enpresa edo profesio jarduerei dagozkien ondasunak entregatzen edo zerbitzuak ematen hasi baino lehen jasandako edo ordaindutako kuotetan kenketa egitea.**

**Bat.** Artikulu honetan eta 112 eta 113. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, aipatutako jardueren ondasun-emateak edo zerbitzugintza egin aurretik, eragiketa horiek-direla eta, jasan edo ordaintzen dituzten kuotengatiko kenkariak egin ahal izango dituzte hauek: aldez aurretik enpresa- edo lanbide-jarduera garatu ez dutenak, batetik, eta, horrelako jarduerak burutzeko bideratzeko asmoz, ondasun edo zerbitzuak eskuratu edo inportatzeagatik enpresario edo profesionalaren izaera eskuratzen dutenek, baldin eta asmo hori osagai objektiboek egiaztatzen badute, bestetik.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa ezargarri izango zaie horrelako jarduerak egiteagatik enpresario edo profesional izaera izanik, enpresa- edo lanbide-jarduera berria hasten dutenek, beti ere jarduera hori aldez aurretik garatzen ziren jarduerarekiko sektore bereiztua bada.

**Bi.** Aurreko idatz-zatian adierazitako kenkariak enpresarioek edo profesionalek Administrazioari proposatzen dioten portzentajea aplikatuz egingo dira, enpresa- edo lanbide-jardueraren izaera kontuan hartuz Administrazioak beste bat ezarri ezean.

Kenkari horiek behin-behinekoak izango dira eta Arau honetako 112 eta 113. artikuluetan xedatutako erregularizazioei jarraituko diete.

**Hiru.** Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, enpresario edo profesionalek kuotak itzultzeko eska dezakete, Arau honetako 115. artikuluan xedatutakoari jarraituz, kuota horiek kengarriak izanez gero.

**Lau.** Arau honetan xedatutakoaren ondorioetarako, merkataritza jarduera hasten denetik baliokidetasun errekarguaren erregimen bereziaren mende geratu behar duten enpresarioek, ezin izango dute aipatutako erregimeneko jarduerei buruz artikulu honek adierazten dituen kenkariak egin.

**Bost.** Artikulu honetan adierazten diren kenkariak egin dituzten enpresari edo profesionalek ezin izango dira nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimenean sartu, ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko kuota kengarriak jasan edo ordaindu eta erabiltzen dituzten jarduerengatik. Jarduera horiek burutzen ari dela ondasun-ematea edo zerbitzugintza egin artekoa ondorengo hirugarren urtea bukatu artekoa izango da ezin hori.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa ezartzeak aipatutako erregimen bereziari uko egiteak dakartzan ondorioak izango ditu.

**Sei.** Honako Arauak artikulu honetan eta 112. eta 113. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, enpresa- eta lanbide-jardueren garapenean ondasun-emateen edo zerbitzugintzaren lehen urtetzat ondorengoa hartuko da: enpresarioak edo profesionalak bere eragiketak egiten hasten diren urtea, beti ere, horiek uztailaren 1a baino lehen hasten badira eta, beste kasuren batean, hurrengo urtean.

**112. artikulua.- (33) Enpresa edo lanbide-jardueren ondasun-emate eta zerbitzugintza egiten hasi baino lehen jasan edo ordaindutako kuoten kenkariak erregulatzea.**

**Bat.** Arau honek 111. artikuluan adierazten dituen behin-behineko kenkariak honela arautuko dira: enpresa- edo lanbide-jarduerak burutzean egindako ondasun-emateen edo zerbitzugintzaren lehenengo lau urte naturalei dagokien behin betiko portzentajea aplikatuko zaio.

**Bi.** (43) Aurreko atalak aipatzen duen behin betiko portzentajea Foru Dekretu honen 104. artikuluan xedatutakoaren arabera finkatuko da, ondorio horretarako, atal horretan aipatutako ekitaldian egindako eragiketa multzoa konputatuz.

**Hiru.** Honela egingo da artikulu honek aipatzen dituen kenkarien erregularizazioa:

1. Enpresa edo lanbide-jardueren ondasun-emate edo zerbitzugintza burutzen hasi aurretik ordaindutako edo jasandako kuotei aplika dakiekeen kenkari-portzentajea zein den jakinda, portzentaje hori aplikatuz bidezko litzatekeen kenkariaren portzentajea zehaztuko da.

2. Aipatutako zenbatekoa Arau honetako 111. artikuluak xedatutakoaren arabera egindako behin-behineko kenkarien guztirako zenbatekotik kendu beharko da.

3. Alde positibo edo negatiboa egin beharreko sarreraren edota kenkari osagarriaren zenbatekoa izango da.

**113. artikulua.- (33) Inbertsio-ondasunen kuotak erregularizatzea, enpresa edo lanbide-jardueren ondasun-emate edo zerbitzugintza egiten hasi aurretik jasandakoak direnean.**

**Bat.** Inbertsio-ondasunak eskuratu edo inportatzeagatik jasan edo ordaindutako kuoten behin-behineko kenkariak, Arau honen 111. artikuluak adierazten dituenak, aurreko artikuluaren arabera erregularizatu ondoren, 107. artikuluak adierazten duen bezala erregularizatu behar dira erregularizazio-aldian igarotzeke dauden urteetan zehar.

**Bi.** Artikulu honetan aurreikusitako erregularizazioak egiteko, Arau honetako 109. artikuluaren 2. zenbakian xedatutakoaren ondorioetarako eragina izan zuen urtean egindako kenkaritzat joko da honakoa: arau honek 112. artikuluaren Bat idatz-zatiaren arabera behin-betiko aplika daitekeen kenkari-portzentajetik ateratzen dena.

**Hiru.** Artikulu honetan adierazten den erregularizatze-aldia amaitu aurretik inbertsio-ondasunak itzuli behar direnean, arau honetako 110. artikuluaren arauak aplikatuko dira. Hala ere, hori ez da oztopo izango 111. eta 112. artikuluek eta artikulu honetako aurreko idatz-zatiek adierazitakoa ezartzeko.

**114. artikulua.- (12) Kenkarien zuzenketa.**

**Bat.** Subjektu pasiboek, aurretik errekerimenturik izan ez bada, egin diren kenkariak zuzendu ahal izango dituzte, haien zenbatekoa gaizki zehaztu denean edo jasandako kuoten zenbatekoa Arau honetako 89. artikuluan xedatutakoarekin bat zuzendu izan denean.

Kenkariak zuzentzea derrigorrezkoa izango da hasieran kendutako zenbatekoaren murrizketa baldin badakar berarekin.

**Bi.** (28) Hasieran eutsitako kuoten kopurua aurretik zuzendu ondoren sortu den kenkarien zuzenketa, honela egingo da:

1. Hasieran kendutako kuoten kopurua handitzea zehazten duenean, hasieran kuota jasan erazitakoak zuzentzen dituen kenkaria egiteko eskubidearen ziurtagiria subjektu pasiboak hartzen duen zerga aldiari dagokion aitorpen-likidazioan edo hurrengo aitorpen-likidazioetan egin ahal izango da zuzenketa, operazioa sortu denetik lau urte pasatu ez badira edo, hala balegokio, operazioaren zerga-oinarriaren aldaketa zehazten duten zirkunstantziak sortu diren egunetik.

Aurrekoari utzi gabe, hasieran eutsitako kuoten zuzenketa egitearen arrazoia ez badago Arau honen 80. artikuluan ezarritakoen artean, ezin izango da haien kenkaria zuzendu, aipatutako kuotak zuzentzen dituen agiria, kenkaria eskubidea ziurtatzen duena, luzatzen den egunetik urte bat pasatu ondoren.

2. (68) Hasieran egindako kenkarien kuotak gutxitzen badira zuzenketaren ondorioz, subjektu pasiboak likidazio aitorpen zuzentzailea aurkeztuko du, eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera bidezkoak diren errekargua eta berandutze korrituak aplikatuko zaizkio aitorpen horri.

Arau honen 80.Hiru artikuluan xedatutako hipotesia izanik, jasanarazitako kuoten kenkari eskubidea gauzatu zen aldiari dagokion likidazio aitorpenean egingo da zuzenketa, eta ezin izango da ez errekargurik ez berandutze korriturik aplikatu.

Konkurtso itzulketa baten edo konkurtsoaren baitan aurka egitearen ondorioz indargabetzen bada kargatutako eragiketa, hasierako eroslea ere konkurtsoren baten baitan badago, zuzendu egin beharko ditu sortutako kuoten kenkari eskubidea gauzatu zen aldiari zegokion likidazio aitorpenean hasiera batean kendutako kuotak, eta ezin izango da ez errekargurik ez berandutze korriturik aplikatu.

Hala eta guztiz ere, zuzenketa zuzenbideko akatsen baten ondorioz edo arau honetako 80. artikuluan ezarritako zioren baten ondorioz egiten denean, hori subjektu pasiboak kenkari eskubidearen ziurtagiria jasotzen duen zergaldiari dagokion likidazio aitorpenean egin beharko da, eta ziurtagiri horretan hasieran jasandako kuotak zuzenduko dira.

## II. KAPITULUA

## BERRESKURAPENAK

### 115. artikulua.- (53) Itzulketa kasu orokorrak.

**Bat.** Subjektu pasibo batek likidazioaldi batean sortzen diren kenkariak arau honetako 99. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera aplikatu ezin baditu, sortutako kuotak gainditzen dituztelako, abenduaren 31n bere alde eduki duen saldoa itzultzeko eska dezake urteko azken likidazioaldiaren autolikidazioan.

**Bi.** Hala ere, arau honetako 116. artikuluan aipatutako subjektu pasiboek likidazioaldi bakoitza amaitzen denean daukaten aldeko saldoa itzultzeko eskatu ahal izango dute.

**Hiru.** Artikulu honetan eta hurrengoan aipatutako kasuetan, Administrazioak, egoki denean, behin-behineko likidazioa egingo du zergaren itzulketa eskatzeko autolikidazioa aurkezteko ezarritako epealdia amaitu ondoko sei hiletan. Hala ere, autolikidazioa ezarritako epealdiaz kanpo aurkezten bada, sei hilabeteak aurkezten denetik aurrera zenbatuko dira.

Autolikidazioaren emaitza, edo behin-behineko likidazioarena, diru kopuru bat itzuli beharra bada, Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du. Hala ere, gero bidezko likidazioak egin ahal izango dira, behin-behinekoak zein behin-betikoak.

Itzulketarako prozedura Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 120, 121, 125 eta 126. artikuluetan eta hura garatu duen araudian ezarri da.

Behin-behineko likidazioa idatz zati honetako lehenengo paragrafoan ezarritako epealdian egin ezean, Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du eskatutako kopuru osoa. Hala ere, gero bidezko likidazioak egin ahal izango dira, behin-behinekoak edo behin betikoak.

Idatz zati honetako lehenengo paragrafoan ezarritako epealdian itzulketa ordaintzeko agindurik ematen ez bada Zerga Administrazioari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik, itzultzeko dagoen kopuruari Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26.6.

artikuluan aipatutako berandutze korritua aplikatuko zaio aipatu epealdia amaitzen den egunaren biharamunetik itzulketa ordaintzeko agintzen den egunera arte. Interesdunak ez du edukiko berandutze korritua ordaintzeko eskatu beharrik.

Arauz zehaztuko da zein prozedurarekin egingo den idatz zati honetan aipatutako ofiziozko itzulketa eta nola ordainduko den.

**116. artikulua.- (53) Itzulketa eskaerak likidazioaldiaren amaieran.**

**Bat.** Subjektu pasiboek likidazioaldi bakoitza amaitzen denean daukaten aldeko saldoa itzultzeko eskatu ahal izango dute, arauz ezartzen diren baldintzei, betekizunei eta prozedurari lotuta.

Prozedura hau hautatzen duten subjektu pasiboen likidazioaldiak egutegiko hilak izango dira, eragiketen bolumena gorabehera.

**Bi.** Arau honetako 15. artikuluko bigarren idatz zatian aipatutako kasuetan, Zergaren aplikazio lurraldean ondasunak inportatzen dituen pertsona juridikoak inportazioaren kuota berreskuratu ahal izango du, baldin eta frogatzen badu ondasunak Batasuneko beste estatu batera bidali edo garraiatu dituela eta bertan Zerga ordaindu duela.

**117. artikulua.- Bidaiari-erregimeneko esportatzaileentzako itzulketak.**

**Bat.** Arau honen 21. artikuluaren 2. zenbakian araupetu den bidaiari-erregimenean, ondasun-eskuraketetan jasaten diren kuoten itzulketa arau bidez ezar daitezkeen beharkizunei eta prozedurari lotuko zaie.

**Bi.** Aurreko atalean aipatzen den kuota-itzulketa bidezkoa izango da baliokidetasun-errekarguaren erregimen berezia aplika dakiekeen subjektu pasiboek burutzen dituzten salmenten kasuan ere.

**Hiru.** Honako artikulu honetan araupetzen den kuota-itzulketa entitate laguntzaileen bidez ere egin ahal izango da, arau bidez zehazten diren baldintzen arabera.

**117 bis artikulua.- (63) Zergaren aplikazio lurraldeko, Kanariar Uharteetako, Ceutako eta Melillako enpresaburuek edo profesionalek Batasunean egindako eragiketengatik (zergaren aplikazio lurraldean egindakoak ez besteak) jasandako kuotak itzultzeko eskabideak.**

Zergaren aplikazio lurraldeko, Kanariar Uharteetako, Ceutako eta Melillako enpresaburuek eta profesionalek Batasunean egindako ondasun edo zerbitzuen eskuraketengatik eta inportazioengatik (zergaren aplikazio lurraldean egindakoak ez besteak) jasandako kuotak itzultzeko eskatzeko, Zerga Administrazioak horretarako prestatuko duen eskabidea aurkeztu behar dute.

Eskabide horiek jasotzeko eta izapidetzeko prozedura arau bidez finkatuko da.

**118. artikulua.- Itzulketen bermeak.**

Tributu-administrazioak kapitulu honetan araupetzen diren balizkoetan behar beste berme ematea eskatu ahal izango die subjektu pasiboei.

## III. KAPITULUA (35)

## ITZULKETAK ZERGAREN APLIKAZIO LURRALDEAN EZARRITA EZ DAUDEN ENPRESABURU ETA PROFESIONALEI (56)

**119. artikulua.- (56) Zergaren aplikazio lurraldean ezarrita ez egon arren Batasunean, Kanarietan, Ceutan edo Melillan establezimendua duten enpresaburu eta profesionalentzako itzulketen araubide berezia. (57)**

**Bat.** Zergaren aplikazio lurraldean ezarrita ez egon arren Batasunean, Kanarietan, Ceutan edo Melillan establezimendua duten enpresaburuek eta profesionalek lurralde horretan egindako ondasun eta zerbitzuen eskuraketa eta inportazioengatik jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak itzultzeko eskatu ahal izango dute, artikulu honetan ezarritakoaren arabera eta arau bidez ezarriko diren epealdiei eta prozedurari atxikita.

Horren ondorioetarako, Zergaren aplikazio lurraldean establezimendu iraunkorra eduki arren eskabidean aipatutako aldian bertan ez ondasun ematerik ez zerbitzurik egin ez duten enpresaburuak eta profesionalak ez dira hartuko lurralde hartan ezarritzat.

**Bi.** Artikulu honetan aipatzen diren itzulketak eskatzen dituzten enpresaburu eta profesionalek ondokoak bete behar dituzte eskabidearen epealdian:

1. Establezimendua eduki behar dute Batasunean, Kanarietan, Ceutan edo Melillan.

2. Zergaren aplikazio lurraldean ezin dute egin ondoren adieraziko direnez beste kargapeko ondasun emate zein zerbitzugintzarik.

a) Arau honetako 84. artikuluko lehenengo idatz zatiko 2, 3 eta 4. zenbakietan xedatutakoaren arabera Zergaren subjektu pasiboak hartzaile diren ondasun emateak eta zerbitzugintzak.

b) Arau honetako 21, 23, 24 eta 64. artikuluetan xedatutakoaren arabera Zergatik salbuetsita dauden garraio zerbitzuak eta beraien zerbitzu osagarriak.

3. Ezin dute jaso arau honetako 84. artikuluko lehenengo idatz zatiko 2. eta 4. zenbakietan xedatutakoaren arabera subjektu pasibo ez diren ondasun ematerik, ez zerbitzurik.

4. Arau honetako VIII. tituluko I. kapituluan kenkaria aplikatzeko ezarritako betekizun eta muga guztiak bete behar dituzte, batez ere 95. eta 96. artikuluetan ezarritakoak, bai eta artikulu honetan ezarritakoak ere.

5. Zergaren aplikazio lurraldean eskuratu edo inportatutako ondasunak edo jasotako zerbitzuak honelako eragiketak egiteko erabili behar dituzte: ezarrita dauden Batasuneko estatuko indarreko arautegiaren arabera kenkaria (bertako kenkari ehunekoarekin) aplikatzeko eskubidea sortzen duten eragiketak.

Itzulketa eskabidea aurkeztu ondoren kenkari ehunekoa erregularizatzen bada, eskatzaileak kenkariaren zenbatekoa zuzendu behar du nahitaez, eta jasotako soberako kopurua itzuli beharko du arau bidez ezarriko den prozeduraren bitartez.

Itzuli beharreko kopurua zehazteko arau honetako 106. artikuluko irizpideak erabiliko dira. Horren ondorioetarako, enpresaburuak edo profesionalak kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen dioten ondasunak edo zerbitzuak zertan erabili dituen hartuko da kontuan, lehenbizi egoiliar den estatuko arautegiaren arabera eta gero arau honetan xedatutakoaren arabera.

6. Itzulketa eskabidea baliabide elektronikoen bidez aurkeztu behar dute egoiliartuta dauden Batasuneko estatuak berariaz ezarritako atari elektronikoa erabilita.

**Hiru.** Artikulu honetako bigarren idatz zatiko 5. zenbakian ezarritakoa Kanarietan, Ceutan edo Melillan ezarritako enpresaburu eta profesionalei ere aplikatuko zaie, eta aplikatu ere lurralde bakoitzean indarrean dauden kontsumoaren gaineko zeharkako zergen berezko ezaugarrien arabera.

**Lau.** Itzultzeko eskatzen den kopurua ez bada epealdiaren araberako gutxieneko zenbatekoa baino gehiago (arau bidez zehaztuko da nola kalkulatu), eskabidea ez da onartuko.

**Bost.** (86) Itzulketa eskaeren aldia ezin da izan egutegiko urtea baino luzeagoa, ez hiru hiletik beherakoa.

Hala ere, kasu batean eskaeraren aldia hiru hilekoa baino laburragoa izan daiteke: egutegiko urtearen saldoa denean.

**Sei.** Arau bidez ezarritako epealdian itzulketa ordaintzeko agindurik ematen ez bada Zerga Administrazioari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik, itzultzeko dagoen kopuruari indarrean dagoen legerian ezarritako berandutze korritua aplikatuko zaio aipatutako epealdia amaitu ondoko egunetik ordaintzeko agindu arte (ez da egongo eskatu beharrik).

Hala ere, eskatzaileak ez badie arau bidez ezarritako epealdian erantzuten informazio gehiago emateko agindeiei, ez da sortuko berandutze korriturik.

Eta, halaber, ez da berandutze korriturik sortuko harik eta, arau bidez ezarritako kasuetan, eskabidean aipatzen diren fakturen edo inportazio agirien kopia elektronikoak aurkeztu arte.

**Zazpi.** (86) Itzulketa eskaera baten ondoriozko prozedura berezian Zerga Administrazioak informazio gehiago eskatu ahal izango dio eskatzaileari, horren egoitza dagoen Batasuneko estatuko Zerga Administrazioari edo hirugarren batzuei, eta horrez gainera eskaera bidezkoa denez ebazteko eta, batez ere, itzuli beharreko kopurua artikulu honetan eta beraren arau garapenean ezarritakoaren arabera behar bezala zehazteko behar diren frogagiriak ere bai.

Itzulketa prozeduraren izapideak egiteko artikulu honetan, beraren garapenerako xedapenetan eta Batasunak berariaz emandako arautegian xedatzen dena aplikatuko da. Arautegi horretan berariaz arautzen diren izapideak baino ez dira egingo.

Itzulketa bat egin ondoren egiaztatzen bada ez zela bidezkoa izan dirua itzultzea, artikulu honetan edo beraren arau garapenean ezarritako betekizunak eta mugak bete ez direlako edo datu faltsuak edo okerrak emanez lortu delako, Zerga Administrazioak itzulitako dirua eta sortutako berandutze interesak berreskuratuko ditu, eta gerta liteke zehapena ere ezartzea bidezko espedientea instruitu ondoren, bidezko bilketa prozedura aplikatuz (honek ez ditu eragozten zergaren bilketan elkarri laguntzeaz ezarritako xedapenak).

Borondatezko aldian eskatzaileak zergaren kuota, zehapena edo sortutako berandutze interesak ordaintzen ez baditu, indarreko legerian ezarritako kautelazko neurriak aplikatu ahal izango dira.

**119 bis artikulua.- (56) (86) Ez zergaren aplikazio lurraldean, ez Europar Batasunean, ez Kanarietan, ez Ceutan, ez Melillan establezimendurik ez duten enpresaburu eta profesional batzuentzako itzulketen araubide berezia.**

**Bat.** Arau honetako 119. artikuluan ezarritako baldintzak eta mugak betez gero, ez zergaren aplikazio lurraldean, ez Batasunean, ez Kanarietan, ez Ceutan, ez Melillan establezimendurik ez duten enpresaburuek eta profesionalek lurralde horretan egindako ondasun eta zerbitzuen eskuraketengatik eta inportazioengatik jasandako balio erantsiaren gaineko zergaren kuotak itzultzeko eskatu ahal izango dute, ondoren ezarritakoari lotuta eta arau bidez ezarriko den prozedurari atxikita.

1. Lehenbizi eskatzaileek zergaren aplikazio lurraldeko egoiliarra den ordezkaria izendatu behar dute; hark erazko betebeharrak edo prozedurakoak bete beharko ditu eta erantzukizun solidarioa edukiko du bidegabeko itzulketa gertatuz gero. Herri Ogasunak behar besteko kauzioa eskatuko ahal izango dio ordezkariari.

2. (92) Eskatzaileenegoitza zergaren aplikazio lurraldean, Kanarietan, Ceutan edo Melillan establezimendua duten enpresaburu eta profesionalen aldeko elkarrekikotasuna aintzatetsita duen estatu batean egon behar da.

Aurreko paragrafoan aipatutako tratamenduaren elkarrekikotasuna administrazio eskudunaren ebazpen baten bidez onartuko da.

3. Aurreko zenbakian xedatzen denaren salbuespen gisa, artikulu honetan aipatzen diren lekuetan establezimendurik ez duten enpresaburuek eta profesionalek ondasunen inportazioen nahiz ondasun eta zerbitzuen eskuraketen ondorioz jasandako zerga kuoten itzulketa lortu ahal izango dute, baldin eta eragiketaren xedea ondokoetako bat bada:

- Establezimendurik ez duen enpresaburuak edo profesionalak zergaren aplikazio lurraldean eskuratutako edo inportatutako txantiloi, molde eta ekipoen hornidura, lurralde horretan ezarrita dagoen enpresaburu edo profesional bati emango bazaizkio eta azken horrek, bere aldetik, ezarrita ez dagoen enpresaburu edo profesional bati EBtik kanpo bidali edo garraiatuko zaizkion ondasunak fabrikatzeko erabiliko baditu, betiere, ondasunen fabrikazioa amaitzen denean, ezarrita ez dagoen enpresaburuari edo profesionalari bidaltzen bazaizkio edo suntsitzen badira.

- Zergaren aplikazio lurraldean egiten diren feria, kongresu eta erakusketa komertzial edo profesionaletara joatearekin lotura duten sarrera, ostalaritza, sukaldaritza eta garraio zerbitzuak.

**Bi.** Itzulketa prozeduraren izapideak egiteko artikulu honetan, beraren garapenerako xedapenetan eta Batasunak berariaz emandako arautegian xedatzen dena aplikatuko da. Arautegi horretan berariaz arautzen diren izapideak baino ez dira egingo.

## IX. TITULUA

## ERREGIMEN BEREZIAK

### I. KAPITULUA

### ARAU OROKORRAK

**120. artikulua.- (38) Arau orokorrak.**

**Bat.** (74) Hauexek dira balio erantsiaren gaineko zergaren araubide bereziak:

1. Araubide erraztua.

2. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia.

3. Ondasun erabilien, arte objektuen, antzinateko objektuen eta bilduma objektuen araubide berezia.

4. Inbertsio urrearekin egiten diren eragiketen araubide berezia.

5. Bidai agentzien araubide berezia.

6. Baliokidetasun errekarguaren araubide berezia.

7. (86) Urruneko salmenten eta Batasunaren barruko ondasun emate eta zerbitzugintzabatzuen araubide bereziak.

8. Erakunde taldeen araubide berezia.

9. Kutxa-irizpidearen araubide berezia.

**Bi.** Titulu honetan araututako erregimen bereziak borondatezkoak izango dira, aurreko idatz zatiko 4, 5 eta 6. zenbakietan jasotakoak izan ezik. Hala ere, arau honetako 140 ter artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

**Hiru.** Ondasun erabilien, arte objektuen, antigoaleko gauzen eta bilduma objektuen erregimen berezia arau honetako 164. artikuluko Bat idatz zatiko 1. zenbakian (Zergarekiko lotespena zehazten duten jardueren hasierari buruzkoa) zehazten den aitorpena aurkeztu duten subjektu pasiboei baino ez zaie aplikatuko.

**Lau.** Erregimen berezi erraztua eta nekazaritzakoa, abeltzaintzakoa eta arrantzakoa aplikatuko da subjektu pasiboek uko egiten dutenean izan ezik, arauz ezartzen diren epe eta moduetan.

Subjektu pasiboek uko egiten dutenean izan ezik aplikatuko da ondasun erabilien, arte objektuen, antigoaleko gauzen eta bilduma objektuen erregimen berezia. Eragiketa bakoitzerako aplikatu ahalko da, eta ez dago Administrazioari berariazko jakinarazpenik egin beharrik.

**Bost.** (74) (86) Urruneko salmenten eta Batasunaren barruko ondasun emate eta zerbitzugintzabatzuen araubide bereziak arau honen 163 noniesdecies, 163 duovicies eta 163 septvicies artikuluetan ezartzen diren aitorpenetako bat aurkezten duten enpresaburuei eta profesionalei aplikatuko zaizkie.

**121. artikulua.- (28) Operazio bolumenaren zehaztapena.**

**Bat.** Arau honetan ezarritakoaren ondorioetarako, operazio bolumentzat hartuko da subjektu pasiboak aurreko urtean, zergatik salbuetsita daudenekin batera, egindako ondasun emate eta zerbitzu prestazioen diru kopuru osoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga bera izan ezik eta, bere kasuan, baliokidetasun errekargu eta gainbegiratutako konpentsazioa izan ezik.

Enpresari edo profesional ondare bat osorik edo bere zati bat eskualdatzen bada, erosten duen subjektu pasiboak zenbatu behar dituen operazio kopurua, honen emaitza izango da: bere kasuan, azken horrek aurreko urte naturalean egindakoari, eskualdatzaileak, aldi berean, aldatutako bere ondarearen parteari dagokionez, egindako operazioen bolumena gehitzearen ondorioz lortutakoa.

**Bi.** Operazioak egintzat hartuko dira, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sortzapena sortzen edo, bere kasuan, sortu denean.

**Hiru.** Operazio bolumena zehazteko, ez dira honako hauek kontutan hartuko:

1. Ondasun higiezinen aldizkako emateak.

2. Eskualdatzaileari dagokionez, inbertsiorakotzat kalifikatutako ondasunen emateak, Arau honen 108. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Arau honen 20. artikuluaren Bat atalean, 18. zenbakian aipatutako finantza operazioak, salbuespenik ez dutenak eta Arau honen 140 bis artikuluan sartzen diren inbertsiorako urreari buruzko operazio salbuetsiak barne, batzuk eta besteak subjektu pasiboaren enpresari edo profesional jardueran ohizkoak ez direnean.

## II. KAPITULUA

## ERREGIMEN ERRAZTUA

### 122. artikulua.- (38) Erregimen erraztua.

**Bat.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan errentak esleitzeko erregimenean diren pertsona fisikoei eta erakundeei aplikatuko zaie erregimen erraztua, betiere, hura arautzen duten arauetan zehaztutako baldintzak bete eta jarduerak egiten badituzte, arauz ezartzen den baldintzetan zehaztu bezala uko egiten badute izan ezik.

**Bi.** Erregimen erraztutik salbuetsita daude:

1. Erregimen erraztuan jasotzen ez diren bestelako ekonomia jarduerak egiten dituzten enpresaburuak edo profesionalak, betiere, jarduera horiek medio nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako edo baliokidetasun errekarguko erregimen berezietan jasoak ez badaude. Hala ere, enpresaburuak edo profesionalak arauz zehazten diren bestelako jarduerak egiteak ez du erregimen erraztutik salbuesten.

2. (74) Ondoko inguruabar hauetako batean dauden enpresaburuak edo profesionalak, arauz zehazten denaren arabera:

Aurreko urteko sarreren bolumena ondoko zenbateko hauetako bat baino gehiago izatea:

– Enpresa edo lanbide jarduera guztiak batuta (nekazaritza, basogintza eta abeltzaintzakoak ez beste guztiak), 150.000 euro urtean.

– Nekazaritzako, basozaintzako eta abeltzaintzako jarduera guztiak (Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zehazten dituenak) bat eginda, 250.000 euro urtean.

Aurreko urtean zehar jardueraren bati ekin bazaio, jarduera horretako sarreren kopurua urte osorako hartuko da.

Zenbaki honetan ezartzen denaren ondorioetarako, sarreren bolumenean aipatutako jarduera guztietan lortutako sarrera guztiak zenbatuko dira; ez dira konputatuko ez dirulaguntza arruntak, ez kapitalekoak, ez kalte-ordainak, ez eta eragiketak jasaten duen balio erantsiaren gaineko zergaren karga ere (eta behar den kasuetan baliokidetasun errekargua ere ez).

3. (74) Enpresa edo lanbide jarduera guztietarako egin dituzten ondasun eta zerbitzu eskuraketengtatik eta inportazioengatik, ibilgetuko elementuenak salbu utzita, aurreko urtean 150.000 euro baino gehiago (BEZ kanpo) ordaindu dituzten enpresaburuak edo profesionalak.

Aurreko urtean jarduera bati ekin bazaio, eskuraketa eta inportazioen urte osoko kopurua hartuko da aintzat.

**Hiru.** Erregimen erraztuari uko egiteak gutxienez hiru urteko aldirako izango du eragina, arau bidez ezartzen diren baldintzetan.

**123. artikulua.- Erregimen erraztuaren edukina. (15) (16)**

**Bat.** (38) A) (43) Araubide erraztuaren menpeko enpresaburuek edo profesionalek zehaztuko dute, araubide berezi hori aplika dakiokeen jarduera bakoitzari dagokionean, Balio Erantsiaren gaineko Zergarengatik sartu beharreko kuoten zenbatekoa, Arabako Foru Aldundiak ezartzen dituen prozeduraren, indizeen, moduluen eta gainerako parametroen bidez.

Aurreko paragrafoan adierazitako sartu beharreko kuoten zenbatekotik araubide bereziari heldutako jarduerari lotutako ondasun edo zerbitzuei dagozkien eragiketa arrunten zioz jasandako edo ordaindutako kuoten zenbatekoa kendu ahal izango da, foru arau honetako VIII. tituluko kapituluan ezarritakoarekin bat etorriz. Hala ere, haien kenketan, arau hauek aplikatuko dira:

a) Joan-etorri edo bidaien, ostalaritza eta jatetxearen zerbitzuen zioz jasandako kuotak ezin kendu izango dira, baldin eta enpresaburuek edo profesionalek jarduera lokal jakin baten egiten badute. Ondore hauetarako, lokal jakina zeinahi eraikin izango da, jendea ezin sar daitekeen biltegiak, aparkalekuak eta gordailutegiak izan ezik.

Jasandako edo ordaindutako kuotak jasantzat edo ordaindutzat jo behar diren urteko azken zergaldiko aitorpen-likidazioan soilik kendu ahal izango dira; beraz, jarraikiko urteetan zerga-ordainketan aplikatu beharreko araubidea gorabehera, ezin kendu izango dira geroagoko zergaldi batean.

c) Enpresaburuak edo profesionalak ondasun eta zerbitzuak eskuratu edo inportatzen baditu araubide honi heldutako jarduera batzuetan batera erabiltzeko, orduan jarduera bakoitzean kendu behar den kuota ondasun eta eskubideak benetan erabiltzearen araberakoa izango da. Prozedura hori ezin aplikatu bada, orduan jarduerei hainbana egotziko zaie.

d) Foru arau honetako 130. artikuluko nekazaritzako konpentsazioak ere kendu ahal izango dira, hau da, enpresaburuek edo profesionalek ondasun edota eskubideak eskuratzeagatik nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziaren menpean dauden enpresaburuei ordaindutakoak.

e) Orobat, enpresaburuek edo profesionalek eskubidea izango dute araubide bereziaren xede dituzten jardueretan idatz-zati honetako lehenengo paragrafoan aipatutako sortutako kuotaren zenbatekoaren %100 kentzeko frogatzen gaitz diren jasandako kuoten zioz.

B) Aurreko letran xedatutakoa aplikatzearen emaitzako zenbatekoari jarraiko eragiketengatik sortutako kuotak gehituko zaizkio.

1. Batasun barruko ondasun erosketak.

2. Arau honetako 84. artikuluko lehenengo ataleko 2. zenbakiak aipatzen dituen eragiketak.

3. Aktibo finko materialak ematea eta aktibo finko inmaterialak eskualdatzea.

C) (43) Aurreko bi letretan ezarritakoa aplikatzearen emaitzako kopurutik aktibo finkoak eskuratu edo inportatzeko jasandako edo ordaindutako kuoten zenbatekoa kenduko da; aktibo finkotzat hartuko dira ibilgetuko elementuak eta, bereziki, erosteko aukerako finantza errentamenduko kontratua dela bide baliatzen direnak, aukera loteslea izan zein ez.

Kenkaria aplikatzeko eskubidea arauz ezartzen denaren arabera baliaraziko da.

D) Enpresaburua edo profesionala erregimen berezi honetara lotzen duten jardueretan erabiltzeko diren ondasunen inportazioei dagokien Zergaren likidazioa, ondasunen inportazioen likidaziorako ezarritako arau orokorrei jarraikiz egin behar da.

**Bi.** Subjetu pasiboek uko egiten badiote erregimen murriztuari, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zeharkako balioespena egiteko, lehentasuna izango dute erregimen murrizturako ezarritako indize, modulu eta bestelako parametroek.

**Hiru.** Lehenengoko atalean aipatutako indizeak edo moduluak alde batera utzi edo faltsutzen dituzten subjetu pasiboek ezinbestez ordaindu beharko dituzte erregimen murriztua ezartzetik sortzen diren zerga-kuota guztiak, bai eta bidezkoak diren zigor eta berandutze-interesak ere.

**Lau.** Erregimen murriztua hau erregelamendu bidez arautuko da, eta berari heldu dioten subjetu pasiboen betebehar formal zein erregistrokoak ezarriko dira.

**Bost.** Erregimen murriztu bereziari heldu dion subjetu pasibo batek Balio erantsiaren gaineko Zergaren menpe dagoen beste enpresa edo lanbide jardueraren bat egiten badu, erregimen murriztuaren menpe dauden jarduera ekonomikoko sektore ezberdin izendatuko dugu.

## III. KAPITULUA

## NEKAZARITZA, ABELTZANTZA ETA ARRANTZAREN ERREGIMEN BEREZIA

### 124. artikulua.- (38) Aplikazio esparru subjetiboa.

**Bat.** (74) Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezia nekazaritzako, basoetako, abeltzaintzako edo arrantzako ustiategietako titularrei aplikatu ahal izango zaie, baldin eta kapitulu honetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte eta araubide horri uko egiten ez badiote arauz ezartzen denarekin bat etorriz.

Araubide berezi honen ondorioetarako, ondoko hauek ez dira basozaintza, abeltzaintza edo arrantzako ustiategien titulartzat hartuko:

a) Finken edo ustiategien jabeak, ustiategi horiek errentamenduan edo apartzerian edo beste edozein forma erabilita lagatzen dituztenean, bai eta beren finka edo ustiategietan dauden pinuen erretxinaren aprobetxamendua lagatzen dutenean ere.

b) Abeltzaintza abelazkuntza integratuaren araubidean ustiatzen dutenak.

**Bi.** Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren erregimen berezitik kanpo geratuko dira honakoak:

1. Merkataritzako sozietateak.

2. Kooperatiba sozietateak eta nekazaritzako eraldaketarako baltzuak.

3. Aurreko urtean, arauz ezarritako zenbatekoa gainditzen duen eragiketa kopurua izan duten enpresariak edo profesionalak.

4. Edozein jarduera ekonomikorengatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zenbatespen objektiboko erregimena aplikatzeari uko egiten dioten enpresariak edo profesionalak.

5. Erregimen erraztua aplikatzeari uko egin dioten enpresariak edo profesionalak.

6. (74) Enpresa edo lanbide jarduera guztietarako egin dituzten ondasun eta zerbitzu eskuraketengtatik eta inportazioengatik, ibilgetuko elementuenak salbu utzita, aurreko urtean 150.000 euro baino gehiago (BEZ kanpo) ordaindu dituzten enpresaburuak edo profesionalak.

Aurreko urtean jarduera bati ekin bazaio, eskuraketa eta inportazioen urte osoko kopurua hartuko da aintzat.

**Hiru.** Aurreko Bi ataleko 3. eta 6. zenbakietan aurreikusitako ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeagatik edo inportatzeagatik eragiketa kopurua gainditu duten eta kanpo geratu diren enpresaburuek edo profesionalek, hurrengo urteetan muga horiek gainditzen ez badituzte, nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako erregimen bereziari atxikita egongo dira, horiei uko egiten ez badiete behintzat.

**Lau.** Nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako erregimen bereziari uko egiteak gutxienez hiru urteko aldirako izango du eragina, arau bidez ezartzen diren baldintzetan.

**125. artikulua.- (15) Ezarpen eremu objetiboa.**

Laborantzatik, ustiategietatik zein harrapaketatik zuzenean produktu naturalak, begetalak zein animalienak lortzen dituzten nekazaritza, basogintza, abeltzantza edo arrantza ustiaketei nekazaritza, abeltzantza eta arrantzako erregimena ezarriko zaie,baldin eta produktu horiek hirugarren batzuei eskualdatzen badizkiete, bai eta Arau honetako 27. artikuluan jasotakoaren arabera, ustiaketa horien zerbitzu osagarriei ere.

**126. artikulua.- (15) Nekazaritza, abeltzantza eta arrantzako erregimen berezitik kanpo dauden jarduerak.**

**Bat.** Kapitulu honetan araututako araubide berezia ez da ezargarria izango nekazaritza, basogintza, abeltzantza edo arrantzako ustiaketetan, baldin eta ustiaketaren jabeak bertan lortutako produktu naturalak honako helburu hauetako batekin erabiltzen baditu:

1. Eskualdaketa zuzenean zein hirugarrengoen bitartez eraldatu, elaboratu eta manufakturatu eta gero, eskualdatzea.

Eraldaketa-jardueratzat joko dira Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifek industria-jarduerentzako duten idazpuruetako batean ezinbestez altan eman behar direnak.

2. Merkaturatzea. Hirugarren bati erositako produktuekin nahastutako produktuak merkaturatzea, nahiz eta izaera bereko edo antzekoak izan, baldin eta erositako produktuen helburua hasierako produktuak kontserbatzea ez bada.

3. Etengabeko merkataritza. Nekazaritza, basogintza, abeltzantza edo arrantza ustiategia kokatuta dagoen lekutik aparte finkaturik dauden establezimenduetan egiten den etengabeko merkaturatzea.

4. Subjetu pasiboak establezimenduetan egiten dituen merkaturatzeak, bertan egiten dituen jarduerak nekazaritza, basogintza, abeltzantza eta arrantza ustiaketak ez diren beste enpresa edo lanbide jarduera batzuk izan arren.

**Bi.** Nekazaritza, abeltzantza eta arrantzako erregimen berezia ez da ezargarria izango honako jardueretan:

1. Kirol eta aisaldi izaerako zinegetika-ustiaketak.

2. Itsasoko arrantza.

3. Abeltzaintza lokabea.

Ondorio hauetarako, abeltzantza independientea da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergak abeltzantza independientetzat zehaztu duen bera, erreferentzia eginez zuzenean subjetu pasiboak ustiatzen duen abeltzantza jarduera multzoari.

4. Arau honetako 127. artikuluan jasota ez dauden zerbitzuen prestazioa.

**127. artikulua.- (15) Erregimen berezian sartutako zerbitzu osagarriak.**

**Bat.** Nekazaritza, abeltzantza eta arrantzaren erregimen berezian sartuta daude erregimen berezi hau ezargarria den ustiaketen zerbitzu osagarriak, baldin eta zerbitzuen jabeek ustiaketetan erabili ohi diren bitartekoak baino ez badituzte erabiltzen hirugarrengoei zerbitzuok eskaintzeko, eta zerbitzuok lagungarri badira hartzaileen nekazaritza, basogintza, abeltzantza edo arrantza produkzioak gauzatzeko.

**Bi.** Aurreko atalean jasotakoa ez da ezargarria izango, baldin eta aurreko urtean emandako zerbitzu osagarrien zenbatekoak %20an gainditzen badu kapitulu honetan araututako araubide berezia ezargarria den nekazaritza, basogintza, abeltzantza edo arrantzako ustiaketen eragiketa kopuruaren zenbatekoa.

**128. artikulua.- (15) Jarduera ekonomikoa egitea enpresa edo lanbide jardueretatik bereiztutako sektoreetan.**

Kapitulu honetan araututako erregimen bereziari heldu ahalko diote erregimen hau ezargarri zaien nekazaritza, basogintza, abeltzantza edo arrantza ustiaketen jabeek, nahiz eta enpresa edo lanbide izaerako beste jarduera batzuk ere egin. Hala bada, erregimen bereziak eragina izango du erregimenean bertan sartutako jardueretan, eta jarduera horiek subjetu pasiboaren jarduera ekonomikoko sektore ezberdintzat joko dira.

**129. artikulua.- (15) Nekazaritza, abeltzantza eta arrantzako erregimen bereziaren menpe dauden subjetu pasiboen betebeharrak.**

**Bat.** Erregimen berezian bilduta dauden jarduerak direla eta, erregimen berezi horren menpe dauden subjetu pasiboak ez daude behartuta Zerga kitatzera, erreperkutitzera edo ordaintzera, ez eta orohar Arau honetako X. eta XI. idazpuruetan jasotakoak betetzera ere, honako hauek izan ezik: Arau honetako 164. artikuluko lehenengo ataleko 1., 2. eta 5. zenbakietan jasotakoak eta erregelamendu bidez zehaztuko diren erregistroko zein kontabilizaziokoak.

Aurreko araua ezarriko da ondasun mugiezinak ez diren inbertsio-ondasunak ematean, aipatu ditugun jardueretan baino erabiltzen ez badira.

**Bi.** Hona hemen aurreko arautik salbuetsita dauden hainbat eragiketa:

1. Ondasunak inportatzea.

2. Batasun barruko ondasun erosketak.

3. Arau honetako 84. artikuluko lehenengo ataleko 2. zenbakiak aipatzen dituen eragiketak.

**Hiru.** Erregimen honi lotuta dauden enpresaioek jardueraren bat burutzen badute beste sektore ezberdin batean, erregelamendu bidez zehazten diren liburuak eta agiriak egoki eta zuzen erabili eta gorde beharko dituzte.

**130. artikulua.- (15) Kenkari eta konpentsazioen erregimena.**

**Bat.** Nekazaritza, basogintza, abeltzantza eta arrantzako erregimen bereziari heldu dioten subjetu pasiboek ezingo dute kendu ondasunak erosi zein inportatzeagatik edo jaso dituzten zerbitzuengatik jasan edo ordaindu behar izan dituzten kuotak, baldin eta ondasun edo zerbitzu horiek erregimen berezia ezargarria den jarduerak egiteko erabiltzen badira.

Arau honetako VIII. idazpuruko 1. kapituluan jasotakoaren ondorioetarako, ez dute kenkari eskubiderik sorraraziko, araubide berezia ezargarri zaien jarduerak gauzatzeko burututako eragiketek.

**Bi.** Nekazaritza, basogintza, abeltzantza eta arrantzako erregimen bereziari heldu dioten enpresarioek goranzko konpentzazioa hartzeko eskubidea izango dute ondasunak erosi zein inportatzeagatik edo jasotako zerbitzuengatik jasan edo ordaindu dituzten Balio Erantsiaren gaineko Zerga-kuotak direla eta, baldin eta ondasun eta zerbitzu horiek erregimen berezi hau ezargarri zaien jarduerak gauzatzeko erabiltzen badute.

Konpentsazioa jasotzeko eskubidea honako atalean jasotako eragiketa egiten diren unean bertan sortuko da.

**Hiru.** Nekazaritza, basogintza, abeltzantza eta arrantza ustiaketen jabe diren enpresarioek, ustiaketok erregimen bereziaren menpe badaude, artikulu honek zehazten duen konpentsazioa jasotzeko eskubidea izango dute honako eragiketa hauek gauzatzen dituztenean:

1. Aipatutako ustiaketetan lortutako produktu naturalak beste enpresario edo profesional batzuei ematea, kokatuta dauden lurraldea edozein delarik ere. Salbuespenak izango dira:

a) Enpresarioei egindako emateak, baldin eta Zergaren ezarpen eremuaren barruko erregimen berezi honi helduta badaude, eta aipatutako produktuak erregimen berezia ezargarri zaien jarduerak garatzeko erabiltzen badituzte.

b) Enpresario edo profesionalei egindako emateak, baldin eta Zergaren ezarpen eremuan Zergatik salbuetsitako eragiketak baino gauzatzen badituzte, eta eragiketa horiek Araudi honetako 94. artikuluko lehenengo atalean zehaztutakoak ez badira.

2. Ustiaketa hauetan lortutako eta Arau honetako 25. artikuluan ezarritako produktu naturalen emateak, baldin eta hartzailea ez bada enpresario edo profesional

moduan jarduten duen pertsona juridikoa, eta baldin eta azken horiek ez badaude araubide berezi berari lotuta Zergaren ezarpeneko lurralde-eremuan bertan.

3. Arau honetako 127. artikuluak aipatzen dituen zerbitzu eskaintzeak, horien hartzaile direnak kokatuta dauden lurraldea edozein izanda ere, baldin eta hartzaileak ez badaude erregimen berezi berari lotuta Zergaren lurralde eremu berean.

**Lau.** Artikulu honetako 2. eta 3. ataletan jasotakoa ez da ezargarria izango, baldin eta nekazaritza, basogintza, abeltzantza eta arrantzako erregimen bereziari helduta dauden subjetu pasiboek produktu naturalen emate edo inportatze jarduerak egiten badituzte, eta erregimen berezi hori ez bada ezargarria jarduera horietan. edozelan ere, horiek ez dira araudi honetako VIII. idazpuruan jasotzako kenkari eskubidearen kaltetan izango.

**Bost.** (67) Artikulu honetako hirugarren idatz zatian aipatzen den oroharreko konpentsazioa kalkulatzeko eragiketa hau egin behar da: idatz zati horretan adierazitako produktu edo zerbitzuen salmenta prezioari ondoren agertzen diren ehunekoetatik bidezko dena aplikatu:

1. Nekazaritza edo baso ustiapenetatik lortutako produktu naturalen emateetan eta ustiapen horietako zerbitzu osagarrietan, ehuneko 12.

2. Abeltzaintza edo arrantza ustiapenetatik lortutako produktu naturalen emateetan eta ustiapen horietako zerbitzu osagarrietan, ehuneko 10,5.

Prezio horiek kalkulatzeko ez dira kontuan hartuko eragiketa horiei dagozkien zeharkako zergak, ez eta erosleak aparte ordaintzen dituen gastu osagarriak, ez loturiko gastuak ere, hala nola komisioak, paketatzea, garraioak, aseguruak, finantza gastuak edo bestelakoak.

Diru konpentsaziorik gabe egiten diren eragiketetan ehunekoak emandako ekoizkinek edo egindako zerbitzuek merkatuan duten balioari aplikatuko zaizkio.

Eragiketa bakoitzean aplika daitekeen ehunekoa, konpentsazioa eskuratzeko eskubidea sortzen denean indarrean dagoena izango da.

**131. artikulua.- Konpentsazioak itzuli behar dituztenak.**

Arau honen 130. artikuluan aipatzen diren konpentsazioen itzulketa ondoko hauek egingo dute:

1. Herri-ogasun eskudunak; beste estatu kide batera esportatu, saldu edo garraiatzeko diren ondasunen emateei eta Zergaren aplikazio-lurraldetik kanpo finkaturik dauden destinatariei egiten zaizkien eta erregimen bereziaren barnean bildurik dauden zerbitzuei doakienean.

2. Aurreko zenbakian aipatzen direnez beste emate batzuetarako diren ondasunen eskuratzaileak, eta Zergaren aplikazio-lurraldean finkaturik dagoen eta erregimen bereziaren barnean bildurik dauden zerbitzuen destinatariak.

**132. artikulua.- Errekurtsoak.**

Erregimen berezi honi dagozkion konpentsazioei buruz gerta daitezkeen hizka-mizkak, bai nondikakoari eta bai zenbatekoari doakienean, tributu-izaerakotzat hartuko dira, bidezko izan daitezkeen ekonomia-administraziozko erreklamazioak eginez gero.

**133. artikulua.- (15) Okerreko konpentsazio itzulketak.**

Okerreko konpentsazioren bat jasotzen duenak itzuli egin beharko dio konpentsazioa Ogasun publikoari, eskatu ahal zaizkion gainontzeko betebehar eta erantzukizunen kaltetan izan gabe.

**134. artikulua.- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziari dagozkion konpentsazioen kenketa.**

**Bat.** Arau honen 130. artikuluan aipatzen diren konpentsazioak ordaindu dituzten subjektu pasiboek, arau honen kuota jasan kengarriei buruzko VIII. tituluan xedatzen dena aplikatuz burutzen diren eragiketengatik sortu diren kuoten kopurutik aipatu konpentsazioon zenbatekoa kendu ahal izango dute.

**Bi.** Aurreko atalean xedatu denetik salbuetsirik daude baliokidetasun-errekarguaren erregimen berezia aplikagarri duten subjektu pasiboak, aipatu erregimen bereziaren babespean merkaturatzekoak diren berezko ekoizkinen eskuraketei dagokienez.

**Hiru.** Artikulu honetan xedatzen den eskubidea erabiltzeko, subjektu pasiboek berek jaulkitako agiriaren jabe izan beharko dute, arau bidez zehazten den era eta beharkizunen arabera.

**134. bis artikulua.- (38) Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren erregimen berezia hastea edo uztea. (39)**

**Bat.** Nekazaritzako, abeltzaintzako edo arrantzako jarduera jakin bati aplika dakiokeen tributazio erregimena Zergako erregimen orokorretik nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako zerga berezira aldatzen denean, jarduerako enpresaburu edo profesional titularrak honako betebeharrak izango ditu:

1. Jarduera horretan tributazio erregimena aldatzeko egunean eta ordura arte eman ez direnak lortutako produktu naturalak emateagatik etorkizuneko konpentsazioko zenbatekoa sartzea. Konpentsazio hori kalkulatzeko Arau honetako 130 artikuluan ezarritakoa gauzatuko da. Horretarako, zenbait irizpide aplikatuta kalkuluaren oinarria aldi

baterako finkatuko da, eta, horrez gain, zenbateko hori ezagutzera ematen denean berriz ere zuzendu egingo da.

2. Ondasunei dagozkien kenkariak eta jardueran edo ustiategian osorik edo zati batean kontsumitu edo erabili ez diren zerbitzuak zuzentzea, inbertsioenak izan ezik.

Idatz zati honetan ezartzen diren betebeharrak betetzearen ondorioetarako, enpresaburuak edo profesionalak inbentario bat egin eta aurkeztu beharko du, erregimen orokorra aplikatzeari uzten zaionean. Arau bidez jasotzen diren baldintzen arabera aurkeztu beharko da inbentarioa eta horien arabera egingo da dagokion sarrera.

**Bi.** Nekazaritzako, abeltzaintzako edo arrantzako jarduera jakin bati aplika dakiokeen tributazio erregimena Zergako erregimen orokorretik nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako zerga berezira aldatzen denean, jarduerako enpresaburu edo profesional titularrak honako eskubideak izango ditu:

1. Jarduerari lotutako ondasunen balioa aplikatzetik ateratzen den kuota kentzea, Balio Erantsiaren gaineko Zerga salbuetsita, erregimen berezia aplikatzeari uzten zaion datan, data horretan indarrean diren zerga horren tasak. Ondorio horietarako, honako hauek ez dira kontuan hartuko:

a) Inbertsio ondasunak, arau honetako 108 artikuluan xedatutakoaren arabera definituak.

b) Erabat edo hein batean jardueran erabili edo kontsumitu diren ondasun eta zerbitzuak.

2. Arau honetako 130. artikuluan zehazten den oroharreko konpentsazioa kentzea zerga erregimena aldatu zen datan eman ez diren ustiategietan lortutako produktu naturalengatik.

Idatz zati honetan ezartzen diren eskubideak gauzatzearen ondorioetarako, enpresaburuak edo profesionalak inbentario bat egin eta aurkeztu beharko du, erregimen orokorra aplikatzeari uzten zaionean. Arau bidez jasotzen diren baldintzen arabera aurkeztu beharko da inbentarioa eta horien arabera gauzatuko dira eskubide horiek.

**Hiru.** Inbertsio ondasunak eskuratzeak edo inportatzeak ordaindutako edo jasandako kuoten kenkariak arautzeko, jarduera zerga berezi honi lotzen zaizkion zergaldietan, zero kenkari-hainbanaketa aplikatuko da.

## IV. KAPITULUA (8)

## ONDASUN ERABILIEN, ARTE-OBJEKTU, ANTZINATEKO ETA BILDUMA-OBJEKTUEN JAURBIDE BEREZIA

**135. artikulua.- (8) Ondasun erabilien, arte-objektu, antzinateko eta bilduma-objektuen jaurbide berezia. (23)**

**Bat.** (67) Ondasun erabiliak edo arte objektutzat, antzinako gauzatzat edo bilduma objektutzat jotzen diren ondasun higigarriak birsaltzen dituzten subjektu pasiboek kapitulu honetan ezarritako araubide berezia aplikatuko dute ondasun emate hauetan:

1. Birsaltzaileak ondasun erabiliak, arte objektuak, antzinako gauzak edo bilduma objektuak ematea ondoko letretan aipatzen direnei:

a) Ez enpresaburu ez profesional ez den pertsona bati.

b) Ondasunaren bidalketa edo garraioa abiatzen den Batasuneko estatuan Zergaren frankizia araubidean dagoen enpresaburu edo profesional bati, baldin eta ondasuna inbertsio ondasuna bada berarentzat.

c) Enpresaburu eta profesionalei, baldin eta ematea arau honetako 20. artikuluko lehenengo idatz zatiko 24. edo 25. zenbakian xedatutakoaren arabera Zergatik salbuetsita badago.

d) Emateari ondasun erabilien, arte objektuen, antzinako gauzen eta bilduma objektuen araubide berezia aplikatu dion beste subjektu pasibo birsaltzaile bati.

2. Subjektu pasibo birsaltzaileak berak atzerritik erositako arte objektuak, antzinako gauzak eta bilduma objektuak ematea.

3. (72) Arau honen 91. artikuluaren Bat apartatuko 4 eta 5 zenbakietan ezarritako zerga-tasa txikitua aplikatzekoa izan zaien eragiketak direla eta enpresari edo profesionariei esleitutako arte-objektuen emanketak.

**Bi.** Aurreko apartatuan xedatutakoa dena dela ere, subjektu pasibo bersaltzaileek Zergaren jaurbide berezi berean zenbatutako eragiketetako edozeinetan aplikatu ahal izango dute, eta honelakoetan, bersalmentaren gai diren ondasunen esleipen edo atzerri-erosketan jasandako edo ordaindutako Zergaren kuotak murrizteko eskubidea izango dute, Arau honen VIII. Tituluan ezarritako arauei men eginez.

**Hiru.** (12) Kapitulu honetan arautzen den erregimen berezia ezin izango zaie aplikatu 13. artikuluaren 2. zenbakian definitutako garraiogailu berrien entregei, entrega horiek Arau honetako 25. artikuluaren Bat, Bi eta Hiru idazatietan aurreikusitako egoeretan egiten direnean.

**136. artikulua.- (8) Ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko eta bilduma-objektuen eta subjektu pasibo bersaltzailearen kontzeptua.**

**Bat.** (28) Arau honetan xedatutakoaren ondorioetarako hartuko dira:

1. Ondasun erabilitzat, ibilera iraunkorra duten izaera higigarriko ondasunak, baldin eta beste inork lehenagotik erabiliak izan eta beraren xede zehatzetarako berriro ere erabilgai badira.

Ez dira ondasun erabilitzat joko:

a) Berriro eskuratzeko materialak, enbaseak, enbalajeak, urrea, platinoa eta harri bitxiak.

b) Subjektu pasibo eskualdatzaileak berak edo bere kontura erabilitako, berritutako nahiz eraldatutako ondasunak. Kapitulu honetan ezarritakoaren ondoriotarako, ondasunen jatorrizko ezaugarriei bere onean eustea xede duten eragiketak joko dira berrikuntzatzat, horien gostea horiek esleitzeko prezioaz gaindikoa izan dadinean.

2. Arte-objetutzat, ondoren zenbatzen diren nondasunak:

a) Kuadroak, "collage"ak eta antzeko neurri txikiko kuadroak, pinturak eta marrazkiak, artistak erabat eskuz egindakoak, arkitektura eta injeniaritzako planoak eta gainontzeko marrazki industrialak, merkataritzakoak, topografikoa edo antzerakoak, eskuz apaindutako eskulanak antzoki-apingarritarako pintatutako zapiak, estudio-fondoak edo antzeko erabileratarakoak salbu (Kodea NC 9701).

b) Artistak erabat eskuz egindako plantxa batetik edo gehiagotatik artez ateratako, zuri-beltzeko edo koloretako, 200 aletara mugatutako tiradako jatorrizko grabatuak, estanpak eta litografiak, erabilitako teknika edo gaiak edozein eratakoak direla, baliabide mekaniko eta fotomekanikozkoak salbu (Kodea NC 0702 00 00).

c) Edozein gaiz egindako jatorrizko eskulturak eta estatuak, baldin eta erabat artistak eginak badira; zortzi aletara mugatutako eta artistak edo horren eskubide-jabeek kontrolatuta egindako eskulturen hustuketak (Kodea NC 9703 00 00).

d) Tapizgintza (Kodea NC 5805 00 00) eta hormako ehunak (Kodea NC 6304 00 00) artisten egindako jatorrizko kartoietan oinarriturik eskuz egindakoak, horietako bakoitzaren zortzi aletik gora ez egiteko baldintzapean.

e) Zeramikazko ale bakanak, artistak erabat eginda eta horrek sinatuta.

f) Kobre-gainean erabat eskuz egindako esmalteak, batutako zortzi aleko muga izanik eta horietan artistaren tailerraren sinadura azaldu beharko duela, girgilgintza, urregintza eta pitxigintzako artikuluak salbu.

g) Artistak ateratako argazkiak eta egileak edo haren kontrolpean errebelatu eta irarritako, sinadura eta guzti eta zenbatuak, guztira hogeita hamar aleko muga izanik, formatoak eta euskarriak direnak direla.

3. Bilduma-objetutzat, ondoren zenbatutako ondasunak:

a) Posta-seiluak, tinbre fiskalak, posta-markak, lehen eguneko kartazalak, seilua jarritako artikuluak eta antzerakoak, obliteratuak nahiz obliteratu gabeak, legez erabiltzeko izan ez eta izango ez direnak (Kodea NC 9704 00 00).

b) Zoologia, botanika, mineralogi edo anatomi bildumak eta bildumatarako espezieak, edo historiaren, arkeologiaren, palentologiaren, etnografiaren edo numismatikaren aldetik interesgarri izan daitezkeenak (Kodea NC 9705 00 00).

4. Antzinatekotzat, ehun urtetik gorako antzinatekoak izan eta arte nahiz bildumarako gai izan ez daitezen objektuak (Kodea NC 9706 00 00).

5. Ondasunen bersaltzailetzat, gerora berriro saltzeko esleitutako edo atzerritik erosiak izanik, aurreko zenbakietan sartzen diren ondasunen emateak ohizko izaeraz egiten dituen enpresaria.

Baita ere bersaltzailetzat joko da aurreko lerroaldean esandako ondasunen jendaurreko enkante-bidezko salmentak antolatzen dituena.

**Bi.** (28) Ez zaio, inolaz ere, erregimen berezi hau aplikatuko, Arau honen 140. artikulua, definitutako inbertsiorako urreari.

**137. artikulua.- (12) Zerga-oinarria.**

**Bat.** Ondasun erabilien, arte-objektuen eta antzinateko eta bildumako objektuen erregimen berezia aplikatzen zaien ondasun-entregen zerga-oinarria honakoak osatuko du: subjektu pasibo birsaltzaileak eragiketa bakoitzean aplikatzen duen mozkin-marjinak, marjina horri Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotan murriztu ondoren.

Ondorio horietarako, mozkinaren marjina izango da ondasunaren salmenta-prezioaren eta erosketa-prezioaren arteko aldea.

Salmenta-prezioa eskualdaketaren kontraprestazioaren zenbateko osoak eta eragiketa kargatzen duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak osatuko dute, kontraprestazioaren zenbateko osoa Arau honetako 78 eta 79. artikuluetan ezarritakoarekin bat zehaztuko delarik.

Erosketa-prezioa ondasun eskualdatutakoa erosteari dagokion kontraprestazioaren zenbateko osoak eta eragiketa kargatu duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoak, hala egin badu, osatuko dute, kontraprestazioaren zenbateko osoa Arau honetako 78, 79 eta 82. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehaztuko delarik.

Eskualdatzen diren arte-objektuak edo antzinateko eta bildumako objektuak subjektu pasibo bersaltzaileak inportatuak izanez gero, ondasunaren inportazioaren zerga-oinarriak eta inportazio hori kargatzen duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak osatuko dute erosketa-prezioa, mozkin-marjinaren kalkulatzeko. Zerga-oinarri hori Arau honetako 83. artikuluan esandakoaren arabera zehaztuko da.

**Bi.** Subjektu pasibo bersaltzaileek zerga-oinarria berak aplikatzen duen mozkin osoaren marjinaren bidez zehazteko aukera hauta dezakete, likidazio-aldi bakoitzerako, marjina hori Balio Erantsiaren gaineko Zergan hari dagokion kuotan murriztu ondoren.

Mozkin osoko marjina honakoa izango da: likidazio-aldi bakoitzean egin diren ondasun-entrega guztien salmenta-prezioaren eta erosketa-prezioaren arteko aldea. Aurreko idazatian erregimen bereziari lotutako eragiketa bakoitzaren mozkin-marjina kalkulatzeko ezartzen den moduan zehaztuko dira prezio horiek.

Zerga-oinarria zehazteko modu honen aplikazioak honako erregela hauek beteko ditu:

1. Mozkin osoko marjineko modalitatea honako ondasunen kasuan baizik ezin izango da aplikatu:

a) Interes filateliko edo numismatikoa duten seiluak, efektu tinbratuak, bileteak eta monetak.

b) Diskoak, zinta magnetikoak eta beste soinu eta irudi euskarriak.

c) Liburuak, aldizkariak eta beste argitarapenak.

Hala ere, Zerga Administrazioak, interesatuak aurretik eskaturik, mozkin osoko marjineko modalitatea aplikatzeko baimena eman dezake arestian esandako ondasunez bestekoen zerga-oinarria zehazteko. Kasu horretan, baimenaren baldintzak finkatuko ditu, eta baimen hori baliogabetu dezake hura emateko arrazoiak desagertzen direnean.

2. Aukera hori erregelamendu bidez zehazten den eran egingo da eta eragina izango du uko egin artean eta gutxienez hurrengo urte naturala amaitu artean. Aukera horretaz baliatzen den subjektu pasibo bersaltzaileak modalitate horren arabera zehaztu beharko du aplikazio-aldian egiten dituen ondasun-entrega guztiei dagokien zerga-oinarria, ezin zaielarik aplikatu entrega horiei Zergaren erregimen orokorra.

3. Likidazio-aldi bati dagokion mozkin osoko marjina negatiboa bada, aldi horren zerga-oinarria zero izango da eta marjina hori hurrengo aldiko erosketen zenbatekoari gaineratuko zaio.

4. Zerga-oinarria zehazteko modalitate hau hautatu duten subjektu pasibo bersaltzaileek beren izakinen urteko erregularizazioa egin beharko dute. Horretarako, urte bakoitzaren izakinen azkeneko eta hasierako saldoen arteko aldea kalkulatu beharko da eta alde hori, positiboa balitz, azken aldiko salmenten zenbatekoari gaineratu beharko litzaioke, eta, negatiboa balitz, aldi horretako erosketen zenbatekoari.

5. Ondasunekin Arau honetako 21, 22, 23 eta 24. artikuluak aplikaturik entrega salbuetsiak egiten direnean, subjektu pasiboak ondasun horien erosketa-prezioa kendu beharko du aldiaren erosketen zenbateko osotik. Erosketa-prezio hori ezezaguna denean, ondasunek birsaltzaileak erosten dituen unean merkatuan duten balioa erabili ahal izango da.

Era berean, subjektu pasiboak ez du zenbatuko entrega horien zenbatekoa aldiaren salmenten artean.

6. 4. erregelan aipatzen den erregularizazioaren ondorioetarako, subjektu pasiboak, zerga-oinarria zehazteko modalitate honen aplikazioan hasiera edo uzte-kasuetan, hasiera edo uzte egunean dituen izakinen inbentario bat egin beharko du, bertan ondasunen erosketa-prezioa edo, bestela, ondasunak erosketa-egunean zuen balioa kontsignatuta.

**138. artikulua.- (8) Zergaren jasanarazpena.**

Jaurbide berezi hau aplikatzekoa izan dezaten eragiketak dokumentatzen dituzten fakturetan, subjektu pasiboek ez dute eraginaren gai izandako kuota banandurik adierazterik izango, hori eragiketaren osoko prezioan sartutakotzat ulertu beharko dela.

Subjektu pasibo bersaltzaileak Kapitulu honetan araututako jaurbide berezia aplikatuz emanak izan diren ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko edo bilduma-objektuen erosleek jasandako kuotak ez dira murrizgarriak izango.

**139. artikulua.- (8) Kenkariak.**

Subjektu pasibo bersaltzaileek ez dute jaurbide berezi honen peko emateen bidez bere aldetik eskualdatu daitezen ondasunak esleitzeagatik edo atzerrian erosteagatik jasandako edo ordaindutako Zergaren kuotak murrizterik izango.

## V. KAPITULUA (28)

## INBERTSIORAKO URREAREN ERREGIMEN BEREZIA

**140. artikulua.- (28) Inbertsiorako urrearen kontzeptua.**

Arau honetan ezarritakoaren ondorioetarako, inbertsiorako urretzat hartuko dira:

1. 995 milaren edo gehiago duten lege-urrezko lingote edo orriak, bere pisua Arau honen Eranskinaren Bederatzigarren atalean ezarritakoarekin bat badator.

2. Urrezko txanponak, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) 900 milaren edo gehiagoko lege-urrezkoak izatea.

b) 1800. urtearen ondoren egin badira.

c) Bere jatorrizko herrian, legezko monetak izatea edo izandakoak izatea.

d) Normalean, txanponetan dagoen urrearen merkatu balorearen %80a baino gutxiagoko salneurrian salduak izatea.

Edonola ere, aurreko baldintzak, "Europako Komunitateen Aldizkari Ofiziala"ren C seriean, urteroko abenduaren 1a baino lehen argitaratzen den zerrendan sartzen diren urrezko txanponen inguruan betetzen direla ulertuko da. Aipatutako txanponek inbertsiorako urretzat hartuak izateko exijitzen diren baldintzak betetzen direla kontsideratuko da, aipatutako zerrendan argitaratu eta hurrengo urte naturalean, edo hurrengo urteetan, aurretik argitaratuak aldatzen ez diren bitartean.

**140 bis artikulua.- (28) Salbuespenak.**

**Bat.** Ondoko eragiketak Zergatik salbuetsita daude:

1. Inbertsiorako urrearen emate, eroste erkidegoaren barruan eta inportazioak. Salbuespenaren eremuaren barruan sartuko dira, emate gisa, maileguak eta finantza trukatze operazioak, eta etorkizuneko edo epeka egindako kontratuen ondorioz sortutako operazioak, kasu guztietan, bere helburua inbertsiorako urrea bada eta aipatutako urrearen gainean disposizio ahalmena eskualdatzea suposatzen badute.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa ez da honako kasu hauetan ezarriko:

a) Inbertsiorako urrea helburutzat duten zerbitzu emateetan, artikulu honen 2. zenbakian ezarritakoari utzi gabe.

b) Erkidegoaren barruan egiten diren inbertsiorako urrearen erosketetan, ematen duen enpresariak, jatorrizko Estatu kidean, emate horretarako aurreikusitako erregimen berezian Zergaren salbuespena uko egin badu.

2. Besteen izenean eta kontura salbuetsitako operazioetan tartekaritza zerbitzuak, aurreko 1. zenbakiaren arabera.

**Bi**. Emate berari prezeptu honetan araututako salbuespena eta Arau honen 25. artikuluan aurreikusitakoa ezarri behar bazaizkio, prezeptu honetan araututakoa ezarri ahal izango da, berari uko egiten ez bazaio, 140 ter artikuluaren Bat atalean ezarritakoaren arabera.

**140 ter artikulua.- (28) Salbuespenari uko egitea.**

**Bat.** Eskualdatzaileari uko egin ahal izango dio inbertsiorako urrearen emateei ezar dakiekeen Zergaren salbuespenari, Arau honen 140 bis artikuluaren, Bat.1 atalean aipatzen denari, araudian zehazten diren eran eta baldintzapean, eta honako baldintza hauek betetzen badira:

1. Eskualdatzaileak, ohizko eran, inbertsiorako urrea sortzeko jarduerak edo inbertsiorako urrea ez den urrea aldatzeko jarduerak egiten baditu, eta ematearen helburua, lehen aipatutako jardueren emaitza den inbertsiorako urrea bada.

2. Eroslea, enpresari edo profesional jarduuretan aritzen den enpresari edo profesionala denean.

**Bi.** Arau honen 140 bis artikuluaren Bat atalaren 2. zenbakian aipatutako tartekaritza zerbitzuei ezar dakiekeen salbuespenari, uko egin ahal izango dio interesatuak, tartekaritza zerbitzuaren jasotzailea, enpresari edo profesional jarduuretan aritzen den enpresari edo profesionala denean, araudian zehazten diren eran eta baldintzapean eta tartekaritza zerbitzuak ezartzen duen inbertsiorako urrearen emateari ezar dakiokeen salbuespenari uko egiten bazaio.

**140 cuarter artikulua.- (28) kenkariak.**

**Bat.** Arau honen 92. artikuluan sartzen diren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak, ezin izango dira kengarriak izan, Arau honen 140 bis artikuluan ezarritakoaren arabera, kuota horiek ondasunak edo zerbitzuak erosi edo inportatzeko helburuz jasan edo ordaintzen diren neurrian, salbuetsitako inbertsiorako urrearen emateak egiten direnean aipatutako kuotak erabiltzen direnean.

**Bi.** Aurreko atalean ezarritakoaren salbuespen gisa, atalak aipatzen dituen inbertsiorako urraren emateak, honako kuota hauek kentzeko eskubidea sortuko du:

1. Urre hori erosteagatik jasan behar direnak, hornitzaileak 140 ter, Bat atalean araututako salbuespenari uko egin dionean.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa, erkidegoaren barneko inbertsiorako urraren erosketei dagozkien kuotei ezarriko zaie, ematen duen enpresariak, jatorrizko Estatu kidean emate horretarako aurreikusita dagoen erregimen berezian, Zergaren salbuespenari uko egin badio.

2. Urre horren eroste edo inportazioarengatik jasan edo ordaindutakoak, eroste edo inportazioaren momentuan, inbertsiorako urretzat hartua izateko baldintzak betetzen ez zuenean, emate salbuetsia egiten duenak edo bere kontura egiten duenak inbertsiorako urre bihurtu delarik.

3. Urre horren itxura, pisu, edo legearen aldaketa diren zerbitzuek sostengatuak.

**Hiru.** Era berean, aurreko Bat atalean ezarritakoaren salbuespen gisa, zuzenean sortu edo aldaketaren bidez lortu duten enpresari edo profesionalek egiten dituzten inbertsiorako urraren emateak, Zergatik salbuetsiak, aipatutako produkzio edo aldaketekin lotutako ondasun edo zerbitzuen erosketa edo inportazioarengatik jasan edo ordaindutako zergaren kuotak kentzeko eskubidea sortuko du.

**140 quinque artikulua.- (28) Subjektu pasiboa.**

140 ter artikuluak ezartzen duen salbuespenari uko egiteagatik grabatuta geratzen diren inbertsiorako urrearen emateei dagokien Zergaren subjektu pasiboa, grabatutako operazioa egitearen enkargua eman duen enpresari edo profesionala.

**140. sexies artikulua.- (38) Fakturak gordetzea.**

Xedetzat urre inbertsioa duten eragiketak egiten dituzten enpresaburu eta profesionalek eragiketa horiei dagozkien fakturen kopiak gorde beharko dituzte, bai eta haien erregistroak ere, bost urtez.

## VI. KAPITULUA (74)

## BIDAI AGENTZIEN ERREGIMEN BEREZIA

**141. artikulua.- (74) Bidai agentzien araubide berezia.**

**Bat.** Ondoko eragiketa hauei aplikatuko zaie bidai agentzien araubide berezia:

1. Bidai agentziek egiten dituzten eragiketei, baldin eta bidaiariei dagokienez beren izenean badihardute eta bidaia egiteko beste enpresaburu edo profesional batzuek ematen dituzten ondasunak edo zerbitzuak erabiltzen badituzte.

Araubide berezi honen ondorioetarako, bidaiatzat hartuko dira ostatu eta garraio zerbitzuak, batera, bereizita edo osagarri diren beste zerbitzu batzuekin batera ematen direnean.

2. Turismo zirkuituen antolatzaileek egiten dituzten eragiketei eta enpresaburuek edo profesionalek aurreko zenbakian adierazitako inguruabarrak gertatzen diren kasuetan egiten dituztenei.

**Bi.** Bidai agentzien araubide berezia ez zaie aplikatuko bidaia egiteko garraio edo ostalaritza baliabide propioak bakarrik erabiliz egiten diren eragiketei.

Bidaia egiteko baliabide propioak zein beste batzuenak erabiltzen badira, beste batzuen bitartekoak erabiliz emandako zerbitzuei baino ez zaie aplikatuko araubide berezia.

**142. artikulua.- (74) Zergaren jasanarazpena.**

Araubide berezi hau aplikatzen den eragiketetan, subjektu pasiboak ez dira behartuta egongo jasanarazitako kuota fakturan bereiz jartzera, eta kuota hori eragiketaren prezioan sartuta dagoela ulertu beharko da, hala denean.

**143. artikulua.- (74) Salbuespenak.**

Zergatik salbuetsita daude bidai agentzien araubide berezian dauden subjektu pasiboek egiten dituzten zerbitzuak, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua, bidaiarien onurarako eskuratu eta bidaia egiteko erabiltzen dena, EBtik kanpo egiten bada.

Baldin eta ondasun ematearen edo zerbitzuaren zati bat baino ez badira egiten EBko lurraldean, bidai agentziak lurralde horretatik kanpo egiten duen zerbitzuari dagokion zatia bakarrik egongo da salbuetsita.

**144. kapitulua.- (74) Zerga egitatea gertatzen den tokia.**

Agentziek bidaia burutzeko bidaiari bakoitzarentzat egiten dituzten eragiketak zerbitzugintza bakartzat hartuko dira, nahiz eta bidaiariari bidaiaren barruan hainbat ondasun eman edo hainbat zerbitzu egin.

Zerbitzua agentziak bere jarduera ekonomikoaren egoitza daukan lekuan edo eragiketa egin duen establezimendu iraunkorrean egintzat hartuko da.”

**145. artikulua.- (74) Zerga-oinarria.**

**Bat.** Zerga oinarria bidai agentziaren marjina gordina izango da.

Ondorio horietarako, agentziaren marjina gordina zenbateko bi hauen arteko diferentzia izango da: batetik, bezeroari kargatzen zaion guztirako kopurua (eragiketak jasaten duen balio erantsiaren gaineko zergaren karga kanpo utzita); bestetik, beste enpresaburu edo profesional batzuek egindako ondasun emateen edo zerbitzugintzen benetako zenbatekoa (zergak barne), baldin eta agentziak bidaia egiteko eskuratzen baditu ondasun-zerbitzu horiek eta bidaiarien zuzeneko onurarako badira.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena aplikatzeko, agentziak bidaia egiteko eskuratzen dituen zerbitzutzat hartuko dira, besteak beste, beste bidai agentzia batzuek helburu hori betetzeko ematen dituzten zerbitzuak, ondoko hauek ez beste guztiak: handizkarien bidaia antolatuen salmentan agentzia txikizkariek haien izenean eta kontura egiten dituzten bitartekaritza zerbitzuak.

Agentziaren marjina gordina zehazteko ez dira konputatuko arau honetako 143. artikuluan xedatzen dena dela bide kargatik salbuetsita dauden eragiketei dagozkien kopuruak edo zenbatekoak, ez eta eragiketa horiek egiteko erabiltzen diren zerbitzu edo ondasunei dagozkienak ere.

**Bi.** Besteak beste, zerbitzu hauek ez dira hartuko bidaiarako egindako zerbitzutzat:

1. Atzerriko moneta trukatzeko edo salerosteko eragiketak.

2. Agentziak egiten dituen telefono, telex eta posta gastuak eta antzeko beste batzuk.

**146. artikulua.- (74) Kenkariak.**

Araubide berezi honetan dauden agentziek foru arau honetako VIII. tituluan ezartzen denaren arabera aplikatu ahal izango dituzte kenkariak.

Hala ere, ezin izango dute kendu bidaia egiteko eskuratutako ondasun eta zerbitzuetan jasandako zerga, baldin eta ondasuna edo zerbitzua bidaiariaren zuzeneko onurarako bada.

**147. artikulua.- (74) Araubide berezia aplikatzen ez den kasua.**

Arau honetako 141. artikuluan ezartzen denaren salbuespen gisa, subjektu pasiboek aukera izango dute kapitulu honetako araubide berezia ez aplikatzeko (arautegian ezarritako da nola) . Horren ordez zerga honen araubide orokorra aplikatu ahal izango dute, eragiketaz eragiketa, egiten dituzten zerbitzuetan, baldin eta zerbitzuon hartzailea arau honetako VIII. tituluan ezartzen denaren arabera balio erantsiaren gaineko zergaren kenkarirako edo itzulketarako eskubidea duten enpresaburua edo profesionala bada.

## VII. KAPITULUA (28)

## BALIOKIDETASUN ERREKARGUAREN ERREGIMEN BEREZIA

**148. artikulua.- (28) (92) Baliokidetasun errekarguaren erregimen berezia.**

**Bat.** Baliokidetasun errekarguaren erregimen berezia, pertsona fisikoak edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan errenten atribuzioaren erregimenean dauden entitateak diren merkatari minoristei ezarriko zaie, bere jarduera ekonomi sektoreetan egiten badute eta araudian zehazten diren baldintzak betetzen badituzte.

**Bi.** Erregimen berezi hau aplikatu behar zaion subjektu pasiboak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren menpe dauden bestelako enpresari edo profesional jarduerak egiten baditu, erregimen berezi horren menpeko merkataritza minoristarenak, edonola ere, ekonomi jardueraren sektore bereziaren kontsiderazioa izango du.

**Hiru.** Araudian zehaztu ahal izango dira artikuluak eta produktuak, bere salmenta erregimen berezi honetatik kanpo geratzen dena.

**149. artikulua.- Merkatari txikizkariaren kontzeptua.**

**Bat.** Arau honen ondoreetarako, merkatari txikizkaritzat joko dira ondoko beharkizun guztiak betetzen dituzten subjektu pasiboak:

1. Ondasun higigarrien eta abereen ohizko emateak merkatariek beren kabuz edo gainontzekoen bidez burutzea, haiekin inolako fabrikazio, gertaketa edo eskulangintzako prozesurik egin gabe.

Ez dira merkatari txikizkaritzat hartuko, hauek transformatzen dituzten ekoizkinei dagokienez, beren iharduerako ekoizkinekin, beren kabuz edo gainontzekoen bidez, aurreko lerroaldean aipatu prozesuren bat egiten duten merkatariak; halaber, antzeko izaera edo bestelako izaera duten beste ekoizkin batzuk halakotzat hartuko dira, baldin eta merkaturatzean eskuratzean zeuden egoera berean badaude.

2. Aipatu ondasunengatik Gizarte Segurantzari, horren entitate kudeatzaile edo laguntzaileei, edo enpresari edo profesionari ez direnei aurreko urtean zehar egindako emateei dagozkien kontraprestazioen baturak aipatu ondasunen emateen guztirakoaren % 80a gainditu izana.

Aurreko lerroaldean zehazten den beharkizuna ez zaie aplikatuko Iharduera Ekonomikoen gaineko Zerga araupetzen duten arauen menpeko merkatari txikizkari diren subjektu pasiboei, baldin eta subjektu pasibo horiek inguruabar hauetakoren bat betetzen badute.

a) Aipatu lerroaldean izendatzen den portzentaia kalkulatu ezin izatea aurreko urtean merkataritzako iharduerarik ez egiteagatik.

b) Aplikagarri izan dakiela eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboko metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitateari uko egin ez izana.

**Bi.** Merkatari txikizkari izatea galtzearen ondoreetarako, transformakuntzatzat hartzen ez diren prozesu edo eragiketak arau bidez zehaztuko dira.

**150. artikulua.- (28)**

**151. artikulua.- (28)**

**152. artikulua.- (28)**

**153. artikulua.- (28)**

**154. artikulua.- Baliokidetasun-errekarguari buruzko erregimen bereziaren edukina.**

**Bat.** Erregimen berezi hau aplikagarri duten merkatari txikizkariei eska dakiekeen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainarazpena, beraien hornitzaileek egiten dituzten baliokidetasun-errekarguaren jasanarazpena dela bide gauzatuko da.

Atal honetan xedatzen dena Elkarte barruan eskuratzen diren ondasunei dagokien Zerga likidatzeko eta ordaintzeko betebeharraren kalterik gabe dela ulertuko da, baita ere arau honen 84. artikuluaren lehenengo atalaren 2. zenbakian aipatzen diren eragiketei dagokienaren kalterik gabe ere.

**Bi.** (74) Araubide berezi honetan dauden subjektu pasiboek ez diote zergarik likidatu eta ordaindu beharko Foru Ogasunari eragiketa hauek direla eta: batetik, subjektuok egiten dituzten merkataritza eragiketak, eragiketa horiei araubide berezi hau aplikatu ahal bazaie; bestetik, jarduera horietan bakarrik erabilitako ondasun edo eskubideen eskualdaketak. Salbuespena: ondasun higiezinen emateak zergapean daude eta ez daude salbuetsita; beraz, sortutako zerga kuotak jasan, likidatu eta sartu beharko ditu eskualdatzaileak.

Halaber, ezin dituzte kendu araubide berezi honi atxikita dauden jarduerak egiteko erabilitako mota guztietako ondasunen eskuraketengatik edo inportazioengatik edo zerbitzugintzengatik jasandako kuotak.

Inbertsio ondasunen ondoriozko kenkariak erregularizatzeko, subjektu pasiboak araubide berezi honetan dauden bitartean jarduera ekonomikoaren sektore bereizi honetan aplika daitekeen kenkariaren hainbanaketaren kopurua zero izango da. Eskualdatutako inbertsio ondasunak araubide berezi honetan dauden jarduerak egiteko bakarrik erabiltzen badira, ezin izango da egin arau honetako 110. artikuluan aipatzen den erregulazioa.

**Hiru.** Erregimen berezi honi heltzen dioten merkatari txikizkariek beren bezeroei jasanaraziko dieten kuota, beraiek gauzatzen dituzten aipatu tributuaren zamapeko salmenta eta gainerako eragiketei dagokien zerga-oinarriari Zergaren zerga-tasa aplikatuz ateratzen dena izango da, eta inolaz ere ezin izango dute gehitu aipatu portzentaia baliokidetasun-errekarguaren zenbatekoan.

**155. artikulua.- Baliokidetasun errekargoaren erregimen bereziari lotutako iharduketetan hastea edo gelditzea.**

Baliokidetasun-errekarguaren erregimen bereziari lotzen zaizkion iharduerei ekitea edo uztea suertatuz gero, ondorengo arauak aplikatuko dira:

1. Iharduerari ekiten zaionean, inbentarioan bilduta dauden izakinen eskuraketaren balioari, Balio Erantsiaren gaineko Zerga ate dela, aipatu Zergaren tasak eta iharduerari ekiten zaion egunean indarrean dauden baliokidetasun-errekarguarena gehituz ateratzen den kantitatearen likidazioa eta sarrera egin behar dute subjektu pasiboek.

Aurreko lerroaldean xedaturik dagoena ez da aplikatuko, Balio Erantsiaren gaineko Zergapean ez dagoen enpresa-ondare baten eskualdaketa osoa edo partziala dela bide, izakinak erregimen berezi horren pean dagoen beste merkatari bati erosten zaizkionean, arau honen 7. artikuluaren 1. zenbaki dela bide.

2. Arau honen 149. artikuluan aurrikusirik dauden beharkizunak gertatzen ez direlako iharduerari uzten zaionean, subjektu pasiboek uztearen egunean inbentarioan jasotzen diren izakinen eskuraketa-balioari, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun errekargua bazterturik, aipatu zergaren tasak eta egun berean indarrean dauden errekarguak gehitzetik ateratzen den kuota kendu ahal izango diote.

Uztea baliokidetasun-errekarguaren erregimen bereziari lotzen ez zaizkion merkatarien Zergapeko ez diren enpresa-ondareen eskualdaketa osoaren edo partzialaren ondorioz suertatuz gero, eskuratzaileek, eskualdaketa egiten den egunean indarreko Zergaren tasei aipatu egunean dauden izakinek merkatuko balioari gehituz eratortzen den kuota kendu ahal izango diote.

3. Aurreko bi erregeletan xedatutakoa ondoreak izan ditzan, subjektu pasiboek beren izakinen inbentarioak egin beharko dituzte, arau bidez zehazten den eran, erregimen honen aplikazioan hasiera eguna eta uztearena zeintzuk diren aipatuz.

**156. artikulua.- Baliokidetasun-errekargua.**

Baliokidetasun-errekargua, Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta eta hartatik salbuetsita ez dauden ondoko eragiketetan eskatuko da:

1. Enpresariek merkataritza-elkarteak ez diren merkatari txikizkariei egiten dizkieten ondasun higigarri edo abereen emateetan.

2. Aurreko zenbakian aipatzen diren merkatariek egiten dituzten ondasunen inportazioak edo Elkarte barruko eskuraketak.

3. Aipatu merkatariek arau honen 84. artikuluaren lehenengo atalaren 2. zenbakian aipatzen diren ondasunen eskuraketak burutzen dituztenean.

**157. artikulua.- Noiz den ezinezkoa baliokidetasun-errekargua aplikatzea.**

Aurreko artikuluan xedatu denetik ate daude ondoko eragiketak:

1. Baliokidetasun-errekarguaren erregimen bereziaren menpean ez daudela arau bidez zehazten den eran benetakotzen duten merkatariei egiten zaizkien emateak.

2. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen bereziari lotzen zaizkion subjektu pasiboen emateak, aipatu erregimen berezia araupetzen duten arauei atxekita.

3. Edozein izaeratako ondasun-emateak, eta Elkarte barruko eskuraketa eta inportazio, baldin eta eskuratzaileak salerosteko xederik ez badu.

4. Aurreko zenbakian aipatu diren eragiketak, baliokidetasun-errekarguaren erregimen berezia aplikatzetik salbuetsita dauden artikuluei dagozkienak.

**158. artikulua.- Baliokidetasun-errekarguaren subjektu pasiboak.**

Ondoko hauek daude baliokidetasun-errekargua ordaintzera behartturik:

1. Zergaren menpeko emateak burutzen dituzten Zergaren subjektu pasiboak.

2. Elkarte barruan ondasunen eskuraketak edo inportazioak burutzean erregimen berezi honi lotzen zaizkion merkatariak berak, bai eta arau honen 84. artikuluaren lehenengo atalaren 2. zenbakian ohartematen diren balizkoetan ere.

**159. artikulua.- Baliokidetasun-errekarguaren jasanarazpena.**

Aurreko artikuluaren 1. zenbakian aipatu diren subjektu pasiboak behartturik daude kasuan kasuko eskuratzaileen gaineko baliokidetasun-errekarguaren jasanarazpena arau honen 88. artikuluan ezartzen den eran ordaintzera.

**160. artikulua.- Zerga-oinarria.**

Baliokidetasun-errekarguaren zerga-oinarria Balio Erantsiaren gaineko Zergarako ateratzen den bera izango da

**161. artikulua.- (67) Tasak.**

Baliokidetasun errekarguaren tasak hauexek izango dira:

1. Oro har, ehuneko 5,2.

2. Arau honetako 91. artikuluko lehenengo idatz zatian ezarritako zerga tasa aplikatu behar zaien ondasun emateetan, ehuneko 1,4.

3. Arau honetako 91. artikuluko bigarren idatz zatian ezarritako zerga tasa aplikatu behar zaien ondasun emateetan, ehuneko 0,50.

4. Tabakogaien gaineko Zerga Bereziaren kargapean dauden ondasun emateetan, ehuneko 1,75.

**162. artikulua.- Likidazioa eta ordainketa.**

Baliokidetasun-errekarguaren likidazioa eta sarrera bide batez burutuko da Balio Erantsiaren gaineko Zergarekin eta aipatu Zergaren ordainarazpenerako finkatu diren arau berei lotuko zaizkie

**163. artikulua.- Baliokidetasun-errekarguaren erregimen bereziarekiko lotura benetakotu beharra.**

Merkataritzako sozietateak izan ez eta txikizkako salmenta-eragiketak burutu ohi dituzten pertsona edo entitateak derrigortuta daude beren hornitzaileei edo, hala dagokienean, Aduanari benetakotzera, baliokidetasun-errekarguaren erregimen bereziari loturik dauden ala ez, burutzen dituzten ondasunen eskuraketa edo inportazioei dagokienez.

## VIII. KAPITULUA (74)

## ELEKTRONIKA BIDEZ EMANDAKO ZERBITZUEI APLIKAGARRI ZAIEN ERREGIMEN BEREZIA

**163 bis artikulua.- (74)**

**163 ter artikulua.- (74)**

**163 quater artikulua.- (74)**

## IX. KAPITULUA (47)

## ENTITATE TALDEEN ARAUBIDE BEREZIA

**163 quinquies artikulua.- (47) Erakunde taldearen araubide bereziaren gaineko betekizun subjektiboak.**

**Bat.** (74) Erakunde talde bateko kide diren enpresaburuek eta profesionalek erakunde taldeen araubide berezia aplikatu ahal izango dute. Erakunde nagusi batek eta haren mendeko erakundeek osatzen dituzte erakunde taldeak; erakundeok harreman estuak eduki behar dituzte euren artean (arautegian ezarriko da nola) finantzen, ekonomiaren eta antolamenduaren arloetan, eta beharrezkoa da haien guztien jarduera ekonomikoaren egoitzak edo establezimendu iraunkorrak zergaren aplikazio lurraldean egotea.

Enpresaburuek eta profesionalek ezin izango dute parte hartu aldi berean erakunde talde batean baino gehiagotan.

**Bi.** (74) Erakunde nagusitzat joko da baldintza hauek betetzen dituena:

a) Nortasun juridiko propioa eduki behar du. Hala ere, zergaren aplikazio lurraldean dauden establezimendu iraunkorrak erakunde nagusi izan daitezke atxikita dituzten partaidetzak dagozkien erakundeekiko, baldin eta idatz zati honetako gainerako betekizunak betetzen badituzte.

b) Taldeko erakundeen gaineko benetako kontrola eduki behar du, eta horretarako beharrezkoa da ehuneko 50etik gorako partaidetza edukitzea, zuzenean zein zeharka, erakundearen kapitalean edo boto eskubideetan.

c) Partaidetza hori urte natural osoan mantendu behar du.

d) Erakunde nagusia ezin da izan establezimendua zergaren aplikazio lurraldean daukan eta erakunde nagusitzat jotzeko betekizunak betetzen dituen beste erakunde baten mendekoa.

Aurreko lehenengo idatz zatian ezartzen dena gorabehera, ez enpresaburu ez profesional gisa jarduten ez duten merkataritza sozietateak erakunde nagusi izan daitezke, aurreko baldintza guztiak betez gero.

**Hiru.** Hauxe izango da mendeko erakundea: erakunde nagusikoa barik beste enpresari edo profesional batek osatuz, Zergaren aplikazio-lurraldean dagoena eta erakunde nagusiak aurreko ataleko b) eta c) letretan jasotako betekizunak betetzen dituen partaidetza duena. Zergaren aplikazio-lurraldean kokatutako establezimendu iraunkor batek ezin izango du, inolaz ere, mendeko erakunde bat osatu bere kabuz.

**Lau.** Aurreko Bi atalaren d) letran definitu den bezalako partaidetza eskuratzen zaien erakundeak erakunde talde baten integratuko dira, eta ondorioak partaidetza eskuratu eta hurrengo urte naturaletik aurrera izango ditu. Sortu berriak diren erakundeen kasuan, osatzen duen unean integratuko da, ahal badagokio, betiere taldeko partaide izateko behar diren gaineko betekizunak betetzen badira.

**Bost.** Erakunde taldetik kanpo geratuko dira mendeko izaera galtzen duten erakundeak, eta zirkunstantzia hori gertatzen deneko likidazio alditik izango ditu ondorioak.

**163 sexies artikulua.- (47) Erakunde taldearen araubide berezia aplikatzeko baldintzak.**

**Bat.** Erakunde taldearen araubide berezia aplikatuko da aurreko artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten erakundeek banan-banan hala erabakitzen dutenean, eta hori aplikatzeko aukeratzen dutenean. Aukera horrek hiru urteko eragingarritasuna izango du, betiere araubide berezia aplikatzeko eskatzen diren betekizunak betetzen badira; uko ez bada egiten, luzatu egin dela ulertuko da, eta hori Arau honen 163 nonies. Lau.1. artikuluan ezarritako eran egingo da. Uko horrek ere gutxienez hiru urteko eragingarritasuna izango du, eta modu berean egingo da. Edozein modutan ere, araubide bereziaren aplikazioa erakunde nagusiak aplikatzeko baldintzapean geratuko da.

**Bi.** Dagozkien erakundeen Administrazio Kontseiluek edo eginkizun bera duten organoek hartu beharko dituzte aurreko atalean aipatzen diren akordioak, araubide berezia aplikatuko den urte naturala hasi baino lehen.

**Hiru.** Aurrerantzean taldean integratuko diren erakundeek, araubide berezi hau aplikatzea erabakitzen badute, aurreko ataletan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, araubide hori aplikatuko den lehenengo urte naturala hasi baino lehen.

**Lau.** Kapitulu honetako Bat eta Bi ataletan aipatutako akordioak ez badira sasoiz eta eran hartzen, akordiorik ez duten erakundeei ezin izango zaie erakunde taldearen araubide berezia aplikatu; hala ere, taldeko gainerako erakundeei aplikatu ahal izango zaie.

**Bost.** Erakunde taldeek 163 octies artikuluko Bat eta Hiru ataletan xedatutakoa aplikatzeko erabakia hartu ahal izango dute; kasu horretan, Arau honetako 163 nonies.Lau.3. artikuluak xedatzen duena bete beharko da.

Aukera hori araubide berezia aplikatuko duten eta erakunde talde bereko partaide diren erakunde guztiei zabalduko zaie, eta artikulu honetako Bi atalak xedatutakoaren arabera hartu beharko da.

Arau honetako 163 octies.Bat artikuluak aipatzen dituen eragiketei dagokienez, aukera horretaz baliatuz gero uko egin ahal izango zaie Arau bereko 20.Bat artikuluan araututako exentzioei; hala ere, erakunde taldearen araubide berezia aplikatzen duten erakundeek egiten dituzten gainerako eragiketak salbuetsita geratu ahal izango dira, hala badagokie. Ahalmen horretaz baliatzeko, arauz zehaztutako betekizunak, mugak eta baldintzak beteko dira.

**163 septies artikulua.- (47) Erakunde taldearen araubide berezirako eskubidea galtzeko arrazoi erabakigarriak.**

**Bat.** Kapitulu honetan araututako araubide berezia aplikatzeari utziko zaio, hurrengo arrazoiak direla medio:

1. Zeharkako estimazioaren metodoa aplikatu behar dela erabakitzen duten zirkunstantzietatik edozein gertatzea, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Araua Orokorraren 52. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita.

2. Arau honetako 163 nonies.Lau.3. artikuluak aipatzen deun informazio-sistema egiteko eta kontserbatzeko betebeharra ez betetzea.

Kapitulu honetan araututako araubide berezia aipatutako arrazoiengatik ez aplikatzeak ez du eragotziko Arau honetako 163 nonies.Zazpi artikuluan aurreikusitako zehapenak ezartzea, hala badagokio.

**Bi.** Aurreko atalean ezarrita dagoen bezala, erakunde taldearen araubide berezia aplikatzeari utziz gero, eragina izango du zirkunstantzia horietako bat gertatu den likidazio aldian eta hurrengoetan; horrela, taldea osatzen duten erakunde guztiek Arau honetan ezarritako betebehar guztiak bete behar izango dituzte une horretatik aurrera.

**Hiru.** Edozein likidazio aldiren amaieran, taldeko erakunderen bat konkurtso edo likidazio prozesuan balego, taldearen araubide berezitik kanpo geratuko litzateke une horretatik aurrera. Aurrekoa gorabehera, jarritako betekizunak betetzen dituzten gainerako erakundeei araubide berezia aplikatzen jarraituko zaie.

**163 octies artikulua.- (47) Erakunde taldearen araubide bereziaren edukia.**

**Bat.** Arau honetako 163 sexies.Bost artikuluan xedatutako aukeraz baliatuz gero, Zergaren aplikazio-lurraldean eta Kapitulu honetan araututako araubide berezia aplikatzen duten talde bereko erakundeen artean egindako ondasun emateen eta zerbitzu egiteen zerga oinarria honela osatuko da: eragiketak egiterakoan zuzenean edo zeharka, guztiz edo partzialki, erabilitako ondasun eta zerbitzuen kostua, eta Zerga jasanarazitakoak edo ordaindutakoak. Erabilitako ondasunak inbertsio-ondasunak direnean, horien kostuaren inputazioa ondasun horiei dagozkien kuotak erregulatzeko aldian burutu beharko da (Arau honetako 107. artikuluaren Bat eta Hiru atalak).

Hala ere, Arau honetako 101 a 119 eta 121. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, eragiketa horien balorazioa Arau honetako 78 eta 79. artikuluen arabera egingo da.

**Bi.** Talde bereko partaide ez diren erakundeekin egiten dituen eragiketetan, taldeko erakunde bakoitzak Zergaren arau orokorrekin bat etorrita jardungo du, eta, ondorio horretarako, taldeko araubideak ez du inolako eraginik izango.

**Hiru.** (74) Arau honetako 163.sexies.bost artikuluan arautzen den aukeraz baliatzen denean, artikulu honetako lehenengo idatz zatian aipatzen diren eragiketek jarduera sektore bereizia osatuko dute, eta eragiketa horiek egiteko zuzen edo zeharka eta osorik edo partez erabilitako ondasunak eta zerbitzuak sektore horri lotutzat joko dira, haiengatik benetan jasan eta ordaindu bada zerga.

Enpresaburuek eta profesionalek osorik kendu ahal izango dituzte eragiketa horiek egiteko zuzen edo zeharka eta osorik edo partez erabilitako ondasun eta zerbitzuen eskuraketak direla eta jasan edo ordaindutako kuotak, baldin eta arau honetako 94. artikuluaren arabera kenketarako eskubidea sortzen duten eragiketak egiteko erabiltzen badituzte ondasun eta zerbitzu horiek. Kenkaria aplikatzeko kontuan hartuko da zertarako erabiliko diren ondasunak eta zerbitzuak; dena den, erabilera aldatuz gero, kenkaria zuzendu ahal izango da.

**Lau.** Kuota kengarrien zenbatekoa, erakunde taldearen partaide diren enpresari edo profesional bakoitzarentzat, Arau honetako VIII. Tituluko I. Kapituluan eta aurreko paragrafoko arau berezietan xedatutakoa aplikatuta ateratzen dena izango da. Erakunde taldearen araubide berezia aplikatzen duten enpresari edo profesionalek gauzatuko dituzte banan-banan dedukzio horiek.

Kuota kengarrien zenbatekoa zehaztuta, enpresari edo profesional bakoitzarentzat, eurek baliatuko dute kenkari-eskubidea, banan-banan, aipatutako Kapitulu eta Tituluetan xedatutakoaren arabera.

Hala ere, enpresari edo profesional batek bere aitorpen indibidualetako batetik ateratzen den konpentsatu beharreko saldoa erakunde taldearen likidazio agregatu batean sartzen duenean, ezin izango da zenbateko horren konpentsazioa egin geroagoko aldi bati dagokion ezein aitorpen-likidazio indibidualetan, berdin izanik, erakunde taldearen araubide berezia gerora aplika daitekeen ala ez.

**Bost.** Erakunde taldearen partaide den erakundeetako batek egindako eragiketei, Arau honetan araututako gainerako araubide bereziak aplikagarriak bazaizkie, eragiketok araubide horien arabera dagozkien kenkari-araubideari jarraituko diote.

**163 nonies artikulua.- (47) Betebehar espezifikoak erakunde taldearen araubide berezian.**

**Bat.** Erakunde taldearen araubide berezia aplikatuko duten erakundeek Kapitulu honetan ezarritako zerga-betebeharrak izango dituzte.

**Bi.** Erakunde nagusiak erakunde taldearen ordezkaritza izango du Zerga Administrazioan. Horri dagokionez, erakunde nagusiak erakunde taldearen araubide berezitik datozen zerga-betebehar material eta formal espezifikoak bete beharko ditu.

**Hiru.** Erakunde nagusiak zein mendeko erakunde bakoitzak Arau honetako 164. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, salbuespen izanik zerga-zorra ordaintzea zein konpentsazioa edo itzulketa eskatzea; kasu horretan, hurrengo ataleko 2. betebeharrean xedatutakoaren arabera jardungo da.

**Lau.** (53) Erakunde nagusiak berezko betebeharrak ez ezik ondokoak ere bete behar ditu, arauz ezartzen diren baldintzei, betekizunei eta prozedurari lotuta.

1. Zerga administrazioari informazio hau ematea:

a) Eskatutako betekizunak betetzen direla, beharrezko akordioak egin direla eta arau honetako 163 quinquies eta sexies artikuluetan aipatutako araubide berezia aplikatzea hautatu dela. Informazioa araubide berezia aplikatuko den egutegiko urtearen aurreko abenduan aurkeztu behar da.

b) Araubide berezia aplikatuko duten taldeko erakundeen zerrenda; beharrezkoa izanez gero, aurreko urteko osaeran aldaketaren bat eragin duten erakundeak identifikatu behar dira. Egutegiko urte bateko informazioa aurreko urteko abenduan jakinarazi behar da.

c) Araubide bereziari uko egin zaiola; honen berri ondorioak sortuko dituen egutegiko urtearen aurreko abenduan eman behar da, bai araubide berezia aplikatzen duten erakunde guztiek egiten badie uko, bai erakunde bakar batek egiten badio.

d) Arau honetako 163 sexies.Bost artikuluan ezarritakoa hautatu dela; honen berri ondorioak sortuko dituen egutegiko urtearen aurreko abenduan eman behar da.

2. Erakunde taldearen aldizkako autolikidazio agregatuak aurkeztea; hala denean, zerga zorra sartu behar da edo bidezko konpentsazioa edo itzulketa eskatu. Autolikidazio agregatuetan erakunde taldeen araubide berezia aplikatzen duten erakundeen banako autolikidazio indibidualen emaitzak sartu behar dira.

Erakunde taldeen araubide berezia aplikatzen duten erakunde guztien aldizkako banako autolikidazioak aurkezten direnean aurkeztu behar dira erakunde taldearen aldizkako autolikidazio agregatuak.

Erakunde taldeen araubide berezia aplikatzen duten erakundeen likidazioaldia egutegiko hila izango da, eragiketen bolumena gorabehera.

Likidazioaldi batean erakunde taldeen araubide berezia aplikatzen duten erakundeei itzuli beharreko saldoen guztirako zenbatekoa likidazioaldi horretan erakunde taldeen araubide berezia aplikatzen duten gainerako erakundeek sarrera gisa jaso beharreko saldoen zenbatekoa baino gehiago bada, gaindikina itzultzeko eska daiteke, baina ezinbestekoa da gehiegizko kopurua sortu duten banako autolikidazioak aurkeztu direnetik lau urte pasatu gabe izatea. Itzulketa arau honetako 115. artikuluko hirugarren idatz zatian xedatutakoarekin bat etorriz egingo da. Hori egiten bada, itzuli beharreko saldoak ez dira konpentsatuko ondoko autolikidazio agregatuetan, itzulketa gauzatu arte igarotzen den denbora gorabehera.

Erakunde taldeen araubide berezia aplikatzeari uzten bazaio eta taldeko erakundeei itzuli edo konpentsatu beharreko kopuruak geratzen badira, kopuruok araubide berezia aplikatzen den egutegiko azken urteko eragiketen bolumenaren proportzioan egotziko zaizkie erakundeei, foru arau honetako 121. artikuluan xedatutakoa aplikatuta.

3. Informazio sistema analitikoa edukitzea; sistemaren oinarriak arau honetako 163 octies.Bat artikuluan aipatutako eragiketak egiteko zuzenean zein zeharka, guztiz edo partzialki, erabilitako ondasun eta zerbitzuen egozketarako zentzuzko irizpideak izan behar dira. Sistemak ondasunen eta zerbitzuen erabilera islatu behar du, taldetik kanpoko azken aplikaziora arte.

Informazio sistemak egozketarako erabilitako irizpideak justifikatzen dituen memoria jaso behar du. Irizpideak homogeneoak izan behar dira taldeko erakunde guztientzat eta araubide berezia aplikatzen den bitartean mantendu behar dira; salbuespena: zentzuzko arrazoiak direla medio alda daitezke, baina arrazoiak memorian bertan azaldu behar dira.

Informazio sistemak Zergaren preskripzioaldian iraun behar du.

**Bost.** Erakunde taldearen partaide den erakundeetako batek aitorpen-likidazio indibidual estenporaneo bat aurkezten badu, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 27. artikuluarekin bat etorrita bidezkoak diren errekargu eta interesak aplikatuko dira; hori eginez gero, horrek ez du inolako eraginik izango aurkeztutako aitorpen-likidazio indibidualeko saldoa erakunde taldeko aitorpen-likidazio batean hasieran sartu izanak.

Erakunde taldeari dagokion aitorpen-likidazio agregatua garaiz kanpo aurkezten denean, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 27. artikuluak ezarritako errekarguak horren emaitzaren gain aplikatuko dira; erakunde nagusiak izango du errekargu horiek sartzeko ardura.

**Sei.** Erakunde taldearen araubide berezia aplikatuko duten erakundeek solidarioki erantzungo dute araubide berezi honetatik etorritako zerga-zorraren ordainketan.

**Zazpi.** (87) Laugarren apartatuko 3. betebeharrak aipatzen duen informazio sistema ez eramatea edo kontserbatzea erakunde nagusiaren tributu arloko arau hauste

larritzat hartuko da. Zehapena taldeko eragiketen bolumenaren ehuneko 2ko diruzko isun proportzionala izango da.

Laugarren apartatuko 3. betebeharrean aipatzen den informazio sisteman zehaztugabetasunak edo omisioak egitea erakunde nagusiaren zerga arloko arau hauste larritzat hartuko da. Zehapenaren zenbatekoa isun proportzionala izango da, informazio zehaztugabeak edo adierazi gabeak hirugarrenei erositako ondasun eta zerbitzuen zenbatekoaren ehuneko 10ekoa.

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako Zergei buruzkoak, bere 185. artikuluaren 3. apartatuan xedatutakoaren arabera, aurreko bi paragrafoetan aurreikusitako zehapenak bateragarriak izango dira foru arau horren 195., 197., 198. eta 199. artikuluak aplikatzearen ondorioz bidezkoak direnekin. Apartatu honetan ezarritako zehapenak ezartzeakeragotzi egingo du foru arau horren 195. eta 197. artikuluetan tipifikatutako arau hausteak larritzat edo oso larritzatkalifikatzea, laugarren apartatuko 3. betebeharrak aipatzen duen informazio sistema ez eramateagatik, behar ez bezala eramateagatik edo ez kontserbatzeagatik.

Erakunde nagusia subjektu arau hauslea izango da entitateen taldearen araubide bereziko betebehar espezifikoak ez betetzeagatik, zerga zorra sartzetik, konpentsazio eskaeratik edo entitateen taldeari dagokion deklarazio likidazio agregatutik eratorritako itzulketaren ondoriozko betebeharrak barne, eta deklarazio likidazio agregatuan sartzen diren mendeko entitateek kontsignatutako zenbatekoak eta kalifikazioak egiazkoak eta zehatzak izatearen erantzule izango da. Erakundeen taldearen araubide berezia aplikatzen duten gainerako erakundeek erantzukizun solidarioa izango dute zehapen horien ordainketaz.

Entitateen taldearen araubide berezia aplikatzen duten erakundeek beren zerga betebeharrak ez betetzearen ondoriozko arau hausteen erantzukizuna izango dute

**Zortzi.** Erakunde taldearen araubide berezia aplikatuko duten erakundeek betebeharrak ondo betetzen dituztela egiaztatzeko egingo diren jarduketak erakunde nagusiarekin egingo dira, bera baita taldearen ordezkaria. Era berean, jarduketak mendeko erakundeekin ere egingo dira, eta Zerga Administrazioari erantzun behar izango diote.

Erakunde taldeko edozein erakunderi egindako egiaztatze edo ikertze-jarduketak Zergaren preskripzio-epea etengo dute, taldeko erakunde guztiei dagokienez, erakunde nagusiak horren berri formalki duen une beretik.

Araubide berezi hau egiztatzetik etorritako aktak eta likidazioak erakunde nagusia ere hartuko dute.

Araubide hau aplikatzen denean, Arabako Zergei buruzko Foru arau Orokorraren 47. artikuluko 1. atalean jasotako konplexutan bereziko egoera dela ulertuko da.

## X. KAPITULUA (71)

## KUTXA IRIZPIDEAREN ARAUBIDE BEREZIA

### 163 decies artikulua.- (71) Aplikazio betebehar subjektiboak.

**Bat.** Zergaren subjektu pasiboek aplikatu ahal izango dute kutxa irizpidearen araubide berezia, baldin eta aurreko urtean 2.000.000 euroko eragiketa bolumena gainditzen ez badute.

**Bi.** Subjektu pasiboak aurreko urte naturalean hasi baditu jarduera enpresarialak edo profesionalak, urteko eragiketa bolumenaren zenbatekoa hartuko da kontuan.

**Hiru.** Subjektu pasiboak aurreko urte naturalean hasi ez baditu jarduera enpresarialak edo profesionalak, aribideko urtean aplikatu ahal izango du araubide berezi hau.

**Lau.** Aurreko paragrafoetan aipatutako subjektu pasiboak eragindako eragiketen bolumena zehazteko, eragiketak egindakotzat hartuko dira balio erantsiaren gaineko zerga ordaintzeko beharra sortzen denean, baldin eta kutxa irizpidearen araubide berezia aplikagarri izan ez badute eragiketa horiek.

**Bost.** Kutxa araubidetik kanpo gelditzen dira urte naturalean eta hartzaile beretik arauz zehazten den zenbatekoa baino gehiago eskudirutan kobratzen duten subjektu pasiboak.

### 163 undecies artikulua.- (71) Kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatzeko baldintzak.

Honako hauek aplikatu ahal izango dute kutxa irizpidearen araubide berezia: aurreko artikuluan zehaztutako betekizunak betetzen dituzten eta arauz zehaztutako eran aplikatzea hautatzen duten subjektu pasiboak. Uko egiten ez bazaio, hautua luzatu nahi dela esan nahiko du. Luzapen hori arauz zehaztutako baldintzetan egingo da. Ukoak, gutxienez, hiru urterako balioko du.

### 163 duodecies artikulua.- (71) Aplikazio betebehar objektiboak.

**Bat.** Honako hauek aplikatu ahal izango dute kutxa irizpidearen araubide berezia: 163.decies artikuluan adierazitako subjektu pasiboek, zerga aplikatzen den lurraldean egindako eragiketetan.

Subjektu pasiboak egindako eragiketa guztiei dagokie kutxa irizpidearen araubide berezia, artikulu honen hurrengo artikuluan zehaztutakoa gorabehera.

**Bi.** Kutxa irizpidearen araubide berezitik kanpo gelditzen dira hurrengo eragiketak:

a) Nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezi erraztura, baliokidetza errekargura eta inbertsiotarako urrera lotutakoak. Denak bide elektroniko eta erakundeko talde bidez eskainitako zerbitzuei aplikatzekoak.

b) Arau honetako 21., 22., 23., 24. eta 25. artikuluetan aipatzen diren ondasun emateak.

c) Batasun barruko ondasun erosketak.

d) Eragiketaren gai den enpresaburu edo profesionala dutenak zergaren subjektu pasibo, arau honen 84. artikuluaren 1. atalaren 2., 3. eta 4. puntuetan adierazitakoarekin bat etorriz.

e) Inportazioak eta inportazioek beretutako eragiketak.

f) Arau honen 9.1 eta 12. artikuluetan aipatutakoak.

**163 terdecies artikulua.- (71) (92) Kutxa irizpidearen araubide bereziaren edukia.**

**Bat.** Araubide berezi hau aplikagarri duten eragiketetan, zerga ordaintzeko beharra sortuko da benetan jaso beharreko zenbatekoak osorik edo zati batean kobratzean eta, kobratu ez bada, eragiketa egin den urtearen hurrengo urteko abenduaren 31n.

Horretarako, egiaztatu egingo da noiz kobratu den eragiketaren prezioa, osoa edo haren zati bat izan.

**Bi.** Araubide berezi hori aplikagarri diren eragiketetan, zerga jasanaraziko da dagokion faktura egin eta entregatzen denean, baina egindakotzat joko da eragiketaren sortzapenean, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera.

**Hiru.** Araubide berezi hau aplikagarri duten subjektu pasiboek arau honen VIII. tituluan xedatutako kenkariak egin ahal izango dituzte, ondoko berezitasunekin:

a) Araubide berezi honi lotutako subjektu pasiboek jasanarazitako kuoten kenkari eskubidea ordaintzeko beharra sortuko da benetan ordaindu beharreko zenbatekoak osorik edo zati batean ordaintzean eta, ordaindu ez bada, eragiketa egin den urtearen hurrengo urteko abenduaren 31n.

   Aurrekoa aplikatuko da zerga gaia noiz sortu den unea gorabehera.

   Horretarako, egiaztatu egingo da noiz ordaindu den eragiketaren prezioa, osoa edo haren zati bat izan.

b) Jasanarazitako kuoten kenkari eskubidea sortu den likidazio aldiari dagokion likidazio aitorpenean edo hurrengoetan baino ezin izango da egikaritu kenkari eskubidea, baldin eta eskubidea sortu zenetik lau urteko epea igaro ez bada.

c) Jasanarazitako kuoten kenkari eskubidea iraungi egingo da titularrak ez duenean egikaritu aurreko letran jasotako epean.

**Lau.** Arauz zehaztuko dira araubide berezi hau aplikatzen duten subjektu pasiboen betebehar formalak.

**163 quaterdecies artikulua.- (71) Kutxa irizpidearen araubide bereziari uko egiteak edo hura baztertzeak dituen ondorioak.**

Kutxa irizpidearen araubide bereziari uko egiteak edo hura baztertzeak ekarriko dute aurreko artikuluan adierazitako terminoetan indarraldian egindako eragiketak direla-eta hartan araututakoak mantentzea.

**163 quinquiesdecies artikulua.- (71) Kutxa irizpidearen araubide bereziak eragindako eragiketak.**

**Bat.** Kutxa irizpidearen araubide bereziari ez lotutako subjektu pasiboen kenkari eskubideen sorrera, baldin eta haietan sartutako eragiketen hartzaile badira; sorrera, eragiketa horiek jasanarazitako kuotak direla eta, haien prezio osoa edo zati bat ordaintzeko unean sortuko da, benetan ordaindutako zenbatekoengatik, eta, ordaindu ez bada, eragiketa egin den urtearen hurrengo urteko abenduaren 31n.

Aurrekoa aplikatuko da zerga gaia noiz sortu den unea gorabehera.

Horretarako, egiaztatu egingo da noiz ordaindu den eragiketaren prezioa, osoa edo haren zati bat izan.

Arauz zehaztuko dira kutxa irizpidearen araubide bereziak eragindako eragiketen hartzaileen subjektu pasiboen betebehar formalak.

**Bi.** Arau honen 80.4 artikuluan adierazitako zerga oinarriaren aldaketak, kutxa irizpidearen araubide bereziari ez lotutako subjektu pasiboek eragindakoak, subjektu pasibo zordunak jasanarazitako kuoten kenkari eskubidearen sorrera zehaztuko du, baldin eta subjektu pasibo hori aldatutako eragiketei dagokien araubide berezi horri lotuta badago eta kenkaria aplikatzeke badago zerga oinarriaren aipatutako aldaketa egiten den unean.

**163 sexiesdecies artikulua.- (71) Konkurtsoaren adierazpen autoaren ondorioak.**

Ondokoak zehaztuko ditu kutxa irizpidearen araubide bereziari lotutako subjektu pasiboaren edo eragiketen hartzaile den subjektu pasiboaren konkurtso adierazpenak, konkurtsoaren adierazpen autoaren egunean:

a) Egun horretan sortzeke dauden kutxa irizpidearen araubide bereziari lotutako subjektu pasiboak jasanarazitako kuoten sortzapena;

b) Subjektu pasiboek jasanarazitako kuoten kenkari eskubidearen sorrera, subjektu pasiboa hartzaile izan den eragiketetan, baldin eta ordaintzeke dauden eragiketei kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatu bazaie eta, egun horretan, 163.terdecies.hiru.a) artikuluan zehaztutako epea igaro ez bada;

c) Kutxa irizpidearen araubide bereziari lotutako konkurtsopeko subjektu pasiboek jasanarazitako kuoten kenkari eskubidearen sorrera, subjektu pasiboa hartzaile izan den eragiketetan, baldin eta ordaintzeke dauden eragiketei kutxa irizpidearen

araubide berezia aplikatzerik ez badago eta, egun horretan, 163.terdecies.hiru.a) artikuluan zehaztutako epea igaro ez bada.

Konkurtsopeko subjektu pasiboak sortutako kuoten aitorpena egingo du eta arauz xedatutako aitorpen-likidazioan aurreko paragrafoetan adierazitako jasanarazitako kuoten kenkaria egikaritu, konkurtso adierazpenaren aurreko zerga gaiei dagozkienak. Era berean, subjektu pasiboak aitortuko ditu aitorpen-likidazio horretan egun horretan kentzeke dauden gainerako jasanarazitako kuotak.

## XI. KAPITULUA (74) (86)

## URRUNEKO SALMENTEN ETA BATASUNAREN BARRUKO ONDASUN EMATE ETA ZERBITZUGINTZABATZUEN ARAUBIDE BEREZIAK.

### LEHEN ATALA (74)

### XEDAPEN OROKORRAK

**163 septiesdecies artikulua.- (86) Definizioak eta kanpoan uzteko arrazoiak.**

**Bat.** Kapitulu honetan xedatzen dena betetzeko honako definizio hauek hartu behar dira kontuan:

a) "Araubide berezien aldizkako autolikidazioak": Batasuneko kontsumo estatu bakoitzean zerga dela eta zenbat ordaindu behar den jakiteko behar den informazioa biltzen duten autolikidazioak.

b) "Batasuneko kontsumo estatua": araubide berezi bakoitzeanezartzen dena.

c) "Batasuneko identifikazio estatua": araubide berezi bakoitzeanezartzen dena.

**Bi.** Enpresaburuak eta profesionalak araubide berezi hauetatik kanpo geratuko dira honako inguruabarretako bat gertatuz gero:

a) Araubide berezietako batean dauden eragiketei utzi zaielako adierazpena aurkeztea.

b) Araubide berezietako batean dagoen enpresaburu edo profesionalaren eragiketa amaitu dela pentsarazten duen zerbait gertatzea.

c) Araubide berezi hauetako bati heltzeko behar diren betekizunak ez betetzea.

d) Behin eta berriz ez betetzea araubide berezien araudiak ezartzen dituen betebeharrak.

e) Kapitulu honen 4. atalean ezartzen den araubide bereziari heldutako enpresaburuek eta profesionalek bitartekari baten bidez jarduten badute, araubidetik kanpo gelditzeko arrazoia izango da Zerga Administrazioari jakinaraztea bitartekariak ordezkaritzautzi duela.

Araubidetik kanpo uzteko erabakia Batasuneko identifikazio estatuak hartu behar du.

**Hiru.** Bitartekaria kapitulu honen 4. atalean ezartzen den araubide berezitik kanpo uzteko arrazoia honako hauetako bat gertatzea:

a) Egutegiko bi hiruhilekotan bitartekari lanak ez egitea araubide bereziari heldutako enpresaburu edo profesional batentzat.

b) Bitartekari gisa aritzeko ezarritako baldintzak ez betetzea.

c) Araubide bereziaren arautegian ezarritako betebeharrak behin eta berriro ez betetzea.

**Lau.** Aurreko apartatuetan ezartzen dena gorabehera, enpresaburuek edo profesionalek edo haien bitartekariek beren borondatez hartu ahal izango dute araubide berezi hauetan.

**Bost.** Kapitulu honetan xedatzen dena garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapenak erregelamendu bidez ezarriko dira.

## BIGARREN ATALA (74) (86)

## BATASUNAREN KANPOKO ARAUBIDEA. EGOITZA BATASUNEAN EZ DUTEN ENPRESABURUEK ETA PROFESIONALEK EZ ENPRESABURU EZ PROFESIONAL EZ DIREN HARTZAILEEI, HALA DIHARDUTENEI, EGITEN DIZKIETEN ZERBITZUEI APLIKATUKO ZAIEN ARAUBIDE BEREZIA

### 163 octiesdecies artikulua.- (74) (86) Aplikazio eremua.

**Bat.** Egoitza Batasunean ez duten enpresaburuek edo profesionalek zerbitzuak egiten badizkiete ez enpresaburu ez profesional ez diren pertsonei, egoitza edo ohiko etxebizitza Batasunean dutenei, atal honetan ezartzen den araubide bereziari heldu ahal diote.

Araubide berezi hori arau honetan xedatutakoaren arabera edo Batasuneko kide diren beste estatutu batzuetan indarrean dauden arlo bereko legerietan xedatutakoaren arabera Batasunean egintzat jo behar diren zerbitzugintza guztiei aplikatuko zaie.

**Bi.** Atal honetan xedatzen dena betetzeko ondoko definizio hauek hartu behar dira kontuan:

a) "EBn ezarrita ez dagoen enpresaburua edo profesionala": jarduera ekonomikoaren egoitza Batasunetik kanpo daukan enpresaburua edo profesionala, Batasunaren barruan establezimendu iraunkorrik ez daukana.

b) "Batasuneko identifikazio estatua": EBn ezarrita ez dauden enpresaburuek eta profesionalek EBko lurraldean enpresaburu edo profesional gisa egingo duten jardueraren hasierari buruzko adierazpena egiteko hautatutako Batasuneko estatua.

c) "Batasuneko kontsumo estatua": arau honetan edo Batasuneko beste estatu baten xedapen baliokidean ezarritakoaren arabera zerbitzua egin den Batasuneko estatua.

**163 noniesdecies artikulua. (86) Betebehar formalak.**

**Bat.** Baldin eta EBn ezarrita ez dagoen enpresaburu edo profesional batek Espainiako Erresuma hautatzen badu identifikazioko estatu kide gisa, honako hauek bete behar ditu:

a) Arau honetako 164. Bat.2 artikuluan aipatzen den identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar du.

b) Araubide berezian dauden eragiketak noiz hasten, aldatzen edo amaitzen diren adierazi behar du. Adierazpena baliabide elektronikoen bitartez aurkeztu behar da.

EBn ezarrita ez dauden enpresaburuek eta profesionalek zergapeko jarduera bati ekingo diotela jakinarazteko aurkeztu beharreko adierazpenean identifikazio datu hauek eman behar dituzte: izen-abizenak; posta helbidea eta helbide elektronikoa; eragiketak egiteko interneteko gunerik erabiliko badu, horien helbideak; jarduerarako egoitza duen hirugarren lurraldeko zerga administrazioaren aurrean identifikatzeko zenbakia; jarduera ekonomikoaren egoitza Batasunean ez dagoela eta bertan establezimendu iraunkorrik ez daukala dioen adierazpena. Halaber, datu horietan ezer aldatuz gero, Batasunean ezarrita ez dauden enpresaburuek eta profesionalek horren berri eman behar dute.

Kanariar uharteetan, Ceutan edo Melillan establezimendua daukaten enpresaburuek eta profesionalek ondoko datu hauek eman beharko dituzte zergapeko jarduera bati ekingo diotela jakinarazten dutenean: izen-abizenak, posta helbidea, helbide elektronikoa, jarduerarako erabiliko dituen interneteko guneen helbideak eta Espainiako Zerga Administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia.

Araubide honen ondorioetarako, Zerga Administrazioak banakako zenbaki baten bidez identifikatuko ditu Europar Batasunean ezarrita ez dauden enpresaburuak eta profesionalak.

Zerga Administrazioak posta elektronikoaren bidez jakinaraziko dio Batasunean ezarrita ez dagoen enpresaburu eta profesional bakoitzari esleitutako identifikazio zenbakia.

c) Balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazio bat aurkeztu behar du egutegiko hiruhileko bakoitzeko, baliabide elektronikoez baliatuz, araubideko zerbitzurik egin duen edo ez kontuan eduki gabe. Hil bateko autolikidazioa hurrengo hilean aurkeztu behar da.

Autolikidazioan, Zerga Administrazioak aurreko a) letran ezartzen denaren arabera jakinarazitako identifikazio zenbakiaz gainera honako datu hauek ere agertu behar dira, zerga sortu den Batasuneko kontsumo estatu bakoitzeko banakatuta: aitorpenaren aldian araubidearen barruan egindako zerbitzuen guztirako balioa (eragiketa kargatzen duen balio erantsiaren gaineko zerga zenbatu gabe); Batasuneko estatu bakoitzeko guztirako zerga (karga tasen arabera banakatuta); aurreko guztien batura, hots, Espainian sartu beharreko kopurua.

Baldin eta eragiketen kontraprestazioaren zenbatekoa euroa ez beste moneta batean finkatu bada, eurotara bihurtu behar da autolikidazioaren aldiko azken egunean indarrean egon den truke tasa balioduna aplikatuz. Trukerako Europako Banku Zentralak egun horretan argitaratutako truke tasak aplikatuko dira, edo hurrengo egunekoak, egun horretan bertan argitaratu ez baditu.

Aurkeztutako autolikidazio bateko kopururen bat aldatu behar izanez gero, lehenengo autolikidazioa aurkeztu behar izan den egunetik hiru urte pasatu baino lehen egin behar da. Aldaketa aldizkako autolikidazio batean egin behar da erregelamenduz ezartzen denarekin bat etorriz.

d) Autolikidazio bakoitzari dagokion zenbatekoa sartu behar du. Dirua sartzean autolikidazioaren erreferentziazehatza agertu behar da. Zenbatekoa eurotan sartu behar da Zerga Administrazioak hautatzen duen banku kontuan, autolikidazioa aurkezteko epealdiaren barruan.

e) Araubide berezian egiten diren eragiketen erregistroa eduki behar du. Erregistroa zehatza izan behar da, hain zuzen ere Batasuneko kontsumo estatuko zerga administrazioak aurreko c) letran aipatzen den autolikidazioa zuzen dagoen egiaztatzeko behar bezain zehatza.

Erregistro hori Batasuneko identifikazio estatuaren zein kontsumo estatuaren eskura jarri behar da, Kontseiluaren 2010eko urriaren 7ko 904/2010 (EB) Erregelamenduaren 47 decies artikuluarekin bat etorriz (administrazio lankidetzari eta iruzurraren aurkako borrokari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zergaren eremuan).

EBn ezarrita ez dauden enpresaburu edo profesionalek hamar urtean gorde behar dute erregistroa eragiketa egiten den urtetik aurrera.

f) Faktura egin behar du, erregelamenduz ezartzen denarekin bat etorriz, eta bidali egin behar du.

**Bi.** Baldin eta egoitza Batasunean ez daukan enpresaburu edo profesional batek Espainia ez Batasuneko beste estatu bat hautatzen badu araubide berezi honen hasierako aitorpena aurkezteko, zergaren aplikazio lurraldean egintzat jo behar diren eragiketei dagokienez zergaren kargarengatik ordaindu beharreko kopurua aurreko

apartatuan aipatutako autolikidazioa aurkezten denean sartu behar du Batasuneko identifikazio estatuan.

Gainera, egoitza Batasunean ez daukaten enpresaburuek eta profesionalek aurreko lehenengo apartatuan ezartzen diren gainerako betebeharrak bete behar dituzte Batasuneko identifikazio estatuan, batez ere apartatu horren e) letrakoak.

**163 vicies artikulua. (86) Jasandako kuotak kentzeko eskubidea.**

**Bat.** Egoitza Batasunean ez daukan enpresaburu edo profesional batek araubide berezi hau hautatzen badu, arau honetako 163.noniesdecies. Bat.c) artikuluko likidazioan ezin izango du kenkaririk aplikatu araubide honetan aipatzen diren zerbitzuak egiteko asmoarekin eskuratu edo inportatzen dituen ondasunek eta zerbitzuek aplikatu beharreko erregelen arabera jasaten dituzten kuotak direla eta.

Aurrekoa gorabehera, araubide berezi honi heldutako enpresaburu eta profesional horiek araubide berezi honetan egindako eragiketetatik Batasuneko kontsumo estatuan egintzatjotzen diren zerbitzuak egiteko diren ondasunak eta zerbitzuakeskuratzean edo inportatzean jasandako balio erantsiaren gaineko zergaren kuotak itzultzeko eskubidea edukiko dute, Batasuneko kontsumo estatuko arautegian ezarritako prozedurarekin bat etorriz (Kontseiluaren 1986ko azaroaren 17ko 86/560/CEE Zuzentarauak xedatzen duena garatzeko, 2006ko azaroaren 28ko 2006/112/CE Zuzentarauak 368. artikuluan ezartzen duenaren arabera). Establezimendua Kanariar uharteetan, Ceutan edo Melillan duten enpresaburuek eta profesionalek arau honetako 117 bis artikuluan ezartzen den prozedurari jarraituko diote jasandako kuotak (zergaren aplikazio lurraldekoak ez beste guztiak) itzultzekoeskatzeko.

**Bi.** Batasuneko kontsumo estatua Espainiako Erresuma izanez gero, arau honetako 119. Bi.2 artikuluan xedatzen dena gorabehera, Batasunean ezarrita ez dauden enpresaburuek eta profesionalek araubide berezi hau hautatzen badute, eskubidea edukiko dute balio erantsiaren gaineko zergaren kargagatik araubide berezi honetan aipatzen diren zerbitzuak egiteko asmoarekin egiten dituzten ondasun eta zerbitzuen eskuraketek eta inportazioek, zergaren aplikazio lurraldean egintzatjotzen direnek, jasaten dituzten kuotak itzultzeko. Eskubide hori erabiltzeko prozedura arau honetako 119 bis artikuluan ezartzen da.

Horretarako ez da beharrezkoa izango zergaren aplikazio lurraldean establezimendua daukan enpresaburu eta profesionalen aldeko elkarrekikotasuna onartuta egotea. Artikulu honetan xedatzen denari heltzen dioten enpresaburuek eta profesionalek ez dute edukiko zertan izendatu ordezkaririk honen ondorioetarako Zerga Administrazioarekin jarduteko.

Kanariar uharteetan, Ceutan edo Melillan establezimendua daukaten enpresaburuek eta profesionalek arau honetako 119. artikuluan ezartzen den prozedurari jarraituko diote balio erantsiaren gaineko zergaren kuotak, idatz zati honetan aipatzen direnak, itzultzeko eskubidea baliatzeko.

**Hiru.** Araubide berezi honi heldutako enpresaburuek eta profesionalek zergaren aplikazio lurraldean araubide bereziko eragiketez gainera egiten dituzten eragiketa

batzuek lurralde horretan erregistratu eta autolikidazioak egin beharra eragiten badute, honako kuota hauek kendu beharko dituzte zergaren aplikazio lurraldean aurkeztu beharreko autolikidazioen bidez: araubide berezi honetako zerbitzuak egiteko erabiltzeko ondasunen edo zerbitzuen eskuraketak edo inportazioek, lurralde horretan egintzatjotzen direnek, jasandako kuotak.

## HIRUGARREN ATALA (74) (86)

## BATASUNAREN ARAUBIDEA. HONAKO HAUEI APLIKATUKO ZAIEN ARAUBIDE BEREZIA: EGOITZA BATASUNEAN (KONTSUMO ESTATUA EZ BESTE BATEAN) DUTEN ENPRESABURUEK ETA PROFESIONALEK EZ ENPRESABURU EZ PROFESIONAL EZ DIREN HARTZAILEEI, HALA DIHARDUTENEI, EGITEN DIZKIETEN ZERBITZUEI, BATASUNAREN BARRUKO URRUNEKO ONDASUN SALMENTEI ETA ARAU HONETAKO 8 BIS.B) ARTIKULUAN EZARTZEN DENAREKIN BAT ETORRIZ EGITEN DIREN BATASUNAREN BARRUKO ONDASUN EMATEEI

### 163 unvicies artikulua.- (86) Aplikazio eremua.

**Bat.** Atal honetan ezartzen den araubide bereziari heldu ahal diote egoitza Batasunean (kontsumo estatua ez beste batean) duten enpresaburuek eta profesionalek, baldin eta kontsumo estatuan egintzat jotzen diren zerbitzuak egiten badizkiete ez enpresaburu ez profesional ez diren pertsonei, edo Batasunaren barruko urruneko ondasun salmentak edo Batasunaren barruko ondasun emateak egiten badituzte arau honetako 8 bis.b) artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz.

Araubide berezia heltzen dioten enpresaburuek eta profesionalek egiten dituzten zerbitzugintza guztiei aplikatuko zaie, baldin eta, arau honetan edo Batasuneko beste estatu batzuen legerietako arau baliokidean ezartzen denaren arabera, zerbitzuak Batasunean egintzat jotzen badira eta araubide bereziari heldutako enpresaburuak edo profesionalak Batasunaren barruan badauka bere jarduera ekonomikoaren egoitza edo establezimendu iraunkorra. Horrez gainera, araubide berezia berari heldutako enpresaburuek eta profesionalek egiten dituzten ondasun emateetatik araubide berezia aplikatu ahal zaienei ere aplikatuko zaie.

**Bi.** Atal honetan xedatzen dena betetzeko honako definizio hauek hartu behar dira kontuan:

a) "Batasuneko kontsumo estatuan establezimendurik ez daukan enpresaburua edo profesionala": jarduera ekonomikoaren egoitza edo establezimendu iraunkor bat EBko lurraldean ezarrita daukan enpresaburua edo profesionala, kontsumo estatuan ez egoitzarik ez establezimendu iraunkorrik ez daukana;

b) "Batasuneko identifikazio estatua": enpresaburuak edo profesionalak jarduera ekonomikoaren egoitza ezarrita daukan estatua. Enpresaburuak edo profesionalak ez badauka Batasunean bere jarduera ekonomikoaren egoitza, kontuan hartuko da zer

estatu kidetan daukan establezimendu iraunkorra; establezimendu iraunkor bat baino gehiago edukiz gero Batasuneko hainbat estatutan, berak hautatzen duena hartuko da kontuan.

Enpresaburuak edo profesionalak ez badauka Batasunean bere jarduera ekonomikoaren egoitza, ez eta establezimendu iraunkorrik ere, Batasuneko identifikazio estatua ondasunaren bidalketa edo garraioa hasten den estatua izango da. Bidalketa edo garraio Batasuneko estatu bat baino gehiagotik hasten bada, enpresaburuak edo profesionalak bat hautatu beharko du.

Batasuneko estatu baten hautapenak enpresaburuak edo profesionalak ezeztatu arte iraungo du. Hautapenak egutegiko hiru urte iraungo du gutxienez, hautapena egiten den egutegiko urtea barne.

c) "Batasuneko kontsumo estatua":

a') Zerbitzugintzetan, arau honetan edo Batasuneko beste estatu baten xedapen baliokidean ezarritakoaren arabera zerbitzua egin den Batasuneko estatua.

b') Batasunaren barruko urruneko ondasun salmentetan, bezeroak bidalitako edo garraiatutako ondasuna jasotzen duen Batasuneko estatua.

c') Enpresaburu edo profesionalek arau honen 8 bis.b) artikuluan ezartzen denaren arabera egiten dituzten ondasun emateetan, ondasunaren bidalketa edo garraioa Batasuneko estatu berean hasten eta amaitzen bada, estatu hori.

**Hiru.** Atal honetan xedatzen dena betetzeko, "identifikazio estatua" Espainiako Erresuma izango da kasu hauetan:

a) Jarduera ekonomikoaren egoitza zergaren aplikazio lurraldean daukaten enpresaburu edo profesionalen kasuan eta, jarduera ekonomikoaren egoitza Europar Batasuneko lurraldean ez badaukate ere, zergaren aplikazio lurraldean establezimendu iraunkorren bat daukatenean.

b) Enpresaburuaren edo profesionalaren jarduera ekonomikoaren egoitza Europar Batasuneko lurraldean ez badago eta, zergaren aplikazio lurraldean eta Batasuneko beste estatu batean establezimendu iraunkor bat baino edukita, Espainia hautatzen badu identifikazio estatua izateko.

c) Enpresaburuaren edo profesionalaren jardueraren egoitza Batasunean ez badago eta ez badauka bertan establezimendu iraunkorrik eta, horrez gainera, ondasunaren bidalketa edo garraioa zergaren aplikazio lurraldearen barruan gertatzen bada edo, Batasuneko zenbait estatutan hasten bada, Espainia hautatu badu araubide berezi hau aplikatzeko.

**163 duovicies artikulua. (86) Betebehar formalak.**

**Bat.** Espainia bada Batasuneko identifikazio estatua, araubide berezi honetako eragiketaren bat egiten duten enpresaburuek eta profesionalek honako betebehar hauek edukiko dituzte:

a) Arau honetako 164. Bat.2 artikuluan aipatzen den identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar dute.

b) Araubide berezian dauden eragiketak noiz hasten, aldatzen edo amaitzen diren adierazi behar dute. Adierazpena baliabide elektronikoen bitartez aurkeztu behar da.

c) Balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazio bat aurkeztu behar dute egutegiko hiruhileko bakoitzeko, baliabide elektronikoez baliatuz, araubide bereziko eragiketarik egin duten edo ez kontuan eduki gabe. Hil bateko autolikidazioa hurrengo hilean aurkeztu behar da.

Autolikidazioan Zerga Administrazioak enpresaburuari edo profesionalari esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia (aurreko a) letran ezartzen dena) agertu behar da, eta horrez gainera honako datu hauek ere bai, zerga sortu den Batasuneko kontsumo estatu bakoitzeko banakatuta: autolikidazioaren aldian araubidearen barruan kargatutako eragiketen guztirako balioa (balio erantsiaren gaineko zerga zenbatu gabe); Batasuneko estatu bakoitzeko guztirako zerga (karga tasen arabera banakatuta); aurreko guztien batura, hots, Espainian sartu beharreko kopurua.

Ondasunak Espainia ez Batasuneko beste estatu batetik bidaltzen edo garraiatzen badira, autolikidazioan honako datuak ere agertu behar dira araubide hau aplikatzen zaien ondasun emate hauei buruz, bidalketa edo garraioa hasi den Batasuneko estatuaren arabera: dena delako aldian egindako eragiketen guztirako balioa, balio erantsiaren gaineko zerga zenbatu gabe; zergaren guztirako zenbatekoa, tasen arabera banakatuta; aurreko guztien batura:

a') Batasunaren barruko urruneko ondasun-salmentak, arau honetako 8 bis.b) artikuluan edo kasuan kasuko Batasuneko estatuko legeriako arau baliokidean ezartzen denaren arabera egindakoak ez beste guztiak.

b') Enpresaburuek eta profesionalek arau honetako 8 bis.b) artikuluan edo kasuan kasuko Batasuneko estatuko legeriako arau baliokidean ezartzen denaren arabera egindako Batasunaren barruko urruneko ondasun salmentak eta ondasun emateak, ondasunaren bidalketa edo garraioa Batasuneko estatu berean hasten eta amaitzen bada.

a') letran aipatzen diren ondasun emateei dagokienez, autolikidazioan honako bi zenbakietako bat ere agertu behar da: balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako banakako identifikazio zenbakia edo ondasuna bidali edo garraiatu diren Batasuneko estatu bakoitzak esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia.

b') letran aipatzen diren ondasun emateei dagokienez, autolikidazioan honako bi zenbakietako bat ere agertu behar da: balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako banakako identifikazio zenbakia edo ondasuna bidali edo garraiatu diren Batasuneko estatu bakoitzak esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia, edukiz gero.

c) letran aipatzen den informazioa Batasuneko kontsumo estatuen arabera banakatuta agertu behar da autolikidazioan.

Enpresaburu edo profesional batek establezimendu iraunkorren bat badauka Espainia ez Batasuneko beste estatu batzuetan eta haietatik egiten baditu araubide

berezi honetako zerbitzuak, autolikidazioetan establezimendu iraunkorra daukan Batasuneko estatu bakoitzean egindako zerbitzu guztien guztirako zenbatekoa zehaztu behar du, eta horrekin batera balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako banakako identifikazio zenbakia edo establezimendua dagoen estatuak esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia, eta kontsumo estatuaren arabera banakatuta.

Baldin eta eragiketen kontraprestazioaren zenbatekoa euroa ez beste moneta batean finkatu bada, eurotara bihurtu behar da autolikidazioaren aldiko azken egunean indarrean egon den truke tasa baliodun aplikatuz. Trukerako Europako Banku Zentralak egun horretan argitaratutako truke tasak aplikatuko dira, edo hurrengo egunekoak, egun horretan bertan argitaratu ez baditu.

Aurkeztutako autolikidazio bateko kopururen bat aldatu behar izanez gero, lehenengo autolikidazioa aurkeztu behar izan den egunetik hiru urte pasatu baino lehen egin behar da. Aldaketa aldizkako autolikidazio batean egin behar da erregelamenduz ezartzen denarekin bat etorriz.

d) Autolikidazio bakoitzari dagokion zenbatekoa sartu behar dute. Dirua sartzean autolikidazioaren erreferentziazehatza agertu behar da. Zenbatekoa eurotan sartu behar da Zerga Administrazioak hautatzen duen banku kontuan, autolikidazioa aurkezteko epealdiaren barruan.

e) Araubide berezian egiten diren eragiketen erregistroa eduki behar dute. Erregistroa zehatza izan behar da, hain zuzen ere Batasuneko kontsumo estatuko zerga administrazioak aurreko c) letran aipatzen den aitorpena zuzen dagoen egiaztatzeko behar bezain zehatza.

Erregistro hori Batasuneko identifikazio estatuaren zein kontsumo estatuaren eskura jarri behar da, Kontseiluaren 2010eko urriaren 7ko 904/2010 (EB) Erregelamenduaren 47 decies artikuluarekin bat etorriz (administrazio lankidetzari eta iruzurraren aurkako borrokari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zergaren eremuan).

Enpresaburuek eta profesionalek hamar urtean gorde behar dute erregistroa eragiketa egiten den urtetik aurrera.

f) Faktura egin behar dute, erregelamenduz ezartzen denarekin bat etorriz, eta bidali egin behar dute.

**Bi.** Espainiako Erresuma Batasuneko identifikazio estatutzathautatzen duten enpresaburuek eta profesionalek Espainian bakarrik aurkeztu beharko dituzte autolikidazioak eta, behar denean, bertan bakarrik ordaindu behar dute araubide berezi honen barruan kontsumo estatu guztietan egindako eragiketa guztiei dagokien zergaren zenbatekoa.

**163 tervicies artikulua. (86) (92) Jasandako kuotak kentzeko eskubidea.**

**Bat.** Enpresaburu edo profesional batek araubide berezi hau hautatzen badu, arau honetako 163.duovicies. Bat.c) artikuluko autolikidazioan ezin izango du kenkaririk aplikatu araubide honetan aipatzen diren eragiketak egiteko asmoarekin eskuratzen edo

inportatzen dituen ondasunek eta zerbitzuek aplikatu beharreko erregelen arabera jasaten dituzten kuotak direla eta.

Aurrekoa gorabehera, araubide berezi honi heldutako enpresaburuek eta profesionalek araubide berezi honetan egindako eragiketetatik Batasuneko kontsumo estatuan egintzatjotzen diren eragiketak egiteko diren ondasunak eta zerbitzuakeskuratzean edo inportatzean jasandako balio erantsiaren gaineko zergaren kuotak itzultzeko eskubidea edukiko dute, Batasuneko kontsumo estatuko arautegian ezarritako prozedurarekin bat etorriz (Kontseiluaren 1986ko azaroaren 17ko 86/560/CEE Zuzentarauak xedatzen duena garatzeko, 2006ko azaroaren 28ko 2006/112/CE Zuzentarauak 368. artikuluan ezartzen duenaren arabera, edo Kontseiluaren 2008ko otsailaren 12ko 2008/9CE Zuzentaraua, 2006ko azaroaren 28ko 2006/112/CE Zuzentarauaren 369 undecies artikuluak ezartzen duenaren arabera). Zergaren aplikazio lurraldean ezarrita dauden enpresaburuek eta profesionalek arau honetako 117 bis artikuluan ezartzen den prozedurari jarraituko diote jasandako kuotak (zergaren aplikazio lurraldekoak ez beste guztiak) itzultzekoeskatzeko.

**Bi.** Batasuneko kontsumo estatua Espainiako Erresuma izanez gero, arau honetako 119. Bi.2 artikuluan xedatzen dena gorabehera, araubide berezi honi heltzen dioten enpresaburuek eta profesionalek eskubidea edukiko dute balio erantsiaren gaineko zergaren kargagatik araubide berezi honetan aipatzen diren eragiketak egiteko asmoarekin egiten dituzten ondasun eta zerbitzuen eskuraketek eta inportazioek, zergaren aplikazio lurraldean egintzatjotzen direnek, jasaten dituzten kuotak itzultzeko.

Egoitza Batasuneko beste estatu batean duten enpresaburuek eta profesionalek arau honetako 119. artikuluan arautzen den prozedurarekin bat etorriz erabili behar dute eskubide hau.

Egoitza Batasunean ez duten enpresaburuek eta profesionalek arau honetako 119 bis artikuluan arautzen den prozedurarekin bat etorriz erabili behar dute eskubide hau.

Horretarako ez da beharrezkoa izango zergaren aplikazio lurraldean establezimendua daukan enpresaburu eta profesionalen aldeko elkarrekikotasuna onartuta egotea. Artikulu honetan xedatzen denari heltzen dioten enpresaburuek eta profesionalek ez dute edukiko zertan izendatu ordezkaririk honen ondorioetarako Zerga Administrazioarekin jarduteko.

Kanariar uharteetan, Ceutan edo Melillan establezimendua daukaten enpresaburuek eta profesionalek arau honetako 119. artikuluan ezartzen den prozedurari jarraituko diote balio erantsiaren gaineko zergaren kuotak, apartatu honetan aipatzen direnak, itzultzeko eskubidea baliatzeko.

Batasuneko identifikazio estatua Espainiako Erresuma bada, egoitza zergaren aplikazio lurraldean duten enpresaburuek eta profesionalek eskubidea edukiko dute araubide honi heldutako eragiketak egiteko erabilitako ondasunak eta zerbitzuakeskuratzean edo inportatzean jasandako balio erantsiaren gaineko zergaren kuotak kentzeko zergaren araubide orokorrarekin bat etorriz.

**Hiru.** Araubide berezi honi heldutako enpresaburuek eta profesionalek zergaren aplikazio lurraldean araubide bereziko eragiketez gainera egiten dituzten eragiketa batzuek lurralde horretan erregistratu eta autolikidazioak egin beharra eragiten badute,

honako kuota hauek kendu beharko dituzte zergaren aplikazio lurraldean aurkeztu beharreko autolikidazioen bidez: araubide berezi honetako eragiketak egiteko erabiltzeko ondasunen edo zerbitzuen eskuraketak edo inportazioek, lurralde horretan egintzatjotzen direnek, jasandako kuotak.

**163 quatervicies artikulua. (86) Egoitza zergaren aplikazio lurraldean duten enpresaburuek eta profesionalek bertan egindako zerbitzuak.**

Atal honetan ezartzen den araubide berezia ez zaie aplikatuko zergaren aplikazio lurraldean jarduera ekonomikoaren egoitza edo establezimendu iraunkorra duten enpresaburuek eta profesionalek lurralde horretan egiten dituzten zerbitzuei. Zerbitzugintza horiei zergaren araubide orokorra aplikatuko zaie.

## LAUGARREN ATALA (86)

## INPORTAZIOAREN ARAUBIDEA. HIRUGARREN HERRIALDE EDO LURRALDEETATIK INPORTATZEN DIREN ONDASUNEN URRUNEKO SALMENTEI APLIKATUKO ZAIEN ARAUBIDE BEREZIA

**163 quinvicies artikulua. (86) Aplikazio eremua.**

**Bat.** Atal honetan arautzen den araubide bereziari heldu diezaiokete hirugarren herrialde edo lurraldeetatik inportatutako ondasunak, balio intrinsekoa 150 eurotik gorakoa ez dutenak, zerga berezien kargapean daudenak ez besteak, urrunetik saltzen dituzten enpresaburuek eta profesionalek, baldin eta:

- egoitza Europar Batasunean badute;

- egoitza Batasunean eduki zein ez eduki, egoitza Batasunean daukan bitartekari baten bidez badihardute. Ezin da eduki bitartekari bat baino gehiago aldi berean; edo

- egoitza hirugarren herrialde batean badute, Europar Batasunak herrialde horrekin sinatutako elkarri laguntzeko akordioaren aplikazio esparrua Kontseiluaren 2010/24/UE Zuzentarauaren eta 904/2010 (EB) Erregelamenduaren aplikazio esparruaren antzekoa bada eta herrialde horretako ondasunak urrunetik saltzen badituzte.

Araubide berezi hau enpresaburuek eta profesionalek hirugarren herrialde edo lurraldeetatik inportatzen dituzten ondasunen urruneko salmenta guztiei aplikatuko zaie.

**Bi.** Atal honetan xedatzen dena betetzeko honako definizio hauek hartu behar dira kontuan:

a) "EBn ezarrita ez dagoen enpresaburua edo profesionala": jarduera ekonomikoaren egoitza Batasunetik kanpo daukan enpresaburua edo profesionala, Batasunaren barruan establezimendu iraunkorrik ez daukana.

b) "Bitartekaria": egoitza Batasunean daukan pertsona, hirugarren herrialde edo lurralde batetik inportatutako ondasunak urrunetik saltzen dituen enpresaburu edo profesional batek izendatzen duena beraren izenean eta beraren kontura bete ditzan araubide berezi honek dakartzan betebehar materialak eta formalak eta horren ondoriozko erlazio juridiko-tributarioen titularra dena.

Araubide berezi honetan bitartekari aritzekobaldintzak eta betekizunak erregelamendu bidez ezarriko dira.

c) "Batasuneko identifikazio estatua":

a') Enpresaburuaren edo profesionalaren egoitza ez badago Batasunean, hautatzen duen Batasuneko estatua.

b') Enpresaburuaren edo profesionalaren egoitza ez badago Batasunean baina bertan badauzka zenbait establezimendu iraunkor, establezimendu iraunkorra daukan estatuetatik zerga berezi honi heltzekohautatzen duena. Batasuneko estatuaren hautapena indarrean egongo da enpresaburuak edo profesionalak ezeztatu arte eta gutxienez hiru urte iraungo du: hautapena egiten den egutegiko urtea eta hurrengo biak.

c') Enpresaburuaren edo profesionalaren jarduera ekonomikoaren egoitza Batasuneko estatu batean badago edo hark dauzkan establezimendu iraunkor guztiak Batasuneko estatu berean badaude, estatu hori.

d') Bitartekariaren jarduera ekonomikoaren egoitza Batasuneko estatu batean badago, estatu hori.

e') Bitartekariaren egoitza ez badago Batasunean baina bertan badauzka zenbait establezimendu iraunkor, establezimendu iraunkorra daukan estatuetatik zerga berezi honi heltzekohautatzen duena. Batasuneko estatuaren hautapena indarrean egongo da enpresaburuak edo profesionalak ezeztatu arte eta gutxienez hiru urte iraungo du: hautapena egiten den egutegiko urtea eta hurrengo biak.

d) "Batasuneko kontsumo estatua": Bezeroarentzako ondasunaren bidalketa edo garraio heltzen den Batasuneko estatua.

**Hiru.** Atal honetan xedatzen dena betetzeko, "Batasuneko identifikazio estatua" Espainiako Erresuma izango da kasu hauetan:

a) Jarduera ekonomikoaren egoitza zergaren aplikazio lurraldean daukaten enpresaburu edo profesionalen edo bitartekarien kasuan eta, jarduera ekonomikoaren

egoitza Batasuneko lurraldean ez badaukate ere, zergaren aplikazio lurraldean establezimendu iraunkorren bat daukatenean.

b) Enpresaburuaren edo profesionalaren edo bitartekariaren jarduera ekonomikoaren egoitza Batasuneko lurraldean ez badago eta, zergaren aplikazio lurraldean eta Batasuneko beste estatu batean establezimendu iraunkor bat baino edukita, Espainia hautatzen badu identifikazio estatua izateko.

c) Enpresaburuaren edo profesionalaren jardueraren egoitza Batasunean ez badago eta ez badauka bertan establezimendu iraunkorrik eta, horrez gainera, Espainia hautatu badu araubide berezi hau aplikatzeko.

**163 sexvicies artikulua. (86) Sortzapena.**

Araubide berezi honetan egiten diren ondasun emateetan, zergaren sortzapena ondasuna ematen denean gertatuko da eta ematea bezeroak ordainketa onartzen duenean gertatuko da.

**163 septvicies artikulua. (86) Betebehar formalak.**

**Bat.** Batasuneko identifikazio estatua Espainia denean, araubide berezi honi heldutako enpresaburuek eta profesionalek eta beren kontura ari diren bitartekariek honako hauek bete behar dituzte:

a) Arau honetako 164. Bat.2 artikuluan aipatzen den identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar dute.

b) Araubide berezian dauden eragiketak noiz hasten, aldatzen edo amaitzen diren adierazi behar dute. Adierazpena baliabide elektronikoen bitartez aurkeztu behar da.

Araubide berezi honi heldutako enpresaburuek eta profesionalek, bitartekari baten bidez ari ez direnek, datu hauek eman beharko dituzte zergapeko jarduera bati ekingo diotela jakinarazten dutenean: izen-abizenak, posta helbidea, helbide elektronikoa, jarduerarako erabiliko dituen interneteko guneen helbideak eta balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako identifikazio zenbakia edo identifikazio fiskaleko zenbakia.

Bitartekariek datu hauek eman beharko dizkiote Zerga Administrazioari zergapeko jarduera bati ekingo diotela jakinarazten dutenean: izen-abizenak, posta helbidea, helbide elektronikoa, jarduerarako erabiliko dituen interneteko guneen helbideak eta balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako identifikazio zenbakia.

Gainera, bitartekariek honako datu hauek eman beharko dizkiote Zerga Administrazioari zergapeko jarduera bati ekingo diotela jakinarazten dutenean bitartekari lanak egiten dizkioten enpresaburu eta profesional bakoitzari buruz: izen-abizenak, posta helbidea, helbide elektronikoa, jarduerarako erabiliko dituen interneteko guneen helbideak eta balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako identifikazio zenbakia edo identifikazio fiskaleko zenbakia. Gainera, araubide berezi honen ondorioetarako Batasuneko identifikazio estatuak esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia ere eman beharko dute.

Araubide berezi honi heltzen dioten enpresaburuek eta profesionalek informazio horretan gertatzen diren aldaketa guztien berri eman beharko dute, eta beren bitartekariek ere bai.

Zerga Administrazioak identifikazio zenbaki bat emango die enpresaburu eta profesionalei araubide honen ondorioetarako. Bitartekari baten bidez jardunez gero, horrek ere identifikazio zenbakia edukiko du araubide honen ondorioetarako.

Identifikazio zenbaki horiek araubide berezi honetarako baino ez dira erabiliko eta nahitaez aurkeztu beharko dira arau honetako 66.4 artikuluan arautzen den salbuespena aplikatzeko.

Zerga Administrazioak baliabide elektronikoen bidez jakinaraziko die araubide berezi honi heldutako enpresaburuei eta profesionalei edo haien bitartekariei esleitu zaien identifikazio zenbakia.

c) Balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazio bat aurkeztu behar dute egutegiko hil bakoitzeko, baliabide elektronikoez baliatuz, araubide bereziko eragiketarik egin duten edo ez kontuan eduki gabe. Hil bateko autolikidazioa hurrengo hilean aurkeztu behar da.

Autolikidazioan Zerga Administrazioak araubide berezi honen ondorioetarako esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia agertu behar da, eta horrez gainera honako datu hauek ere bai, zerga sortu den Batasuneko kontsumo estatu bakoitzeko banakatuta: autolikidazioaren aldian araubidearen barruan kargatutako eragiketen guztirako balioa (balio erantsiaren gaineko zerga zenbatu gabe); Batasuneko estatu bakoitzeko guztirako zerga (karga tasen arabera banakatuta); aurreko guztien batura, hots, Espainian sartu beharreko kopurua.

Baldin eta eragiketen kontraprestazioaren zenbatekoa euroa ez beste moneta batean finkatu bada, eurotara bihurtu behar da autolikidazioaren aldiko azken egunean indarrean egon den truke tasa baliodun aplikatuz. Trukerako Europako Banku Zentralak egun horretan argitaratutako truke tasak aplikatuko dira, edo hurrengo egunekoak, egun horretan bertan argitaratu ez baditu.

Aurkeztutako autolikidazio bateko kopururen bat aldatu behar izanez gero, lehenengo autolikidazioa aurkeztu behar izan den egunetik hiru urte pasatu baino lehen egin behar da. Aldaketa aldizkako autolikidazio batean egin behar da erregelamenduz ezartzen denarekin bat etorriz.

d) Autolikidazio bakoitzari dagokion zenbatekoa sartu behar dute. Dirua sartzean autolikidazioaren erreferentziazehatza agertu behar da. Zenbatekoa eurotan sartu behar da Zerga Administrazioak hautatzen duen banku kontuan, autolikidazioa aurkezteko epealdiaren barruan.

e) Araubide berezian egiten diren eragiketen erregistroa eduki behar dute. Erregistroa zehatza izan behar da, hain zuzen ere Batasuneko kontsumo estatuko zerga

administrazioak aurreko c) letran aipatzen den autolikidazioa zuzen dagoen egiaztatzeko behar bezain zehatza.

Erregistro hori Batasuneko identifikazio estatuaren zein kontsumo estatuaren eskura jarri behar da, Kontseiluaren 2010eko urriaren 7ko 904/2010 (EB) Erregelamenduaren 47 decies artikuluarekin bat etorriz (administrazio lankidetzari eta iruzurraren aurkako borrokari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zergaren eremuan).

Enpresaburuek eta profesionalek hamar urtean gorde behar dute erregistroa eragiketa egiten den urtetik aurrera.

f) Faktura egin behar dute, erregelamenduz ezartzen denarekin bat etorriz, eta bidali egin behar dute.

**Bi.** Espainia Batasuneko identifikazio estatutzathautatzen duten enpresaburuek eta profesionalek Espainian bakarrik aurkeztu beharko dituzte autolikidazioak eta, behar denean, bertan bakarrik ordaindu behar dute araubide berezi honen barruan kontsumo estatu kide guztietan egindako eragiketa guztiei dagokien zergaren zenbatekoa.

**163 octovicies artikulua. (86) Jasandako kuotak kentzeko eskubidea.**

**Bat.** Enpresaburu edo profesional batek araubide berezi hau hautatzen badu, arau honetako 163.septevicies. Bat.c) artikuluko autolikidazioan ezin izango du kenkaririk aplikatu araubide honetan aipatzen diren eragiketak egiteko asmoarekin eskuratzen edo inportatzen dituen ondasunek eta zerbitzuek aplikatu beharreko erregelen arabera jasaten dituzten kuotak direla eta.

Aurrekoa gorabehera, araubide berezi honi heldutako enpresaburuek eta profesionalek araubide berezi honetan egindako eragiketetatik Batasuneko kontsumo estatuan egintzatjotzen diren eragiketak egiteko diren ondasunak eta zerbitzuakeskuratzean edo inportatzean jasandako balio erantsiaren gaineko zergaren kuotak itzultzeko eskubidea edukiko dute, Batasuneko kontsumo estatuko arautegian ezarritako prozedurarekin bat etorriz (Kontseiluaren 1986ko azaroaren 17ko 86/560/CEE Zuzentarauak edo Kontseiluaren 2008ko otsailaren 12ko 2008/9/CE Zuzentarauak xedatzen duena garatzeko, 2006ko azaroaren 28ko 2006/112/CE Zuzentarauak 369 quatervicies artikuluan ezartzen duenaren arabera). Establezimendua Kanariar uharteetan, Ceutan edo Melillan duten enpresaburuek eta profesionalek arau honetako 117 bis artikuluan ezartzen den prozedurari jarraituko diote jasandako kuotak (zergaren aplikazio lurraldekoak ez beste guztiak) itzultzeko eskatzeko.

**Bi.** Batasuneko kontsumo estatua Espainiako Erresuma izanez gero, arau honetako 119. Bi.2 artikuluan xedatzen dena gorabehera, araubide berezi honi heltzen dioten enpresaburuek eta profesionalek eskubidea edukiko dute balio erantsiaren gaineko zergaren kargagatik araubide berezi honetan aipatzen diren eragiketak egiteko asmoarekin egiten dituzten ondasun eta zerbitzuen eskuraketek eta inportazioek, zergaren aplikazio lurraldean egintzatjotzen direnek, jasaten dituzten kuotak itzultzeko.

Egoitza Batasuneko beste estatu batean duten enpresaburuek eta profesionalek arau honetako 119. artikuluan arautzen den prozedurarekin bat etorriz erabili behar dute eskubide hau.

Egoitza Batasunean ez duten enpresaburuek eta profesionalek arau honetako 119 bis artikuluan arautzen den prozedurarekin bat etorriz erabili behar dute eskubide hau.

Horretarako ez da beharrezkoa izango zergaren aplikazio lurraldean establezimendua daukan enpresaburu eta profesionalen aldeko elkarrekikotasuna onartuta egotea. Artikulu honetan xedatzen denari heltzen dioten enpresaburuek eta profesionalek ez dute edukiko zertan izendatu ordezkaririk honen ondorioetarako Zerga Administrazioarekin jarduteko.

Kanariar uharteetan, Ceutan edo Melillan establezimendua daukaten enpresaburuek eta profesionalek arau honetako 119. artikuluan ezartzen den prozedurari jarraituko diote balio erantsiaren gaineko zergaren kuotak, apartatu honetan aipatzen direnak, itzultzeko eskubidea baliatzeko.

Batasuneko identifikazio estatua Espainiako Erresuma bada, egoitza zergaren aplikazio lurraldean duten enpresaburuek eta profesionalek eskubidea edukiko dute araubide honi heldutako eragiketak egiteko erabilitako ondasunak eta zerbitzuakeskuratzean edo inportatzean jasandako balio erantsiaren gaineko zergaren kuotak kentzeko zergaren araubide orokorrarekin bat etorriz.

**Hiru.** Araubide berezi honi heldutako enpresaburuek eta profesionalek zergaren aplikazio lurraldean araubide bereziko eragiketez gainera egiten dituzten eragiketa batzuek lurralde horretan erregistratu eta autolikidazioak egin beharra eragiten badute, honako kuota hauek kendu beharko dituzte zergaren aplikazio lurraldean aurkeztu beharreko autolikidazioen bidez: araubide berezi honetako eragiketak egiteko erabiltzeko ondasunen edo zerbitzuen eskuraketak edo inportazioek, lurralde horretan egintzatjotzen direnek, jasandako kuotak.

## X. TITULUA

## SUBJEKTU PASIBOEN BETEBEHARRAK (3) (19) (94)

### I. KAPITULUA
### ARAU OROKORRAK

**164. artikulua. (38) Subjektu pasiboen betebeharrak**

**Bat.** Aurreko tituluan ezarritakoa gorabehera, zergadunek, arauen bidez zehaztutako betebehar, limite eta baldintzekin, honakoak bete beharko dituzte:

1. Zergari lotutako jardueren hasiera, aldaketa eta eteteari buruzko deklaraziok aurkeztea.

2. Administrazioari identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzea eta ezarritako kasuetan akreditatzea.

3. Eragiketa guztien fakturak egitea eta ematea, arauen bidez xedatzen denari lotuz.

4. (74) Kontabilitatea eta ezartzen diren erregistroak arautegian ezartzen denarekin bat etorriz arteztu, Merkataritzako Kodean eta kontabilitateari buruzko gainerako arauetan xedatzen dena gorabehera.

5. (83) Aldian-aldian, edo Administrazioak eskatuta, hirugarren pertsonekin egindako eragiketa ekonomikoei buruzko informazioa aurkeztea, bai eta Batasunaren barruko eragiketen laburpen aitorpena ere.

6. Dagokion aitorpen eta likidazioak aurkeztea eta lortutako emaitzaren zenbatekoa sartzea.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, zergadunek urteko laburpen aitorpena aurkeztu beharko dute.

Arau honetako 13. artikuluko 2. zenbakiko kasuetan garraio moduaren behin betiko matrikulazioa egiteko zerga ordaindu dela egiaztatu beharko da.

7. Arau honetan xedatutako betebeharrak betetzearren, Erkidegoan bizi ez diren zergadunen ordezkari bat izendatzea, baldin eta Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan edo Erkidegoan martxan jarritako antzeko elkarrekiko laguntzazko baliabideak dituen Estaturen batean bizi ez bada.

8. (78) Foru arau honetako 2 bis artikuluaren bederatzigarren idatz zatiko aitorpena (jarduerako ohiko ondasun emateak edo zerbitzugintzak egiten hasi aurreko likidazio aldietako kuota itzuliak erregularizatzeko egin beharrekoa) aurkeztea ohiko eragiketak egiten hasi ondoko egutegiko lehen urte osoko azken aitorpen-likidazioa aurkeztu beharreko epealdi berean.

**Bi.** (70) Enpresaburuek edo profesionalek egindako eragiketengatik faktura egin eta eman beharra haien bezeroek zein hirugarren batzuek bete dezakete, arauz ezartzen den bezala, eta horretan haien izenean eta kontura jardungo dute beti.

Betebehar hori enpresaburuaren edo profesionalaren bezero batek betetzen badu, aldez aurretik alderdiek akordioa hitzartu behar dute. Halaber, enpresaburuak edo profesionalak bermatu behar du bezeroak beraren izenean eta kontura ematen dituen faktura guzti-guztiak onartuko dituela.

Enpresaburu edo profesional batek, edo beraren bezero batek edo hirugarren batek beraren izenean eta kontura egindako fakturak paperean edo baliabide elektronikoen bidez bidali ahal dira. Baliabide elektronikoen bidez bidali ahal izateko ezinbestekoa da aurretik jasotzaileak baimena ematea.

Fakturan (paperezkoa zein elektronikoa) jatorria eta edukia egiazkoak direla bermatu behar da, bai eta irakurgarritasuna ere, ematen den egunetik beretik eta gordetzen den aldi osoan.

Arau bidez zehaztuko da nola eman, bidali eta gorde behar diren fakturak.

**Hiru.** Zerga honetan zergadunak ez izan arren, horren ondorioetarako enpresaburu edo profesionalen izaera dutenei ere aplikatu beharko zaie aurreko ataletan xedatutakoa, arauen bidez xedatzen diren betebeharrak, limiteak eta baldintzak betez.

**Lau.** Zerga Administrazioak, enpresaburuaren, profesionalaren edo zergadunaren zerga egoera egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duenean, zerga aplikatzeko lurraldean egindako ondasunen emateei edo zerbitzuak eskaintzeari dagozkien fakturen gaztelaniarako edo beste edozein hizkuntz ofizialerako itzulpena eska dezake, baita lurralde horretan ezarritako enpresaburu, profesional edo zergadunek egindako fakturena ere.

**165. artikulua. (62) Fakturazioari buruzko arau bereziak**

**Bat.** Jasotzen diren fakturak, kontabilitateko frogagiriak eta emandako fakturen kopiak Zergaren preskripzio aldian gorde behar dira, are baliabide elektronikoak erabilita ere. Betebehar hau subjektu pasiboaren izenean eta beraren kontura ari den hirugarren batek bete dezake.

Aurreko paragrafoan aipatutako agiriak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak jasan edo ordaindu beharra ekarri duten eskuraketei badagozkie eta haien kenkaria erregularizatzen ari bada, kuoten erregularizazio aldian eta hurrengo lau urteetan gorde behar dira.

Idatz zati honetan ezarritako betebeharrak betetzeko betekizunak arau bidez zehaztuko dira.

**Bi.** Aurreko idatz zatian fakturak eta agiriak gorde beharraz ezarritakoa betetzeko beste modu batzuk ezar daitezke arau bidez, enpresaburuen edo profesionalen jarduerak ez eragozteko.

**Hiru.** Subjektu pasiboak baliabide elektronikoen bidez gordetzen baditu aurreko idatz zatian aipatutako agiriak, fakturak on line eskuratzeko eta kargatu eta erabiltzeko modua eman behar dio Zerga Administrazioari. Aurrekoa beti bete behar da, agiriak gordetzen diren tokia gorabehera.

**166. artikulua. Kontabilitateko betebeharrak**

**Bat.** Kontabilitateak ondoko hauek doitasunez zehazteko bidea eman behar du:

1. Subjektu pasiboak bere bezeroei jasanarazten dien Balio Erantsiaren gaineko Zergaren guztirako zenbatekoa.

**2.** Subjektu pasiboak jasaten duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren guztirako zenbatekoa.

**Bi.** Subjektu pasiboek beren enpresa edo lanbide jarduerak egitean burutzen dituzten eragiketa guztiak kontabilizatu edo jaso beharko dira Zergaren likidazio eta ordainketarako ezartzen diren epeen barruan.

**Hiru.** Arabako Foru Aldundiak zenbait enpresa edo lanbide sektoreren erregistro-betebeharrak alda edo molda daitezela xedatu ahal izango du.

## II. KAPITULUA
## XEDAPEN BEREZIAK

### 1. ATALA. INTERFAZE DIGITALEN BETEBEHARRAK

**166 bis artikulua. (86) Eragiketen erregistroa.**

**Bat.** Baldin eta enpresaburu edo profesional batek, hala diharduela, ez enpresaburu ez profesional ez diren pertsonei ondasunak ematea edo zerbitzuak egitea bideratzen badu interfaze digital baten bidez (lineako merkatua, plataforma, ataria edo antzekoren bat) eta ez bada ondasun emate eta zerbitzugintza horien subjektu pasiboa, eragiketa horien erregistroa eduki beharko du.

Erregistroaren edukia Kontseiluaren 2011ko martxoaren 15eko 282/2011 (EB) Erregelamenduaren 54 quater.2 artikuluan xedatzen denaren araberakoa izan behar da (erregelamendu horretan Batasuneko balio erantsiaren gaineko zergaren sistemari buruzko 2006/112/CE Zuzentarauaren xedapenak ezartzen dira). Batasuneko estatuek eskura eduki beharko dute modu elektronikoan; horretarako, eskaera egin beharko dute.

Erregistroa hamar urtez gorde beharko da eragiketa egiten den urtea amaitu ondoren.

**Bi.** Baldin eta enpresaburu edo profesional batek, hala diharduela, interfaze digital baten bidez (lineako merkatua, plataforma, ataria edo antzekoren bat) ondasun emateak bideratzen baditu arau honetako 8 bis artikuluan ezartzen den bezala edo parte hartzen badu zerbitzu bat baliabide elektronikoen bidez egiteko prozesuan, bere izenean diharduela 282/2011 (EB) Erregelamenduaren 9 bis artikuluaren arabera, honako erregistro hauek eduki beharko ditu:

a) Enpresaburua edo profesionala arau honen IX. tituluaren XI. kapituluan ezartzen diren araubide berezietako batean badago, 282/2011 (EB) Erregelamenduak 63 quater artikuluan ezartzen dituen erregistroak.

b) Enpresaburua edo profesionala arau honen IX. tituluaren XI. kapituluan ezartzen diren araubide berezietako batean ez badago, arau honen 164. Bat.4 artikuluan ezartzen diren erregistroak.

### 2. ATALA. ORDAINKETA ZERBITZUEN HORNITZAILEEN BETEBEHARRAK

**166 ter artikulua. Definizioak.**

Atal honen ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

a) "ordainketa zerbitzuen hornitzailea": ordainketa zerbitzuen eta finantza arloko presako beste neurri batzuen azaroaren 23ko 19/2018 Errege Lege Dekretuaren 5. artikuluaren 1. eta 2. apar-
tatuetan jasotako erakundeak eta organismoak, eta errege lege dekretu horren 14. eta 15. artikuluetan aurreikusitako salbuespenetan jasotako pertsona fisiko edo juridikoak;

b) "ordainketa zerbitzua": azaroaren 23ko 19/2018 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluaren 2. apartatuaren c) letratik f) letrara bitarte zerrendatutako enpresa jarduera bat edo gehiago;

c) "ordainketa": azaroaren 23ko 19/2018 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluan jasotako salbuespenak alde batera utzita, "ordainketa" bat, errege lege dekretu horren 3. artikuluaren 26. puntuan zehaztutakoaren arabera, edo "dirua bidaltzeko zerbitzua", errege lege dekretu horren 3. artikuluaren 36. puntuan definitutakoaren arabera;

d) "agindu-emailea": ordainketa kontu baten titularra den pertsona fisiko edo juridikoa, zeinak kontu horretatik ordainketa agindu bat baimentzen duen, edo, ordainketa konturik ez badago, ordainketa agindua ematen duen pertsona fisiko edo juridikoa;

e) "onuraduna": ordainketa baten funtsen hartzailea izango den pertsona fisiko edo juridikoa;

f) " jatorrizko estatu kidea": hauetakoren bat:

a' Ordainketa zerbitzuaren hornitzaileak bere helbide soziala finkatuta duen Europar Batasuneko estatu kidea, edo

b' Ordainketa zerbitzuaren hornitzaileak ez badu egoitza sozialik legeria nazionalaren arabera, administrazio nagusia finkatuta duen Europar Batasuneko estatu kidea;

g) "harrerako estatu kidea": ordainketa zerbitzuaren hornitzaileak ordezkari bat edo sukurtsal bat duen edo ordainketa zerbitzuak ematen dituen eta jatorrizko estatu kidea ez den Europar Batasuneko estatu kidea;

h) "ordainketa kontua": ordainketa zerbitzuen erabiltzaile baten edo batzuen izenean dagoen kontua, ordainketak egiteko erabiltzen dena;

i) "IBAN": nazioarteko ordainketa kontu baten identifikazio zenbakia, estatu kide batean banakako ordainketa kontu bat zalantzarik gabe identifikatzen duena. Haren elementuak Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundeak (ISO) zehazten ditu;

**j**) "BIC": ordainketa zerbitzuen hornitzaile bat zalantzarik gabe identifikatzen duen erakundearen identifikazio kodea. Haren elementuak ISOk zehazten ditu.

**166 quater artikulua. Ordainketa zerbitzuen hornitzaileen betebeharrak.**

Ordainketa zerbitzuen hornitzaileen jatorrizko edo harrerako estatu kidea Espainiako Erresuma bada, arau bidez zehazten diren baldintzetan, honako betebehar hauek izango dituzte:

a) Hiruhileko natural bakoitzean ematen dituzten ordainketa zerbitzuen onuradunen eta ordainketen erregistro behar bezain zehatza izatea.

Aurreko betebehar hori mugaz gaindiko ordainketekin zerikusia duten ordainketa zerbitzuei soilik aplikatuko zaie. Ordainketa bat mugaz gaindikotzat joko da agindu-emailea estatu kide batean kokatuta badago eta onuraduna beste estatu kide batean edo hirugarren herrialde edo lurralde batean kokatuta badago.

Betebehar hori honako kasu honetan aplikatuko da: hiruhileko natural batean zehar, ordainketa zerbitzuen hornitzaileak onuradun berari mugaz gaindiko 25 ordainketa baino gehiagori dagozkien ordainketa zerbitzuak ematen dizkionean.

Aurreko paragrafoan aipatutako mugaz gaindiko ordainketen kopurua kalkulatzeko, erreferentziatzat hartuko dira ordainketa zerbitzuen hornitzaileak estatu kide bakoitzeko eta arau honen 166 quinquies artikuluaren Bi apartatuan aipatutako identifikatzaile bakoitzeko emandako ordainketa zerbitzuak. Ordainketa zerbitzuen hornitzaileak onuradunak identifikatzaile bat baino gehiago dituela baldin badaki, kalkulua onuradun bakoitzeko egingo da.

Betebehar hori ez zaie aplikatuko agindu-emailearen ordainketa zerbitzuen hornitzaileek emandako ordainketa zerbitzuei eta edozein ordainketari, baldin eta onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzaileetako bat gutxienez estatu kide batean kokatuta badago, ordainketa zerbitzuen hornitzaile horren BICak adierazten duen bezala, edo ordainketa zerbitzuen hornitzailea eta haren kokapena argi eta garbi identifikatzen dituen erakundearen beste edozein kode identifikatzailek adierazten duen bezala. Hala ere, agindu-emailearen ordainketa zerbitzuen hornitzaileek a) letra honen hirugarren eta laugarren paragrafoetan aipatutako kalkuluan sartuko dituzte ordainketa zerbitzu horiek.

Ordainketa zerbitzuen hornitzaileek erregistroak egutegiko hiru urtetan zehar gordeko dituzte formatu elektronikoan, ordainketa-egunaren egutegiko urtearen amaieratik zenbatzen hasita.

b) Aurreko letran aipatutako erregistroak Zerga Administrazioaren esku jartzea.

**166 quinquies artikulua. Agindu-emailearen eta onuradunaren kokapena.**

**Bat.** Arau honen 166 quater artikuluaren a) letraren bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, agindu-emailearen kokapena honako hauei dagokien estatu kidean dagoela ulertuko da:

a) agindu-emailearen ordainketa kontuko IBAN zenbakia edo beste edozein identifikazio-bitarteko, agindu-emailea argi eta garbi identifikatzea eta haren kokapena jakitea ahalbidetzen dutenak, edo identifikazio-bitarteko horiek ez badaude;

b) BIC kodea edo erakundearen beste edozein kode identifikatzaile, agindu-emailearen izenean jarduten duen ordainketa zerbitzuen hornitzailea argi eta garbi identifikatzea eta haren kokapena jakitea ahalbidetzen dutenak.

**Bi.** Arau honen 166 quater artikuluaren a) letraren bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, onuradunaren kokapena honako hauei dagokien estatu kidean edo hirugarren herrialde edo lurraldean dagoela ulertuko da:

a) onuradunaren ordainketa kontuko IBAN zenbakia edo beste edozein identifikazio-bitarteko, onuraduna argi eta garbi identifikatzea eta haren kokapena jakitea ahalbidetzen dutenak, edo identifikazio-bitarteko horiek ez badaude;

b) BIC kodea edo erakundearen beste edozein kode identifikatzaile, onuradunaren izenean jarduten duen ordainketa zerbitzuen hornitzailea argi eta garbi identifikatzen eta haren kokapena jakitea ahalbidetzen dutenak.

## XI. TITULUA

## ZERGAREN KUDEAKETA

### 167. artikulua.- (49) Zergaren likidazioa.

**Bat.** Hurrengo idatz zatian xedatutako salbuespenarekin, subjektu pasiboek Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezartzen dituen tokian, moduan, epeetan eta inprimakietan zehaztu eta sartu behar dute zerga zorra.

**Bi.** (74) (86) (92) Ondasun inportazioen gaineko zergaren likidazioa egiteko aduana legerian muga zerga eskubideez ezartzen dena aplikatuko da edo, bestela, arau honen 167 bis artikuluan arautzen dena.

Erregelamenduz ezarriko da nola bildu eta sartu behar diren zergaren kuotak. Horrez gainera arautegian ezarri ahal izango da zer bete behar duten subjektu pasiboek kuota horiek Administrazioak egindako aitorpen-likidazio agiria jasotzen duten aldiko autolikidazioan sartu ahal izateko.

Hala ere, aduana aitorpena beste estatu kide batean aurkezten denean, Europar Batasuneko Aduana Kodea ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urriaren 9ko 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 179. artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazioak aitorpena aurkeztu den estatu kidearen aduanatik jasotako informazioan oinarrituta likidatuko du zerga.

**Hiru.** (78) Honako hauek Arabako Foru Aldundiari bakarrik aurkeztu behar diote autolikidazioa:

1. Zerga egoitza Araban daukaten subjektu pasiboek, baldin eta aurreko urtean egindako eragiketen bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan ez bada, eragiketak non egin diren kontuan eduki gabe.

2. Eragiketa guztiak Arabako Lurralde Historikoan egin dituzten subjektu pasiboek, baldin eta aurreko urtean egindako eragiketen bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan bada, zerga egoitza non dagoen kontuan eduki gabe.

3. Zerga egoitza Araban daukaten subjektu pasiboek, eragiketak non egin diren eta haien zenbatekoa kontuan eduki gabe, jarduera hauek egin badituzte:

a) Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantzako ustiategiek eta arrantzaontzien armadoreek beren soro, ustialeku edo arrantzuetako produktu naturalak, eraldatu ez direnak, ematea.

b) Garraio zerbitzuak, etxezaldatzeko zerbitzuak, atoi zerbitzuak eta garabi zerbitzuak barne.

c) Garraiogailuen errentamenduak.

4. Batasunaren barruan garraiogailu berriak eskuratzen dituzten norbanakoek edo pertsonek eta entitateek, baldin eta beren eragiketak balio erantsiaren zergaren kargatik erabat salbuetsita badaude edo haren kargapean ez badaude eta garraiogailu berriak behin betiko matrikulatzen badira Arabako Lurralde Historikoan.

5. Aurreko zenbakian xedatzen dena eragotzi gabe, zerga zor guztia edo haren zati bat kentzeko eskubidea ematen ez duten eragiketak baizik egiten ez dituzten subjektu pasiboek, bai eta enpresaburu edo profesional gisa aritzen ez diren pertsona juridikoek ere, Batasunaren barruan zergapeko ondasunak eskuratzeagatik, beraiek hautatzen badute edo arau honetako 14. artikuluko bigarren idatz zatian ezarritako muga gainditzen badute, eta zerga egoitza Araban badaukate.

6. Araubide erraztuan, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian edo baliokidetasun errekarguaren araubidean dauden subjektu pasiboek Batasunaren barruan egindako eskuraketengatik, zerga egoitza Araban edukiz gero.

**Lau.** (78) Arabako Lurralde Historikoan eta beste lurralde batzuetan jarduten duten subjektu pasiboek aurreko urtean egindako eragiketen bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan bada, Arabako Foru Aldundiari eta diharduten lurraldeetako zerga administrazioei aurkeztu behar diete aitorpen-likidazioa. Hori dela eta, honako erregela hauek aplikatuko dira:

1. Subjektu pasibo batek lurralde batean baino gehiagotan jarduten badu eta eragiketen zenbatekoagatik administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar badio zerga, likidazioaren emaitza administrazio eskudunei egotziko zaie, subjektu pasiboak egutegiko urtean lurralde bakoitzean egindako ondasun emate eta zerbitzuengatik (kargapekoengatik zein kenkarirako eskubidea sortzen dutenengatik) lortutako kontraprestazioen kopuruaren arabera, balio erantsiaren gaineko zerga alde batera utzita.

2. Egutegiko urte bakoitzean behin-behinean aplikatu behar diren proportzioak aurreko urteko eragiketen arabera zehaztuko dira.

Jarduera hasten den egutegiko urteko likidazio aldietan behin-behinean aplikatu beharreko proportzioa subjektu pasiboak berak kalkulatuko du bere ustez lurralde bakoitzean egingo dituen eragiketak kontuan hartuta; hala ere, azkenean erregularizazioa egingo da.

Aurreko paragrafoan ezartzen dena gorabehera, behin-behineko beste proportzio bat aplika daiteke honako kasu hauetan:

a) Bategitea, bereiztea eta aktiboak ekartzea.

b) Lurralde erkidean edo foru lurraldean jardueraren bat hastea, amaitzea, zabaltzea edo murriztea, baldin eta erregela honetako lehen paragrafoan zehaztutako irizpidearen arabera kalkulatutako proportzioa nabarmen aldatzen bada.

Aldaketa nabarmentzat joko da edozein lurraldetan aplikatu beharreko proportzioa gutxienez ehuneko 15 puntutan aldatzea.

Beste proportzio bat aplikatzeko, ezinbestekoa da aldez aurretik subjektu pasiboak Ekonomia Ituneko III. kapituluko 2. atalean ezarritako Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari jakinaraztea, zerga foru administrazioei eta administrazio erkideari ordaindu behar izanez gero. Zerga foru administrazioei soilik ordaindu behar bazaie, subjektu pasiboari dagokionez ikuskapenerako eskumena duen administrazioari egin behar zaio jakinarazpena.

3. Zergaren egutegiko urte bakoitzeko azken likidazio-aitorpenean subjektu pasiboak behin betiko proportzioak kalkulatuko ditu aldi horretan egindako eragiketen arabera, eta aurreko likidazio aldietan administrazio bakoitzari aurkeztutako aitorpenak erregularizatuko ditu.

4. Subjektu pasibo horiek aurkezten dituzten aitorpen-likidazioetan nahitaez adierazi behar dira aplikatu beharreko proportzioak eta proportzio horien ondorioz administrazio bakoitzari dagokion kuota.

**Bost.** Europar Batasunaren barruan egindako emate eta eskuraketen laburpen aitorpenak subjektu pasiboen gaineko egiaztapenak eta ikerketak egiteko eskumena daukan zerga administrazioari aurkeztu behar zaizkio.

**Sei.** (89) Bat etorriz arau honen 2 bis artikuluko Hamar apartatuan xedatutakoarekin, zerga ordainaraztea Arabako Foru Aldundiari dagokionean, apartatu horretan aipatzen diren eta araubide bereziak aplikatzea erabaki duten enpresaburuek eta profesionalek araubide horietatik eratortzen diren betebehar formal eta materialak aldundiaren aurrean bete beharko dituzte.

**Zazpi.** (78) **(89)** Zergaren ikuskapena irizpide hauen arabera egingo da:

1. Arabako Lurralde Historikoko Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak egingo du honako kasu hauetan:

a) Subjektu pasiboak zerga Arabako Foru Aldundiari bakarrik ordaindu behar badio.

b) Subjektu pasiboak zerga lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren proportzioan ordaintzen badu eta zerga egoitza Araban badauka, lurralde erkidean egindako eragiketak direla eta Estatuko Administrazioarekin lankidetzanaritzeaeragotzi gabe. Honek administrazio eskudun guztietan izango ditu ondorioak, are haiei tributazioan dagokien proportzioan ere.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena gorabehera, baldin eta subjektu pasiboak aurreko ekitaldian lurralde erkidean eragiketen ehuneko 75 egin badu gutxienez (zehaztutako lotura puntuen arabera), eskumena Estatuko Administrazioak edukiko du; honek ez du eragotziko Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetza.

Ikuskapen lanen ondorioz zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo kopuru hori bi administrazioei badagokie, Arabako Foru Aldundiak kobratu edo itzuliko du. Nolanahi ere, gero administrazioek bidezko konpentsazioak egin ditzakete beren artean. Ikuskapen organoek beren jardunaren emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei.

c) Subjektu pasiboaren zerga egoitza Bizkaian edo Gipuzkoan egonez gero, baldin eta aurreko ekitaldiko eragiketen bolumena 10 milioi euro baino gehiago izan bada, ekitaldi horretako eragiketen bolumenaren ehuneko 75 gutxienez lurralde erkidean egin ez badu eta, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Araban egin baditu (edo Araban eta zerga egoitzarik ez duen beste lurralde historiko batean egin baditu, haien eragiketa bolumenaren proportziorik handiena Araban egin badu).

d) (81) Subjektu pasiboek lurralde bakoitzean egindako eragiketa bolumenaren proportzioaren arabera ordaintzen dituztenean zergak, beren zerga egoitza lurralde erkidean dutenean eta aurreko ekitaldian beren eragiketen ehuneko 75 edo gehiago EAEn egin dituztenean eta EAEn egindako eragiketa bolumenaren proportzio handiena Araban egin dutenean, estatuko administrazioarekin lurralde erkidean egindako eragiketengatik lankidetzan jarduten den gorabehera, administrazio eskudun guztien aurrean izango du ondorio, haiei dagokien tributazio ehunekoa barne.

(81) Aurreko letran ezarritakoa gorabehera, lurralde erkideko erakunde taldeetako araubide berezira lotutako erakundeen kasuan, lurralde historiko honetako Zerga Ikuskatzailetzak ikuskatuko ditu; eta, beraz, lurralde erkideko taldetik kanpo geldituko dira aurreko ekitaldian egindako eragiketen ehuneko 100 egiten dituztenean, EAEn, ezarritako konexio puntuekin bat, eta euskal lurraldean egindako eragiketen bolumen proportzio handiena edo dena Araban egin denean."

2. Ikuskapen jarduketak beste administrazio batek eginez gero, egintzat joko dira Arabako Foru Aldundiak egiaztapenaren eta ikerketaren arloan dauzkan ahalmenak gorabehera, eta Aldundiaren jarduketek ez dute edukiko ondorio ekonomikorik zergadunentzat administrazio eskudunetako organoen jarduketen ondoriozko behin betiko likidazioei dagokienez.

Arabako Foru Aldundiak ez badauka ikuskatzeko eskumena, eragiketen bolumena kalkulatzean eragina izan dezaketen eragiketa guztiak egiaztatu ahal izango ditu, non egin diren kontuan hartu gabe, ikuskatzeko eskumena daukan zerga administrazioari egiaztapenaren berri emateko ez beste ezertarako.

3. Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioek subjektu pasiboarentzat ere izango dituzte ondorioak likidatutako betebeharretan. Nolanahi ere, gero administrazioek behin betikoak adostu ahal izango dituzte.

**Zortzi.** (89) Erakunde taldeen araubide bereziari heldutako erakundeek aurreko idatz zatietan bildutako erregelak aplikatuta ordainduko dute Zerga, espezialitate hauekin.

Lehenengoa. Sozietate nagusia Arabako Lurralde Historikoko ikuskapen organoei lotuta badago, taldetik kanpo utziko dira seigarren idatz zatiko erregelekin bat etorriz lurralde erkideko ikuskapen organoek ikuskatu beharreko menpeko erakundeak.

Bigarrena. Erakunde taldeetako erakundeek banako zerga-ordainketaren araubiderako ezarritako aitorpena aurkeztu behar dute arau honetan aipatutako arau orokorrekin bat etorriz. Aitorpen horretan Zergari buruzko arauak eta, behar izanez gero, erakunde taldeen araubide bereziko arauak banaka aplikatzearen emaitzako zenbatekoak agertu behar dira.

Taldeko erakunde bakoitzak banaka kalkulatu behar du Zerga Administrazio bakoitzari egotzi beharrekoa artikulu honetako gainerako erregelak eta 2 bis artikulukoak aplikatuta.

Hirugarrena. Erakunde taldearen autolikidazio agregatuetan konputatu beharreko zenbatekoak foru aldundietako bati edo Estatuko Administrazioari dagozkion emaitzen batura izango dira; emaitza hauek aurrean aipatutako erregelaren arabera kalkulatu behar dira. Ezin dira batu zerga administrazio bat baino gehiagoren kopuruak.

Laugarrena. Erakunde nagusien berariazko betebeharrak taldeko erakundeek diharduten lurraldeko zerga administrazioen aurrean bete behar dira.

**Bederatzi.** (89) Zerga betebeharren betetzea ziurtatzeko behar diren bermeak arau bidez ezarriko dira.

**167 bis artikulua.- (41) (86) Inportazioen balio erantsiaren gaineko zergaren aitorpena egiteko eta horren karga ordaintzeko modalitate berezia.**

**Bat**. Arau honen IX. tituluaren XI. kapituluaren 4. ataleko eragiketak egiten dituzten enpresaburuek eta profesionalek ez badute hautatzen atal honetan ezartzen den araubide berezia aplikatzea, ondasuna zergaren aplikazio lurraldean inportatzaileen kontura aurkezten duen pertsonak modalitate berezia hautatu ahal izango du inportazioaren balio erantsiaren gaineko zergaren aitorpena egiteko eta horren karga ordaintzeko, honako inguruabar hauek gertatuz gero:

a) bidalketaren balio intrinsekoa ez izatea 150 euro baino gehiago;

b) ondasuna ez egotea zerga berezi baten kargapean; eta

c) ondasunaren bidalketaren edo garraioaren destinoa zergaren aplikazio lurraldean egotea.

**Bi.** BEZaren aitorpenerako eta ordainketarako modalitate berezia hautatuz gero, honako xedapen hauek aplikatuko dira:

a) Inportatutako ondasunaren hartzaileak balio erantsiaren gaineko zerga ordaindu beharko du.

b) Ondasuna aduanan aurkezten duen pertsonak inportazioarengatik hartzaileak ordaindu beharreko balio erantsiaren gaineko zerga bilduko du eta ordainketa egingo du.

Hori dela eta, BEZaren aitorpenerako eta ordainketarako modalitate berezia aplikatzeko ez da beharko inportatutako ondasunaren hartzailearen berariazko baimena.

**Hiru.** Arau honen 91. artikuluan xedatzen dena gorabehera, artikulu honetan arautzen den aitorpenerako eta ordainketarako modalitate berezian egiten diren ondasun inportazioei zergaren tasa orokorra aplikatuko zaie.

Ondasuna aduanan aurkezten duen pertsonak neurri egokiak aplikatu beharko ditu bermatzeko hartzaileak balio erantsiaren gaineko zergak inportazioari ezartzen dion karga ordaintzen duela.

**Lau.** BEZaren aitorpenerako eta ordainketarako modalitate berezia erabiltzen duten enpresaburuek eta profesionalek hileko aitorpenak aurkeztu beharko dituzte baliabide elektronikoen bidez; aitorpen bakoitzean egutegiko hilean modalitate honetan egindako inportazioek jasandako balio erantsiaren gaineko zergaren kargen guztirako zenbatekoa zehaztu beharko da.

Hori dela eta, inportatutako ondasunaren inportazioarengatik jasaten den balio erantsiaren gaineko zergaren karga bildutzat joko da, honako kasu hauetan izan ezik: ondasuna beste leku batera bidaltzea, suntsitzea edo bertan behera uztea.

Hileko aitorpen bakoitzeko balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa inportazioaren ondoko bigarren hilaren 16ra arte ordaindu ahal izango da.

**Bost.** Enpresaburuek eta profesionalek BEZaren aitorpenerako eta ordainketarako modalitate bereziaren araberako aurkezten dituzten aitorpenetako eragiketen erregistroa eduki behar dute 4 urtez. Erregelamendu baten bidez ezarriko da nolakoa izan behar den erregistroa.

**167 ter artikulua.- (86) Behin-behineko likidazioa.**

Zergak kudeatzen dituzten organoek behin-behineko likidazioa egin ahal izango dute Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 97. artikuluan xedatzen duenaren arabera, are hurrengo artikuluetan aipatzen diren kasuetan ere.

**168. artikulua.- Ofiziozko behin-behineko likidazioa.**

**Bat.** Subjektu pasiboari epearen barruan burutzen ez duen aitorpen-likidazioa egin dezan Tributu-administrazioaren agindeiaren berri ematen zaionez gero hogeita hamar egun igarotzen badira, hari dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zergaren behin-behineko likidazioa burutzeko prozedurari ekin diezaioke Tributu-administrazioak, baldin eta aipatu epealdian bete ez duena zuzendu edo betebeharrik ez daukala behar bezala benetakotzen ez badu.

**Bi.** Ofiziozko behin-behineko likidazioa, Tributu-administrazioak eduki eta ondoreetarako adierazgarriak diren datu, aurrerakin, zeinu, indize, modulu eta gainerakoetan oinarriturik, eta arau bidez zehazten den prozedurari lotuz burutuko da.

**Hiru.** Artikulu honetan araupetzen diren behin-behineko likidazioak, behin berauen berri emanez gero, berehala betearaztekoak dira, legez haien aurka jar daitezkeen erreklamazioen kalterik gabe.

**Lau.** Artikulu honen aurreko ataletan ezarri denaren kalterik gabe, subjektu pasiboen ondorengo tributu-egoera egiaztatu ahal izango du Administrazioak, Arabako Tributuei buruzko Foru Arau Orokorrean xedaturik dagoenaren arabera bidezko diren likidazioak eginez.

## XII. TITULUA

## ORDAINKETAREN ETENDURA

**169. artikulua.- Ordainketaren etendura.**

**Bat.** Zergaren ordainarazpenaren etendura eskuets daiteke ondasun-emateei zuzenean loturik dauden zerbitzu edo ondasunak eskuratzen direnean, baldin eta ondasunak beste estatu kide batentzat edo esportatzeko badira, arau bidez zehazten diren eskakizunak betetzen dituzten sektore eta ihardueratan.

**Bi.** Ordainketaren etenduraren erregimenari heltzen dioten zerbitzu edo ondasunen eskuratzaileak behartuta daude beren hornitzaileek sartu ez dituzten kuoten ordainketa egitera, arau bidez zehazten diren era eta epeen barruan, baldin eta aipatu etendura bidezkotzen duten eragiketen burutzapena benetakotzen ez badute. Atal honetan xedatzen dena dela bide, sartzen diren kuotak inoiz ere ez dira kengarri izango.

**Hiru.** Artikulu honetan xedatzen dena aplikatzeko, Gobernuak zenbatezko mugak ezar daitezke.

## XIII. TITULUA

## ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

**170. artikulua.- (41) Arau-hausteak.**

**Bat.** Titulu honetan aurreikusitako xedapen berezien kalterik gabe, zerga honi dagozkion arau-hausteak Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta aplikatu beharreko gainerako arau orokorretan ezarritakoaren arabera zehatuko dira.

**Bi.** (68) Zergen arloko arau hausteak izango dira:

1. Baliokidetasun errekarguko erregimen berezian dauden subjektu pasiboek ondasunak eskuratzea, fakturetan baliokidetasun errekargua berariaz agertu gabe; horretatik salbu daude horren guztiaren berri Administrazioari arauz ezarrita dagoen bezala ematen dioten eskuratzaileak.

2. Erruzko edo doluzko ekintza edo omisio baten bidez zerga oker jasanaraztea lortzea, baldin eta haren jasotzaileak ez badu jasandako kuotak oso-osorik kentzeko eskubidea.

Arau hausleak izango dira aipatutako eragiketen jasotzaile diren pertsonak zein erakundeak, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako ekintza edo omisioen erantzuleak badira.

3. Zergaren subjektu pasibo ez diren pertsonek sartu gabeko zerga kuotak fakturan bidegabe jasanaraztea.

4. Dagokion zergaldiaz aurkeztu beharreko autolikidazioan ez kontsignatzea eragiketen jasotzailea subjektu pasibo izan deneko kopuruak, arau honen 84.Bat artikuluren 2., 3. eta 4. paragrafoetan, 85. artikuluan edo 140. quinque artikuluan ezarritakoaren arabera.

5. Arau honen 19.5 artikuluan araututako eragiketen inguruko likidazio aitorpenak ez aurkeztea, txarto aurkeztea edo osorik ez aurkeztea.

6. (74) Arau honetako 84. artikuluko lehenengo idatz zatiko 2. zenbakiko e) letrako hirugarren gidoian aipatzen diren eragiketen hartzaileek eragiketa horiek egiten dituzten enpresaburuei edo profesionalei arautegian ezartzen denaren arabera epealdiaren barruan ez jakinaraztea edo behar bezala ez jakinaraztea eragiketa horiei dagokienez enpresaburu edo profesional gisa dihardutela.

7. (74) Arau honetako 84. artikuluko lehenengo idatz zatiko 2. zenbakiko f) letran aipatzen diren eragiketen hartzaileek eragiketa horiek egiten dituzten enpresaburuei edo profesionalei honako inguruabar hauek arautegian ezartzen denaren arabera epealdiaren barruan ez jakinaraztea edo behar bezala ez jakinaraztea:

Eragiketa horiei dagokionez enpresaburu edo profesional gisa dihardutela.

Eragiketa horiek lursailak urbanizatzeko edo eraikinak eraiki edo birgaitzeko prozesu baten barruan egiten direla.

8. (74) Arau honetako 167. artikuluko bigarren idatz zatiko bigarren paragrafoko subjektu pasiboek autolikidazioan ez kontsignatzea Administrazioak likidatutako inportazio eragiketei dagozkien zerga kuotak, edo behar bezala edo osorik ez kontsignatzea.

**171. artikulua.- (41) Zehapenak.**

**Bat.** (68) Aurreko artikuluaren Bi paragrafoan jasotako arau hausteak ondoko arauen arabera zehatuko dira:

1. Bigarren paragrafoaren 1 zenbakian aipatutako arau hausteengatik, jasanarazi behar zen baliokidetasun errekarguaren ehuneko 50eko isun proportzionala ezarriko da; isuna 30 eurokoa izango da, gutxienez, baliokidetasun errekargua jasanarazi gabe egindako eskuraketa bakoitzeko.

2. Bigarren paragrafoaren 2 zenbakian ezarritakoengatik, bidegabe lortutako mozkinaren ehuneko 50eko isun proportzionala ezarriko da.

3. (70) Bigarren idatz zatiko 3. zenbakian ezarritakoengatik bidegabe jasanarazitako kuoten ehuneko 100eko isun proportzionala ezarriko da; gutxieneko zenbatekoa 300 euro izango da arau haustea gertatzen den faktura bakoitzeko.

4. Bigarren paragrafoaren 4 zenbakian ezarritakoengatik, autolikidazioan kontsignatu ez diren eragiketen kuotaren ehuneko 10eko isun proportzionala ezarriko da.

5. Bigarren paragrafoaren 5 zenbakian ezarritakoengatik, autolikidazio aitorpenean kontsignatu ez diren, txarto kontsignatu diren edo osorik kontsignatu ez diren eragiketek sortutako kuoten ehuneko 10eko isun proportzionala ezarriko da. Dena den, aduanakoaz bestelako gordailu araubidea uzteari dagozkion likidazio aitorpenak direnean, autolikidazio aitorpenean kontsignatu ez diren, txarto kontsignatu diren edo osorik kontsignatu ez diren eragiketek sortutako kuoten ehuneko 10eko isun proportzionala ezarriko da, baldin eta likidazio aitorpenean aitortutako kuoten guztirakoa zergaldian sortutakoa baino gutxiago bada.

6. (74) Bigarren idatz zatiko 6. eta 7. zenbakietan ezartzen diren kasuetan diru isun proportzionala, hain zuzen ere jakinarazi beharra betetzen ez den emateen eta eragiketen kuoten ehuneko 1a, 300 euro gutxienez eta 10.000 euro gehienez.

7. (74) Bigarren idatz zatiko 8. zenbakian ezartzen diren kasuetan diru isun proportzionala, hain zuzen ere autolikidazioan kontsignatu ez diren eragiketak direla eta aduanek egindako likidazioen kuoten ehuneko 1a.

**Bi.** (74) Artikulu honetako lehenengo idatz zatiko 4., 5. eta 7. arauetan xedatzen denaren arabera ezartzen diren zehapenak Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 192. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz murriztuko dira.

**Hiru.** Zerga-onurak lortzeko eskubidearen galera dakarren zehapena ez zaie aplikatuko arau honetan eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko gainontzeko arauetan ezarritako salbuespenei.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### Lehenengoa. (62) Zerga berezien aipamenak.

Arau honetan zerga bereziez egiten diren aipamenak Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintza Dekretuko 3. artikuluan Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziei buruzkoak direla ulertu behar da.

Hala ere, arau honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Batasuneko lurralde eremuko sare baten bitartez edo hari konektatutako sare baten bitartez emandako elektrizitatea eta gas naturala ez dira zerga berezien kargapeko ondasunak.

### Bigarrena.

**1.-** Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Agiridunen gaineko Zergari buruzko arautegian, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruz dauden aipamenak Kanarietako Zeharkako Zerga Orokorrari buruz egindakotzat hartuko dira, haren aplikazio-eremuan, azken zerga hori indarrean jartzen denean.

**2.-** Aurreko ataleko irizpidea ere aplikatuko da, ondasunen ekoizpen eta inportazioaren gaineko eta zerbitzugintzaren gaineko arielari dagokion neurrian, beroriek Ceuta eta Melillan egiten badira, baina haren zerga-egitatearen osaketaren berezitasunak hartu beharko dira kontutan.

### Hirugarrena. (73) Nahitaezko betearazte prozedura administratibo eta judizialak.

Nahitaezko betearazpeneko prozedura administratibo eta judizialetan, zerga honen ondorioetarako enpresario edo profesional izaera duten esleipendunek, subjektu pasiboaren izenean eta horien kontura, ondoren adieraziko direnak egiteko eskumena dute, aipatutako prozeduretan ematen diren zergapeko ondasun-emate eta zerbitzugintzari dagokienean. Hona hemen aipatutako eskumenak:

1. Eragiketaren informazioa jasotzen duen faktura ematea.

2. Arau honen 20. artikuluaren Bi idatz zatian jasotzen diren salbuespenei uko egitea, hala dagokionean.

3. Egiten den fakturan zergaren kuota jasanaraztea, kasuan kasuko aitorpen-likidazioa aurkeztea eta zergaren emaitzazko zenbatekoa sartzea, salbu eta ondasun emateen eta zerbitzu eskaintzeen kasuetan subjektu pasiboa horien hartzailea bada, 84.Bat.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Erregelamendu bidez zehazten dira ahalmen horiek erabiltzeko baldintza eta betekizunak.

**Laugarrena. (59) Erakunde taldeen araubide berezia aplikatzea babeseko erakunde bati atxikitako enpresariei eta profesionalei.**

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuko IX. tituluko IX. kapituluan araututako erakunde taldeen araubide berezia ondoko hauek ere aplikatu ahal izango dute: Inbertsio Koefizienteei, Norberaren Baliabideei eta Finantza Bitartekarien Informazio Betebeharrei buruzko maiatzaren 25eko 13/1985 Legeko 8. artikuluko 3. idatz zatiko d) letran ezarritakoari lotuta babeseko erakunde sistema bati atxikitako enpresariek eta profesionalek.

Horren ondorioetarako, hauxe izango da erakunde nagusia: babeseko erakunde sistemaren negoziorako politika eta estrategiak, denek aintzat hartu beharrekoak, eta kontrol mailak eta neurriak eta arriskuak kudeatzeko neurriak ezartzen dituen erakunde zentrala.

Aldiz, mendeko erakundetzat hartuko dira babeseko erakunde sistemari atxikitako erakundeak, bai eta horiek zuzenean edo zeharka kapitalaren % 50etik gorako partaidetza dutenak ere.

Erakunde nagusiaren eta mendekoen egoitzak Zergaren aplikazio lurraldean egon behar dira.

Araubide berezia aplikatzeko, hautapena Espainiako Bankuak maiatzaren 25eko 13/1985 Legeko 8. artikuluko 3. idatz zatiko d) letran aipatzen den egiaztapena egin ondoko hiru hiletan egin behar da. Hala ere, Espainiako Bankuak eginda badauka egiaztapena xedapen iragankor hau indarrean jartzen denerako, araubide bereziaren aldeko hautapena hura indarrean jarri ondoko sei hiletan egin ahal izango da.

Araubidea hautatu ondoren, araubide bereziak hautapena Zerga Administrazioari jakinarazten zaion egunari dagokion Zergaren likidazioaldian sortuko ditu lehenengoz ondorioak.

Xedapen gehigarri honetan aipatzen diren erakunde taldeei ez zaizkie aplikatuko Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuko 163 quinquies artikuluan ezarritako betekizunak.

**Bosgarrena. (74) Arau aipamenak.**

Arau honetan “Elkartea” eta “Europako Elkartea” aipatzen direnean, testua “Batasunaz” ari dela pentsatu behar da; “Europako Elkarteak” eta “CEE” aipatzen direnean, testua “Europar Batasunaz” ari dela pentsatu behar da; “Elkarteaz” egiten diren aipamen guztiak “Batasunaz” egintzat jo behar dira.”

**Seigarrena. (75) Banku fundazioak erakunde taldeetan sartzea.**

Aurrezki kutxa eta banku fundazioen Legeak 43. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen dituen banku fundazioak arau honetako IX. tituluko IX. kapituluan arautzen diren erakunde talde bateko menpeko erakundetzat jo ahal izango dira, baldin eta enpresariak edo profesionalak badira eta Zergaren aplikazio lurraldean badaukate egoitza, bai eta banku fundazio horiek zuzenean zein zeharka kapitalaren ehuneko 50etik gorako partaidetza daukaten erakundeak ere.

Aurrezki kutxa eta banku fundazioen Legeak 43. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen duen kreditu erakundea izango da erakunde nagusia, hain zuzen ere taldearen jardueraren inguruko politikak eta estrategiak eta barruko kontrola eta kudeaketa modu loteslean ezartzen dituena.

**XEDAPEN IRAGANKORRAK**

**Lehenengoa.- Kanaria irletatik, Ceutatik eta Melillatik datozen bidaiariei buruzko frankiziak.**

Ekainaren 26ko 91/1911/CEE araudiaren 6. artikuluan aipatzen den epealdi iragankorrean, seiehun Ecuren pezetako kopuru baliokidearen frankizia-mugek Kanaria irletatik, Ceuta eta Melillatiko bidaiariek daramatzaten ondasunen inportazioetan iraun egingo dute eta bai, aipatu lurraldeetatiko hamabost urtetik beherako bidaiariei doakienez, ehun eta berrogeita hamar ecuren pezetako kopuru baliokidearen mugek ere.

**Bigarrena.- Nazioarteko itsas nabigazioan diharduten untziei buruzko salbuespenak.**

Salbuespen hauek aplika daitezen, arau honen 22. artikuluaren lehen atalaren hirugarren eta bigarren lerroaldean eta 27. artikuluaren 2. zenbakian ezarri diren epealdien barruan, manu horietan ere finkaturik dauden ibilbideak 1992.eko abenduaren 31rako buruturik dituzten untziak nazioarteko itsas nabigazioari lotutzat hartuko dira.

Egun horretan ibilbide horiek, adierazi diren epealdietan, burutzeke dituzten untziak nazioarteko itsas nabigazioari lotutzat hartuko dira, arau honen xedapenen arabera haiek burutu ostean.

**Hirugarrena.- Funtsean nazioarteko aire nabigazioan diharduten aireuntziei buruzko salbuespenak.**

Salbuespen hauek aplika daitezen, arau honen 22. artikuluaren lehen atalaren hirugarren eta bigarren lerroaldean, eta 27. artikuluaren 2. zenbakian ezarri diren epealdien barruan, manu horietan ere finkaturik dauden ibilbideak 1992.eko abenduaren 31rako buruturik dituzten aireuntziak nazioarteko aire nabigazioari lotutzat hartuko dira.

Egun horretan ibilbide horiek, adierazi diren epealdietan, burutzeke dituzten aireuntzien jabe diren konpainiak ez dira nazioarteko aire nabigazioari lotutzat hartuko, arau honen xedapenen arabera haiek burutu ostean.

**Laugarrena.- Jasanarazten diren zerga-kuota eta kenketen zuzenketak.**

Jasanarazten diren zerga-kuotak eta egiten diren kenketak zuzentzeko arau honek ezartzen dituen baldintzak Zerga indarrean jarri aurretik berau sorrarazi duten eragiketetan aplikatuko dira, baldin eta preskripzio epea igaro ez bada.

**Bostgarrena.- Autokontsumoetan erabiltzen diren eskuraketen kenketa.**

Arau honen 102. artikuluaren bigarren atalean aipatzen diren autokontsumoak xede dituzten ondasun edo zerbitzuen eskuraketengatik jasaten diren kuotak aipatu autokontsumoen sortzapena 1992.eko abenduaren 31tik aurrera gauzatzen denean baino ezin kendu ahal izango dira.

**Seigarrena.- Iharduera hasi aurretiko kenketak.**

Enpresa-iharduerak hasi aurretik jasaten diren kuotetan kenkariak egiteko prozedura arau honek ezartzen duenera moldatuko da, baldin eta iharduera hori arau hau indarrean jarri baino lehenago hasten bada.

(1) 111. artikuluaren lehenengo atalaren lehenengo lerroaldean ezarri den epealdia bukatzen denean, subjektu pasiboek atal beraren bigarren lerroaldean aipatu den luzapena eskatu beharko dute 1993.eko martxoaren 31 baino lehen.

**Zazpigarrena.- Iharduerari ekin aurretik burutzen diren kenkarien erregularizazioa.**

Enpresari- edo lanbide-iharduerei edo, hala denean, ihardueraren sektore ezberdindu bati ekin aurretik jasaten diren kuotetako kenkarien gaineko arau hau indarrean jartzen denean aribideko erregularizazioa 1992.eko abenduaren 31n indarrean dagoen arautegiaren arabera burutuko da.

Enpresari- edo lanbide-iharduerei edo, hala denean, ihardueraren sektore ezberdindu bati arau hau indarrean jarri ondoren ekiten zaionean, aldez aurretik egiten diren kenkarien erregularizazioa arau haren 112. eta 113. artikuluetan bildurik dauden arauen arabera gauzatuko da.

**Zortzigarrena.- Erregimen berezietako uko eta aukerak.**

Erregimen berezietan aurrikusirik dauden ukoak eta aukerak ondorerik gabe geratuko dira berauek babestu zituen arautegiaren arabera, baldin eta honako arau hau indarrean jarri aurretik egiten badira.

**Bederatzigarrena.- Salbuetsirik dauden aldeetako edo erregimen etengarrietako ondasunei aplika dakiekeen legeria.**

1992.eko abenduaren 31n, arau honen 23. eta 24. artikuluek, hurrenez hurren, aipatzen dituzten aldeetan edo erregimenen itzalpean dauden Elkarteko merkataritzako gaiak 1993.eko urtarrilaren 1a baino lehen indarrean zirauten xedapenen menpean geldituko dira, adierazitako egoeretan dirauten bitartean.

**Hamargarrena.- Inportazioei berdinesten zaizkien eragiketak.**

Inportazioei berdinesten zaizkien eragiketatzat, arau honen 23. eta 24. artikuluek, hurrenez hurren, aipatzen dituzten aldeetatik irtetea zein erregimenak bertan behera uztea hartuko dira, baldin eta beroriek 1992.eko abenduaren 31 eta gero gertatzen badira, eta egoera horietan 1993.eko urtarrilaren 1a baino lehen zirauten merkataritzako gaiei badagozkie.

Hala ere, ondoko kasu hauetan ez da ondasun inportaziorik izango:

1. Ondasunak Elkartetik kanpo luzatzen direnean, edo luzatu ondoren handik kanpora garraiatzen direnean.

2. Garraiobideak ez beste ondasun batzuk direnean, zeinek aurretiaz aldi baterako inportazioko erregimenean iraun eta egoera hori bertan behera utzi baitzuten luzatuak izateko edo ondoren jatorrizko estatu kidera garraiatuak izateko.

3. Aurretiaz aldi baterako inportazioko erregimenean zeuden garraiobideak direnean, baldin'eta ondorengo bi inguruabarrotarik edozein betetzen bada.

a) Lehenengoz 1985.eko urtarrilaren 1a baino lehen erabiliak direnean.

b) Inportazioarengatik sortua den zerga hogeita bost mila pezeta baino gutxiagokoa denean.

**Hamaikagarrena.- (67) Ondasun erabilien, arte objektuen, antzinateko objektuen eta bilduma objektuen araubide berezia.**

Ondasun erabiliak edo arau honetako 136.Bat.5 artikuluan aipatzen diren ondasun higigarriak birsaltzen dituzten subjektu pasiboek ondasun erabilien, arte objektuen, antzinako gauzen eta bilduma objektuen araubide berezia aplikatu ahal izango dute ondasun horien emateetan, baldin eta arau honetako 136. artikuluan aipatzen direnak ez beste enpresaburu edo profesional birsaltzaile batzuei erosi badizkiete eta eskuraketari zera tasa txikitua aplikatu bazaio.

**Hamabigarrena.- Zenbait garraiobideren emanaldien sortzapena.**

Balio Erantsiaren gaineko Zerga 1992.eko abenduaren 31n sortuko da zenbait garraiobide ematen direnean, zeinen lehenengo matrikulazioa 1993.eko urtarrilaren 1a baino lehen egin eta egun horretaz gero Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Bereziaren menpean egon den, baldin eta emanaldi horiek 1993.eko urtarrilaren 1a eta gero eskura jartzen badira.

**Hamahirugarrena.- (64) Etxebizitza emateetan aplikatzekoa den Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa.**

2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta 2012ko abenduaren 31 arte soilik, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa murriztua, ehuneko 4koa, aplikatuko da ondasun emateetan, hain zuzen ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuko 91. artikuluko Bat.1 idatz zatiko 7. zenbakian aipatutakoetan.

**Hamalaugarrena. (76) (80) (82) (85) (89) (92) (95) Araubide erraztua eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako arau-**
**bide berezia aplikatzeko mugak 2016tik 2024ra arteko ekitaldietan.**

2016ko, 2017ko, 2018ko, 2019ko, 2020ko, 2021eko, 2022ko, 2023ko eta 2024ko ekitaldietarako, arau honetako 122. artikuluaren Bi apartatuaren 2. eta 3. zenbakietako lehenengo gidoian eta 124. artikuluaren Bi apartatuaren 6. zenbakian ezartzen den magnitudea, 150.000 euro, hemendik aurrera 250.000 euro izango da.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEAK**

**Lehenengoa.- Indargabeturik dauden xedapenak.**

Arau hau indarrean jartzen denean, ondoren adieraziko ditugun xedapenak indargabeturik geratuko dira, egun hori baino lehen sortzen diren tributu-zorrak eskatzeko Administrazioak duen eskubidearen kalterik gabe, bai eta hauen arabera hark eska ditzakeen eskubideak aintzatesteko eskubidearen kalterik gabe ere:

1. Azaroaren 29ko 26/1985 Foru Araua, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoa.

2. Abenduaren 15eko 1.548/1987 Foru Dekretu Arau-emailea, azaroaren 11ko 22/1987 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz, Balio Erantsiaren gaineko Zerga lege horrekin zerikusirik duten zenbait zerbitzu salbuetsirik daudela adierazten duena.

**Bigarrena.- Indarrean dirauten xedapenak.**

Indarrean diraute ondorengo arauek:

1. Indar Armatuen Inbertsio eta Euspenerako Aurrekontuetako Zuzkidurei buruzko maiatzaren 14eko 6/1987 Legean, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruz, dauden xedapenak.

2. Azaroaren 29ko 26/1985 Foru Arauak sortu zuen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arau bidezko arauak, baldin eta honako arau honen manuen edo berau garatzen duten arauen aurka ez badaude.

## AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.- Aurrekontuen Foru Arauak egiten dituen aldarazpenak.**

Aurrekontuei buruzko Foru Araua erabiliz Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arauei honako aldarazpen hauek egin ahal izango zaizkio:

1. Zergaren eta baliokidetasun-errekarguaren tasen zehaztapena.

2. Arauetan ezartzen diren portzentaia finkoak eta zenbatezko mugak.

3. Zergaren salbuespenak.

4. Arau honek araupetzen dituen prozedurako eta eraentzako aspektuak.

5. Europako Ekonomi Elkartean onetsi diren armonizazio fiskaleko arauek eskatzen dituzten gainontzeko moldaketak.

**Bigarrena.- Noiz jarriko den arau hau indarrean.**

Honako arau hau 1993.eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

**Hirugarrena.-**

Honako foru dekretu arau-emaile honen berri emango zaie Arabako Batzar Nagusiei, bidezko bada, berronets dezan.

## ERANSKINA

Arau honetan xedaturik dagoenak ondoreak izan ditzan:

**Lehenengoa.-** Untzitzat Aduana Arantzeleko 89.01, 89.02, 89.03, 89.04 eta 89.06.10 partidetan bildurik daudenak hartuko dira.

**Bigarrena.-** Aireuntzitzat Aduana Arantzeleko 88.02 partidan bildurik dauden aerodinoak hartuko dira, baldin eta propultsio-makina batez funtzionatzen badute.

**Hirugarrena.-** Hornidura-gaitzat untzi barruko hornigaiak, erregaiak, labangaiak eta erabilera teknikorako gainontzeko olioak eta untzi barruko ekoizkin osagarriak hartuko dira.

Eta:

a) Untzi barruko hornigaitzat tripulazioaren eta pasaiarien kontsumorako soilik diren ekoizkinak joko dira.

b) Erregai, labangai eta erabilera teknikorako gainontzeko oliotzat, propultsio-makinek erretzen dituzten gaiak edo untzi barruko gainontzeko makina eta tresnen funtzionamendurakoak joko dira.

c) Untzi barruko ekoizkin osagarritzat, erabilerarako kontsumorakoak direnak, garraiatzen diren animalien elikadurarakoak eta untzi barruan garraiatzen diren merkataritzako gaiak artatu, tratatu eta gertatzeko erabiltzen diren kontsumigarriak joko dira.

**Laugarrena.-** Erregaien biltzontzi arruntzat:

Untzi barruko makina, tresna eta propultsio-organoei zuzenean lotuta daudenak hartuko dira.

**Bosgarrena.-** (74) Aduanakoez bestelako gordailu araubidea:
Araubidearen definizioa:

a) Zerga berezien kargapeko ondasunei dagokienez, ondoko kasuetan aplikatu beharreko etendura araubidea aduanakoez bestelako gordailu araubidea izango da: fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapeko ondasunak lantegietan edo gordetegi fiskaletan fabrikatu, eraldatu edo edukitzen direnean, produktuok establezimendu horien artean garraiatzen direnean eta lantegi edo gordetegi fiskal batera eramateko inportatzen direnean.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena Batasunaren lurraldean dagoen sare baten bidez edo halako sare batekin konektatutako sare baten bidez ematen den gas naturalari ere aplikatuko zaio.

b) Gainerako ondasunei dagokienez, jatorriaren ondorioz aduanaren gordailu araubidetik kanpo utzitako ondasunei aplikatu beharreko etendura araubidea aduanakoez bestelako gordailu araubidea izango da. Gainerakoan aduanaren gordailu araubideko arauak aplikatuko dira.

Finantzazkoak ez diren aktiboetan oinarritutako gerokoen eta aukeren merkatu ofizialetan negoziatzen diren ondasunak ere araubide honetan sartuko dira ondasunok eskuratzailearen esku jartzen ez diren bitartean.

b) letran aipatutako aduanakoez bestelako gordailu araubidea ez zaie aplikatuko enpresaburu edo profesional gisa ari ez diren pertsonei emateko diren ondasunei, zergarik gabeko dendetarako direnak ez beste guztiei.

(87) Manu honetan aipatzen diren gordailuen titularrak erantzule subsidiarioak izango dira gordailu horietatik ondasunak ateratzeari edo bertan behera uzteari dagokion zerga zorra ordaintzeko, zergaren eremu espazialean kokatuta ez dauden enpresaburuen edo profesionalen ordezkari fiskal gisa jardun dezaketen alde batera utzita.

Hala ere, alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zergaren eta hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartzen diren produktuen gordailu fiskalen titularrak erantzule subsidiarioak izango dira, betiere aduanakoa ez den gordailu araubidetik ondasunak ateratzeagatik edo bertan behera uzteagatik sortutako ondasunen inportazioekin parekatutako eragiketen subjektu pasiboek produktu horien entregei dagokien zerga zorra ordaintzeko. Erantzukizun subsidiario hori soil-soilik eskatu ahal izango da erauzlea edo hark baimendutako pertsona erregelamendu bidez ezartzen den erauzle erregistroan sartuta ez dagoenean, eta haren zenbatekoak ezin izango du gainditu foru arau honen 19.5 artikulua aplikatzearen ondorioz sortutako kuoten zenbatekoa, aduanakoak ez diren gordailu erregimeneko ondasunak ateratzeagatik edo bertan behera uzteagatik.

Foru Arau honen ondorioetarako, alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zergaren eta aduanakoak ez diren hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetako produktuak ateratzean edo uztean sortutako ondasun inportazioekin parekatutako eragiketen subjektu pasiboak diren pertsonak edo erakundeak dira erauzleak, bai eta ondasunak etete erregimenean beste gordailu fiskal batera bidaltzeko baimena dutenak eta eragiketa horiek egiteko baimendutakoak ere.

Erauzten duten pertsonak edo erakundeak erauzle erregistroan inskribatuta egon beharko dira. Gordailu fiskalen titularrek egiaztatu beharko dute gordailu horiek barne hartzen dituzten eragiketak egiten dituzten pertsonak edo erakundeak alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zergaren edo hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboen barruko produktuen gordailu fiskalen erauzleen erregistroan sartuta daudela

**Seigarrena.-** (18) (92) Zergaren likidazioa, arau honetako 19. artikuluko 5. zenbakiko bigarren paragrafoan jasotako kasuetan:

Zergaren likidazioa, arau honetako 19. artikuluko 5. zenbakiko bigarren paragrafoan jasotako kasuetan, arau hauei lotuko zaie:

1. 23. eta 24. artikuluetan jasotako egoerak amaitzen direnean edo araubideak azkentzen direnean, aldez aurretik salbuespenaren onuradun izan diren eragiketei dagokien zerga likidatzeko betebeharra sortuko da, aipatutako egoeretan jartzeagatik edo araubideekiko loturagatik, honako arauen hauen arabera:

a) Ondasunak aurretiazko emate salbuetsi baten edo batzuen xede izan badira, ordaindu beharreko zerga egindako azken emate salbuetsiari zegokiona izango da.

b) Baldin eta ondasunak Europar Batasunaren barruko eskuratzesalbuetsi baten xede izan badira aipatutako egoera edo araubideei lotuta egoteagatik, eta ondoren salbuetsitako entrega baten xede izan ez badira, ordaindu beharreko zerga eragiketa horri zegokiona izango da, salbuespenaren onuradun izan ez balitz.

c) Ondasunak eragiketa salbuetsien xede izan badira aurreko a) edo b) letretan adierazitako eragiketen ondoren, edo azken eragiketa horiek egin ez badira, ordaindu beharreko zerga izango da, hala badagokio, letra horietan xedatutakoaren ondoriozkoa, geroagoko eragiketa salbuetsi horiei zegokiena gehituta.

d) Ondasunak inportazio salbuetsi baten xede izan badira aduanakoez bestelako gordailu araubideari lotu zaizkielako, eta inportazio horren ondoren egindako eragiketa salbuetsien xede izan badira, ordaindu beharreko zerga izango da aipatutako inportazioari legokiokeena, salbuespenaren onuradun izan ez balitz, aipatutako eragiketa salbuetsiei dagokiena erantsita.

2. Egoerak amaitzeari edo aipatutako araubideak azkentzeari dagozkion kuotak likidatu eta ordaintzeko betebeharra duen pertsona une horretan ondasunen jabe dena izango da, eta subjektu pasiboaren izaera izango du, eta arau honen 167. artikuluaren Bat apartatuan aipatutako eragiketei buruzko aitorpen-likidazioa aurkeztu beharko du.

Adierazitako kuotak ordaindu behar dituenak arau honetan 84. artikuluaren Bat apartatuko 2. zenbakian jasoriko kasuetarako xedatutakoarekin bat etorriz kendu ahal izango ditu.

Zergaren aplikazio lurraldean finkatu gabeko enpresaburuek edo profesionalek, zergaren subjektu pasiboak badira, zenbaki honetan xedatutakoarekin bat etorriz, arrazoi horrengatik likidatutako kuotak kendu ahal izango dituzte, lurralde horretan ezarritako baldintza eta modu berberetan.

3. Manu honetan aipatutako gordailuen titularrak kasuan kasuko zerga zorra ordaintzearen erantzule solidarioak izango dira, Sei apartatu honen aurreko zenbakietan xedatutakoaren arabera, nahiz eta zergaren espazio eremuan finkatuta ez dauden enpresaburuen edo profesionalen zerga ordezkari gisa jardun dezaketen.

**Zazpigarrena.-** (40) (92) Burdinaren edo altzairuaren galdaketaren, txatarraren edo burdinazko edo altzairuzko txatarraren lingoteen hondakinak edo zaborrak, metal ez-ferrikoen edo haien aleazioen hondakinak edo zaborrak, zepak, errautsak eta metalak edo haien aleazioak dauzkaten industriako hondakinak.

Burdinaren edo altzairuaren galdaketaren, txatarraren edo burdinazko edo altzairuzko txatarraren lingoteen hondakinak edo zaborrak, metal ez-ferrikoen edo haien aleazioen hondakinak edo zaborrak, zepak, errautsak eta metalak edo haien aleazioak dauzkaten industriako hondakinak izango dira aduana zergako honako partida hauetan daudenak:

| NCE kodea | Salgaiaren izendapena |
|---|---|
| 7204 | Burdinaren edo altzairuaren galdaketaren hondakinak eta zaborrak (txatarra eta lingoteak). |

Hauek dira metal ferrikoen hondakinak eta zaborrak:

a) Burdinaren edo altzairuaren galdaketa fabrikatzean edo mekanizatzean sortutako hondakinak, hala nola torneadurak, karraka hautsak eta lingoteen, totxoen, barren edo profilen punta kenduak.

b) Hausturengatik, ebakidurengatik, higadurengatik edo beste arrazoi batzuengatik behin betiko erabiltezinak diren burdinaren edo altzairuaren galdaketako manufakturak, bai eta haien hondakinak ere, zati edo pieza batzuk berrerabilgarriak badira ere.

Ez dira sartzen jatorrizko erabilerarako erabil daitezkeen produktuak, berdin edo konpondu ondoren.

Txatarraren lingoteak, oro har, oso aleatuta dauden burdina edo altzairuzkoak dira, lazki iragaziak, hondakin eta zabor fin birgaldatuetatik lortuak (harriztatze hautsak edo torneadura finak), eta azalera zimurtsua eta irregularra dute.

| NCE kodea | Salgaiaren izendapena |
|---|---|
| 7402 | Findu gabeko kobrea; fintzeko kobrezko anodoak. |
| 7403 | Kobre findua, katodo forman eta katodo sekzioetan. |
| 7404 | Kobrearen hondakinak eta zaborrak. |
| 7407 | Kobrezko barrak eta profilak. |
| 7408.11.00 | Kobre finduzko alanbrea, non zeharkako sekzioaren dimentsiorik handiena > 6 mm-koa baita. |
| 7408.19.10 | Kobre finduzko alanbrea, non zeharkako sekzioaren dimentsiorik handiena > 0,5 mm-koa baita, baina < = 6 mm-koa. |
| 7502 | Nikela. |
| 7503 | Nikelaren hondakinak eta zaborrak. |
| 7601 | Aluminio landugabea |
| 7602 | Alumnioaren hondakinak eta zaborrak. |
| 7605.11 | Aleatu gabeko aluminiozko alanbrea. |
| 7605.21 | Aluminiozko alanbre aleatua. |
| 7801 | Beruna. |
| 7802 | Berunaren hondakinak eta zaborrak. |
| 7901 | Zinka. |

| | |
|---|---|
| 7902 | Zinkaren hondakinak eta zaborrak (kalamina). |
| 8001 | Eztainua. |
| 8002 | Eztainuaren hondakinak eta zaborrak. |
| 2618 | Siderurgiako zepa pikortatuak (zepa harea). |
| 2619 | Siderurgiako zepak (salbu eta pikortatuak), batidurak eta gainerako hondakinak. |
| 2620 | Metala edo metal konposatuak dituzten errautsak eta hondakinak(salbu eta siderurgia). |
| 3915 | Plastikozko zaborrak, hondakinak eta ebakinak. |
| 47.07 | Paperaren edo kartoiaren hondakinak edo zaborrak. Paper edo kartoi hondakinak: karrakadurak, ebakinak, hautsitako orriak, egunkari zaharrak eta argitalpenak, inprimaketako hondakin orriak eta probak eta antzeko gaiak. Definizio horretan sartzen dira, halaber, birziklatzeko saldu diren paperezko edo kartoizko manufaktura zaharrak. |
| 6310 | Oihalezko zapi, kordel, soka edo sokateria hondakinak edo gai erabiltezinak. |
| 70.01 | Beirazko hondakinak edo zaborrak. Beirazko hondakin eta zaborren artean beirazko objektuen fabrikazioaren hondakinak sartzen dira, bai eta erabili edo kontsumitzeagatik sortutakoak ere. Oro har, ertz zorrotzak izaten dituzte. |
| | Berreskuratutako berunezko bateriak. |

**Zortzigarrena.-** (74) Arau honetako 91.Bat.1.6.c) artikuluan aipatzen diren ondasunen zerrenda.

– Betaurrekoak, betaurreko graduatuetarako eustoinak, ukipen lente graduatuak eta horiek erabiltzeko, kontserbatzeko eta mantentzeko behar diren produktuak.

– Ziztatzeko gailuak, glukosa maila automatikoki irakurtzeko gailuak, intsulina jartzeko gailuak eta diabetesa norberak kontrolatzeko eta tratatzeko gainerako aparatuak.

– Gorputz zetonikoak eta odol koagulazioa norberak kontrolatzeko gailuak eta desgaitasuna dakarten beste gaixotasun batzuk norberak kontrolatzekoak, adibidez, morfina eta botika onkologikoak emateko sistemak.

– Gernua biltzeko poltsak, inkontinentzia xurgagailuak eta gernu inkontinentzia eta inkontinentzia fekalerako beste sistema batzuk, irrigazio sistemak barne.

– Protesiak, ortesiak, ortoprotesiak eta inplante kirurgikoak, batez ere irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuak, Estatuko Osasun Sistema osorako zerbitzu erkideen zorroa eta zerbitzuok eguneratzeko prozedura ezartzen dituenak, aipatzen dituenak, beraien osagaiak eta osagarriak barne.

– Trakeotomiak eta laringektomiak egiteko kanulak.

– Aulki terapeutikoak, gurpil aulkiak eta haietan erabiltzeko eskaren aurkako kuxinak eta arnesak, makuluak, eskorgak eta desgaitasuna duten pertsonak mugitzeko garabiak.

– Igotze plataformak, gurpil aulkietarako igogailuak, aulkiak eskaileretara egokitzeko gailuak, arrapala eramangarriak eta nor bere kabuz altxatzeko barra autosostengatzaileak.

– Barne lesioak edo malformazioak murrizteko aparailuak eta tresnak, adibidez, barrabil babesak eta barizeak konprimitzeko jantziak.

– Dialisia etxean egiteko aparatuak eta arnasketa tratamendurako aparatuak.

– Akats edo desgaitasun bat konpentsatzeko mediku ekipamenduak, aparatuak eta gainerako tresnak, ikusmen eta entzumen urritasuna duten pertsonek bakarrik erabiltzeko diseinatuak.

– Desgaitasun fisikoa, mentala, intelektuala edo sentsoriala duten pertsonek bakarrik erabiltzeko diseinatutako laguntza produktu hauek:

• Janzten eta eranzten laguntzeko produktuak: oinetakoak janztekoak eta eranztekoak, lurrera iritsi ahal izateko kirtena dutenak, arropa leku batean eskegitzeko pertxak, kakoak eta hagatxoak.

• Komunean laguntzeko produktuak: komunontzirako goratzekoak, beso euskarriak eta bizkarrak.

• Nork bere burua garbitzen, bainatzen eta dutxatzen laguntzeko produktuak: kirten bereziak dituzten eskuilak eta esponjak, bainu edo dutxarako aulkiak, bainuontzi oholak, aulkiak, bainuontziaren luzera edo sakonera murrizteko laguntza-produktuak eta heldulekuak.

• Informazio eta komunikazio teknologia berriak erabiltzen laguntzeko produktuak: mugimendu zefaliko edo okular bidezko saguak, kontraste handiko teklatuak, betikara bidezko sakagailuak, mugitzeko desgaitasun larria duten pertsonek gailua ahots bidez erabiltzeko eta idatzi ahal izateko softwarea.

• Mugitzeko desgaitasuna duten pertsonei objektuei heltzen eta eragiten laguntzeko produktuak eta gailuak: heltzeko pintza luzeak eta heltzea egokitzeko gailuak.

• Estimulagailu funtzionalak.

**Bederatzigarrena.-** (28) Inbertsiorako urre gisa hartzeko, urrezko lingote edo orrien pisua.

Arau honen ondorioetarako, inbertsiorako urretzat hartuko dira 995 milaren edo gehiago duten lege-urrezko lingote edo orriak, bere pisua, lingote merkatuek onartzen duten eran, hurrengoan aipatzen diren pisuetako batekin bat badatoz:

| | |
|---|---|
| 12,5 | kilogramo |
| 1 | kilogramo |
| 500 | gramo |
| 250 | gramo |
| 100 | gramo |
| 50 | gramo |
| 20 | gramo |
| 10 | gramo |
| 5 | gramo |
| 2,5 | gramo |
| 2 | gramo |
| 100 | ontza |
| 10 | ontza |
| 5 | ontza |
| 1 | ontza |
| 0,5 | ontza |
| 0,25 | ontza |
| 10 | tael |
| 5 | tael |
| 1 | tael |
| 10 | tola |

**Hamargarrena.-** (74) Zilar, platino eta paladio emateak, eta sakelako telefono, bideo jokoen kontsola, ordenagailu eramangarri eta tableta digitalen emateak.

| NCE kodea | Merkantziaren izena |
|---|---|
| 7106 10 00 | Zilar hautsa. |
| 7106 91 00 | Zilar gordina. |
| 7106 92 00 | Zilar erdilandua. |
| 7110 11 00 | Platinoa, gordinean zein hautsa. |
| 711019 | Platinoa: gainerakoak. |
| 7110 21 00 | Paladioa, gordinean zein hautsa. |

| | |
|---|---|
| 7110 29 00 | Paladioa: gainerakoak. |
| 8517 12 | Sakelako telefonoak eta hari gabeko beste sare batzuetakoak.<br>Sakelako telefonoei dagokienez bakarrik. |
| 9504 50 | Bideo jokoen kontsolak eta bideo jokoen makinak, 950430 azpipartidakoak izan ezik. Bideo jokoen kontsolei dagokienez bakarrik. |
| 8471 30 | Datuak tratatzeko edo prozesatzeko makina automatiko eramangarriak, 10 kilogramotik beherakoak, gutxienez prozesatzeko unitate zentral bat, teklatu bat eta pantaila bat dituztenak.<br>Ordenagailu eramangarriei eta tableta digitalei dagokienez bakarrik. |

**OHARRAK**

(1) 1/1993 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 23koa.
(ALHAO, 35. zk., 93-3-29koa).

(2) 5/1993 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 30ekoa.
(ALHAO, 87. zk., 93-8-4koa).

(3) Ikusi 24/2004 Foru Dekretua, martxoaren 23koa – Eranskina.
(ALHAO, 45. zk., 04-4-21ekoa).

(4) 1/1994 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 8koa.
(ALHAO, 19. zk., 94-2-94koa).

(5) 2/1994 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 15ekoa.
(ALHAO, 23. zk., 94-2-23koa).

(6) 8/1994 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 29koa.
(ALHAO, 92. zk., 94-8-17koa).

(7) 1/1995 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 7koa.
(ALHAO, 32. zk., 95-3-17koa).

(8) 16/1995 Foru Araua, martxoaren 30ekoa.
(ALHAO, 51. zk., 95-5-3koa).

(9) 2/1996 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 30ekoa.

(ALHAO, 19. zk., 96-2-14koa).

(10) Ikusi 24/1996 Foru Araua, uztailaren 5ekoa.
(ALHAO, 90. zk., 96-8-9koa).

(11) 2/1997 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 21ekoa.
(ALHAO, 14. zk., 97-2-5ekoa).

(12) 4/1997 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, apirilaren 8koa.
(ALHAO, 47. zk., 97-4-30ekoa).

(13) 10/1997 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 16koa.
(ALHAO, 113. zk., 97-10-3koa).

Xedapen gehigarri bakarra ekainaren 9ko 3/1998 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak indargabetu zuen. (ALHAO, 72. zk., 98-6-26koa).

(14)

(15) 1/1998 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 27koa.
(ALHAO, 20. zk., 98-2-16koa).

Bosgarren xedapen iragankorra urtarrilaren 25eko 1/2000 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak indargabetu zuen. (ALHAO, 15. zk., 00-2-4koa).

(16) Ikusi 18/1998 Foru Dekretua, martxoaren 17koa.
(ALHAO, 37. zk., 98-3-27koa).

(17)

(18) 3/1998 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, ekainaren 9koa.
(ALHAO, 72. zk., 98-6-26koa).

Urtarrilaren 28ko 1/2003 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko xedapen gehigarriak aldatu zuen. (ALHAO, 17. zk., 03-2-12koa).

(19) Ikusi 88/1998 Foru Dekretua, urriaren 27koa.
(ALHAO, 124. zk., 98-10-30ekoa).

(20) 2/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 9koa.
(ALHAO, 34. zk., 99-3-26koa).

(21) Ikusi martxoaren 9ko 2/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko xedapen iragankorrak.
(ALHAO, 34. zk., 99-3-26koa).

(22)

(23) Ikusi 63/1999 Foru Dekretua, maiatzaren 11koa.

(ALHAO, 58. zk., 99-5-24koa).

(24) 3/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 21ekoa.
(ALHAO, 124. zk., 99-10-20koa).

(25) Ikusi irailaren 21eko 3/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko 2. artikulua.
(ALHAO, 124. zk., 99-10-20koa).

(26) 4/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 21ekoa.
(ALHAO, 124. zk., 99-10-20koa).

(27)

(28) 1/2000 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 25ekoa.
(ALHAO, 15. zk., 00-2-4koa).

(29) Ikusi urtarrilaren 25eko 1/2000 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko xedapen iragankorrak.
(ALHAO, 15. zk., 00-2-4koa).

(30)

(31)

(32)

(33) 1/2001 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 12koa.
(ALHAO, 23. zk., 01-2-23koa).

(34)

(35) 1/2002 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 29koa.
(ALHAO, 17. zk., 02-2-8koa).

(36) 2/2002 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, apirilaren 9koa.
(ALHAO, 46. zk., 02-4-22koa).

(37) 4/2002 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 3koa.
(ALHAO, 146. zk., 02-12-27koa).

(38) 1/2003 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 28koa.
(ALHAO, 17. zk., 03-2-12koa).

(39) Ikusi urtarrilaren 28ko 1/2003 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko lehenengo xedapen iragankorra.
(ALHAO, 17. zk., 03-2-12koa).

(40) 1/2004 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 17koa.
(ALHAO, 32. zk., 04-3-15ekoa).

(41) 6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa.
(ALHAO, 30. zk., 05-3-11koa, gehigarria).

(42) 1/2006 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 31koa.
(ALHAO, 19. zk., 06-2-15ekoa, eta 22. zk., 06-2-22koa).

(43) 3/2006 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, apirilaren 25ekoa.
(ALHAO, 51. zk., 06-5-10ekoa).

(44) 4/2006 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, maiatzaren 9koa.
(ALHAO, 57. zk., 06-5-24koa).

(45) 5/2006 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, maiatzaren 23koa.
(ALHAO, 60. zk., 06-5-31koa).

(46) 6/2006 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urriaren 31koa.
(ALHAO, 129. zk., 06-11-10ekoa).

(47) 1/2007 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 20koa.
(ALHAO, 30. zk., 07-3-12koa).

(48) 3/2007 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 28koa.
(ALHAO, 6. zk., 08-1-14koa).

(49) 4/2007 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 28koa.
(ALHAO, 10. zk., 08-1-23koa).

(50) 1/2008 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 5ekoa.
(ALHAO, 20. zk., 08-2-15ekoa).

(51) 2/2008 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, maiatzaren 20koa.
(ALHAO, 62. zk., 08-6-2koa).

(52) Ikusi maiatzaren 20ko 2/2008 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko xedapen iragankor bakarra.
(ALHAO, 62. zk., 08-6-2koa).

(53) 1/2009 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 20koa.
(ALHAO, 13. zk., 09-1-30ekoa).

(54)

(55) 1/2010 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 26koa.
(ALHAO, 13. zk., 10-2-3koa).

(56) 2/2010 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 23koa.
(ALHAO, 37. zk., 10-4-7koa).

(57) Ikusi martxoaren 23ko 2/2010 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuko laugarren xedapen iragankorra.
(ALHAO, 37. zk., 10-4-7koa).

(58) 3/2010 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, apirilaren 27koa.
(ALHAO, 49. zk., 10-5-7koa).

(59) 4/2010 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 21ekoa.
(ALHAO, 114. zk., 10-10-6koa).

(60) 2/2010 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 23koa. (Lehenengo xedapen iragankorra).
(ALHAO, 37. zk., 10-4-7koa).

(61) 2/2010 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 23koa. (Bigarren xedapen iragankorra).
(ALHAO, 37. zk., 10-4-7koa).

(62) 1/2011 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 8koa.
(ALHAO, 21. zk., 11-2-18koa)

(63) 2/2011 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 20koa.
(ALHAO, 114. zk., 11-9-28koa).

(64) 2/2012 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 21ekoa.
(ALHAO, 25. zk., 12-2-29koa).

(65) Ikusi 2/2012 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 21ekoa: 2. artikuluko laugarren idatz zatia.
(ALHAO, 25. zk., 12-2-29koa).

(66) 4/2012 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, maiatzaren 22koa.
(ALHAO, 62. zk., 12-5-30ekoa).

(67) Estatuko legeriak aldatu du (20/2012 Errege Lege Dekretua, uztailaren 13koa; BOE, 168. zk., 12-7-14koa), Ekonomia Itunak ezartzen duen bezala.

(68) 10/2012 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, azaroaren 20koa.
(ALHAO, 137. zk., 12-11-28koa).

(69) 2/2010 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 23koa. (Hirugarren xedapen iragankorra).
(ALHAO, 37. zk., 10-4-7koa).

(70) 1/2013 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 19koa.
(ALHAO, 41. zk., 13-4-10ekoa).

(71) 5/2013 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 3koa.
(ALHAO, 142. zk., 13-12-11koa).

(72) Estatuko legeriak moldatu du (1/2014 Errege Lege Dekretua, urtarrilaren 24koa; BOE, 22. zk., 14-1-25ekoa), Ekonomia Itunak ezartzen duen bezala.

(73) 1/2014 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 4koa.
(ALHAO, 20. zk., 14-2-19koa).

(74) 1/2015 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 10ekoa.
(ALHAO, 36. zk., 15-3-25ekoa).

(75) 22/2015 Foru Araua, abenduaren 29koa.
(ALHAO, 152. zk., 15-12-30ekoa).

(76) 1/2016 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 4koa.
(ALHAO, 17. zk., 16-02-12koa).

(77) 5/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abuztuaren 3koa.
(ALHAO, 96. zk., 17-08-23koa).

(78) 3/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urriaren 23koa.
(ALHAO, 125. Zk., 18-10-31koa).

(79) 2/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 11koa.
(ALHAO, 108. Zk., 18-09-19koa).

(80) 1/2019 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 30ekoa.
(ALHAO, 92. Zk., 19-08-12koa).

(81) 22/2019 Foru Araua, abenduaren 13koa.
(ALHAO, 149. Zk., 19-12-30ekoa).

(82) 1/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urtarrilaren 28koa.
(ALHAO, 14. Zk., 20-02-05ekoa).

(83) 3/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 24koa.
(ALHAO, 38. Zk., 20-04-01ekoa).

(84) 5/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, maiatzaren 12koa
(ALHAO, 53. Zk., 20-05-13ekoa).

(85) 2/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 2koa.
(ALHAO, 28. zk., 21-3-10ekoa).

(86) 4/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, ekainaren 8koa.
(ALHAO, 66. zk., 21-6-16koa).

(87) 7/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, azaroaren 2koa.
(ALHAO, 128. zk., 21-11-10ekoa).

(88) 9/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 28koa.
(ALHAO, 146. zk., 21-12-29koa).

(89) 1/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 1ekoa.
(ALHAO, 17. zk., 21-02-9koa).

(90) 8/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, ekainaren 14koa.
(ALHAO, 73. zk., 22-06-22koa).

(91) 1/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 7koa.
(ALHAO, 19. zk., 23-02-15ekoa).

(92) 2/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 14koa.
(ALHAO, 22. zk., 23-02-22ekoa).

(93) 4/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abuztuaren1ekoa.
(ALHAO, 92. zk., 23-08-7koa).

(94) 3/2023 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abuztuaren1ekoa.
(ALHAO, 92. zk., 23-08-7koa).

(95) 1/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 20koa.
(ALHAO, 25. zk., 24-02-28koa).

(96) 2/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urriaren 15ekoa.
(ALHAO, 121. zk., 24-10-23koa).